JON ALONSO

Katebegi galdua

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1995 Jon Alonso
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1995eko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

I kapitulua:
Soli Deo Gloria

–1–

Juandeaburre Fundazioan gertatu zen lapurreta ez zen izan misteriozaleen edo egunerokoarekin asperturik daudenen gertaera ez-ohikoen egarria asebetetzen duen horietakoa. Lapurreta izan ote zen ere dudan jartzen ahal zen, lapurrek, hortik zehar zabaldu zenaren arabera, balio handirik gabeko paper gutxi batzuk baizik ez baitzituzten eraman. Hortaz, hainbaten iritziz, kode penala eskutan harturik, han gertatukoa lapurretatzat ez eta egoitzaren bortxaketatzat hartzea bidezkoagoa zen. Gauzak nola gertatu ziren kontuan hartzera, inork ez zuen ukatuko gertaera bitxi samarra izan zela, baina, era berean, arina, larritasun txikikoa; lapurrak, edo egoitza bortxatzaileak, nola sartzen ahal izan ziren zen harrigarria, Juandeaburre Fundazioaren ondasun preziatuak jende armatuak ongi gorderik zeukan Argaraiko jauretxe batean baitzeuden. Ondasun horiek –harribitxiak, antzinako gaiak, pieza arkeologikoak, margoak, inkunableak eta beste hainbat liburu-argitalpen bitxi gehienbat– iristen hasi zi-

relarik Pantaleon Juandeaburre jaunaren beraren egoitza izandako jauretxera, denen agerikoa gertatu zen zaindari armatuen bertaratze lardeariatsua, besteren ondasunak ebastea maite dutenak urruntzeko nahikoa behar zena. Hori gutxi izatekotan, kanpoko burdinazko hesiak, eta ateleiho sendoek argudio garrantzizkoak behar zituzten izan edonori han baimenik gabe sartzeko ideia burutik kentzeko. Horregatik, iritzi nahikoa zabaldu baten arabera, lapurrek ez bazuten ia ezer eraman horretarako astirik izan ez zutelako izan zen; halabeharrez egokituko ziren han zaindarien arteko txanda aldatzea gertatzen ari zen unean, ohi baino pixka bat gehixeago luzatu zen egoera hori profitatu omen zuten, ate zirrikitu bat irekirik ikusi eta bertatik labaintzen diren katu itzaltsuen gisara sartu, eta azkar mugitu ezean laster harrapatuko zituztelakoan, etorri zirrikitu berberetik atera omen ziren, arineketan, tranpa itxi baino lehen. Izan ere, gisa horretan jauretxean sartzea oso litekeena zen, kanpoaldeko zaindari uniformedunek, erregelamenduak ezarritakoari muzin eginez, behin baino gehiagotan aprobetxatzen baitzuten txanda aldaketa

hurbileko tabernatxo baten barruan zerbait edan eta zigarroa erretzeko. Inork ez zuen azalpenik, ordea, lapurrek barrualdean zeuden beste zaindari batzuk, hauek uniformerik gabeak, nola saihestu zituzten adierazteko; ia inork ez zuen, egia esan, halako azalpenik eskatu ere egin, barruan uniformerik gabeko zaindaririk zegoenik oso jende aukeratuak baizik ez zekiena baitzen. Barruko hauek, gainera, kanpoaldekoak baino adituagoak ziren burdina kontuetan, eta ez oso irribarberak; bromarako joera gutxi zeukatela, alegia, eta umore falta hori bizitza profesional luze bezain gorabeheraz beteriko bati egozten ahal zitzaiola. Edozeinek, hori guztia jakitera, sinetsi zukeen lapurrek barrukoak saihestu bazituzten, hauek beste alde batera begira zeudelako izan zela. Eta, hain ohitura handia edukirik beti behar zen aldera begira egoteko, beste alde batera begira suertatzeko arrazoiren bat, arrazoi boteretsuren bat, eduki behar izan zutela.

Hala zen, izan ere. Bazen arrazoi boteretsurik, eta komisarioa zen, Petronio komisarioa. Petronio ezizena zen, eta ez da gehiegizkoa izango ohartaraztea ezen hierarkian maila handiagoa

edukitzeaz gain bere adiskideak ere bazirenak baizik ez zirela sekula aurpegira ezizen horrekin deitzen ausartzen. Ezizenak bazuen ukitu ironiko agerikoa, eta komisarioaren dotoreziaren zentzu ia obsesiboarekin lotzen zen. Dotoreziaren zentzu honek bi alderdi harrapatzen zituen: batetik, janzkeraren araztasunari zegokion; orduak pasa ahala gertatu ohi diren istripu txikiak –kafe tanto bat erortzea, komeni ez den moduan esertzearen ondorioz ateratzen den zimurdura...– onartezinak zitzaizkion. Eta bestetik, janzkerari berari ere bazegokion, modaren kontzeptu nahikoa atzeratu baten arabera. Dotoreziarengatiko kezka hau urte batzuk zirela hasi zitzaion, eta, halako keriekin gertatzen denez, urteekin batera areagotu baizik ez zen egiten, ardoa omen baita urteekin ontzen den zer bakarra, esan bezala ia obsesioraino areagotu. Gainera Petronioren kasuan ezin esan zitekeen jantzien eskegitokiak, pertxak alegia, ezertan ere laguntzen zionik itxura orokorraren ederbegiari; Petronio txikia zen, iharra, konkor pixka bat bazuen; hatzak nikotina kolorez ohi zituen tindaturik, aurpegia hezurtsua eta larruberdea, zintzur-sagar nabarmena eta bi-

bote finarekin. Mazel-bizar luzeak eta burua soildua, kraneometria ikastaroa egiteko bezain. Hortaz, tabakoaren kearen usainaz urrinduriko jantziak, jostun trebe batek ebakiak izanagatik, ia beti gaizki erortzen zitzaizkion, itxura orokorrak ezabatzen zuelarik antz dotorea erdiesteko ahalegin patetikoaren emaitza, kezka estetikoaren bidez lortzen ze na ez izaki, finean, agure desatsegin eta modaz pasearen tra za baizik. Eta hala ere, bazen zerbait bere itxura erridikulua kezkagarri bihurtzen zuena, halako ukitu larderiatsua eta larria. Agian horregatik beragatik gutxi batzuentzat baizik ez zen gelditzen Petronio aurrez aurre deitzeko pribilejioa; Petroniorekin broma gutxi, horra hor beteranoen ahotik etorri berrien belarrira berehalakoan zabaltzen zen kontsigna. Petronioren bigarren pasioa zezen-jokoa zen, zezenketa. Zale amorratua izaki, Petronio ezizenez ezagutua izan baina dexente urte lehenago, gaiztoz *El Gallo* esaten zioten, Rafael Gomez Ortega *El Gallo* zenaren ohorean, oso garbi ez zegoelarik bigarren ezizenaren jatorria Petroniok Rafael Gomezen nortasun bitxi eta gutxi bezalakoari zion miresmena ote zen edo eta nortasun

–nortasun artistiko– horren beraren alderdi batzuk –eta ez onenetakoak– bere nortasunarenak ere bazirelako.

Petronio komisarioarentzat, afera Gobernadoreak lan berezi bat egiteko eskatu zionean hasi zen; agindua bitxia zen, eta Gobernadoreak berak gehiago edo gutxiago ikusarazi zuenez, berari ere agindua goitik zetorkion, Petroniori goiko instantzia hori justu zein zen esan ez bazion ere. Agindua zen lapur bati Juandeaburre Fundazioko jauretxean sarrera erraztea, sartzen uztea. Komisarioak itsuan obeditu zuen, agindua nondik zetorren ez ezik lapurretagaia, lapurrak zer eraman behar edo zertara sartu behar zuen ere batere jakin gabe. Mintzatu zirenaren arabera iruditu zitzaion, gainera, Gobernadoreak berak ere ez zekiela gauza handirik azken gorabehera honi buruz.

Juandeaburre Fundazioak egoitza zeukan jauretxekoa prestatzea munduko gauzarik errazenetakoa gertatu zitzaion komisarioari. Alderdi tekniko hutsaren ikuspegitik begiraturik, egiten ahal izango zuen bere kabuz, zailtasun handirik gabe, behar ziren botoiak diskrezioz sakatuz; are

eta aisago bidea ez oztopatzeko aginduak zeudelarik, goitik etorritakoak. Baina legalitatetik kanpoko ezer egin behar izanez gero komisarioak nahiago izaten zuen horrela, goikoen onespenarekin. Norberak bere kabuz egin behar izatera, norberak jarri behar izaten zituen mahai gainean bere harremanak, mesedeak eskatu behar izaten zituen, oso kasu apartekoetan baizik mugitzea komeni ez ziren borondateak astindu, eta gero arazorik sortzen bazen norberak konpondu behar izaten zituen, ia beti zorretan gelditzuz. Kreditu bat eskatu gero dirua alferrik gastatzeko bezalakoa zen. Goiko onespenarekin eginez gero, norberaren parte hartzea besteren kontura ari den teknikari batena bezalakoa zen; batek badu ahalik eta hobekien egiteko erantzukizuna, baina dirua bestek jartzen dute, nolabait esan. Eta kasu honetan, jauretxean sartzeko agindua Madrildik omen zetorren; Gobernadorea bera jakinaren gainean zegoen. Alderdi teknikoari begiraturik, bada, gauza ezin errazagoa gertatu zen. Kanpoan zaintzen ari ziren uniformedunek ordu erdiz zelaia libre uzteko aginduak, aginduak oro zetozen ohiko bidetik etorri zitzaizkien, inor ezer

arrarorik gertatzen ote zen susmatzeko zirrikiturik utzi gabe: nahikoa izan zen txanda aldatzera zihoazenak edozein aitzakiarekin desbideratu eta denbora apur bat galaraztea, eta txanda aldatzeko gogoz berantetsirik zeudenei besteak iristear zeudela eta alde egiteko lasai agintzea. Aginduak ohiko ahotsak emanikoak izanik, men egiten ohituriko saldo horrek ez zuen –nola jarriko zuen bada– inongo oztoporik jarri. Barruko zaindariena konpontzea Petronioren egitekoa izan zen. Erraz aski egin zuena: pare bat elkarrizketa kriptiko samar, ezer garbirik azaldu gabe, zaindarien kontzientzia lasaitzeko, eta listo. Mutil onak ziren, komisarioari lege ona ziotenekoak, gehiegi galdetzen ez zutenak. Lapurra erreklutatzea ere bere esku gelditu zen. Hori eta lapurrari egin behar zuenari buruzko argibideak ematea –zer harrapatu behar zuen, non egongo zen lapurreta-gaia, noiz eta nola kobratu, eta abar tekniko bat– ere erraza gertatu zitzaion. Inor lapurretaren gaineko kontuak eskatzen hasiko balitz uneko zabarkeria esplikagaitzaren itxurak egin eta asuntua eskandalurik gabe estaltzea ez zen oso zaila gertatuko. Gainera, ez

ziren, ez horixe, asko izango horrelakorik eskatzen ahal zutenak: izan ere, nor arduratuko zen liburu xume baten desagerpenaz, bazenik ere ia inork ez zekien liburu baten desagerpenaz? Fundazioko kideak ez baziren, edo Florencio Juandeaburre bera jabetza legala zeukan izen bereko Fundazioko lehendakaria berau– ez bazen, inor ez. Eta gutxi haien ahoak estaltzeak ez zuen aparteko zailtasunik ekarri behar. Kasua iristera, lehengoen ahoak ixteko nahikoa litzateke itaskan belar pixka bat gehiago botatzea; eta Florencio Juandeaburreri zegokionez, Petronioren informazioen arabera, ez zirudien azalpenak eskatzeko tenorean zegoenik; alderantziz, arazoak omen zituen, arazo larriak, azalpenak eman beharrean omen zebilen, eta zer gerta ere, eszenatokitik aldendurik zen.

Operazioa erraz eta ongi burutu zen, ezustekorik gabe.

–2–

– Soinekorik ederrenak jantzirik. Zu eta biok. Gezurra kotxez dabil. Gogoan pertsona ginenekoak? Setazko kaparik oparoena bizkarrean. Zu eta biok. Infamiak abiadura handiko trenez egiten du bidaia. Ezpondetako superbibienteak. Urrez brodaturiko tertziopeloz inguraturik. Zu eta biok. Insidia abioiz doa. Mende bukaerako naufragoak. Gabon, ilunkumeok.

Margoten ahotsa erlatsa da, baina gardena, eta nahasketa mahai zarpailduko botoia gora eramaten duenean, gorrotozko akorde lazgarriki zorrotzek zerbezaren ahogozo mingotsarekin egiten dute bat hor nonbait, ametsek –zuriak eta beltzak, grisak ere bai, eta kolore guztietakoak– eurentzat gordetzen duten txoko lizunean, eta Margoti belarri bat emango zuela bateria jotzen jakiteagatik bururatu zaio, baina ametsak usu ihes egiten duten txoriak dira, eta boligrafoarekin kolpatzen du kupidagabe flexoaren txapela metalikoa, ahotsaz beharko duelakoan perkutitu bere entzuleen kirio bereak –hala nahi, hala es-

pero– bezain laztuetan eragin humano bat erauziko badu. Margotek ireki zuen behin bizitzaren estalkia eta barruko mekanismoak aztertu zituen; ez dizkio inori ikasi behar hurbileko geografiak, eta berekiko urrutikoetan ere aise bereiziko zituela paisaiaren ñabardurak du gorderik. Kitarraren azken kolpe basatiaren oihartzuna oraindik uhinetan, botoia goratu du berriro ere, mikrofonoa eskuinez hartuz, eta bere ahots sendoak ez du dardararik egin ozenik gabe baina peto esan duelarik:

– Naufragioen mezuak. Zer ukitu, eta gezurrezkoa da: tomatea, bizikletak, otea, apretak. Zer entzun, jan, milikatu, sinetsi, esan, oihukatu: egiaren ihautea. Balaren ziztua eta hilerrietako betiko atsedena baizik ez da egia. Egia da gerran hiltzen den lehen borrokalaria.

Kitarraren hurrengo nota urratuak entzuleen bihotz anparogabeak –bere saihetsezurreko kaiolatxoan harrapatutako untxiak– erdibitu nahi dituzten sastakaiak dira. Margotek artaz eta trebeziaz nahasten ditu ahotsa eta musika. Testuak bereak direlakoa zabaldu da, nahiz eta, galdetzen diotenean, testuak berak prestatuak direla

erantzutea nahiago izan; berdintsu da, ia inork ez dio zehaztasunari jaramonik egiten. Irrati kazetari konbentzional horietako batek aitortu zion behin, bere ezinbesteko motelkeriatik jaulkitako hitz berdeetan, seguru asko milaka gazte batzuek segitzen zutela ostegun gaueroko saioa. Estatistika oinperatzea lortu zuela tresneriaz zein espazio fisikoaz erortzear zegoen irrati baliabide-urri eta pitzatu hartatik. Ahots erlats eta aldi berean ezti horrek, mina egiteko gertu bezala fereka soinuetan blaitzeko gai, sosegurik gabeko naufragoak sareratu ditu: salve, Margot, gauaren erregina.

– Han aldarrikatu, hemen ukatu, hor bedeinkatu; atzo prestatu, orain piztu, gero areagotu, inoiz ez gelditu. Kainoia haientzat burrunba hutsa da. Urteak eta urteak bagenitu bezala. Bala tripan daukatela segituko dute lapurtzen, soroan etzanda, agonian, ari den behia bazkatzetik gelditukо ez zaizun bezala.

Jende gutxi ausartuko da irratiko kabinatxoan sartzen Margotek berak gonbidatuta ez bada. Horregatik bere atzean atearen klaka disgustuz sentitu du. Are eta gehiago nor den ikusi due-

nean. Hara, pentsatu du, zer haize boladak ekarri du periko smith hau hona, etorri berriaren arnasa kokotean sentitu eta janzkera larrubeltza zeharka ikusi duenean. Margot ez da harekin fio. Aspaldi ezagutzen du, inoiz adiskideak izan direla ezin esan badaiteke ere, eta ez da sekula fio izan. Etorri berriak, gizontto elektriko bat, meharra eta kizkurra, badaki horren berri. Keinu larri bat itsatsi zaio ezpainetan eta ez dela txantxetan ari, berak ere nahiago izan zukeela hara joan behar izan ez balu adierazi nahi izan dio imintzio bitxiak eginez.

– Atzetik dauzkat –eta Margot ahoa irekitzera zihoala irudi duenean:

– Egun batzuk direla. Baina honaino ez dira etorri. Ez ditut ekarri, ziur naiz –isilune llabur bat–. Bai, badakit zer pentsatzen ari zaren. Ez gara elkarren lagunak. Ez nuen nora joanik. Horra. Ez nuen nora joanik.

Larri mintzatzen da, eta presaka. Margotek ez du sekula hain izuturik ikusi nor eta beste ezer baino gehiago harro plantak egitea maite duen gizontto susmagarria. Margot, beste ezer baino gehiago, ezustean harrapatuta, harri egin-

da bezala dago. Gizontto elektrikoak, labanaren ahoan ibiltzen ohituta dagoen orok bezala, ez du gehiegi begiratzen zer iltzeri heldu behar dion jokoan dagoena larrua denean, eta ez du izaten, ezta ere, astebete lehenago egindakoaz damutzeko betarik, ez ohiturarik. Eta hala ere orain damutzen zaio Petronio komisarioaren enkargua bere unean onartu izana.

– Saltsa lodian sartu naiz. Uste dut puska batez desagertzea komeni zaidala.

Eta, berriro ere, Margoti ezer esateko betarik utzi gabe:

– Gordeko didazu itzuli arte, ezta? Baina ongi zaindu, gero. Etorriko naiz bila, edo inor bidaliko dut. Tori, jende askotxo dabil huskeria honen atzean.

Errektangulu eitea duen pakete bat, kazetapaperean bildua, utzi du erortzen nahasketa mahai gainean. Lehen begi-kolpean, Margoti zapata kutxa bat izan daitekeela iruditu zaio.

– Seguruena da. Inori ez zaio burutik pasako zuri eman dizudanik.

Ezezagunak herioan alde egin du. Dena pare bat minutuko tarte laburrean gertatu da eta Margotek ez du erreakzionatzeko modurik izan.

–3–

Ostiral eguerdia zen Madrilen, giroa epel eta lehorregi zen urtarorako. Erdialdeko hotel erdipurdiko baten atetik kanpora abiatu zenean gasolina erreaz plei-plei kutsatutako aire-bafada bat arnastu zuen, begibistako plazeraz. Epeltasunak kilika apur bat egiten zion oin eta besoen muturretan Petronio komisarioari, bestela, neguko hotzaren erdian batez ere, mortu bezala izaten zituenak. Giroa plazent aurkiturik, metroko lehen ahoan sartu gabe, pixka batean ibili egin zen jendetzaren artean, ibiltzearen gozamen hutsarengatik. Katuen hiriak zainak biziagotzen zizkion. Madril zen ezagutzen zuen mistifikaziorik perfektoena, begien aurrean bere burua justifikatu beharrik ez duen asmazio itzela. Patriarik ederrena; patria bat beti da asmazio bat, baina ez da perfektoa harik eta asmazio bat dela inori begitantzen ez zaion arte. Oroimena beti da motza, eta mistifikazioak, aldiz, zain sakonak ditu; hortaz, urte luzeak, ankerkeria neurri bat, jakinduria handia eta magia behar zen, patria bat metekoz

osatu ahal izateko, hautsaz gurbitz bat osatzeko, keaz hartz sendo bat haragiztatzeko. Madril ez zen bakarrik lehen trajea ebakiarazi zuen plaza, edo eta Teran-eko toreroen koadriletakoen tertuliak; bazen, probintziako desterrutik datorrenarentzat, batez ere, aterpearen goxotasuna, erroaren indarra, urruntasunak ederbegiagotzen duen dama, itzulera beti posiblea delako itxaropena. Itakaren sentimendu honek *El Niño del Netol*-en irudi lausotua indar biziz irudikarazi zion. Non egongo zen. Hilik behar zuen, noski, *El Niño del Netol*-ek.

Ibiltzen nekatu zelarik, metroan sartzea pentsatu zuen, baina ordu hartan jende asko ibiliko zela eta trajea zimurtuko ziotela iritzirik, taxi bat gelditu eta Chamartinetik gertuko helbide bat eskatu zion. Ez zion apenas hitzik zuzendu, ez kasu gehiegirik egin taxista berritsuari, eta helbidera hurbildu ahala kezka-doinuaren lehen notak gehitu zitzaizkion sentsazio-entsalada orduraren goxoari. Taxia geratu zenean, oroimen atseginak alde batera utzirik, urduri ez baina atezuan zegoen; jakin bazekien, pisu hartara joateko esan ziotenetik jakin ere, aparteko zerbait

eskatu behar ziotela. Oso gauza larria ez bazen Barne Ministerioak ez zuen nahi izaten pisu hartatik edozein pasatzerik. Etxea inguru hartako besteak bezalakoa zen. Nahikoa alde egoitiarra zen hura. Eraikuntzak ez ziren sobera handiak eta launako multzoetan elkartzen ziren, multzo bakoitzaren erdian berdegune txikia, banku batzuk eta txirrista zeudela. Etxe multzo bateko atarian dei egin zuen eta segundu batzuen buruan laugarren pisuko atearen aurrean zen. Atea ireki ziona bere adineko gizasemea zen. Serio agurtu zion, baina bostekoa emateko moduan eta elkarren besoen gainean emaniko txalokada amultsuan aspaldiko adiskideak zirela ageri zen. Leiho handia pertsiana batez erdi estalirik zeukan gela batera eraman zuen. Moketa urdinarre batek janzten zuen gelako zolua, non mahai handia, zortzi aulki birakari eta barruko landare koxkorra baizik ez zen. Aulkietan hiru gizon korbatadun eta serio zeuden eseririk. Banan-banan bostekoa eman zien, atea ireki zionak aurkezpenak egiten zituelarik. Ondoren gela hartako atea itxi zen, eta ordu bete beranduago arte ez zen berri-

ro ireki, hiru korbatadunek zeharkatu eta pisutik alde egin zezaten.

– Dena garbi, beraz.

– Iturriko ura bezain garbi –erantzun zuen Petroniok, buruaz baiezkoa eginez. Aurpegia pisuan sartu baino ilunago zuen–. Gauzatxo bat bakarrik; ulertu dudanez, ez zineten zuek Juandeaburreren jauretxeko lapurreta egitea agindu zenutenak.

– Ezerk pentsarazi al zizun besterik? –Petroniok edozer esan nahi ahal zuen keinu batez erantzun zuen–. Etorri –beti ere atea ireki zion gizon bera zen hitz egiten ziona–. Tresneria berria erakutsi behar dizut. Pena merezi du eta.

Bi gizonak beste gela batean sartu ziren. Bigarren gela hau lehena bezalakoa zen azaleraz, baina oso bestelakoa itxuraz. Paretak grabagailuz, ekualizadorez eta Petroniok ezagutzen ez zituen beste hainbat tresnaz horniturik zeuden. Tresna guztiak paneletan txertaturik zeuden, eta pareta aurreko mahaitxoetan ordenagailuak eta inprimagailuak ageri ziren. Neska gazte bat ordenagailu baten aurrean zegoen eseririk, transkripzioak egiteko ekipo baten belarritakoak jarri-

rik, teklatuari eraginez. Etorri berriak sentitu zituenean belarritakoak kendu eta irribarretsu agurtu zien.

– Erakutsiozu gure lagunari zer transkribatzen ari zaren.

Neskak panel bateko botoi batzuk sakatu zituen. Hainbat tresnen tripetatik zetozen firrinda elektriko batzuk entzun ahal izan ziren, eta laster grabagailu bateko zinta bat jiraka hasi zen. Orduan entzun ahal izan zen, garbikiro, hizketan ari zena gela hartan bertan bailegoen:

– *Errusiarra zain daukazu, beti bezala. Eta alemaniarra etorri da.*

– *Errusiarra? Esaiozu txoropito horri astelehenean hartuko dudala.*

– *Barkatu, ministro, badakit presaturik zaudena; errusiarra ez bada, Hoffman behintzat ikusi behar duzula uste dut. Gaur gauean itzuli behar du Alemaniara.*

– *Tira, esaiozu sartzeko... Jorge, zenbat denbora da nire idazkaria zarela?*

– *Lau urte.*

– Jorge, Jorge... Zure adinean, zure gaitasunarekin, eta oraindik ministroaren idazkari. Konpondu beharrekoa da hori...

– Sartuko al da?

– Horixe, horixe...

Gizonak esku-keinu batez agindu bat eman eta neska irribarberak grabazioa eten zuen. «Ministro» izendatutakoaren ahotsean premia, ezinegona islatzen zen, hasierako esaldietan bederen. Jorgeren tonua lehorra zen, emoziorik gabea. Bukaera aldera Ministro deitutakoaren ahotsa amiñi bat bilakatzen zen, ezinegonari ironia eta ankerkeriazko printzak gaineratuz, edo hala iruditu zitzaion Petronioren entzumen finari. Bere begietan ahoskatu gabeko itaun bat zetzan.

– Bata Kultur Ministroa da. Bestea, Jorge, bere idazkaria. Ostiral batean dago grabatuta. Ministroa presaturik zen, Partiduko bilera garrantzitsu bat zeukala utzi zuen esana, baina jakin ahal izan dugunez Elsa izeneko neska batekin egina zeukan zita asteburua pasatzeko. Kultur Ministroak neskatoak maite ditu.

Eta nork ez, pentsatu zuen Petroniok, txiste lodi samarra gaineratzeko prest; baina ezer esan baino lehen bere begiek transkriptorearenekin egin zuten topo, eta isildu egin zen. Bere iloba izaten ahal zen. Biak bakarrik egotera, lagunari egingo ziokeen broma, konfiantza-maila bera merezi ez zuen beste baten aurrean ez, ordea. Horren ordez, beste hau esan zuen:

– Zertaz ari dira?

– Aipatzen duen alemaniarra Klaus Matheus Hoffman da, Alemaniako Kultur Ministerioko funtzionaria. Liburu zaharretan daukaten espezialistarik onena. Gure liburuari buruzko txostena eskatu zitzaion.

– Eta errusiarra?

– Errusiarra... –gizonari sino maltzurra ezpainetaratu zitzaion–, errusiarra Florencio Juandeaburre bera da.

– Kabroi halakoa. Zerbait izango duzue pentsatuta harentzat ere, noski.

– Pentsatu... –Petronioren solaskideak sorbaldak uzkurtu zituen–. Putakumea desagertu egin da. Bilatzen ari gara, haatik. Aurkitu egingo dugu. Gainera ez du inporta. Lehen edo beran-

duago atera egin beharko da, mundu zabalean denik eta ezkutalekurik hoberenean egonik ere. Baina aurrerago mintzatuko gara Juandeaburrez. Orain hobe dugu Hoffmani buruz aritzea. Kultur Ministroak liburuari buruzko txostena eskatu zion. Liburua autentikoa ote zen esan zezan, alegia. Damurik, ez dugu oraindik txostena eskuratu. Baina grabazio honetan bertan entzuten ahal dena dela eta, ez da zaila ondoriorik ateratzea.

– Hoffman hau ikertu duzue?

– Jakina. Ezer berezirik ez. Judutarren gorpuzkiekin egindako xaboiaz aberastutako familia bateko semea. Beste saltxitxajale handiuste horietako bat. Zuk baduzu ezer xaboia egiten aberastu direnen kontra?

– Ezertxo ere ez.

– Banekien ba. Entzun, entzun ezazu.

Neskari beste keinu bat egin zion eta honek, berriro, zenbait botoi sakatu zituen. Lehengo hots firrindariak entzun ziren eta ondoren, ostera ere, ministroaren bulegoan grabaturiko elkarrizketa entzun zen, argi eta garbi:

– *Eta?* –ministroa zen.

– *Hor daukazu txostena. Hor dago dena* –esan zuen beste ahots batek, Hoffman horrena, ezbairik gabe.

– *Lehendakaria berantetsi egingo da. Nire zain dago* –horrek, nonbait, «presaturik nabil» edo antzeko zerbait esatea beste balio behar zuen. Petroniok baloratu zuen ministroaren gezurra esateko gaitasuna, estiloa; dotore iruditu zitzaion, baina ez oso sinesgarria.

– *Zer nahi duzu esatea? Gehiago aztertu beharko nuke kontua; alegia, emaitzak ez dira behin-betikoak* –Hoffmanek etenaldi txiki bat egin zuen, esatekoa zer tenorez adieraziko zuen pentsatzeko edo–. *Hau da, El Prado-ko laborategia bikaina da, oso egokia eta aurreratua, baina margoak aztertzeko bakarrik... Ondorio behin-betikoak eta ehunetik ehun fidagarrietara iristeko zatiki-azeleratzailea beharko genuke.*

– *Eta honek esan nahi du...?* –Ministroak zalantza izpi batez.

– *Honek esan nahi du aztergaia berriz erabili behar izatea: lagin berriak, proba berriak... Florentzian badute zatiki-azeleratzaile bat, berariz prestaturikoa horretarako, Louvren ere bai... Ale-*

manian ere moldatuko ginateke batera edo bestera. Zuk ikusi. Edonola ere, eta laburbilduz, nire ustez, aferaren nondik norakoa ongi ulertu badut, arazo bat daukazue.

– Hoffman laguna, arazorik ez banu ez nintzatekeen ministroa, eta zu ez zintudan kontratatuko eni aholkuak eman beharrez.

Oraingoan Petronioren lagunak berak eten zuen grabazioa. Hasperen egin zuen.

– Hasi haiz ulertzen, ezta?

– Gutxi gora behera.

Baina konturatzen zen ematen ari zitzaion informazio zatikatuaren helburuetako bat berak *jakin zezan* zen bezala, jakiteko guztia *ez zezan jakin* ere bazela.

–4–

Kultur Ministroak, komuneko bonbari eragiten ziolarik, igarri egin zuen, ikusi baino gehiago, bere zakil beratua, beheratua; zizare lotsatia iruditu zitzaion. Oposizioan zeudeneko garaiak gogoratu zituen, oroiminez, eta ez orduan Partenongo habea sekula iruditu zitzaiolako, baizik eta garai haietan, sikiera, triparen bolumenak ez ziolako ikusmira galarazten. Tristura *post coitum*-ari egotzi zion momentuko desanparoa eta eskertu zuen Elsa –ohetik altxatu zelarik komunerako bidean bere urratsei so gelditu zena– ohean etzanik eta mutu egotea. Klandestinitateko garaietatik zeukan preserbatiboak komunetik pertsonalki botatzeko ohitura ere bai–, orduan teknikoki bikotekidearekin kontrazepzioaren kargak eramatea deitzen zena, baina egun, ministro bati inolaz ere ez zegokion eginbeharra, eta are, oraingo egoera eta *status*-a lorturik desegokia ere izatera irits litekeena. Eginahalak eginda ere kendu ezin zezakeen ohitura, haatik. Horregatik eskertu zuen bi aldiz Elsaren isiltasuna. Ursula

izan balitz asaldatuko zen berak botako zituela eta horrelako tokiz kanpoko desenkusekin, baina, jakina, ulertzekoa zen, Ursula gorputz miragarrizko hogei urte bete berri zituen animaliatxo txokolatezkoa zen ber. Amanda izan balitz, ostera, gai orokorreko solasaldi konplizeari ekingo ziokeen operazioak iraun bitarte osoan, bera ez zela aurreko egunean jaio zeharka adierazi nahiz, ministroarentzat arriskugarri baizik ezin gertatzen ahal zen konfiantza maila bat irabazi nahian. Amandak hogeita hamar urte zituen eta bere diti bete eta gozoak Newtonen legearen aurkako borrokaren lehen sarraskiak jasaten ari ziren. Elsa, aldiz, perfektoa da ministro batentzat, pentsatu zuen ministroak, ministro honentzat bederen: hogeita bost urte ditu eta ez du liskar txarrik Newtonekin, baina bere indarrekin jolasten badaki inor mindu gabe, eta diskretoa ez ezik azkarra ere bada. Perfektoegia, agian, baita ministro batentzat ere. Elsarekikoa noiz arte luzatzen ahalko zen arrenkuratu zen. Batek zekien aberriak ez ote zuen helburu handiagoetara deituko. Berriz oheratzerakoan, Elsaren soin eskul-

turala besarkatu zuen naufragoaren azken salbazio ohola bailitzan.

– *Elsa, goazen eskiatzera.*

– *Noiz? Nora?*

– *Bi aste barru. Cortina d'Ampezzo. Austria, beharbada.*

– *Kezkatuta zaude*.

Ministroak aulki gainean zetzan *lycra*zko jantzi beltza begiratu zuen. Versace-ri berari erosi zioten, eta honek, Elsak esku kolpe batez eta hankak luzatuz bere soinaren neurri zehatzera ekarri zuenean, pasarela gainean erakuts zezala eskatu zion, *«solamente una volta».* Elkarri begiratu eta barre egin zuten, Versace-ri ohore handia egiten ziela eta biziki eskertzen ziotela baina ezinezkoa zela erantzun baino lehen.

– *Kezkatuta zaude. Edo Errusiako bidaia ahaztu zaizu?*

Egia zen. Ahaztuta zeukan bi aste beranduago Errusiara joan behar zuela, Gobernuak Errusian bultzatu nahi zituen afera batzuei bidea errazteko; aitzindari kultural eta diplomatikoarena egin behar zuen, zubi-buru bat osatu behar zuen ondorengo Errusiaratze orokorra prestatze-

ko. Bere bulegoaren aitzinean azken bi asteak Errusiara joateko irrikitan zegoen txoroarekin gogoratu zen. Izenaz ere ez zen akordatzen.

– *Ez da ezer. Alemaniar hori, badakizu* –zerbait esateagatik, ministroak.

– *Hoffman?*

– *Bai.*

Egia esan, kezka handiagoak zituen. Ederki gintezke, Autonomien Estatua kosta zaigunarekin, halako huskeria batek ministro baten atsedena zapuz baleza, pentsatu zuen. Dagokion Aginte Autonomikoak konpon dezala konpontzekoa, konpontzekorik badago. Baina aitortu behar izan zion bere buruari Hoffmanen izena errekurtso merke gisa erabili izanak berak zerbait esan nahi zuela. Hoffman, Errusiara joan nahi zuen txoroa... Bere idazkariak esana zion Barne Ministeriokoek interes nabarmena zeukatela asuntu hartan. Barne Sailekoak! A zer nolako koadrila. Aberria eta demokrazia estolderietan defenditu beharrarekin guztiz konforme egotearekin ere, euren eginbeharraren zaila eta eskertxarrekoa onarturik ere, bere buruari ez zuela gaiztoegi izan behar Barne Saileko kide sufrituekin mila

bider esanagatik ere, ezin izaten zion haiekiko erdeinu puntu bati uko egin; estetika hutsarengatik, nahi bada. Hiltzaile, dejeneratu, koprofilo, zakarro eta koipetsuak ziren. Inork ezin zezakeen Barne Ministro bera ere imajinatu kalamar ogitartekoa jaten eta puta lodi bati ipurdian zimikoa egiten ari zitzaiola izan ezik. Ordean, ordea bidezkoan, Kultur Ministroak bazekien Barne Sailean inork ere ezin zuela bera ikusi. Kultura hitza entzuten dudan bakoitzean, kartutxera bilatzen diat, horra hor Barne Sailean azken hilabeteetan gehien entzuten zen esaldia, berriro ere, oso aspaldiko ez zen garai bateko moda berreskuratu izan balute bezala.

– *Zer dabilkizu buruan?*

– *Ezer ez* –isilune laburra–. *Oraindik ez didazu esan eskiatzera etorri nahi ote duzun. Errusiatik itzultzerakoan.*

– *Esan behar al nuen?* –neskaren irria entzuten zen–. *Jakina. Baina ministroaren promesak ministroaren promesak dira* –arrenkuraturik–. *Batzuetan betetzen dira, bestetzuetan ez*.

Ederregia. Ederregia egia izateko. Ministroa, zergatik ez zekiela, munduko ministrorik anparo-

gabeena zela sentitzen hasi zen. Elsa indarrez besarkatu zuen, eta honek, bere aldetik, hanka tartean eragin lezakeen gogorrik aztertzeari ekin zion, esku fin, delikatu, jakintsu eta beroaz. Ministroa, horrelakoetan maiz gertatzen zitzaionez, haurtzarora itzuli zen.

– *Elsa, ongi deritzozu ministro batek kondoiak komunetik botatzen ibili behar izateari?*

Elsak algara luze eta alai batez erantzun zion.

Kultur Ministroa eta Elsa zeuden tokitik urruti, denboraz eta espazioaz, Elsaren algara luze eta alaiaren oihartzuna iritsi zen Petronio komisarioaren belarrietara, bere ñabardura guztiekin. Kalitateak deabruen gauza zirudien.

– Kalitatea izugarria da.

– Zenbait denbora dela bulegoan bideoak ere paratu dizkiogu.

Petronio eta bere laguna baino ez zeuden entzun keta-gelan.

– Txortadak ere grabatu dizkiezue?

– Debekatu egin digute. Baina debekua jaso genuen arte... Batto entzun nahi duzu?

–5–

Petronioren Madrileko egonaldia uste baino gehixeago luzatu zen; hiru egunetako behar zuena izan bost egunetako bihurtu zen. Honekin kezka berri bati egin behar izan zion aurre: arropa falta zuen. Petroniori hori bezalako okasioetan bi egunez jantzi berbera eraman behar izateak umilaziotik gertu zegoen sentipena ernarazten zion. Madril *prêt a porter*-en hiriburua izango zen, baina horrek ez zuen asetzen jostun zintzo batekin ohituriko gizona. Are, *prêt a porter*-ari dejenerazioa irizten zion, poteko tomateari, patata frijitu izoztuei eta tetrabrikeko esneari bezala. *Prêt a porter*-ak hil zuen Balenciaga, baina nirekin ezin izango dute, gora Balenciaga, zer arraio, gora izen terrorista izatearen akatsa baizik ez zuen jostun guztien aita. Arazoa ez zen Madrilen jostunik ez egotea; izan baziren, eta hagitz onak, gainera. Baina, agerikoa zenez, ez zioten jantzi bat prestatuko egun batetik bestera. Hortaz, baloratu behar izan zuen zerk nardatzen zuen gehien: jantzi berbera bi egunez janztea

edo gizarte modernoaren plastikozkotasunaren morroi, behin bakar batez bazen ere, erortzea. Batin hutsez agertzerik izan balu, Mazzantini zenak ohitura zuen bezala. Finean, gogoz kontra bazen ere, bigarren irtenbidea aukeratu zuen eta El Corte Ingles-era joanik –ez zuen denbora-rik bestelako aukerak konsideratzeko– aurkitu zuen zikinestaliena erosi. Ondoren, berriro ere, taxi bat hartu eta Chamartin inguruko pisura itzuli zen. Egia esan, grabaketaren kontuarekin zaletzen ari zen, eta gainera egun hartarako Kul-tur Ministroaren bulegoan grabaturiko bideo bat jarriko zutela agindu zioten. Lehen eguneko gizon berak ireki zion atea. Harako bidean pen-tsatu bezala, gauza bat argi ziezaion eskatu zion:

– Hi, Guti, akordatzen al haiz *El Niño del Netol*-ekin?

– Bai horixe.

– Zer moduz zegok?

– Hori aspaldi hil huen, motel.

Entzuketa-gelan sartu zenean, bideoa prest zegoen. Irudia finkoa zen, ministroaren mahaia-ren aurre aurreko kamera batez grabatuta; hor-

taz, ministroak planoari eusten zion John Houstonen garai exijenteenetako aktore behartua bailitzan, profesional heroiko horiek baino neke handiagorekin, baina, ministroaren alde esan behar bazen ere, egia zen eta, bere planoa ia amaitezina zela. Alegia, ministroaren imintzio, piura eta keinu guztiak ikusten ahal ziren etengabe. Irudi hartan bezala, beste inor baldin bazegoen ministroaren aurrean eseririk, bigarren honen bizkarra baizik ez zen ikusten ahal. Paratuta zeukaten kameraren aurrean beste bat paratu eta montajeak egitea pentsatuta zeukatela adierazi zioten, baita bulegoko argien potentzia denen oharkabean handiagotzea ere, asmazioaren sinplezia justifikatu beharrean baileuden. Petroniori errealizazioaren gaineko kezkak gehiegizkoak iruditu zitzaizkion, *Navaroneko kainoiak* filmeaz geroztik galdurik baitzuen zaletasuna. Zine Eskolako ikasketak bukatu eta langabeziara joandakoan Polizian sartzen ote ziren otu zitzaion. Lehen Guti izendatutakoak botoia sakatu eta bideoko ministroak bizia eskuratu zuen. Bere solaskidea nor zen, Petroniok ezin jakin zezakeena zen.

– *Gutierrez, nor arraio da Florencio Juandeaburre?* –horrelaxe ekiten zion ministroak.

Petroniok jauzi bat egin zuen, ipurdi azpian malguki bat jarri izan bailioten, eta magnetoskopioa estopeatu zuen:

– Gutierrez!? Guti!! Hi haiz!? Kabroia haiz, gero!! Hi haiz, hortaz!

Gutierrez izenekoak, pisu hartara iritsi zenean atea ireki zion berbera zenak, ezin zuen asebetetasunezko keinu bat ezkutatu.

– Ministro jaunaren konfiantza irabazten asmatu diat, besterik ez –agerizko apaltasunez mintzatzen zen–. Kultura Ministroak itsuki sinesten dik ni naizela Barne Sailean gelditzen zaion lagun bakarretakoa.

Osa zitzakeen imintzioen artean, Petroniok irriarekin gehien aldera zitekeena erakusten zuen, ahoa ireki eta elkarrengandik milimetro batzuk aldendutako hortz horituak erakutsiz, hots errepikakor eta zorrotza atereaz, ilea galdutako hiena bat zirudiela. Maskara bat bezalakoa izanagatik irrikarak egiazkoa behar zuen, gorputzaren gainerako zatietan, tripan bereziki, bere isla baitzuen, hainbesteraino non trajea zimurtu-

ko zitzaiola pentsatzeak baizik ezin baitzuen geldiarazi. Bideozinta martxan jarri zuen, berriro ere. Oraingoan Gutierrez zen hizketan ari zena, ministroak egindako galderari erantzuten ziona:

– *Hainbat modutara erantzun nezake... Alproja,* bon vivant, *arte merkatari, negozio gizon... bat da, zer eta nondik begiratzen den... Beharbada errazena da esatea «Pantaleon Juandeaburre» Fundazioko Lehendakaria dela, besterik gabe.*

Petronio konturatu zen Ministroak erdizka baino ez zituela entzuten Gutierrezen azalpenak, bulegoko leihotik begira eta begira ari baitzen, kanpoan zegoen zerbaiten behaketan plazer handia hartuko bailuen.

– Zeri begira dago?

– Saab berriari begira –erantzun zion Gutierrezek, ohartxo bat luzatzen zionarekin batera–. Zinta hau Kultur Ministroa eta Juandeaburreren arteko harremanak hasi zirenean dago grabaturik.

Petroniok ohartxoa hartu eta irakurri egin zuen: «Ministro jauna: artaz gidatzeaz arduratu.

Gainerakoa nire esku. *No problem*. Florencio Juandeaburre».

– Nola lortu duzu?

– Egun hartan bertan ebatsi nion. Hain zen emozionaturik, gixajoa, ezen...

– Joooode –Petronioren harridura gora zihoan unetik unera. Berriro bideozintari egin zion arreta, haatik, Gutierrez eta ministroaren artekoa zertan bukatzen zen jakinminez:

– *Harira, Gutierrez, harira* –zioen ministroak–. *Zer diote Barne Ministeriokoek Juandeaburre horri buruz?*

– *Diru asko dauka. Euria euriaren ondoren: familiaren ondarea txikia ez izaki, Florencio ausarki aberastu da azken hamar urteotan. Hemen bizi da, eta arte merkataria da* –nabaria zen ministroa Juandeaburre nor zen gogoratzeko ahaleginetan ari zela, halako batean eskuin ukabilak ezker ahurrean kolpetxoa eman zuen arte, azkenik gogoratzen zelako froga garbia zena.

– *Juandeaburre hau ez al da duela urte pare bat Madril guztian zehar hamazazpi urteko Karibeko andereño batekin promenatzen zena?* –ongi gogoan zuen neska; iraingarri gertatu zi-

tzaion une hartan halako neska puska mozolo itxurako tipo harekin ikustea.

– *Izan ere, Juandeaburre honek negozioak eduki ditu La Habanan... Fragarekin Karibeko irlara abiatu zen ordezkaritza komertzialarekin joan zen. Arte gaiak maneiatzen ditu... Inportazioa-esportazioa, badakizu.*

– *Fragarena al da?*

– *Ez, ez , ez... Ez Fragarena, ez beste inorena ere. Guztien laguna da; ezagutzen dizkiogu Italiako mafiarekiko harreman estuak. Fidelekin berarekin egona da. Gure Ministerioan bertan lagun handiak ditu. Mesederen bat egin izan digu inoiz, egin ere. Eskuzabala da, jende guztiarekin ongi moldatzen da... Ez da oso fidatzekoa baina ez daukagu ezer bere aurka.*

– *Eta Errusia? Zer dauka Errusian?*

– *Ezer ez, guk dakigula. Eduki nahi izango omen duena, horra hor koxka, gure aburuz.*

– *Mila esker, Gutierrez. Mila esker, benetan.*

Ondorengo irudietan ikusten zen Gutierrez altxatu eta eszenatik desagertzen zela, erreberentzia txiki bat eginez buruaz. Atea itxi bezain pronto, ministroak interfonotik deitzen zuen.

Txakur ongi hezitako bat baino azkartasun handiagoarekin bertaratzen zen Jorge, idazkaria.

– *Jorge, adiskide, non egokitzen ahal dugu Errusiara joan nahi duen gure betiko laguna?*

– *Zaila izango da... Dena oso beteta dago...*

– *Idazleekin?*

– *Idazleekin? Bai zera... Eskuak dantzatu dituzte ia, elkarren artean, eta sindikatuta daude, gainera... Pintoreak eta eskultoreak igoaltsu... Jesulin-en koadrilakoekin ez dugu sartuko, jakina...*

– *Baina ba al da zezen-plazarik Moskun?*

– *Ez noski. Irtenbidea aurkitu dugu, ordea: portatila montatuko dugu Plaza Gorriaren erdian.*

– *Eta diseinatzaileak? Errusiar batek ez du erraz bereiztuko diseinatzaile eta pirata baten artean, ezta?*

– *Bai, baliteke...* –idazkariaren aurpegia argitu zen une batez–. *Uste dut aurkitu dudala Juandeaburre hau eroso joateko modua... Gerran Deserriratutako Haurrekiko Harreman Batzordean sar dezakegu. Nahikoa talde koloreaniztuna*

duzu honako hau, eta bat gehiago joanda ere inor ez da konturatu ere egingo.

Ministroari ere oso irtenbide zentzuzkoa iruditu omen zitzaion, buruaz egiten zuen baieztapen keinuaren arabera.

– *Pasaidazu Juandeaburre. A!* –halako batean, batbatean zerbait etorri bailitzaion burura– *Jorge, hurrengo birmoldaketan Zuzendari Nagusi proposatu nahi zaitut...*

Gutierrezek magnetoskopioa gelditu zuen, esku keinu batez Petroniok ikusi eta entzun behar zuen guztia ikusita eta entzunda zegoela adierazi nahiz.

– Noiz abiatuko haiz?

– Arratsaldeko hegaldian.

– Denboraz atera. Ordu horretan Barajasko bidea lepo zegok. Hi... Zergatik galdetu didak lehen *El Niño del Netol*-ez?

– Ez zekiat. Horrena beti iruditu zaidak gogoangarria; errejoneadorea izatera iritsita Antonio Cañero famatuaren oin-burdina Netolez garbitzen Espainia osoa musu truk ko rritu eta gero...

– Hasiera guztiak dituk zailak.

– Bai... Gureaz gogoratzen?

– Tokitan zegok.

– Bai. Bukaera gertuago, noski.

Bi gizonak aterantz abiatu ziren. Ate ondoan zeudela Gutierrezek hitz egin zuen azkeneko aldiz:

– Bi eginkizun dauzkazu, zein baino zein inportanteago. Dena garbi?

– Bai... Azken orduko gorabehera bat, bakarrik: Gobernadoreak ba al daki ezer honetaz?

– Badakigu Kultur Ministroarekin hitz egin duela; gurekin ez, damurik... Honek esan nahi du liburuaren berri edukitzea litekeena dela. Bigarren aferaz, ordea, ez daki ezer. Are, ez du ezer jakin behar.

Petronio asaldatu zen amiñi bat, eta protesta zaratarik gabeko hitzak jaulkitzen hasi zen:

– Ez didazue txikia eskatzen... Nahi duzue liburua lapurtzera bidali nuen konfidentea akabatzea nire nagusiaren ezkutuan, nire nagusiaren gainean zubia eginda...

Gutierrezek alto jarri zion jakako hegaletatik xuabeki tira eginez, lisoagotu nahiko bailion. Petroniok ez zuen keinua gustukoa aurkitu; oihala

zarpailxea zela nabarituko zuela iruditu zitzaion eta.

– Et et et... Hori hiretzat ez duk arazo latza izango... Moldatu egingo haiz... Beharrezkoa izatera geuk ere modua egingo diagu Gobernadoreak uler dezan. Jakin behar duena baino gehiago jakin gabe, noski. Hi liburua aurkitzeaz arduratu. Eskuratu eta gordetzeaz, inori ezer esan gabe. Ondoren geuk esango diagu zer egin behar den. Konforme?

– Guti, Guti... Baina ez al haiz konturatzen? Zer ateratzen diat nik asuntu itsusi honetatik, arazoez aparte?

Gutiren aurpegiak sorpresa islatzen zuen:

– Izango duk, noski, hire hileroko konpentsazioa...

– Guti... Ez nauk hogei mila duroz ari...

– Zer atera nahi duk?

– Madrila itzuli nahi diat.

– Ikusiko diat zer egin daitekeen.

–6–

Kubiburuak, komunetik ateratzean, hezetasun, gernu-urrin eta bestelako usain umelak aireratu ditu pisu txiki eta zaharreko gainerako geletan zehar.

– Eta?

– Hemen ere ezer ez.

– Akatu egingo haute, kubia eta guzti.

– E?

Kubiburua urduri dago eta ez du entzun, edo agian ez du entzun nahi izan plastikozko zerbeza kutxa gainean eseritako Petronioren petralkeria sentimentuz biluztua. Petronioren trajearen ebakera eta oihalaren kalitateari erreparatuta, edozeinek esango luke beste eserleku itxurosoagoetan jartzeko asmotan jantzi dela. Zaharraren zaharrez paretak zarbailtzear dauzkan pisutxo ezdeus hartan, non kajoietako edukiak barreiatuta dauden, bere baitan ezer gorde dezakeen oro birrinduta, eta suntsipen giroa nagusi den, ez dagoela beste eserleku erosoagorik, bakarrik. Sukaldetik kraska hotsak iristen dira, hirugarren

gizon batek platerak, edalontziak, kazuelak eta edotariko sukalde tresnak apurtzeari ekin diola seinale. Petronio ez da usu kezkatzen den pertsona, baina kezkatuta dago.

– Astapitoa –dio–. Oraintxe egin duk ederra. Gureak egin dik –eta isilune baten ondoren–. Hireak egin dik, hobe esan.

Zorua ia erabat estaltzen duten paper, pilda eta egur puska, eta edotariko objetuen artean horma pitzatuetatik jausiriko igeltsu zatikiek areagotzen dute gelaren hondamena, eginiko triskantzaren handia.

– Astapotro halakoa. Hil egin duk. Hil egin duk eta ez duk ezer aurkitu –dio Petroniok, etsita.

– Hautsa aurkitu diogu. Hautsa aurkitu diogu, ezta? –esan du kankailuak, antsia itoaz, bestea baretuko delako esperantzan.

– Hautsa aurkitu diogu, bai –dio Petroniok, bestearen esateko moduan atzeman daitekeen haur-leloa zitalki imitatuz–, baina hori ez duk nahikoa. Astapotroa. Hil egin duk.

Hori izan edo ez komisarioaren hitzen helburua, Kubiburua onetatik atera da. Egonarria gal-

durik, orro egin du, errabiaz, aparra dariola. Argi horail azpira azaldu delarik mauketako odol arrastoak ikusi zaizkio harakinari.

– Zerorrek eskatu duzu astintzeko! Zerorrek! Zerorrek ekarri nauzu astindu bat emateko! Zer nahi zenuen, orduan!

– Txiki txiki eginda utzi duk. Eta ez duk ezer lortu –badago sadismo ez oso ageriko bat Petronioren hitz geldo eta tonu bakarrekoetan, harakinaren sumina areagotuz gozatuko balitz bezala.

Kubiburuak bafada itzel bat bota du eta eskuak pasatu ditu kaska gaineko txima gorrixketatik. Nabari zaio dezakeen ahaleginik handiena ari dela egiten gelditzen zaion baretasun apurra ez galtzeko. Hirugarren gizona, sukaldeko triskantza bukatu eta gero, eszenaratu da, besteen arteko liskarra berarekin batere zerikusirik ez duela iritzirik, nonbait:

– Beharbada zerbait egin daiteke oraindik. Medikua ekarriko dugu. Bizirik dago.

Komisarioa zerbeza kutxatik altxatu da eta praken marra lisatu du esku batez. Erdeinuz begiratu dio azaldu berriari.

– Mediku? Zer mediku eta zer medikuondo. Txepel halakoak! Horri ez zaizkiok hiru minutu baino gehiago gelditzen. Azalpen batzuk eman beharko dituzue, horixe.

Ateari buruz abiatu da. Ireki egin du, eta irten aurretik atzetik jarraitu ez jarraitu dauden bi gizon urduriei egin die keinu.

– Ilargia eroriko ote zain al zaudete? Hemengoa kitto zegok. Goazen –dio Petroniok, eta atea ireki baino lehen hauts zuria daukan poltsatxo bat arretaz bildu du paperean, poltsikoan gorde aitzin.

Irten baino lehen Petroniok gogoeta azkar bat egin du. Gauzak ez dira berak nahi zuen bezala joan. Gutxienez Gutierrezek Madrilen eskatutako lanaren parterik zikinena eginda zegoen. Jakin bazekien Kubiburuak, frenorik jarri ezean, bere kasa utzi ondoren makarra kalitu egingo zuela; horixe zen helburua, gainera. Baina denbora kalkulatzean errakuntza egin du. Mutila gelditu egin zaio. Ez bide zuen eraman apartekoa. Uste baino lehen, ezer garbirik esan baino lehen zaio gelditu, hortxe dago koxka, eta liburua ez da inondik ageri. Bon, pentsatu du, hala ere, Pe-

troniok, liburua eskuratzea ez da hain zaila izango. Bestalde, krimena gainetik kentzeko eszenatokia nahikoa ongi prestaturik da, edo hala uste du behintzat Petroniok. Heroina-poltsak gauzak erraztuko ditu. Berak pertsonalki aurkitu du heroina-poltsa. Berak eramana baita, jakina. Azkenik, gogoeta hauek iraungi dira. Iraungi edo, nahiago bada, geroratu. Bada hainbat gauza Petroniok oraindik oso garbi ikusten ez duena, eta horrexegatik badaki gogoetak itzuli egingo direla; oraingoz zeruan, goian, zirkuluan hegan egiten duten saiak bezalakoak dira; hor daude, egonean, baina luze gabe lurreratuko direla gauza jakina da. Leporaino sartu da. Puzzlearen pieza guztiak ez ditu ezagutzen, baina; komisarioak badaki hori ere normala izaten dela bere eginkizunean. Are, gehiegi galdetzea, artez galdetzea, bederen, ez dela komeni. Itsu itsuan obeditzen ari delako itxura gordetzea komenigarria dela arras; hala ere, nork bere kabuz puzzlearen piezak, diskretoki, osatzea, ez ohi da inoiz gaizki etortzen. Bai eta erabat osatzea lortzen ez den kasuetan ere bat non dabilen nahikoa ongi jakiteko balio du. Hor zegoen, bada, gakoa; puzzlea

osatzetik oso urrun zegoen eta ordurako eskuak zikindurik zituen. Petroniok atea ireki du, aurreko guztia ahaztu eta datozen orduak latzak izango direla gogoetagai harturik.

Irten egin dira. Ondoko gelan, zoluan etzanik, bere gorputzaren ardatzaren inguruan bildurik, gernuz eta izerdiz lagunduriko odol putzu batean dagoen gizontto elektrikoak, Juandeaburretarren jauretxean egun batzuk lehenago lapurreta egitera bidali zuen berak, ez die entzun. Ezin entzun die, entzumena agortu zaiolako, gainerako zentzumenak emeki-emeki itzaltzen ari zaizkion bezala, eta ho nezkero azken hatsa botatzeko zorian dagoen animalia baino ez da.

–7–

Konfidentearen heriotzaren albisteak ez zuen, inongo berripaperetan, zutabe estu bateko dozena bat lerro baino gehiago harrapatzen. Berriek ziotenez M.F.E., hogeita hamar urteko gaztea heroina neurriz gain hartuta hil zen. Mutila oraindik xiringa besoan iltzatuta zeukala aurkitu omen zuten, hil zorian, hamabiak aldera gertaera jazotako tokira abiatu zen anbulantzia bateko lagunek. Anbulantziakoek ezin izan omen zuten ezer egin bere alde. Autopsiak berretsi zuen heriotzaren arrazoia. Gertakaria parte zaharreko laugarren pisu batean gertatu zen, non heroina oso puruaz beteriko poltsa bat aurkitu baitzen. Azken hilabetean beste bizpahiru gazte gehiago zendu zelarik gisa horretan, Poliziaren arabera heroina hori bera bide zatekeen heriotzak eragin zituena. Kazetariek gai horiei zor zaien zuhurtziaz eta ohiko inpertsonaltasunaz ematen zioten kito euren informatzeko betebehar sakratuari. Margotek gosaltzen ari zela entzun zuen berria, irratitik. Kontuak egin zituen buruz eta lau-

garrena zela hilabetean erabaki zuen. Gehiegikeriaren nabarmenak asaldatu zuen. Afera, eta afera ez ezik aferaren ondorio edotarikoak ezagutzen dituenarengan sortzen den kezkaren nolakoak zerikusi gutxi dauka zerga-ordaintzaile onuste, hiritar jator, errepresiozale edo eta edozein klasetako hipokritarengan sortzen denarekin. Nik bizi ditut kale hauek, nik bizi ditut auzotarrok, nire kaleak, nire auzotarrak dira. M.F.E. Nor arraio izango ote zen? Susmoa egin zitzaion. Izen-deituren laburdurekin osatzen ziren akrostiko makabro horiek usu ez baitziren mila bider ikusitako keinuak eta egunerokotasunak blaituriko bisaiak ezkutatzen zituzten zomorroak baizik. Merkatura abiatu zen, atezuan baina presarik gabe, itxura nagiko diosalak han hemen partituz. Barazki saltzaileak ari ziren. Harakinak ere bai. Okindegian horretaz mintzatzen zen. Susmoa areagotu egin zitzaion. M. Manuel... Modesto? Marcelo? F. ... Egunkaria erostera abiatu da, saltzailea ezaguna duen kiosko batera.

– Bai, neska. Ezagutuko ez dun ba.

Marcelo Fernandez Esparza. Bihotza irauli egin zaio. Hildakoa, lehen egin zaion susmoa

egiazko bihurtuz, bi egun lehenago irratiko mahai gainean pakete bitxi hori utzi zion pertsonaia berbera baitzen eta ez beste inor.

Margot kafetegi batean sartu zen arineketan, egunkari guztiak eskuratu eta heriotza haren detaileak errepasatzeko, adierazgarri izan litekeen gorabeheraren bat aurkitzeko aiduru. Albiste guztiek elkarren kalkoak ziruditen. Alderik handiena zen batzuek ziotela lehen pisuan bizi zen atso batek deitu zuela Polizia, zarata susmagarriak entzun zituelako, eta bestetzuek ez zutela esaten Polizia nork deitua edo zergatik azaldu zen. Bakar batek mozten zuen, apur bat baizik ez bazen ere, inpertsonaltasun aseptiko hori, eta harantzago joanez, Poliziak uste zuela M.F.E. izan zitekeela Juandeaburre Fundazioko lapurreta arraroaren erantzuleetako bat gaineratzen zuen, zehatz esan gabe zeintzuk ziren uste horri oinarri eta funtsa ematen zioten arrazoiak eta «bertan aurkitutako aztarna batzuen arabera» motz argudiatuz, esan gabe, alegia, «aurkitutako aztarna» horiek zer ziren edo zeri zegozkion, baina berriari ukitu humano bat emanez, halako batean heriotza horrek kazetariaren bihotza

apur bat ukitu izan bailuen eta kazetaria eraman zenduaren berri zenbait, pixka bat baino ez bazen ere, ikastera, nahiz eta guztia benetan ezer ikertu dela itxura eman nahiari erantzun beharrez asmatutakoa izatea litekeena izan. Hona kazetari ausart bat, pentsatu zuen Margotek, ez ironiarik gabe.

Albiste hori ezizen batek izenpetuta zegoen, Margotek ongi, oso ongi, nahi baino hobeki ezagutzen zuen ezizena. Akuilu. Denbora bazen ikusten ez zuela, baina horrek ez zion ikusmina areagotzen. Deituko al zion? Erabakia atzerarazi zuen, oso gustagarri ez direnak atzerarazten ohi diren luzamendu errudun horrekin. Alabaina, heriotza hura ez zen nolanahiko gertaera, zuzenean ukitzen zuena baizik, eta etortzeko bide zeuden ondorio ezezagunak eragin zitzakeen, larriak beharbada. Margotek ez baitzuen zalantzarik egiten berari lagatako paketeak zerikusia eduki behar zuela Marceloren ezbeharrarekin. Irratian agertu zitzaionean bestearen izua egiazko ote zen edo eta izuaren aitzakian azpijokoren bat egin nahi ote zion bururatu zitzaion, baina, orain, hilik zegoela jakinik, ez zuen gehiago za-

lantzarik. Irratira joan eta paketea utzi zionean benetan larritua, izutua, desesperatua zen.

Akuiluri deituta galtzeko baino irabazteko gehiago zuela iruditu zitzaion. Deituko ziola erabaki zuen; baina aurretik ikerketa batzuk egin behar zituen bere kabuz. Hortaz, hildakoa bizi izandako kalera hurbildu zen, kazetariek idatzirikoari gutxiegi iritzirik eta bertatik bertara berri gehiago jaso ahalko zuelakoan. Bisitaldia interesgarria suertatu zen, eta eguerdira arte luzatu. Orduan mokadu bat jan zuen edozein tokitan eta hots egin zion Akuiluri. Kafea elkarrekin hartuko zutela gelditu ziren. Margotek argi aski utzi zuen zergatik ikusi nahi zuen. Banekien ni ikusteko plazer hutsagatik izango ez zena, erantzun zion kazetariak, onik iragartzen ez zuen ironia agerikoaz.

– Galdezka ibili naiz hortik zehar –zioen neskak–. Gaztigua egin omen zuen atsoak laurogei urte dauzka eta harria baino gorragoa da.

Aspalditik ezagutzen zuten elkar; are, gehiegizko hurbiltasuna zergarik itzelenak ordainduta baizik pagatzen ez den jatorrizko bekatua delako froga bizia ziren. Ikusitako pelikula guztietako

heroi bihurtu nahi izan eta gero, elkarren zaurimarkak ezagunegi zitzaizkien nazkagarriak ez izateko, eta hala ere elkarren arbuioa ezin zitekeen erabatekoa izan piztiak baino askoz gehiago ez zirelako sentipen ezkutagaitza haiengan ernatu gabe. Hainbeste urtetako harat-honatak eta gero Akuiluri sarkasmorako gaitasun ia amaiezin bat garatu zitzaion, bere buruari ematen zion ezizenetik hasten zena; Margot, sarkasmo horren zati bat berari zegokiola jakinagatik, ez zegoen oso dosi txikietan baizik jasateko gertu.

–*Sonotone*-a belarrian edukiko zuen.

Margot hitzen ironiaren gainetik pasatu zen, halako zenbat jasango zizkion erabaki gabe, oraindik. Auzokoekin mintzatu eta gero kazetariek emaniko bertsioa errotarriak pasatzen uzten dituen galbahearen pare gelditzen zen. Baina Akuiluk jakin behar zuen hori.

– Auzoko inork ez zuen polizia deitu. Beraiek azaldu ziren, halako batean, madero itxurako beste hiruk etxea utzi eta berehala. Eta gixajo hori ez zen arropa zuzena baina ezta jonkia ere. Zerorrek badakizu, nik bezain ongi, edo jakin be-

harko zenuke behintzat. Eta orain, nahi baduzu, mintzatuko gara. Bestela, gero arte.

Akuiluk lehengo ironia alde batera utzi behar izan zuen. Betaurrekoak kendu eta esku ahurrez igurtzi zituen begiak. Ez zekien zer jokabide hartu Margotekin. Ez zuen sekula santan jakin, nola jakingo zuen orduantxe bertan, bada.

– Eta zuk nola dakizu hori? Jendeak aise egiten du pare bat gauza zuri baimenik eskatu gabe. Non bizi zara? Egun autopsiak egiten dira, horrelako gauzak... Ezer arrarorik egon balitz, honezkero jakingo genuen.

– Hil baino lehen ni ikustera etorri zen. Izirik zegoen, arraso izirik.

Akuiluk nekez estali ahal izan zuen berriak ernarazi zion zirrara. Dena dela albisteak kazetariarengan sortu jarrera aldaketa itsu batek aise nabarituko zuena zen.

– Kontuz, gero, Margot. Zer nahi zuen zurekin? –ahotsak dar-dar pixka bat egiten zuen–. Kontuz, baina. Ostia! Zer nahi zuen? Zer esan zuen? Zerbait utzi zuen? Mezuren bat, giltza bat... Ostia, Margot, ostia.

– Ez zuen ezer utzi –gezurra, neskak–. Laguntza eskatu zidan.

– Laguntza!? Zer nolakoa? –premiaz, orain.

– Laguntza, inolakoa ez, laguntza, besterik ez –bestearen zakarra ez zitzaion oso gustuko–. Ez nion lagundu nahi izan, hori da dena. Ez da sekula nire adiskidea izan, zergatik lagunduko nion, bada?

– Zer eskatu zuen? Margot, ulertu behar duzu hau larria izan daitekeela, garrantzizkoa izan daitekeela oso zurekin egon zenean esan edo egin zuen oro...

Margotek gogorik gabeko barrea bota zuen.

– Arratoiak gara zuretzat ere, ez da hala? Adarra jo nahi didazu? Nahikoa zenuen hasieratik esatea ez zenuela nirekin egon nahi –Margotek Akuiluri begiratu eta bere buruari galdetu zion zer aurkitu zuen behin erakargarritik porrotaren porrotaz mingostutako kazetari harengan.

Alde egiteko keinua egin zuen, fio izateaz damuturik, baina Akuiluk beso batez eutsi zion eta berriro eserarazi.

– Zer eskatu zuen? Jainkoarren, Margot, zer gertatu zen zu ikustera joandako hartan? Fundazioaz mintzatu zen?

– Fundazioaz?

– Konforme –egia ematen zuen etsi egiten zuela–. Arrazoi duzu. Nik ere uste dut heriotza ez zela gertatu poliziak esan duen moduan –beranduegi zen damutzeko, ordea–. Ongi da. Dakidana esango dut. Dakidan guztia. Aitortu behar dut lan-ordu batzuk eskaini dizkiodala asuntuari, baina hala ere susmorik baizik ez daukat. Dakidana da M.F.E.-k gaizki neurtu zituela bere indarrak, urrutiegi joan zela eta horregatik akabatu zutela. Justu zertan zegoen sartuta eta norekin, hori ez dakit. Ikerketa-bide batzuk badaude, susmoak baditut, ugari gainera, baina ez dakit ezeren berri zehatzik. Bistan da gauza larria izango zena, poliziak berak estali nahi izan baitu kontua, oraingoz bederen. Ez dakit dauzkadan datu gutxi horiek behar bezala lotzen, baina uste dut Juandeaburre Fundazioa nahasia egon daitekeela istorio ilun honetan... Edonola ere gauza bat esango dut garbi. Ez zaigu komeni, ez niri eta ez zuri, gauza gehiegi jakiterik, ez horixe. Nik

behintzat ez dut gehiago usnaka ibiltzeko batere asmorik, zer gerta ere. Oker ez banago, gure lagunak oso fin txarra izan zuen, ikaragarri latza...

– Ikaragarri latza... Zer esan nahi du horrek? –Akuiluk serio eta sarkasmorik gabeko planta ageri zuen nahikoa keinu adierazgarria egin zuenean–. Torturatua? Horixe esan nahi duzu? –asaldaz.

Hainbeste partida galdu eta gero Akuiluk berehala atzematen zituen beste derrota baten aztarrenak. Partida galtzea bera bezain berezkoa zitzaion. Ematen ahal duen oinaze apurra ematea izaki, ordea, galtzaile txarraren ezaugarria, bere baitan nahikoa talentu biltzen ez duen jokalari ez trebearen mendeku eskasa. Begiratu zion eta osotara kilikagarri iruditu zitzaion, aspaldian bezain. Ez zuela horrelakorik merezi egin zuen kontu; baina mihia dantzan zen. Beranduegi damurako, esanda zegoen eta.

– Zeren beldur zaude, bada? –bere begiak bi zirrikitu baino ez ziren–. Laguntza eske hiregana joan izanagatik inork ez din ezeren konturik eskatuko. Bestela balitz, hau da, berarekin hala edo nola nahasi izan ba...

Margot aterantz abiatu zen, besteari esaldia bukatzeko betarik eman gabe, irainka bere baitan. Bere buruari irainka, Akuilurengana joateko bezain ergela izan zelako. Baina sarkasmoak tristura erabatekora bidalitako kazetariak pena ematen zion, beste ezer baino gehiago.

– Akuilu, gizagaixo hutsa zara.

Kontsolamendu bakarra gelditzen zitzaion, bere burua kazetariari saldu ez ziolako kontsolamendua. Oso kontsolamendu txikia bihotzean habia egiten ari zitzaion izuaren aldera. Sumina pizten zion gunetik, Akuilurengandik, alegia, urrundu ahala handiagotzen zena.

–8–

Zilborrari begira egotetik gelditu eta mundua begiak zabalik begiratzen bada, planetaren erdia ijito-oste handia da, etxea izandakotik salbatu ahal izan dituen errekaituak manta batean bildu, buru gainean jarri eta batetik bestera dabilena: bi milioi pertsonak baino gehiagok zeharkatu dituzte Sudan, Etiopia, Jibuti eta Somaliaren mugak, inon gelditu ezinik. Hutu eta tutsien artekoak 600.000 jende eraman ditu Ruandatik Burundira. Liberiako gerra zibilak milioi bat gixajo jarri ditu dantzan Ginea, Konakry eta Bolikostatik barna. Asiako hegoekialdean hamar milaka deslurreratu batzuk osatzen dute *Boat People* izenarekin ezagutzen den populua, hau da, lau egur puska usteldurekin itsasoratu den esperantzarik gabeko tropela. Izenari begiratuta Estatu Batuetako gazte unibertsitari batzuei buruzko pelikula barregarri horietako bat dirudi, baina hauek marrazoen hortzetan aurkitu ohi dute azkena.

Hori eta horren antzeko beste batzuk ziren Koko Ezak entzuleei esateko zituenak. Eta Aurrezki Kutxako aretoan zintzilik zeuzkan argazkiak, batez ere hango jendetza inguratzen zutenak. Mahainguru hartara konpartsa baino ez zela aurretik jakinda joan bazen ere, ez zitzaion horri egotzi behar mixeriaren katalogo hori errezitatzean erabilitako tonu monokordea; uste zuen aldez aurretik bere hitzak ez zuela sabela mokadu koloreaniztunez asetutako kristau saldo hori itxuraz haratago inarrosiko, ez behintzat aurretik argazkiak ikusirik dardara sentitu ez zuenik, eta, hortaz, betelanean ari zen. Labur, gainera, entzuleak mahaikide zuen filosofo entzute handikoaren jakinduri gose baitziren. Aukera eman izan baliote, edo eta jakin izan balu, saiatuko zatekeen azaltzen gosez hiltzear dagoen Somaliako haur baten larrua izugarri leuna dela, beratza, eta gorputzeko berrehun eta hamar hezurrak kontatzen ahal zaizkiola, hartara jarriz gero, eta gezurra dirudiela halako larru fin hori urratu ez izana hezur klakari baina era berean zorrotz eta pisu gutxiko horiekiko zuzeneko harreman intimoan. Eta horren ondoren Afganistango gerrilari

baten gorpuaren aurrean batek ez duela penarik edo nazkarik izaten, eta bere aurpegi more, huts eta hanpatuak, azkenik, alferrik galdutako hainbat proteinarengatiko disgustua sorrarazten duela publiko mendebaldetar eta zibilizatuegiari humanoagoak irudituko litzaizkiokeen sentimenduen gainetik. Aukera eman izan baliote, jakin izan balu edo gogorik eduki balu. Hortaz, zer arraiotan ote zebilen areto hartan eta jende guzti horren aurrean bere buruari galdezka hastekotan zegoela gogoratu behar izan zuen lau giltza, lau baina, besterik ez zituela poltsikoetan, eta berak ere bizi behar zuela. Horrenbestez, filosofo protagonistari utzi zion hitza, kasu handirik egingo ez ziolako delibero irmoarekin.

– Zalantza da egiazko intelektualaren ikurra, munduaren aniztasunarekin bateragarria den bizigiro bakarra, eta zalantzatik baizik ez zaio bererorri erantzunik ematen ahal aipatu aniztasunari. Jarrera manikeistetatik datozen segurantzia faltsuek fanatismoari irekitzen diote atea, edozein izpiritu kritiko fundamentalismoaren ukazio beltzenean amilduaraziz.

Filosofoaren mintzaldiaren hasiera distirantak entzulegoan sorrarazten zuen gozamenari eta isurarazten zuen jario identifikagaitzei erreparatu gabe, ekitaldia hasi baino lehen eman zioten paperezko oharrean jarri zuen begia. «Ongi etorri. Bederatziak aldera inguratuko. Hi hor geldi ni azaldu arte. Luciano Goñi». Baina oraindik bizi al da zomorro hau, pentsatu zuen Ezak. Bi hilabete zirela, hegazkin batek Mendebaldeko Europan utzi zuenetik, bi urte baino gehiagoko epeaz munduan barna argazki-kamera sorbaldatik zintzilik ibili ondoren, ez zen oraino Lehen Mundua goizeko zortzietan zereginik erridikuloenak egitera abiatzen diren zomorroz beterik dagoela onartzeko gertu. Urteak ziren Goñi ikusten ez zuela.

Aurrezki Kutxaren aretoko paretetan eskegirik zeuden argazkietatik dozenaka begi pare errefuxiatu izutuek –kolpatuek, etsiek, malko agortuek– begiratzen zioten. Bost axola giza eskubideak soako galduriko neskatila begitristeari. Atsedenik gabe mintzatzen zen filosofoak argazkiak ikusi zituen, *benetan ikusi*, ordea, duda eduki zuen une batez. Are, *benetan ikusteko* gai-

tasuna lo eragingarri boteretsu askoren azpian betiko lurperatutako dohaina ez ote zen. Erlojua begiratu zuen. Zortzi t'erdiak ziren.

Filosofoak txalo parrastada ederra bildu zuen hitzaldia bukatu zuenean. Ezak, bere entzutea izanik ere, ez zuen gertutik ezagutzen, eta kuriosidadez begiratu zuen zer plantaz jasotzen zituen publikoaren miresmen-adierazpenak. Hasieran erdipurdiko antzerkigilea iruditu zitzaion. Zilborrari begira egotetik gelditzen zen bakoitzean enaiz-banaiz itxurak egiten zituen mutil listoa iritzi zion, ondoren, berbalapiko ez nolanahikoa. Sena artistikoa bestetik zuen; Koko Ezari, kasu handirik egin ez izanagatik, harrigarri iruditu zitzaion, Giza Eskubideen aldeko kantu grinatsu eginik zer trebeziaz eramaten zuen beti ura bere errotara. Mintzaldiaren ondorengo galderek ez zuten aparteko berririk ekarri. Ezak ez zuen apenas galderarik erantzun behar izan, parte hartze gehienen helburua baitzen, neurri eta gradu handiago edo txikiagoan, filosofoari nolabaiteko *fellatio* intelektuala egitea. Izan zen mutil gazte bat inozentzia faltsuaz galdetu ziona monarkia bera ez ote zen Giza Eskubideen kon-

trako lehen erasoa –pertsona guztiak berdinak dira jaiotzez, eta guzti hori–, baina zalaparta eta eskandalu handirik gabe isilarazi zuten.

Zeremonia bukatutzat eman eta ondorengo nahasketan, Zinegotzia mirakuluz bezala haragiztatu zitzaion, laguntzaile pare bat aldamenean zuela, eta are desenkusa moduan har zitezkeen hitz ofiziozko batzuk jaulki zituen, zenbat antzerkigile, auzo elkarte, enpresari eta edotariko dirulaguntza eskalerekiko zita bazter utzi behar izan zuen berarekin egoteko gogoraraziz. Agintearen agerpenik txikienak ere falta ezin izaten dituen laguntzaile anonimoek berretsi egiten zituzten buruaz printzipalaren hitzak. Eta kortesiazko diskurtsoaren sarrera bukatuta, bostekoa eman zion. Zinegotziak betondo ubeldu ikaragarriak zituen. Ezta ministroa balitz ere, pentsatu zuen Ezak, zergatik oso ongi jakin gabe.

– Zorionak, nire zorionik beroenak, itzela da. Erakusketa benetan itzela.

Halaxe zioen. Itxurari erreparatuta, edozer izan zitekeen zinegotzia. Edozer, *ma non troppo*. Horrelako burutazioak zebilzkiola buruan, Eza konturatu zen zinegotziak ahal zuen guztia egin-

go zuela errepikatzen zuela etengabe, mila aldiz errepikatzen den gezurra egia bihurtzen dela dioen teoria betetzen ote den baieztatzeko asmoz, nonbait. Ezak lau giltza, besterik ez zuen potsikoan, eta lau giltza hauen arinak arrazoiren bat eskatzera bultzatu zuen, ustekabeak harrapaturik eta totelka, ia. Erantzun hau entzun behar izan zuen:

– Edonola ere, ausartuko nintzateke esatera giza eskubideak ezarri ahal izateko zenbait atabismo alde batera utzi beharra dagoela. Ez dago ohiturarik edo kultur adierazpenik –kultur adierazpena kontzeptua zentzurik zabalenean harturik, Bronislaw Malinowskiren zentzuan harturik, konparazione– giza eskubideen gainetik jar daitekeenik. Demokrata ilustratu modernoak giza eskubideen aurka doan ohitura-adierazpenari ez deritzo kultura. Basatikeria deritzo. Adibidez, hauek txerrikirik jango al zuten? –galdetu zuen, Aurrezki Kutxako Kultur Aretoko hormetan zintzilik zeuden argazkietako gizagaixoen aurpegiak keinu zabal batean bilduaraziz.

– Hauek ahal dutena jaten dute.

– Eta txerrikirik?

– Ez. Inoiz ez.

– Adibide bat baino ez zen, Eza, adiskide –zinegotziak txalo batzuk eman zizkion sorbalda gainean–. Ahal dudana egingo dut, sinestazu.

Bere itzala bailiran segitzen zioten bi ezezagunek bostekoa eman zioten, denek hodei berean alde egin baino lehen, presaka.

– Ederra aparejua! –Ahots batek, bere atzetik.

Gizon gehienei zilarrezko lokiek beneragarritasun airea ematen zien bitartean, ahotsaren jabeari aire ajetua baino ez zioten ematen, eta gerrikotik gainez egiten zioten koipe geruza dardartiek ez zuten zatar itxura konpontzen, ez horixe. Historian zehar inoiz urruti batean izandako *prima donna* plantak oro ezabatuak zituen, bederen, pentsatu zuen Ezak.

– Luciano. Joño, Luciano.

Luciano adiskide bat zela sinetsi nahi izan zuen. Beharrezkoa zuen. Besarkatu egin ziren.

– Goazen afaltzera –esan zuen Goñik–. Ongi afaltzera, gero, e? Idatzita dago: Neguko Jauregia gure egin ezin izan dugunez, gure egin ditzagun beren sukaldeak.

–9–

Pertsona arrunton mundualdian hagitz bakanak dira une loriatsuak, eta bakan hauek ere badaezpadakoak. Hortaz, goza zaitez une llabur horietaz, sufritzeko noiznahi dago beta, bizitzaren edozein bihurguneren atzean zure zain dago zoritxarra, herioa, gaixotasuna, mixeria. Errepika ditzagun kanpaiak, bozkarioz, gonbida ditzagun festara Bako eta Dionisio, har dezagun plazer gure efimerotasunaren baitan horditurik. Utikan txinaurriak eta beleak, fuera aszetak eta apaizak. Botila ireki berriaren ahotik bare ixuritako lehen sortaren soinua aingeru korua izan zitzaion belarrietan. 70eko Viña Ardanza. Bigarrena. Bonbilean nago eta, hasi zaitez edatera.

Luciano Goñik bazekien neurritik gain ari zela, topikoraino ari zela bihurritzen egoerak eskaintzen zituen aukerak, baina ez zitzaion inporta. Ez zegoen mozkortuta, oraingoz. Antzezle histrionikoa bezala jokatzen ari zen pieza hori, baina aspalditik zekien bera ez zela sekula izango inoiz urruti batean amestu zuen *prima donna*

hura, eta prest zegoen bere erdipurdikerian igeri egiteko, denen aurrean, igeri saioa 70eko Ardanza ugaritan egitekotan. Eta, topikoz bestaldera, bene-benetan gozatzen ari zelakoa egia zen. Erudizio pixka bat sartzea ez litzaiokeela gaizki etorriko deliberatu zuen, haatik.

– *In vino disertus.* Ardoak bihotza irekitzen du, eta moralaren koalitate baten gauzazko baliabidea ere bada. Zeinena? Lainotasunarena, horra. Humek esaten zuen: «Ahazten ez duen kidea ez da atsegina, egun bateko erokeriak ahaztu behar baitira hurrengo egunekoei tokia uzteko».

Sukaldariak betaurrekoak sokatxo batetik zituen, bular gainean dilindan. Entomologo diskreto batek kakalardoen errege aztertuko zuen bezain libertiturik begiratu zion hurrengo platera ekarri ziotenean. Idi buztana gixatua zen, *brik* orean bildurik, bere saltsa, bere pinioi eta bere franbuesazko mermeladarekin. Goñik platerean egin zuen hozka.

– Aaaaaaaaaaaa!

Ezak ez zuen ezer esaten. Goñik behar zuena baina hamabost kilo gehiago izango zituen bitar-

tean, Ezaren soinean ez zen koipe tanto bakar bat ere, denak izan baitzitzaizkion beharrezko, azken bi urteetan, basamortu, itsaso eta munduko azken bidexka hautsaz beterikoan erre eta bizirik irauteko. Horra, pentsatu zuen Ezak. Koipe tantorik ez, lau giltza poltsikoan eta hogei urte ongi beteta. Hanka bakoitzean, baina.

– Jaungoikoa haiz! Etxe honetako sukaldaria Jaungoikoa da!! –hasi zen Goñi, boz handitan.

– Zertarako deitu nauzu? –jakin nahi izan zuen Ezak, munduko jatetxerik onenetako baten platerik preziatuenak jan ordez Malasiako mugan mugazain bekozko batekin musker egosia jaten ari denaren plantan.

– Buruari eragitea jaten ari den bitartean kaltegarria da, bai buruarentzat eta bai urdailarentzat. Ez al zenekien? Halakorik egiten duena alferrik ari da nekatzen bai bata eta bai bestea. Bere ergelkeriaren sari, buruko minak eta digestio pisuak baizik ez ditu. Flatulentzia, ergelkeria, hipokondria. Norberaren gorputzari elikagaiak ematen zaizkion bitarte horretan frenua ezarri behar zaio pentsamenduari eta bidea eman irudimenari.

Sukaldariak alde egin zuen, berak ere bazkari bila joan behar zuela aitzakiarekin.

– Ikusiko duzu, laster etorriko da berriro, bere bazkariarekin, eta ezetz asmatu zer bazkalduko duen! Arraultza frijitua piper pare batekin! Baietz ba! Arraultza piper batekin! Jaungoikoa da eta arraultzak jaten ditu otorduetan! –bukatu zuen, esaldi horretan munduan ezagutzea pena merezi duen ororen sena eta mamia laburbilduko balitz bezala eta bera bakarrik munduan, ez beste inor, bailitzan esaldi horretan ixten zen jakinduria guztia bere osoan harrapatzeko gauza.

Luciano Goñi eta Koko Eza, aitzitik, foie jaten ari ziren. Foie honela eta bestela, orain hala eta gero ez dakit nola. Foie, foie. Eta angulatxo batzuk. Eta Ardanza. Hirugarren botila, eta ez zioten botila harekin bazkariari fini emango. Eta postreak baino lehen ez dakit zer ez dakit zertaz betea, ez dakit nongo ozpinarekin eta bere barazkitxoekin. Eta hau zer arraio da? galdetu zion Ezak Goñiri. Ama Birjinaren sabelpeko nektar gozoa, gutxienik. Goñiri ausardia handiagotu egiten zitzaion Ardanza irentsi ahala, ikusirik gainera jatetxe hartako sukaldeko jantoki txiki eta

oso aukerako hartan, publikoarentzat ez bezalako berezi hartan, ez zuela, lehen deserosotasunez presagiatu bezala, gehiegi atsegin ez zuen mahaikiderik topatu. Eta hau ez zen batere erraza, ez horixe, azken bolada hartan nor zenak nor zela demostratzeko ez baitzuen nahikoa etxe hartako jantoki arruntetako batean bazkaltzea, ez noski. Etiketak eskatzen zuen sukaldeko txokoan. Goñik Ezari begiratu zion eta hori guztiaren berri emateak merezi ote zuen kalkulatu zuen. Haurretan izan zen kaskagorri bihurriaren aztarrenak zeuzkan oraindik betartean, baina zimurdura setati eta sakonak ageri ziren noiznahi. Agure ipurterrea izateko bidean zen, berde samarra ere bai, beharbada. Baldin eta agure izatera iristen bazen, Eza bezalako tipoak ez dira usu zahartzera eta, iristen. Horra, pentsio-plana ordaintzen hasteko garaiari heldutako tipo bat, artean batere ondarerik bildu gabea. Honenbestez erabaki zuen horrelakorik adieraztea Ezari ariketa alferrikakoa zela. Eza, bere aldetik, bere buruari esaten ari zitzaion bazekiela ez zegoela atarramendu onik itxoiterik hainbeste urte pasa eta gero Lucianok halako batean azaldu eta «hi,

goazemak afaltzera, neuk pagatzen diat» esan ondoren gonbidapena onartu zion unetik, baina giltzak gogoratu zituen, berriro ere. Orain ez baitziren bakarrik lau giltza. Orain lau giltza eta kultur zinegotzi batek uko egindako dirulaguntza bat baitziren. Haragia flakoa da, pentsatu zuen. Nirea, batez ere.

– Esango al didazu zertarako deitu nauzun?

– Esan dut, ba! Beren sukaldeak gure egitera! –eta ikusirik bestea, erdi haserreturik, imintzioka hasia zela:– Ian erraza. Diru erraza. Pentsatu duzu jada non biziko zaren? Ez, ezta? Orduan berdin izango zaizu lehorrera joatea kostaldea utzita, noski. Egun Euskal Herriko punta batetik bestera joaten zara konturatu gabe, gainera. Eta orain, autobiarekin. Entzun duzu inoiz Juandeaburre Fundazioa izena? Ez, ezta? Banengoen ba. Ba Fundazioak pagatzen du bankete hau. Arazo txiki batzuk eduki ditugu. Ezer larririk ez, e? Ezagutzera eman behar dugu Fundazioa, bere irudia zaindu. Fundaziorako ospe ona bildu, erakusketak, prentsa artikuluak. Eta liburu bat, argazkiekin, badakizu. Argazkiak ez ezik testuak ere zerorrek egin ditzakezu, ezta? Geroxeago

hitz egingo dugu. Orain bazkal dezagun, zer arraio.

Sukaldaria azaldu zen bere bazkariarekin: tomate bat platerean kurioso bildua eta arraultza bakarreko tortila xinplea. Ezari, tortilla ikusita, hain soil, hain aratz, hain apain, hain laino, bere arreba txikia lehen jaunartzerako jantzi zutenekoa etorri zitzaion burura.

–Zerriiiikumea! Esan ez diat ba! Beirazak, beirazak! Tortila puta bat! Aaaalua!

Sukaldariak utzi egiten zion esaten, eta bere jendea mahaira bidaltzen zuen, pintura museo batetik aterata ziruditen postreekin. Mango sorbetea, Tolosako teila piko kremarekin, guayabazko bizkotxoa txokolate beroarekin.

– Aaaaaaaaaaaa!

Ondoren kafeak etorri ziren. Eta zerebroa labana garden batek bezala urratzen zuen Liebanako orujo jelatua, ausarki. Habanatik ekarritako Partagas-ak.

– Kabroi hutsa haiz! –Goñik sukaldari sufrituari–. Egiten duk parrea koneju bat bahintz bezala eta Jaungoikoa haiz!

–10–

Betidanik zeukan irratia piztuta lan egiteko ohitura, eta arratsalde bat nahikoa izan zitzaion aurretik susmatzen zuena baieztatzeko, bertako emisorak luzegabe jasangaitzak izango zitzaizkiola, alegia. Dialean gora eta behera ari zela ustekabean entzun zuen ahots erlatsa, erlatsa baina gozoa, halere, eta izeberg bat iruditu zitzaion mediokritatearen itsasoan. Lehenengo aldiz nekeza izan zitzaion zertaz ari zen behar bezala harrapatzea. «Omena eta itxura garbi gordetzearren armetan matxinatzeko gertu dauden etxeko zuri horien» aurka ari zen, edo horrelako zerbait. Instantean jakin zuen ez zuela hori baino irrati-saio gustokoagorik aurkituko. Arratsalde hartan bertan ahots magnetikoaren isiltzeak musikari egiten zizkion tarteak aprobetxaturik bere oharrak berrirakurtzen ari zen:

«Diputazioak, 1928 urteko urriaren lauan, «Pantaleon Juandeaburre» Fundazioa sortzeko erabakia hartu zuen. Izan ere, Benita Juandeaburre Merino andreak urte bereko maiatzaren

22an, Madrilen, eta bertako notarioa zen Eduardo López Palop jaunaren aurrean testamentua egin zuen, zeinaren arabera Diputazioak «Pantaleon Juandeaburre Oroz» izeneko Fundazioa eratu behar baitzuen, Jaun Txit Goren horren omenez, handik aurrerakoan, eta betirako, probintziako seme probeek goi-mailako ikasketak egin ahal zitzaten eta neskatxa probe ezkongabeek ezkon-saria eduki zezaten zuelarik xedea aipatutako Fundazioak».

Horiexek ziren Koko Ezak, Juandeaburre Fundazioarentzat lanean emaniko lehen astearen ondoren, laburpen gisa idatzi zituen lehenengo oharrak. Luciano Goñiren enkargua onartuz gero, ez zuen beste munduko gauzarik espero, baina afera ez zihoan erabat gaizki: iritsi bezain pronto apartamentu txiki baina txukuna aurkitu zioten, terrazatxoduna, erdialdetik oso urrundua, egia esatera, baina kotxea ere utzi ziotenez, eroso zegoen instalaturik; interes handirik gabe harrera egin zioten arduradun eta agintariek ez zuten beregan, ezta ere, inolako sentsazio ernegarririk piztu, haiekiko eduki zezakeen interes bakarra –interes zientifikoa, nahi bada–

euren betondoen tamaina eta berorien morearen argi-ilunaren arabera zer kargu izan zezaketen asmatzea baizik izan ez zelarik. Ezari betondoak gehiegizkoak iruditu baitzitzaizkion baldintza normaletan asperduraz hiltzear behar zuten musu mesokratiko haietan. Azaldu ziotenez, Juandeaburre Fundazioak bazuen berezko pisu espezifikoa kultur arloan, baina, damurik, herriak ez zekien oraindik oso ongi horren berri. Fundazioaren errua ere bazen horretan, lehengo Fundazio zaharraren oroimena guztiz galdua zelarik, ez baitzitzaizkion, berpiztu zutenetik, bere asmoak gizarteari azaldu. Norabide oker hori zuzentzeko, eta Fundazioa zerbitzatu behar zuen gizartean irmo txertatzeko lehen urrats gisa edo, informazio eta irudi kanpaina bati hasiera emateari egoki iritzi zioten Fundazioaren arduradunek. Ezari esan ziotenez, bazekiten argazkilari aparta ez ezik luma astintzen ere ez zela motela, eta, horrela, Luciano Goñiren aholkuari jarraikiz erabaki zuten bere esku uztea Fundazioaren balioa gorestuko zuen luxuzko liburu argazkidun baten edizioa prestatzea. Kortesiazko aurkezpen horien ondoren Luciano Goñiren bitartez bidera-

tuko zirela elkarren arteko harremanak –horrelakorik beharrezko izanez gero– jakinarazi zioten, eta agur esan zuten egonaldi ona eta lana gustokoa edukiko zituela desiratuz, lanean has zedin-edo agiriz beteriko bi karpeta utzi zizkiotenarekin batera. Ezak antizipoa eskatu zuen berehalakoan. Eman egin zioten, sekula amestu baino azkarrago eman ere, alajaina.

«Fundazioen gastuei aurre egiteko Benita Merinok, Juandeaburreren alargunak, sorterriko zenbait jauretxe eta lur-sail salduko zituen jendaurreko enkantean. Enkante hartan ehun eta laurogeita hamahiru mila berrehun eta hogeita bost pezeta atera ziren, eta testamentu egilearen aginduak betez, Estatuaren baloreak erosi ziren diru horrekin, inbertsio horrek ematen zuen korrituarekin Fundazioak sorturiko zama ekonomikoari eusteko asmoz. Halaber, Diputazioak uzten zuen «Juandeaburre Liburutegia Patronatoa» aurrera ateratzeko eta zaintzeko ardura Fundazio berriaren kontura, kontsideraturik hobe zela bi erakundeak kudeaketa bakarraren pean uztartzea, biak zirelarik jatorri eta helburu berekoak: kulturaren sustapena eta babesa.

Fundazioa, hasieran, bi Diputatuk, Apezpikuaren ordezkariak, Aurrezki Kutxaren ordezkariak eta beste hiru pertsonak osatu zuten; azken hiru hauek «bertan bizi, kulturaren aldeko ekimenetan sutsuki saiatu eta gaitasun ezagunekoak» behar zuten, eta Diputazioak izendatzen zituen».

Oharrak errepasatzeari utzi zion ahots emeak naufragioaren beste mezu bat ematen ari zela oharturik:

– ...bizi oso bat nazka sino bat osatzeko; ideien igandean bizitzera kondenatu nahi izan gaituzue; herraren sinoa markatu duzue gure bisaietan, suaz markatu ere...

Ondorengo musikaren lehen akordeek iraun bitartean Eza pentsakor gelditu zen, zerbait gogoratu nahiko balu bezala. Ezagunak zitzaizkion esaldiok? Litekeena... Nonbait irakurriak iruditu zitzaizkion. Baina, igarri ezinik, burua astindu eta bere apunteekin segitu zuen.

«Benita Juandeaburreren ondorengoek eutsi zioten Fundazioari urte luzez, baina 1956an zailtasun edotarikoak eduki omen zituzten eta Fundazioa desagertu egin zen. Ondare bibliografikoa, zinez luze eta interesgarria, familiaren es-

kuetan gelditu zen. Orain lauzpabost urte, Florencio Juandeaburrek, Benitaren iloba berau, liburutegiaz kezkaturik, garai bateko akordioak berretsi nahi izan zituen, eta itun berri bat izenpetu zuen kultur arduradunekin. Itun honen arabera, liburutegia –oso egoera kaxkarrean eta baldintza txarretan gordeta bitarte horretan– Diputazioaren eskuetara pasatzen zen, eta horren truke Diputazioak berpiztuko zuen berriz «Pantaleon Juandeaburre» Fundazioa. Fundazioak liburutegia txukundu, katalogatu eta zainduko zuen, eta bertatik sor litezkeen interes ekonomikoak kudeatuko. Fundazioak Juandeaburretarren antzineko jauretxean izango zuen egoitza, eta, liburuak ez ezik, familiako beste hainbat arte-gai baliotsuak jarriko ziren jendaurreko erakusketan. Florencio Juandeaburre izendatu zuten Fundazioko Lehendakari. Gobernu Autonomikoaren ordezkari batek, Kultur Departamentuko bi ordezkarik eta kultur giroan ezagunak diren beste hiru pertsonak osatzen dute Fundazioa». Luciano Goñi zen horietako bat.

– ...ideien igandean ere badelako lanpostuan tinko eta barau segitzen duen ideiarik...

Ahots eme erlatsaren uhinak *feeling*-a bazuen, bazuen kilikagarririk, alafede. Fundazioko arduradunek eman bi karpetetako materialak, azken egunetan buzoitik jasotako paperekin batera –iragarki publizitarioak gehienak– barreiatuta zeuden laneko mahai gainean. Agiriak interesaren arabera sailkatzeari ekin zion, poliki, premia handirik gabe. Orduan ikusi zuen lehen begi kolpean oharkabean igarotako gutunazal txikia. Karpeta barruan edo buzoian iritsi ote zitzaion ezin asmatu. Jakinmina piztu zion, ordea, eskuz idatzirik baitzeuden bere izen-deiturak eta helbidea. Ireki egin zuen, eta hau irakurri:

«soli deo gloria
propheten doctrina eliçaren fundament bada ilusionea eta are guezurra eliçac iaincoaren iugemendu eguitera ausart liroqueenic erratea da scritura sainduaren iudicioa eguiteco bothere duenic.

Kazetari eta argazkilari ausart eta orojakitun zaren hori:

Zerbait zinelakoan eta lapurren kobazulo batean bukatu. Ez al zara oraindik konturatu? Zu ere engainatu zaituzte edo haiekin zaude? Zure Fundazioak ukitzen duen guztiak zerraldo urrina dauka».

II kapitulua:
Iulius exclusus

–1–

«Mendizabalen desamortizazioaren ondoren aurrera eramandako politika bibliografiko egokiak ezarri zituen Juandeaburre Liburutegiaren oinarri sendoak» idatzi zuen Koko Ezak, lehen zirriborroan, monastegien eta apaizen ondasun galduetan arrantzuan ibiltzea baizik izan ez zena definitzeko hitz zuzenak, zentzudunak zirelakoan. Hala ere, Cisnerosek Biblia Poliglota prestatzeko, adibidez, erabili zituen kodizeak petardoak eta txafleruak egiteko erabili zirela kontuan harturik, Pantaleon Juandeaburreren asmo orobiltzaileari eskertu behar zitzaion zenbait liburu sutatik eta ezjakintasunaren atzaparretatik libratu izana. «Gerra eta hondamen giroaren gainetik hegan egiten zuten asmo humanistei esker, Liburutegiak, Karlistaden ondoren, ekarpen berriak jaso ahal izan zituen, Deba Garaiko hainbat nobleren liburutegitik eta Oñatiko Unibertsitatetik etorritako fondoak eskuratu zituelarik», segitu zuen, Juandeaburre haren harrapaketa sistematikoaren deskripzioarekin jarraitzeko. Izan

ere, Pantaleon Juandeaburrek miresteko dohainik eduki bazuen, historiaren ekaitzen erdian bere ontzia portura onez eramateko arta izan zen nabarmenetakoa; bistan zen horixe izan zela bere ardura bakarra, bestalde, horretarako izenpetutako makina bat itun eta zin egindako mila fideltasun berbideratu edo hautsi izan behar bazituen ere. Pantaleonen ondorengoak ere ez ziren atzera gelditu protoarbasoaren ildoa segitzea eta biribiltzeari zegokionez, eta horrela, «1936ko gerra garaian Hegoameriketako bidea hartu zuen hainbat jaun presturen ekarpen borondatezkoarekin eta, are, Bonaparte Printzearen fondoetatik Diputazioari zegozkion fondoen parte batekin osaturik gelditu zen Liburutegi aberats honen bizkarrezurra». Juandeaburretarrek beti asmatzen zuten irabazlearekin lerratzen, gero herioan alde egindako galtzaileen ondasun apur batzuk etxera eramateko. Horren ondorioz, «funtsean k.a. IV. mendean Alejandriako Liburutegiaren eraketa bultzatu zuen izpiritu berak, hau da, humanoen jakinduria gorde ez ezik antolatu eta barreiatzea, gidatu du egun 20.000 ale baino gehiago hainbat benetan pre-

ziatuak eta baliodunak– duen Liburutegi honen sorrera».

Ezaren begietarako, Juandeaburretarren ustezko bibliofilia oso zalantzazkoa zen. Jauntxoen familia horren historiak erakusten zuen ezer baino gehiago bildumagileak eta biltzaileak zirela, eta perretxikuak edo tximeletak bezalako gauza xumeak kenduta, ia edozer biltzea zutela gustoko: dirua, lurrak, etxeak, bitxiak, margoak, eskulturak, eta, zergatik ez hartara jarriz gero, liburuak. Oso bibliofiloak ez zirelako froga garbia zen, lehenengoz eta behin, ale asko oso baldintza txarretan zeudela, hezeak eta pipiak janda, familiaren zailtasun ekonomikoak hasi zirenean liburuak izan zirelako sakrifikatu zuten lehen gauza, ale asko salduz eta gainerakoak soto umeletan gordeaz, batere txukuntasunik gabe. XIX. mendeko jauregia, 300 metroko azaleradun hiru pisuko etxetzarra, lorategi oparoz inguraturik, non orain astean bizpahiru egunez lanean aritzen baitzen, aldiz, ez zen inoiz Juandeaburretarren eskuetatik aldendu, adibidez, eta liburutegia, fondoen interesaren aldetik bederen, oso ongi zegoelakoa egia izanik ere, ez zen egia txi-

kiagoa margo bilduma, konparazione, hagitzez hobea zela.

Luciano Goñi arduratzen zen Liburutegiarekin egiten ari zen lanaz. Goñik hala agindurik, beheko solairuko hiru gela ederretan lan egiten zen. Haietariko batean liburuak gordetzen zituzten kutxak zeuden; han, Artxibo Nagusiko bekadun batzuek liburuaren harrera egiten zuten; hau da, liburua katalogatu eta bere egoerari buruzko gorabeheren berri jasotzen zen. Lehen analisi honen arabera, errestaurazio edo zaharberritze lan berezirik behar zuten aleak kutxetan biltzen ziren, berriro ere, eta Madrila bidaltzen zituzten, liburuen leheneratze-lan horiek burura zitezen. Horrelakoren beharrik ez edo txukuntze arin bat baizik behar ez zuten liburuak etxean bertan inprobisaturiko zaharberri tze-lantegian manipulatzen zituzten, eta, horrenbestez, bigarren gelara pasatzen ziren. Han bi sailetan gordetzen ziren. Lehen sailekoak arruntak ziren, hala esatea zilegi bada, hau da, Artxibo Nagusian gordeko zirenak. Bigarren sailekoak, aldiz, liburu bereziak ziren, alegia, edizioaren antzintasuna edo arrarotasuna, edukiaren garrantzia historikoa, sozio-

logikoa edo politikoa, eta beste hainbat faktoreren arabera, hirugarren gelan, garai batean dantza-aretoa izandakoa, ezarriko zen erakustokian jendaurreko erakusketan jarriko zirenak. Batzorde batek erabakitzen zuen zer liburu pasako zen hirugarren gela honetara, non lan egokiak egiten ari baitziren liburuen erakusketaren gorabehera fisikoak jauretxearen beraren mailakoak izan zitezen.

Goñik agindu zehatzak eman zizkion Ezari Liburutegiari buruz. Liburutegiaren historia laburki kontatuko zuen testua moldatzea, alde batetik, eta testuari lagunduko zioten dozenerdi argazkiak prestatzen joatea. Argazkien gorabehera eztabaidatu zuten; Ezak proposatu zion sei argazki horietatik hiru libururik garrantzizkoenei eskaintzea. Goñi ados egon zen, eta hiru liburu horien hautatze lana bere esku utzi zuen, beti ere azken hitza beretzat gordeaz. Ezak ez zuen duda handirik eduki Liburutegiko hiru harribitxiak zeintzuk ziren erabakitzeko orduan: Erasmoren *Encomium moriae*, 1511ko ediziokoa, Machiavelliren 1532ko *Il príncipe* jatorrizko bertsioan eta Joannes Leizarragaren *Iesus Christ Gure*

launaren Testamentu Berria 1571koa eta jatorrizkoa, hau ere. Goñik bere asmoa ontzat eman zuenetik, Ezak astean behin edo bitan egiten zuen argazki-saio bat liburu bakoitzarekin. Gainerakoan, probak errebelatu eta testua prestatzeko beharrezkoak zituen agiriak eta liburuak aztertzea zuen lana, gehienbat utzi zioten apartamentuan burutzen zuena.

Fundazioaren asmo berriei aurre egin ahal izateko jauretxean obrak egitea guztiz beharrezkoa gertatu zen, egoitza zaharra premia berrietara egokitu ahal izateko. Jauretxean lan egitea ez zen erraza, han uneoro nagusi zen giroak edozein gerra-errefuxiatuen kanpamendutako ospitalea egiten duen dendakoa ekartzen baitzuen burura; han dena zen premiazkoa eta larria. Patxada falta horrek ekarri zuen aditu uholdeak elkarri egiten zion oztopo: alarma sistemak paratu behar zituenak agintzen zuen egun bat lehenago galeristak erabakitako planifikazioa bertan behera botatzea; orduan elektrizistek aldatu behar izaten zuten instalazio guztia, margoen markoez arduratzen zena iritsi eta ezer ez ukitzeko agintzen zien arte. Halako batean segurtasun zerbi-

tzukoak errietan ekin zion bati pistola agerian ez eramateagatik, eta erasoa jasandakoak bakea emateko, bera zurgina zela erantzun zion, haserre. Oilotegi hartan Eza isil eta xuabe mugitzen zen, labaintzen den itzalaren gisa. Gerraren deskalabroaren erdian lan egitea arrotz ez zitzaionez, hainbat erreportaia egiteko garaian hartutako estrategia bera erabili zuen berriz: hau da, jauretxera egindako lehen hiruzpalau bisitatan begiratu baizik ez zuen egin, aditu saldo ero bakoitzaren biorritmoak eta maiztasunak ikasiz, hori ahalezkoa zen neurrian, eta mingaina dantzatu zuen gelazain eta bekadunetako batekin, euren konplizitatea bilatuz. Ondoren, tropa urriko gerrila buru zailduaren antzera, eraso azkar eta puntualak antolatzen hasi zen. Estrategia haren fruitu, zenbait material lortu ahal izan zuen, giro hartan ezinezkoa zirudien arren: lehen hamar karreteetan argazki on pare bat bazegoen, behintzat.

Jasotako anonimoak, bestalde, ez zion lorik galarazi, hasieran bederen. Gustu txarreko broma bat zela alde batera uztekoa ez izan arren, hitz gogor eta saminez idatziagatik, fede

onez egindako gaztigua izatea litekeena zen, baita ere. Hortaz, datuaren idazpena erregistratu egin zuen bere buruko kontabilitatean, inori ezer esan gabe, eta gertaeren begira gelditu zen. Baldin eta horrelako gertaera gehiagorik bazegoen.

Astebetearen buruan ez zen ezer berririk izan, baina anonimoaz ia ahazturik zegoenean, beste bat jaso zuen. Eta handik gutxira, beste bat.

–2–

Inperioaren garai heroikoagoak ezagutu dituen edonorentzat ez da nobedade handia egungo gobernadore zibilek ez dutela gauza handirik balio. Badira bakar batzuk, eta horiek benetan azpimarragarriak, baina salbuespenak dira. Garai bateko gobernadorerik ergelenak ere bazekien hainbat gauza nola kudeatu behar zen, zenbait afera gobernatzeko –horra hor hitz potolo bat, esanahiaz zamaturikoa– ikuspuntu beharrezkoa zein zen. Eta ikuspuntuaren araberako baliabideak eta bitartekoak erabiltzen zituzten. Egia esan meritu guztia ez zen berea. Bazeukaten Gobernadore behar bezalako baten neurriko gobernatzeko tresneria eraginkorrik, eta, alde horretatik ikusita, ez zitzaien erru guztia gizarajo berri hauei egotzi behar. Lehengo gobernadoreek etxea gobernatzen bazekiten, arraioa, eta oraingoek ez dakite ia ezer gobernatzen, horra paradoxa. Iruditzen zaie nahikoa dela aferarik deigarrienei aurre egitea, prentsarekin ongi gelditzea, terrorismoari buruzko pare bat lehen orri

eskaintzea edo eta lau intsumituri egurra emanez gero ongi ari direla, patria bat ilea ongi orraztuta duela egunero eskolara bidaltzea zer zaila den jakin nahi izan gabe. Lau ikastaro txoro egin dituzte eta horrekin uste dute urte luzeetako eskolak ezarririko tradizioa ordezkatzen ahal dutela. Patxada eta gibelik ezean, umemoko bat engainatuko ez luketen hitz larri uste batzuk jaulkitzen dituzte, totelka, lehengo gobernadore zahar horietako batek keinu sotil batez erabakiko zuen egoera bat gainditzekotan. Esku artean dituzten baliabideak –gauzazkoak bezala pertsonazkoak– ez dakite erabiltzen, edo herabe dira erabiltzeko. Joselito eta Belmonte oraingo paseemaile horietako batekin alderatzea bezalakoxea da. Keinuak, boterearen keinuak, alegia, galdu du larderia, galdu halaber larria. Keinua galtzearekin batera, Estatuaren zentzua, eta Estatuaren zentzuarekin, faktikotasuna. Petroniok ebakera dotorezko praken lerro zuzena haur txiki baten burua ferekatzen ariko bailitzan lisagotu zuen, eta eskerrak, pentsatu zuen, eskerrak oraindik baden faktikotasunaren zentzu garbia, faktikotasunaren sena gordetzen duen jenderik.

Bera bezalako jendea, alegia, katebegi soil bat dela jakinagatik eginkizunaren garrantzia bistatik sekula galtzen ez duena. Gobernadorearen lanturuek pazientzia galtzeko puntuan jartzen zuten.

– Eta esango didazu nola gelditzen naizen ni forentsea, autopsia egiteko unean, gobernadore honen argudiobideei eta eskariei men eginez egiaztagiria gure interesen arabera moldatzeko gertu izan ez balitz. Beharrik!

Petroniok ahoan zuen puruaren landarezko bihotzari gogotik zurgatu zion, barrez ez hasteko, ke artean nabari bide zitekeen murrika keinua estaltzeaz arduratu gabe. Bere konfidenteetan mendre eta ahulenak ere gizon horrek halako bost balio zuen. Edozein egunetan desagertuko zara nire ikusbegitik, mozolo hori, eta ondoren etorriko den babo ezgauzarekin solas berbera edukiko dut, errezitatu zuen berekiko komisario txiki konkordunak.

– Beharrik –esan zuen, silaba bakoitza ebakitzean indarra areagotuz–. Beharrik forentsea nire laguna den, adierazi nahi zuen.

– Hala ere, gauza ez da horrela gelditukо. Larre guztia ez da pagotxa, ezta zure gizonentzat ere. Barne-ikerketa bat irekiko dugu –esan zuen Gobernadoreak, alimoak batuz, bestearen lotsagabekeria eten asmoz.

Barne-ikerketa bat? Egin zezan, nahi bazuen... Beldur gutxi, horrelako bati. Gutierrezek lagunduko lioke Gobernadoreak hori erabakiko balu. Nolabait ere bistan zen Gobernadoreak ez zuela hitz egin Barne Saileko inorekin. Petroniok purua itzali eta esku zurbilarekin haizatu zituen praken marraren gainean pausatutako errautsak. Keinua osatzeko pasatu zena baina denbora gutxiago behar zuen halako kasu batek eskatzen zuen estrategia aldaketari ekiteko. Hasperen luzea bota zuen.

– Ni ere kezkatuta nago. Are, deitoratu egiten dut gertatutakoa. Sinestazu. Azken finean nik ere huts egin dut. Neukan konfidente onenetakoa zen, uste nuen ez zigula adarrik jo nahi izango. Are, oraindik ezin dut sinetsi nola ausartu zen diru gehiago eskatzera. Badakit, ederki jakin ere, nire mutilek ez dutela lo goxorik egin aste osoan. Eta ez bakarrik letorkeen zigorraren bel-

dur. Bestalde, lehen ere esan dizut istripu bat izan zela. Borrokalekuaren lehen lerroan egotea ez da erraza, hala ere, eta bertatik gauzak beste ikuspegiaz ikusten dira. Arratoi amorratua legez eraso zigun. Mutilek erregelamenduaren arabera jokatu zuten denbora guztian, hori hala da, nire hitza daukazu. Garai latzak dira. Gure lana ez da sekula erraza izan, baina egun inoiz baino zailagoa da. Presiopean aritzen gara. Gainera, ez da komeni ahaztea gure gizonen morala hauskorra dela, hauskor egin dutela, hobe esan, eta gure jendearen artean egoneza eta kezka sakona dela nagusi –diskurtsoan aurrera ahala lehengo tonu barkamen eskalea mehatxukor bihurtzen zen, silabaz silaba–. Baliabide urriak ditugu. Jendez ere ez gabiltza luze. Esan daiteke egunean hogeita lau ordu eta astean zazpi egun ari garela, burubelarri. Gogorarazi behar al dizut, gainera, azken hiru hilabeteetan ez dutela agindutako diruaz pezeta bat bera ere ikusi? Gure ahulezia euren indarra da, hori ere gogorarazi behar al dizut? –azkenerako bibotedunaren hitz zakarretan zemai agerikoa gailendu zitzaion mehatxu lausoari.

Orain Gobernadorea zen hasperenka ari zena. Etsi aurreko hasperena. Etsia oihuz mozorrotu zuela, bakarrik.

– Konforme, baina gogora ezazu. Liburua! –garraxika, Gobernadorea–. Liburua nahi dut nire mahai gainean, astebetean! –oihuek komisarioaren aurpegian eragiten zuten efektua ikertu zuen, baina Petronio puruaren ke-ekranaren atzean ezkutaturiko mamua zen–. Jainkoarren, komisario! Juandeaburreren jauretxean sartu behar izatearena nahikoa txandrio bazen. Eta hori gutxi balitz bezala, orain hau!

– Autopsia ongi dago. Kazetariak mutu. Inork ez du txintik ere atera. Ez da ezer gertatu. Zergatik larritzen zara? –komisarioak ez zekien zer ateratzenago zuen gehiago bere onetatik, Gobernadoreak alfonbra bat bailitzan hartzen zuela ikusteak edo beronen gaitasun falta zenbaterainokoa zen egiaztatzeak.

Gobernadorea nerbioen preso zegoen; larderia garrasiarekin konfunditzen zuen, eta ukabil bat astindu zuen Petronioren sudur azpian, horrek ezer konponduko bailuen:

– Komisario, Kultur Ministroari agindu diot bi astetan liburua edukiko duela. Ez nauzu ipurdia agerian utziko, ezta!?

Hitzek mehatxua eta erreguaren artean egiten zuten igeri. Petroniok irri egin zuen bere baitan, baina aurpegia aldatu gabe. Bere baitan osatu nahi zuen puzzlearen beste pieza bat. Beraz, Gobernadoreak, liburuaren berri eduki ez ezik, berarentzat nahi zuen, baita ere. Piezak errepasatu zituen: Gutierrezek azaldu zionez, Barne Ministerioak ez zuen Gobernadorea horretaz informatu. Hortaz, informazioa Kulturatik zetorkiola ateratzea ondoriotzat erraza zen. Are, jauretxeko lapurreta Kultur Ministroak aginduta izatea oso litekeena zen, beraz. Gobernadorea zein gizon ahul, zein menderagarri zen argi ikusi ahal izan zuen; informazioa doan ematen ibiltzea, bere burua salatzen horrela ibiltzea... Eta jo eta dale liburuarekin. Hori besterik ez bazen... Egia esan, Petroniok *On Kixote*-ren ondoren idatziriko guztiari hutsala irizten zion, eta ez *On Kixote* sekula irakurri zuelako, baizik eta bazekielako hainbat unetan koartada ezin aproposagoa zitzaiola, eta ez zuen konprenitzen paper zahar

horiek sorrarazitako iskanbila. Hor konpon. Paperzaleak higuin zituen.

– Edukiko duzu. Putakume horrek ez zuen lagun askorik, eta bakarra ere ez kontrolatzen ez dugunik. Denbora kontua baino ez da –ez zuen Gutierrezekin harturiko konpromezua ahazten, haatik. Une hartan denbora irabaztea iruditu zitzaiola zuhurrena, bakarrik.

– Horren lagunak zure jendea kontrolatzen duzun bezala kontrolatzen badituzu, gureak egin du. Hurrengoan ez zarete onik aterako. Halako beste bat eta etxean zaudete konturatu orduko.

Komisarioak ez zuen ezer esan, eta plazako sastrerik onenak egindako jakaren oihala poliki lo datzan haurtxoa balitz bezala ferekatuz atera zen bulegotik.

Mila bider ikusita zeukan barreratik. Zezena zaldiari doakionean usuen. Pikadoreak lanari ekin eta jendea txistuka. Orduan toreroak esku batez pikadoreari zigor gehiago ez emateko eskatzen dio. Publiko txistukariari eginiko keinua da, keinua egitearekin batera ahopetik «emaiok, emaiok fuerte» esan ohi baitio zaldizkoari, burdina gehiago eske, halako moldez non, azkenik, pi-

kadoreak, toreroaren eskua dantzan ikusten duen aldioro, fuerteago ematen baitio zezenari. Ikuskizunak oro behar ditu heroiak eta bilauak. Nork bereari eustea eta egoera menderatzen dakiena baino ez da behar. Hala bera Kubiburuarekin. «Baina benetan usteko al du Kubiburua txiza egitera joaten ausartzen dela niri baimenik eskatu gabe?!», pentsatu zuen, «zinez usteko al du inkontrolatu andana baizik ez garela?». Petroniok erabaki zuen inor, ez eta Gobernadore mozolo hori, ezin zitekeela horren mozolo izan, eta hurrengoan kontu handiagoz ibiliko zela deliberatu. Horixe baitzen bere arazoetako bat, izan ere: inoren fede onean ezin sinetsia. Hortik egianahiak sorrarazten zizkion egoneza eta susmoa. Nahiz eta, inoren fede onean ez sinetsi horretan, hamarretik bederatzian asmatu egiten zuen.

–3–

Kultur Ministroak azalpen bat behar zuen, eta Gobernadorea zen atsegin gutxiko eginkizun hori hitz totel eta nahasiekin burura eramaten saiatzen zena, gertaeren ordena kronologikoa nahasiz, jazoerak eta balorazioak mataza berean harilduz, aginduen eta kontraginduen berri emanez; «istripu», «hutsa», «nire gizonak» eta «erregelamendua» bezalako hitzak ziren gehien entzuten zirenak bere mintzaldian zehar, eta narrazioa osatzen zuenaren arabera gero eta handiagoa zen noraezeko oste zalantzakor baten ibilera zoritxarrekoak kontatzen ari zelako inpresio penagarria, zirku hitsa osatzen zuten *troupe* alderrai baten hautsezko ibilera mesetarioak edasten ari zelako irudia. Eta *troupe*-aren arduraduna bera zela ez zitzaion burutik kentzen. Ministroak, besteren lotsa sentitzen hasia, keinu batez isilarazi egin zuen.

– Aski da. Beraz, esan nahi didazu ez duzula liburua.

Ministroak elkarrizketa eskatzen ziola jakin zuenetik, Gobernadoreak, edozer gertatuta ere, une horretantxe egin behar zuen aitorpen monosilabiko hori egitera behartuta egongo ez zela agindu zion bere buruari, hala edo nola jantziko zuela azkenik silaba bakar batez erabaki ahal zen kontua, eta agindua betetzeko prest zegoen, bere ahalbide murritzen neurrian baino ez bazen:

– Ez. Hau da, bai. Ez eta bai: ez dut liburua, bai, horixe esan nahi dut.

Gobernadoreak, zalantzarik gabe, horren ondoren emango zituen azalpenak ez zituen arretaz entzungo Ministroak: ez zegoen konforme, horra: Gobernadorea esaten ari zitzaion lapur txiki bat bidali zutela liburuaren bila, honek harpa jo nahi izan ziela eta eskarmentu handiko gizon batzuei lapurra beso artean hil zitzaiela –istripuz, jakina–, liburua non zegoen jakitera iritsi baino lehen.

– ...baina bila ari gara, jo eta ke –bukatu zuen momentu hartan Gobernadoreak.

Ministroak despeditu zuen bazkaltzera ere gonbidatu gabe. Horrenbestez, eta franko kezka-

tuta, etorkizuna bera kolokan ikusteko modukoa baitzen horren harrera hotza jasan izana, Gobernadorea Hotelera erretiratu zen, ezertarako gogorik gabe, kargua uztera behartuko ote zuten ere burutik pasatu zitzaiola, zeina, berez gozoa ez bazen, are eta latzagoa baitzen dimisioa aurkeztuko zuen lehena izatearen laidoa gainera-tzen bazitzaion. Biharamunean Barne Ministeriora egin behar zuen bisita ekaitz baten antzera irudikatzen zuen. Umiliazioa izan zitekeen jasangaitzena. Auskalo ez ote zuten Ministerioko pasabide luze bateko aulkian eseraraziko, eta bertan denbora luuuuze itxoinarazi, bertatik pasako ziren funtzionari maltzurren –ateak baino maratil gehiago ergelenak– irri egingarri. Trantze horretatik ez zela pasako agindu zion bere buruari. Txoferrari aginduko zion kotxea Ministerioko atetik gertu eta martxan zeukala egoteko zain, preziso izatera lasterrean ospa egin ahal izateko.

Horregatik ustekabe galanta izan zen Barne Ministerioko buelta. Aurreko arratsaldean Hotelean prestatutako azalpen luzeetatik ez zuen bat bera ere eman behar izan, Barne Ministroak, pertsonalki eta ezin amultsuago hartu baitzuen, kor-

tesiazko hitz batzuk baizik trukatu ez bazituzten ere; detailea zen garrantzizkoa, ordea, eta Gobernadoreari ez zitzaion oharkabean pasatu, are eta gutxiago aurreko eguneko arbuioa ezin ahazturik zebilen unean. Ministroarekin egon eta gero, Zuzendari Nagusiak ohorezko gonbidatu gisa harturik, *bakailaoaren bideko* droga trafikatzaile batzuen aurkako operatibo bat bertatik bertara ikustera eraman zuten, ondoren bazkaltzera Ministerioko goi kargu batzuekin, eta orokorrean, Gobernadore karguari zor zaion errespetuzko harrera egin zioten egun osoan. Eta egun osoan inguruan eduki zuen jendeak arta handiz ikusarazi zion zein garrantzizkoa eta onuragarria zen Petronio bezalako gizon konfiantzazkoak nominan izatea, zeharka gogorarazi komisarioaren zerbitzu-orria, poliki iradoki oso estimatua zela Ministerioan, ministroak berak oso kontzeptu onean zeukala. Gobernadorea konforme agertu zen besteen iritziekin, eta are, eskerrak eman zituen bere onerako ematen zizkioten aholku guztiengatik.

–4–

Bigarren anonimoa, lehena bezala, sobera zimurtutako holandar tolestu batean iritsi zen. Maiuskulei sakatzean karakterra goiko lerrora eramaten zuen idazmakina batekin idatzirik zegoen, eta typex nahikoa lehorraren arrastoak ikusten ziren han hemenka, erredaktoreak izandako duda-mu dak edo akatsen erakusgarri. Ezak Olivetti zahar bat izan zitekeela egin zuen kontu. Anonimoak latinezko esaldi bat zeukan izenburutzat: *Iulius exclusus e coelis*. Ondoren, lehen lerroek aurrekoaren tonutik ekiten zioten: «*Gizon bat hil da. Nor izango da hurrengoa? Hobe zenuke non sartu zaren jakingo bazenu*». Izandako lapurreta bat ere, nonbait, gogora ekartzen zuen: «*Izan duzu honezkero eraman zutenaren berri?*». Eta abar. Horrek guztiak ez zuen ezer berririk ekartzen, lehengoan esandakoaz berriro jardutea baizik ez zen. Interesgarriago iritzi zion bigarren parteari:

«*Goseac flacatuic du Diogoc Livino adisquidea ediren, ongi flacatuic eriden ere.*

– *Nondic çatoz, drauca galdeguin, penatuic*

– *Montacutusetic*

– *Iaquindurias betericago, nasqui*

– *Ez, iauna, zorris ongui beteric bai, aitzitic*

– *Paristic unic aldacarra?*

– *Baiqui, eta eçinsinhetsia: Beta sapit eta Quercus praedicat: Beta iaquinsuada eta Aritzac predicazentu*».

Ordurarte anonimoen asuntu hari, alproja edo eroren baten eldarniorik izango zelakoan edo, arreta gehiegizkorik jarri ez zion arren, bere buruari aitortu behar izan zion, lehen aldiz, harriturik zegoela; alegia, anonimo-hasierak horrelako jenero bati egotzi ohi zaizkion arauak betetzen zituen: omenezko informazio bat insidiaz barreiatu, mehatxua, lausoagoa edo agerikoagoa... Bigarren partea guztiz bestelakoa zen. Hau da, inori gorputzean beldurra edo susmo txarra sartu nahi bazaio, egokiak dira «nor izango da hurrengoa?» eta gisa horretakoak, baina inor ez da beldurtzen zer esan nahi duen edo zeri dagokion ez dakien latinezko esaldi baten aurrean: *Beta sapit eta Quercus praedicat.*

Egia zen Ezak benetan gauza apartekoak zituela ikusirik Fundazioan, benetan harrigarriak. Denetan harrigarriena arratsalde bestea ez bezalako batean gertatu zen. Ezak bazekien Luciano Goñiren pasioetako bat, ardoaz aparte, pintura zela. Arratsalde hartan Goñi jauretxera iritsi zen, itxura errespetagarriko beste bi gizonekin, eta jauretxea hustuarazi zuen ohiko ordua baino ordubete edo lehenago. Bertan lanean ari ziren guztiak bota eta gero kanpoko zaindariak baino ez ziren gelditu. Hustuketa gertatu zenean bera lorategiko zoko apartatu batean zebilen, jauretxean gertatzen zenaz ohartugabea, bere asmoa baitzen zuhaitz eta zuhaixken kimu berritutakoen zenbait argazki ateratzea, arratsalde haietako giro badaezpadakoaren argian. Jauretxera itzuli zelarik atea irekirik aurkitu zuen, eta harriturik ikusi ez zegoela inor barruan. Lehen solairutik zetozen ahotsak entzun eta bertara abiatu zen, ahotsen jatorria zen gelara deitu gabe sartuz. Han aurkitu zituen Goñi eta beste bi gizon margo bati begira, ez nolanahi ordea, baizik eta kordea galtzeko zorian baileuden, halako moldez non baitzirudien Jaungoikoarekin berarekin hiz-

ketan ari zirela. Ezak ere ikusi ahal izan zuen margoa. Ez zen oso aditua, baina ez zuen berehalakoan besteek erakusten zuten piura ulertu, margoa benetan nahikoa arrunta iruditu baitzitzaion. Natura mortu bat zen: *Camembert* horinabar soil bat, kadmio-zi troi eta Veronako berde margo-kolpe ttiki banarekin, plater baten erdian, mahai gainean, edalontzia eta boli beltzezko kiderra zuen laban baten artean. Eza berehala konturatu zen besteek, ezer esan ez bazioten ere, ez ziotela harrera onik egiten; are, hilobi baten azken babes intimoa profanatzen ari balitz bezala sentiarazi zuten bota zizkioten soakoek. Barkamena eskatu eta alde egin zuen. Goñi lasterka atera zitzaion atzetik, egoerak, Ezaren ustetan, merezi zuena baina askozaz ere azalpen gehiago ematera, harira letozkeenak batzuk, xelebre samarrak bestetzuk. Benetako pasioz, benerazioz ia mintzatzen zela iruditu zitzaion.

– Munduan oso jende gutxik ikusi duen margoa ikusteko aukera izan duzu, Koko. Urte luzeak zirela galdutzat ematen zen Toulouse-Lautrec bat da. Sekula egin zuen margorik bitxiena, segurutik. Bitxiena, hain zuzen, mugimenduaren

margolaria zenak egin zuen natura mortu bakarra baita. Ez du preziorik.

Hain egin zizkion diskrezioa erabatekoa gordetzeko eskaera sutsuak ezen Ezak benetan hartu baitzuen koadroarekiko interesa, eta Toulouse-Lautrec-i buruzko katalogoak begiratzen hasi, koadroaren berri zehatza eduki ahal izan zuen arte. Horrela jakin ahal izan zuen benetan koadro bitxia zela, oso bakandua: ia mende oso bat desagerturik, katalogoetan azaltzen bazen François Gauzi-k, Toulouseren laguna eta biografoetako bat, bere berri ematen zuelako zen. 1887ko *Salon*-erako prestatu zuena omen zen. Katalogoek ziotenez, *Salon*-eko epaimahaikoen gainean trufa egiteko sorturiko margo apala zen, berez, teknika eta exekuzioaren aldetik, benetan balio handirik gabea; bere balio ikaragarria, aitzitik, bitxia, bakandua eta besteak ez bezalakoa izatetik zetorren, hain zuzen, bildumagilerik exijenteenaren apetarik txundigarriena asetzeko modukoa omen zelarik.

– Florenciok erosi berri du dirutza ikaragarria ordainduz –jakinarazi zion Goñik–. Baina ez da

berarentzat. Opari bat egiteko da. *Oso pertsonaia bereziari* egin nahi dion oparia.

Beharbada, gauzak bestela izatera, Ezak onartuko zituzkeen Goñiren azalpenak burua sobera hautsi gabe; anonimoen asuntua zegoen, ordea. Eta horietan Fundazioari buruz esaten zirenak: lapurren kobazuloa, hau, hori eta hura ote zen; ondoren arte-munduak aspaldi desagertutzat ematen zuen Toulouse-Lautrec bat halako batean ageri. Eta gero *Beta sapit et Quercus praedicat*. Honek guztiak barne-egoera deserosoan jartzen zuen; hasi zen inork zerbait esan nahi ziolako posibilitatea estreinakoz eta serioski kontuan hartzen.

–5–

Koko Ezak, oroimenaren artxibo pertsonaletan gordetzen zituen agiri gutxien arabera, inork merezi ez izanagatik, horrelakorik beste edozeinek baino gutxiago merezi zuen hiri bateko alkateak Udalak ematen zuen saria irabazi zuenari ipuina erre zionean ezagutu zuen Luciano Goñi. Erre ondorengo alkatearen aurkako matxinada orokorrean, hobe esan. Kokok orduan *El Pais*-erako egiten zuen lan, argazkilari. Hirurogeita hamazortzian izango zen, hemeretzian, beharbada? Hor nonbait. Erreketarenak hautsak harrotu zituen. Kokok eraman zituen *El Pais*-era alkatearen aurkako mugimenduko notableak. Harrera ona egin zieten; ez zen hain harrigarria, egia esan: diktadurak oro higuin ditu intelektualak, ez ditu behar, apenas, gutxi batzuekin nahikoa du eta, ondorioz, intelektual gehienek ez dute behar bezala bazkaltzen. Intelektualak, orduan, normala denez, diktaduraren aurka daude; kritikoak dira eta konpromezuaz hitz egiten dute. Intelektual kritikoak, diktadura batentzat, behi baten-

tzat mandeuliak direnaren pare dira: ez dute ezer funtsezkorik aldatzeko indarrik, ez dute behiaren adar puntaren punta ere itxuraz aldatuko, baina nazkanteak dira, oso. Orduan sistemak, intelektualak batere aintzat hartu gabe, bestelako inguruabarrak direla eta bere buruari birmoldatzeko garaia iritsi zaiola klaro ikusten duelarik, hainbat gauza aldatzen du, eta horien artean, oso gauza hirugarren edo laugarren mailakoa bezala, intelektualen asuntua ere bai. Intelektualak –batzuk– hasten dira orduan gero eta hobeki bazkaltzen, eta zenbat eta hobeki bazkaltzen duten, orduan eta gehiago ahazten dira kritiko izatearekin. Benetan ongi bazkaltzera iristen direnen kasuan oso nabarmena da izan ohi den joera aldaketa: kritiko izatearena matraka hutsa iruditzen hasten zaie, eta, emeki-emeki –edo lasterka bizian, erritmoetan ez baitago halako prezeptiba garbia–, propagandista bihurtzen dira, soineko zaharrak ibaira boteaz. Ongi bazkaldu ez ezik, mintzatu egiten dira. Hau, berez, ez da batere harrigarria; jende guztiak hitz egiten du, zergatik ez dute, bada, intelektualek ere hitz egingo? Baina, horra diferentzia, intelektualen

esanak iritziaren mailara iristen dira, eta maila har tara iritsi direlarik anplifikatu egiten dira, eta azkenik intelektuala publiko zabalari mintzatzen zaiola konturatzen da. Figura bihurtzen dira, halako nagusigo bat hartzen dute, eta kasurik azpimarragarrienetan sazerdoteak izatera heltzen dira, kultura, hitza eta iritziaren sazerdoteak. Burua lehengo lepotik segitzen dutenek, arrabiatzeko arrazoiak eduki zitzaketenek, aldiz, gero eta okerrago bazkaltzen dute, are, nahikoa lan izaten dute hil bukaerara iristen, eta idolaz erortzen zaizkien infamietatik bere burua defendatzen, eta arnasa doi hartu eta doi botatzeko gaitasuna daukaten fosil, zonbi bihurtzen dira. Ezak gogoan zuenez, ipuinaren erreketa goian deskribaturiko borroka dietetikoa abiadura osoan martxan ari zenean izan zen. Gauzak honela, ez zen batere arraroa Madrilen salmenta ona edukitzea bere burua demokratikotzat jotzen zuen alderdi bateko ordezkari pisuzko batek horren interpretazio historiko erratu eta desbideratua egin izana; are eta gutxiago alderdien arteko hauteskunde-lehia hastear zegoela. Inkisizio berria Euskal Herrian. Izenburu politak. Alkate demokrata

nahi baten eldarnio piromanoak. Makina batek atera zion ezpala egur eroriari. Koko Eza ez zen detaileekin gogoratzen, orduan ere ez zela haur bat eta ez zuela gauza handirik sinetsi besterik. Luciano Goñik –Ezak hala eskatuta zita eman ziona ardo ona zerbitzatzen zuen taberna pitzatu batean–, aldiz, xehetasun guzti-guztiak zituen oroimenean, eta haur batek Disneyland-era joan zenekoa kontatuko lukeen bezala errepikatzen zuen, hainbakarrenez.

– Gogoratzen? Inork Eskoziako destileria ospetsu horietako batera eraman ezean nekez senti nezake nik horrelako zirrararik, egun. Laugarren solairura eraman gintuzten, zuzendaritzakora. Hantxe zeukaten, orduan bederen, kafetegi txiki bat, zuzendariaren jantoki pribatua, eta ondoan bilera-gela, beharraren arabera jangela ere bihur zitekeena. Egun hartan hogeita lau ari omen ziren han bazkaltzen, Cebrian, Isidoro, Alfonso, Nico eta horiek denak. Zuzendariordeak hartu gintuen, gogoratzen al zara? Barkatu, esan zigun, Juan Luisek ere agurtu nahi zintuzten, baina lasai egon nahi dutela eta inori sartzen ez uzteko agindua eman du. Orduan Cebria-

nen beraren jantoki pribatura sarrarazi gintuen. Gogoratzen naiz gela txikia zela, egurrezko mahai bat erdian, zortzi bat lagun eroso esertzeko modukoa. Mahaia harizko mantal fin batek estaltzen zuen. Gogoan dut oraindik ondoan sukalde txiki bat zeukatela, ez ezer prestatzeko, jakiak gorde edo berotzeko baizik; bazkaria aldameneko kafetegi batetik eramaten zuten: Cafeteria Bruselas izeneko batetik, oker ez banago. Oraindik akordatzen naiz bazkaldu genuenarekin: frantsesporru krema eta lengoradua *meunier* erara. Ez pentsa beste munduko ezer zenik, ez horixe. Txukun, baina ez primerakoa. Menu arinak egiteko ohitura daukagu, esan ziguten, desenkusa gisa edo, Txanton Piperriren familiakoak izango ginela aurrez iritzirik edo, nonbait. Jantokiko zoruko moketa marroia zen, solairu guztian bezala, eta paretak, beilegiak...

Ezak ez zuen Goñirekin zita jarri berak besteak baina aise hobeki ezagutzen zuen toki baten deskribapena entzuteko.

– Luciano, isil zaitez pixka batean... Horiek kontu zaharrak dira. Nik Fundazioko kontuez

mintzatu nahi nuen, laneko kontuez... Lur hartzen ari naiz oraindik.

Goñik begia klikatu zion eta beste dozena bat sardina erre eskatu tabernariari. Eta beste botila bat ardo. 1987ko Remelluri.

– *In vino veritas*. Zer nahi duzu jakin? Florencio Juandeaburreren berri, esate batera? Florencio alproja bat da, kabroi bat, kabroi sinpatikoa, kabroi sinpatiko diruduna, sekulako diru mordoa dauka, ez daki zer egin diruaz...

– Diruaz zer egin baino dirua nola egin ohi da arazoa...

– Harreman onak dauzka. Oso onak.

– Zeri deitzen diozu zuk harreman ona?

Goñi berbalapikoa zen, hori bazekien Ezak aspalditik. Lasto, mordoilo asko botatzen zuena ere bai. Adi egonez gero, lastoa eta alea bereizten jakinez gero, zeozer ateratzen zen. Matraka jasan beharra. Remelluriri ekin zion Ezak, apur bat girotzeko eta apur bat berak ere ez ziolako ardo onari muzin egiten.

– Kultura Ministroarekin. Errusian egon dira berriki elkarrekin. Nola moldatu den horren laguna egiteko, niri ez galdetu, baina parranda guz-

tietara elkarrekin joaten omen ziren azken aldi honetan, orain gutxi arte behintzat, Florenciok negozio batzuk zirela eta ospa egin behar izan duen arte, alegia. Errusian ere parranda ederrak bota omen zituzten. Florencio hau azeria ere bada, ez pentsa; izango duzu ezagutzeko aukera, bai horixe. Edozein egunetan azalduko da hemendik, hala espero dut, bederen. Errusian hainbat jende, enpresariak eta abar, ibili omen zen bertako agintariekin negoziaketan, denetariko inbertsioak egiteko asmotan, kontu horiek, badakizu. Errusian, egun, ezin duzu puzkerrik ere bota agintarien baimenik gabe, eta tratuak itxi nahi omen zituzten bertara joan ziren guztiek... Bada, gure Florenciok artegaiak maneiatzeko oso itun lehentasunezkoa zerratu omen du. Ministroa bera saltsan egotea ere litekeena da, ez dakidalarik bera pertsonalki dabilen edo Ministerioa inplikatu duen. Dena legezkoa, e? Errusiakoa ongi joanez gero Juandeaburre Fundazioa Europako kulturgune garrantzizkoenetako bihur liteke... –Goñik basoak bete zituen–. Adibidez, gogoan edukiko duzu, noski, aurreko eguneko margoa, ezta? Toulouse-Lautrec-en *Camembert-*

az ari naiz, jakina. Errusian, margo-bilduma pribatuetan, hori bezalako egiazko altxorrak badaude. Hori da Florenciok jaso duen lehen pieza, baina ez da azkena izango, noski. Orain, komeni da honetaz ezer ere ez esatea; tratuak aurrera doazen arren badakizu gauza hauek delikatuak direla: dena hondora bota eta gu ederki izorratu nahi duen jenderik ez da falta, noski. Jakingo bazenu *Camembert* hori nori oparitu dion...

– Nori?

– Ez dut zuzenean esango. Hori bezalako pieza oso bakandu eta bitxiaren mailako margo-bilduma duen bildumagile *berezi* bati.

Bada, ez baduk esateko asmorik, isil hadi. Baita Balduino erregeari oparitu badio ere, pentsatu du Ezak, badakiena solasa nora eraman nahi duen, Goñik Fundazioan izaniko lapurretaz zer dioen entzun nahirik.

– Luciano, barka ezazu, entzun dut zeozer, Fundazioan izan zen lapurretaren bat edo... –bestela bezala ari zen. Goñiren begietan inazture ilun batek egin zuen eztanda, ezpainetako irribarre dentifrikoa begiek une batez adierazitakoa gezurtatzen saiatzen bazen ere.

– Jakin duzu, ezta? Utzi txikikeria hori alde batera, benetan –eskuek denetariko keinu lasaigarriak egiten zituzten–. Ez dut ukatuko afera horrek pittin bat ukitu gintuela, benetan gertaera erabat erridikulua baizik izan ez bazen ere. Baina, badakizu, jendeak marmarra eta gaizki esana maite du. Bestela aspertu egiten da. Orduantxe erabaki zuen Fundazioak inor kontratatzea egiten ari zaren lanari ekiteko, jauretxeko obrak azkartzea jendeari ateak lehenbailehen ireki ahal izateko. Zurrumurruak eta marmarrak isilarazteko modurik onena da. Ez du merezi horretaz gehiago hitz egitea –Goñik basoak bete zituen, elkarrizketa berriz bideratua zuela iritzirik–. Bada, lehen esaten nuenera itzuliz, paretak beilegiak ziren eta bertan hiru margo zeuden, eta ederki asko gogoratzen naiz, egoera aprobe txatu nuelako nire ezagupenak agerrarazteko. Koadroak Urbina, Cabestany eta Estradarenak ziren. Beha gelditu nintzen. Zuzendariordea hurbildu zitzaidan, seguru asko koadro bat ikusten nuen lehengo aldia dela uste duenaren gurasokeria horrekin, tortolo halakoa, eta ea gustatzen zitzaidan galdetu. Lehen Tragoniatik etorritako

mozoloak, eta orain kultura ezatik lurreraturiko basapiztiak. Gu ere zerbait izango gera, besteak esaten zuen bezala, ezta? Ez dago gaizki, esan nion. Estrada bat, oker ez banago. Ezagutzen al dituzu Estradatarrak, galdetu zidan, txunditurik. Jakina, nik: Juan eta Ignacio Estrada, anaiak, Badajozen jaioak, hemezortzigarren mende hasierakoak, elkarrekin lan egiten zutenak. Txikia hobea zen baina nagusia izan zen San Fernando Arte Ederretako Akademiako kidea izatera iritsi zena. Akademiari hautsa astindu genion: Zubiri aipatu nion, izorra hadi, hori ez duk ezagutuko, ez horixe. Besteak, gurasokeria ezin utzirik nonbait, Estradaren estiloari buruzko lau tontakeria merke esaten hasi zitzaidan. Orduan piztu egin nintzen; hainbatek usatzen duen espartinezko inperialismo gaupasa egindako horrek onetatik ateratzen nau, zeharo, orduan bezala gaur ere. Bistan da, esan nion, bistan da. Eskolaren ibaitik gora ekin nion, izokinak bezala: Juan Estrada eta Pernicharo, bai, Zaragozakoa, horixe, San Fernandon zuzendaria izandakoa, eta Pernicharo Houasse, eta Houasse Le Brun, eta Le Brun, Poussin, eta Poussin Fernando Elle-rena, hor

daukak, Estradaren arte guztiaren jatorrian Elle zegok, erretratista flamenkoa berau, XVI. mendekoa, maisuak flamenkoak dituk, ez espainolak. Orain nahi al duzu Urbinarekin hastea? Ez zuen nahi izan, jakina, nola nahiko zuen eman nion errepasoa eman eta gero, hortik aurrera molde askietsiak oro alde batera utzi zituen...

Ezak, jada erdi mozkorturik egon arren, detailea gogoratu zuen. Zer planetatik ekarri duzu izaki hau?, galdetuko zion hurrengo egunean zuzendariordeak. Nahikoa azkartasuna izan zuen Goñiri hirugarren Remelluri hilotzari buelta eman baino lehen azken basokada zerbitzeko. Eta besteak edaten zuela aprobetxatuz, lehengora itzuli zen, temaz:

– Ba, entzun dudanez, lapurreta ez zen hain gauza gutxi izan. Ez al didazu kontatuko?

Bestearen erantzun gisako bafada etilikoak aspertzen hasia zela esan nahi bide zuen:

– Hi, goazemak neskatan –eta Kokoren aurpegian harridura irakurri zuenez, azalpen bat emateko beharra sentiturik edo:– ordainduz, jakina.

–6–

Batzuen astakeriak egiteko gaitasuna besteen beroriek estaltzeko abileziarekin baizik ezin daiteke konpara. Petroniok falta zuen zinismoaren agerpenik gorenenak eraginkorra izateko beharrezkoa duen hizjario labainkorra, oliozkoa, eta are, gutxieneko kultura, bigarren sailekoen artean egoteko, eta urteak aurrera ahala gero eta urriago biltzen zituen astakeriak –egiazko astakeriak, baina– egiteko behar ohi diren dohainak –ankerkeria eta oldarkeria, batez ere– lehen sailekoen artean nabarmentzeko. Eros-en bultzadak handiagoak ziren garaian behar den gutxieneko ankerkeriari imajinazio hein ez gutxiestekoak gehitu bazitzaizkion ere, Tanatos-en hurrenez hurreneko nagusitasunari esker jazarkeria agortu zitzaion emeki-emeki, eta, finean, onenak emanda zegoen torturaren praktika aktiboari dagokionean, ia behin-betiko tiroa emateko gauza baizik ez zela, eta hau ere gero eta gutxiagotan. Hala ere, Petroniok, bizi profesional arrakastatsu eta luzearen ondoren jubilazioa asaldura ekono-

miko larririk gabe itxoiten zuena, jakin zuen bere burua birtziklatzen hori beharrezkoa zen une zehatzean, eta astakeriak egiten zituztenen zein beroriek estaltzen zituztenen arteko zubia egiteari probetxamendu nabarmena ateratzen zion, hainbat arlotan nabaritzen zen probetxua, gainera, zeren, modaren apetak asetzeko –klasikotasunaren barruan, beti ere– nahikoa diru biltzeaz gain, legea errespetatzearen eta demokrazia zaintzearen ondoriozko abantaila moralez gozatzen baitzen, eta, bide batez, piper pixka bat jartzen baitzion lanaren gazi-gozo horrerik gabe aspergarri gertatuko zitzaion bizimoduari.

Nire ofizioan, pentsatzen zuen Petronio komisarioak, zezen munduan bezalakoxea da. Hareazko biribila garbitzen dutenak daude, eta zezen-atea irekitzen dutenak, eta... baina horiek ez dira inor, ez dira ezer. Pikadoreak badaude, baina horien gainetik dago oinezko pioi arrunta, eta zer esanik ez banderillak ongi jartzen dakien pioia. Eta guztien buru, maestroa, bere gisako erregetxoa, festaren erdigunea. Baina oker dabil maestroa dela jaun eta jabe uste duena. Horren gainetik beti dago zezenketa-presidentea, ze-

zenketak nola behar duen uneoro erabakitzen duena. Eta horren gainetik, oraindik ere, dirudu-na, enpresarioa, alegia. Bakoitza zer tokitan jar-tzen den, hau da, non uste duen bere burua, besterik da. Eta Petronio, bere burua zenbaitzue-tan pikadore ikusiagatik, gehienetan torero sen-titzen zen, zezenketako protagonista. Zezenke-ta, zezena eta toreroaren arteko gatazka, izaki adimendun eta basapizti baten arteko borroka da, bi borrokalarietako baten irabaztearekin bu-katzen dena. Zezena mendean hartu estetikoki toreatu ahal izan arte. Domingo Ortegak zioen faena hastean zezenari belauna jaitsiarazi behar zaiola; eta Manoletek erantzun: zuk belauna jai-tsiarazi bitartean neuk sei natural eman dizkiot. Fakultateak galtzen hasten direnean, ordea, nahikoa lan faena burutzen, faenari nola eman zaion hasiera burmuina hausten egon gabe. Ko-misarioarentzat pikadore eta pioi onak izatea gero eta garrantzitsuagoa zen. Ezinbestekoa. Hortaz, Kubiburua kartzelatik libratu eta bergi-zarteratzeko aukera eman zion eguna momen-tuan uste baino are inbertsio onuragarriagoa gertatu zitzaion. Laguntzaileren bat psikiatriko-

gaien artean bilatzeak beti izan du abantailarik, ankerkeriaren dosi onik gaineratzen du, onuragarria gertatzen dena, jeneroa nola gobernatu jakinez gero. Kubiburuak zakurrarena txiki utziko zuen fideltasuna zion, eta urteetan zehar, betiko asaldatzaileek sustaturiko hainbat sumariotatik ia zigorrik gabe ateratzen lagundu ondoren, berau ia erabateko menpekotasun izpirituala zen. Kubiburua zigorrik gabe baina ukituta atera zen sumario haietatik, eta horri esker, erabat mantxatua ez baina susmopean atera izanari, hain zuzen, Petroniori errazagoa izan zitzaion jefeak komentzitzea bigarren mailako zezen plaza hartan utz zezaten, helburu handiagoetara gabe. Prestazio handikoa zen Kubiburua: basatikeriarik handiena egingo zizun hotz-hotzean, preziso izatera. Berotuz gero espezialitatearen katalogoa ia amaitezina zen, eta, justua zen aitortzea, horietako batzuk Petronio bezalako gizon zaildua zurbiltzeko modukoak ziren, batez ere «bezeroa» emakumezkoa izaki, «zerbitzua» duda-mudazko plazerra izatetik egiazko goza men-iturri bihurtzeko perspektibak izatera iristen zenean. Horixe zen bere arriskurik handiena beste ofiziokide

zuhurragoen ondoan; ohiko espezialista bat, arrunta, buruz osorik eta behar bezala betea, estandarretatik hurbil ibiliko zitzaizun beti, hamarretik bederatzian helburuak beteko zizkizun eta afera ehunean behin baino ez zitzaion eskutik joango; baina lan benetan berezi bat egiteko gauza ere ez zitzaizun izango. Kubiburua, oinazea ez ezik, beldurra emateko gauza ere bazen, baita gizonik zailduenari ere. Lanak, Kubiburua kontrolatzen. Jakin egin behar.

Petroniok, goiz hartan, lapur txiki defuntuaren lagun, ezagun, ohitura eta bizimoduaren gaineko ohiko txostena bildu ondoren, lanean hasteko asmoa zuen, eta horretarako konfiantzazko pikadorea, Kubiburua, alegia, eta oraindik hirurteko bat osaturik ez zeukan mozolo bat –hartarako jaidura erakutsia, beti ere–, hildako konfidentearen sukaldea apurtu zuen bera, bildu zituen. Putakume hura garbitu diagu, eskatu bezala, pentsatzen zuen. Orain liburua aurkitzea ez duk zaila izango. Ikusiko diagu, ondoren. Ideia hauei bueltaka zebilela, hizketan hasi zitzaien, praketako marra, belaunetik behera, berezko ibilbide-

tik pittin bat desbideratzen zela disgustuz baieztatzen zuen bitartean:

– Ba al zenekiten XIX. mendean zehar hiltzen ziren hiru zezenketarietatik bi pikadore zirela!?

Subalternoek argi bereizi zuten tonu mehatxukor eta haserrea, baina ez zuten ezer ulertu. Petronio bide konbentzionalagoetara itzuli zen, eta ukabilkada bat eman zuen mahai gainean.

– Ederra egin duzue! Ederra, gero! Gobernadorea gozo zegoen. Ikerketa bat ireki nahi zuen. Ordubetez aritu behar izan nion aplakatzeko. Ez dakizue zer nolako egoskorra den. Kontuz ibiltzeko esan zidan. Zeuen berri baduela –eta ondoren, txostena mahai gainean ipiniz:– liburua hamabost egunetan edo ikerketa martxan jarriko da. Eta hala balitz, neronek ere ezer gutxi egiten ahalko nuke zeuen alde.

–7–

Antzinako beltz famatu horren harresiak esku propioz amilarazten lagundu zutenetik ez zuten gaztelurik uzteko asmorik, ez noski. Honezkero mende batzuk bazirela negozioaren kargu hartu zuten, eta ez zuten denda ixteko gogorik, ez horixe. Urtetan eta urtetan piramidearen goialdea euren menean ia beti eduki izanak sorrarazi bide duen ohitura autoritarioei uko egin gabe, arituak ziren arineketan prestatzen eta egokitzen boterea beste modu ez hain agerikoetan gozatzea eska lezaketen beste egoeretara, gaztelua sukaldetik eta ez tronutik gobernatzen, alegia; beti ere euren sukalderako jaitsiera horiek labur izango zirelako uste osoan, beren bokazioa, inongo zalantzarik gabe, alkate-makila baitzen: hau da, boterea bere adiera guztietan eta sakonera osoan eskuratzea, baita bere detailerik txikien eta azalenekoetan ere, jauntxoei dagokien bezala. Eskarmentu luzeko klase politikoa osatzen zuten, maltzurkeria klase guztietan ikasiak; ez ziren sobera azkarrak, beharbada; are, esan lite-

ke ez zirela batere sentiberak humanoen arima ukitu ohi duten gaiekiko, ez zutela artearekiko sentikortasunik, elkartasuna historiaren pareten kontra mila bider punpatutako oihartzun zahar eta urrutikoa baizik ez zela haien belarrientzat, inkisidore sena edozein unetan eta arrapaladan azalarazten zitzaiela; hori eta askoz ere gehiago esan ahal zitzaien, baina ezin ukatuzkoa zen bereganatutako gaztelu zaharraren pareta gordetzen ez zutela parerik; hain zela alimalea horren kariaz garatutako ahalegina, hain amaigabea itxoiteko gaitasuna, ezen euren interesen pareta eskergan zulotxo txiki bat egiten saiatzera ausartzen zen edozeinek sekula-sekulotan madarikatuko zuela burutazio hori egin zitzaioneko eguna; denbora luze joanak ematen duen eskarmentuari endogamia urrin txarrekoak, mendeetakoa hau ere, eman ohi duen oroimen zaharra gaineratzen baitzioten, eta osagarri hauekin politika bere esentzia perbertsoenean soiltzen, islatzen, bakantzen asmatu baitzuten: eta egun bazekiten, harro jakin ere, politika arte bat zela: aldameneko kristaua, hurkoa, ederki eta betiko izorratzeko artea, hain zuzen ere.

Petroniok aurrez aurre zeukana politikari klase horren delfinetako bat zen. Bere aurpegiaren adierazpena hieratikoa zen, eta fama zen ez zuela ia behin ere betarteko muskulurik mugitzen. Petroniok bazekien, baita ere, aparatuan pisuzkoa zela eta egiazko agintea ez izanik ere sanedrinarekin harreman estuan zegoela. Kasu, pentsatu zuen komisarioak, hau ez da haizeak ekarri eta eraman egiten duen Gobernadore ments horietako bat. Honen semeak, eta semeen semeak, eta semeen semeen semeak oroituko dira nitaz urrats oker bat ematen badut. Eta, martxa honetan, alabaren alabaren alabaren bat ere bai.

Politikariak bere landetxe txukunera biltzeko eskatu zion, jai egun batean. Komisarioa harriturik gelditu zen, ez baitzen usu gertatzen jauntxoen ordezkari koalifikatutako batek horrelako konfiantzarik eskaintzea bera bezalako morroi ilun bati. Aparteko zerbait esan nahi ziola seinale. Landetxeak landarezko hesiek inguratutako lorategi txikia zuen, eta hantxe egin zion harrera politikariak. Petroniok ezagutu zuen txokoko sahatsa, non politikari hieratikoak egiten zituen

hauteskunde kanpainetarako argazkiak. Politikariak, komisarioa bere hautesle kontserbadoreenen artean egon litekeela iritzirik, sahatsarena bere egiazko terminoetan ezartzea preziso zela juzkatu zuen, eta mintzatzen hasi zen, Petroniok bere oinetakoen punta ezin distiratsuagoei begiratzen zien bitartean.

– Eguneratu beharra dago. Egun jendeari gustatzen zaio natura zaintzen delako ilusioa sinestea; badoaz, hegazkinez, gainera, milioika lagun bizi den metropoli batera, hau da, kontsumo eta naturaren ustiapenaren paradigma den gune garrantzizko horietako batera, eta hotelera iristean papera ekologikoa ez bada arrenkuratzen dira. Ez papera bakarrik: xaboia, orrazia, kolonia, preserbatiboak... denek behar dute ekologiko izan, eta biodegradable. Horrek lasaitzen ditu euren kontzientzia txarrak. Hortaz, neu ere ekologikoa nauzu.

Bulego antzeko batera pasarazi zuen. Notable probintziano batekin ezkonduta egotea Estatu Batuetako lehen dama izatea bezalakoa zela aise uste zuen emazteak kortesiazko agurra egin zien, kafea ekarri ziela profitatuz.

– Emakumea, borrokalarion atsedena. Ezkonduta zaude?

– Alarguna naiz.

Hainbat kunplimendu esan behar izan zituen politikariak, gogo handirik gabe, kale egin izanaren ordainez. Luze gabe denbora gehiago galtzeak ez zuela merezi erabaki zuen.

– Ezagutzen nauzu, eta ez zara gauza handirik harrituko; harira joango naiz segituan: garbitu duzuen tximu horrek konpromezu bat zeukan gurekin.

– Zein?

– Liburua guri emango zigula.

Petroniok barre lehor bat bota zuen. Puzzlearen beste pieza bat: horra hor zergatik konfidenteak, aurretik adostu bezala, liburua Gobernadoreari eman beharrean, beretzat gorde nahi izan zuen. Beste erosle batzuk ere bazituelako. Nor ziren erosle horiek? Aurrean zeukan politikari horrek ordezkatzen zituen jauntxoak. Gutxienez horiek. Auskalo beste bezeroren bat ere ez ote zitzaion atera izan.

– Putakume hura ez zen fidagarria. Gurekin ere konpromezu hori bera zuen. Saltzaile txarren

antzera jokatzen ari zen: bioi adarra jo nahi zigun salneurriak gora egin zezan.

– Eta horregatik akatu zenuten?

– Ongi merezia zuen. Baina gaindosia izan zen.

Musu aldagaitzak eraldaketa mingarria jasan zuen; aurpegia gorritu egin zitzaion, imajinazio neurri handiaz irribarretzat har zitekeen keinu izugarria egiten zuelarik. Komisarioari besteak ahoa erdi irekitzearekin batera azufre usaina barreiatzen zela iruditu zitzaion, baina ez, ezin zitekeen horrelakorik izan; gehiegi zen. Jantziaren poltsikoetan miatzen hasi zen, hortaz, poxpolo itzaliren bat edo ote zuen ikusteko asmoz.

– Tira, tira... Gaindosia...! Tontoa naizela uste duzu?

– Hala izan zen, zuk sinetsi ala ez.

Mozorro hieratikoak poliki hitz egin zuen, oso poliki, ageriko asaldarik gabe.

– Begira, Petronio... Ez zaizu inportako Petronio deitzen badizut, ezta? Zu eta biok itsasontzi berean gaude, nahiz eta, nolabait esan, lematik hurbilago edo urrutiago egon... Momentuz ez zaigu gauza handirik inporta zergatik akatu ze-

nuten. Jakitea badaukagu, ordea, ez pentsa. Gehiago dena, aztarna batzuk baditugu; guk ere badauzkagu lagunak hiriburuan. Adibidez, jakin badakigu Kultur Ministroak interes bizia duela liburua eskuratzeko. Baina badirudi ez dela bakarra. Zein da bestea, edo besteak? Zuk noren alde egiten duzu?

Petroniok ahal zuen bezala jaso zuen kolpea. Ezizenez deitu baitzion, nork eta politikari batek; ez zegoen ohituta. Azufre usaina berriro sudurreratzen zitzaiola sentitu zuen. Politikariak bestearen isilunea aprobetxatu zuen.

– Zer txandrio daukazuen esku artean, hor konpon. Momentuz bederen, berriz diot. Geuk ere gure mugak ezagutzen ditugu, ez pentsa, eta ez dugu eskandalurik nahi. Esamesak-eta iristen zaizkigu, hala ere, jende guztiari bezala. Kultur Ministro batek liburu bat eskuratu nahi izatea normala da, ezta? Are, esan liteke xede hori oso egoki zaiola, daukan kargua daukala. Baina beste inork liburua eskuratu nahi izatea... Zein da beste hori? Defentsa Ministerioa? Barne Ministerioa? Eta zergatik? Zer itsuskeria gordetzen du liburuak? Latza izan behar du, gero, tipo

bat garbitzea justifikatzen badu... Bai, badakit, gaindosia izan zen. Forentseak zerbait esan digu, bai, heroina neurriz gaineko dosia –matrailak gorritu zitzaizkion pixka bat forentsearen aipamena egitean–. Baina, nioenaren harira itzuliz, gure mugak bezala gure terrenoa zein den ere ezagutzen dugu, eta gure terrenoan ez digu inork harpa joko, ez zuk, ez zure Gobernadoreak, ezta Gobernadorearen gainetikoek ere... Horiek ere ez: horiek beste inork baino gutxiago. Zenbat eta azkarragoak izan, orduan eta garbiago konturatzen dira honelako gorabeherak geuk garbitzen ditugula beste inork baino hobeki.

– Zer esan nahi didazu, justu?

– Liburua aurkitzen duzunean niri eman behar didazula.

Petronioren ustetan, tipo hura omenka ari zen. Ez zekien gauza handirik. Baina, fama zenez, milaka pertsonak osatutako manifestaldi bat irainka ari zitzaion etxeko leihopean, eta tipo horrek ez omen zion horregatik periodikua leitzeari uzten. Erretorika parlamentarioaren dardorik zorrotzenak entzunik ere betartea ez zitzaion mudatzen. Litekeen gezurrik handiena

esan behar izatean ez zitzaion keinua aldarazten, eta sexuaren profesional batek espezialitaterik beroenak egiten zizkiolarik ere –asmazioa, tradizioz, Frantziako seme-alabei egozten zaien huraxe, adibidez–, bere harrizko aurpegia ez zen ezertarako ere asaldatzen. Ba omen zen gauza bakar bat munduan politikari gogor hura lerdea zeriola jartzen zuena, orgasmorik kosmikoenak baino mila bider areago kilikatzen zuena: kontrarioaren haragi bentzutuetan, itxoinaldi luze baten ondoren, otso-hortzakada hilkorra ilkatzeko unea iristen zela ohartematea. Petroniok ez zuen detailetxoa burutik kentzen, zer gerta ere, eta joko hartan kartak arta handiz jokatzera prestatu zen. Denbora irabaztea izaten zen onena horrelakoetan.

– Ongi ba... Liburua zuena. Eskuratzen dugunean, ordea.

Azufre usain hori... Petroniok ez zuen poxpolo itzalirik aurkitu, ordea, beti bezala makularik ez zuen jantziko sakeletan.

–8–

Zenbaezina da ilunezko molekula batean sar daitekeen izu guztia, gauaren tripa hutsean haz daitezkeen munstroak zenbaezinak –eta zenbaezinak ezezik, kontagaitzak– diren bezala; makina bat itzal mehatxukor dakar lagun ilunbeak; gauaren denborarik ezaren ispilu aldrebes desitxuratzailean distortsionatutako izpiritu garrasilariak, gogoko hontza hegalarien gisara itzultzen diren irudi lauso, alderrai eta zemaikorrak, erabat gauzatu gabe airean desegiten direnak seta errepikakorrarekin osatzen hasteko berriro, kontzientziari arrazoi garbirik gabe halako batez, bizitzaren bihurgune batean, ebatsitako ametspusketak arraso ezin uxatuak, zio baten eske itzultzen direnak. Sartzeko baimenik edo zita eskatzeko zergatirik behar ez duten mamu ukiezinak. Izuak bereganatua zegoen Margot, eta ez zuen apenas lorik egiten. Lo galduan zetzalarik, gogoa pakete misteriotsuan pausatzen zen. Hasieran uste izan zuen inor bila joango zela, eta ez zuen ukitu ere egin. Ondoren, pakete emailearen

heriotza eta gero, jakinminak zuhurtziak baino indar handiago eduki zuen. Paketea kartoizko kutxa bat zen, egunkariko paper arruntaz bildua eta soka meharrez bildua. Papera urratu ondoren, kartoizko zapata-kutxa ireki zuenean, esku dardartiez, ez zekien zer aurkituko zuen, egia esan, baina edozer zelarik ere, erabatekoa eta betikoa, heriotza bera bezala, izango zelako ideia egin zitzaion. Horregatik, beharbada, bere ustekabea bikoitza izan zen, larru mehezko azalak zituen liburutxo zaharra, oso zaharra itxuraz, baizik ez zela ikusi zuenean. Liburua eskutan ibili zuen, ezer adierazgarririk aurkituko zuen esperantzan, liburuaren orrialdeen artean, apika. Alferrik. Ez zuen ezer aurkitu. Orduan irakurtzen saiatu zen, baina testua berak konprenitzen ez zuen hizkuntza moldean zegoen izkiriaturik. Garbi gelditu zitzaion gauza bakarra liburua baliotsua zela izan zen; ez zekien noraino baliotsua, ez eta zergatik ere –akaso oso zaharra zelako, eta ez besterik–, baino balio handikoa behar zuen, gizon batek bere biziaz ordaindu bazuen eskuetan eduki izana. Artean Margotek ez baitzuen dudarik egiten horixe zela M.F.E.ren,

Marceloren heriotza probokatu zuen arrazoia. Zer egingo zuen erabaki bitartean, puntu batean bederen ez zuen zalantza izpirik: edozer egiteko gertu zela hiltzaileei liburua eman ezik.

Egunak ziren Margotek sentitzen zuela inor bere atzetik zegoela. Ez zuen frogarik, sentitu egiten zuen, *bazekien*. Etxez aldatu zen, nora eta norekin joaten zen neurtzen hasi zen, horrek ezertaz babestu edo libratuko bailuen, bere baitaren baitan, aitortu nahi ez izanik ere, bai baitzekien hala nahi izatera, aurkitu egingo zutela. *Zutela*. Nortzuek, ordea? Hori ere ez zekien, baina begibistakoa zen edonor izanda ere hagitz boteretsua zela, lortu baitzuen ez bakarrik konfidentea akabatzea, baizik eta, are zailagoa zena, hilketa istripuz maskaratzea eta inork ezer ez aipatzea jazoera latz horri buruz bazterrotan. Instantzia bakar bat ohi da horrelako krimen bat eginda gauzak era horretan antolatzeko gauza, eta kontzientzia bete horrek kateaturiko gogoetak sorrarazten zizkion. Beldurrago zen deusezztatua izateaz, zein gauza gutxi eta txiki zen aitortu behar izateaz, hiltzeaz baino, Akuilurekin mintzatu zenetik bazekielako –besteak hala ira-

doki zuen, behintzat–, Marcelori hil baino lehen sekulakoak eta bost egin zizkiotela. Egunez uste zuen Akuiluk bera beldurtzeko asmatua zela. Gauez ez zegoen hain seguru.

Segitzen ziotelakoa, dena den, laster pasatu zen sentipen zehaztugabe izatetik gertaera egiaztatua izatera. Laster jarri izan ahal izan ziola aurpegia, alegia, bere jarraitzaileari. Aurpegiak: bazegoen luzoker buruko kankailu hura, zine mutuko terrorezko pelikula batetik aterata zirudiena, bazegoen kartoizko aurpegi horitudun txiki konkortua, bibotea eta guzti, hau gutxiagotan ikusten zuen, baina. Are, hirugarren bat ez ote zebilkion atzetik susmatzen hasia zen. Margotek indar guztiak helburu baten mesedetan biltzen zituen: berataz apoderatzen ari zen artegatasunaren kontra borroka egitearen mesedetan, azken honek gogoetarako gaitasuna deusezta ez ziezaion. Buru hotza behar zuen zer gertatzen ari zen jakin eta erabakiak hartu ahal izateko. Adibidez, Akuiluk zerbait bazekiela ematen zuen, nahiz eta justu kontrakoak albo batera lagatzekoa ez izan, hain zuzen; beharbada ez zekien ezer, eta *denaren jakinaren gainean* dagoe-

naren planta egiten ari zen, besterik gabe. Hori ez zen oso harritzekoa izango, Akuiluk pasatzen baitzuen egunaren erdia aire berriek zer ekarriko usnatu nahirik, eta beste erdia bera bezain adimentsuak ez zirenei bizitza esplikatzen. Zerbait jakitea baina okerturik egotea ere litekeena zen, Margotek ez baitzion kazetariaren analisigaitasunari aparteko irizten. Nola iritziko zion, bada. Inoiz, orain oso urrutiko iruditzen zitzaion iragan batean, sinetsi egin baitzuen berarekin, fede izan baitzien bere hitzei, ederki zekien Akuiluk zer eta noraino eman zezakeen. Guztiarekin ere, Akuilurengan gutxienekoa zen noraino okertzen zen edo bere hankasartzeen zenbatekoa; larriagoa zen estrapozo egiteak zer nolako mina eragin zion, zer nolako frustrazioa sorrarazi; nola jartzen zuen bere burua frakasatu erabatekotzat juzkatzen zuela. Akuilurekin ez zegoen giro, beti baitzuen, erantzun bakartzat, trufa odoltsu bat ezpainetan. Honezkero ezin zezakeen gorrotatu, bere mingostasunak pena ematen baitzion beste ezer baino gehiago.

Gaueko ordu biak ziren eta Margotek konprenitu zuen bere egoeran ez zela gauza izango be-

rriro lokartzeko. Hortaz, beztitu egin zen eta kalera abiatu. Zerbait irekirik kausituko zuen.

Hamar minutuz ibili zen kale estu eta hustuetatik barna. Ez zen apenas inor ikusten. Katuren bat zakar-poltsetan jorraka. Gutxi gorabehera bere adinekoa izango zen begi iheskorreko uso heroinomano bat, izkinan. Berandu etxeratzen zen langile bakartiren bat. Gauaren anparoan edotariko ehiza bila ateratako gazteak, marrazokume haziak legez hirunaka edo launaka elkartutakoak. Eta bera zebilen tokitik ehun bat metrotara, hurbilago sekula ez, itzal luze bat. Urratsa azkartu, atzera begiratu, eta itzala han. Ia korrika hasi, kale kantoi bat, beste bat berehala, jiratu, eta itzala han. Aurre egitekotan egon zen, baina kemenik ez, beldurra nagusi. Ongi argitutako plazatxoaren erdialdea irabazi zuen. Inor ere ez zegoen. Erdialde hartatik plazara isurtzen ziren kale ilunek otso-aho hondogabeak ziruditen. Horietako batetik zigarro-muturraren sugar batek salatu zuen norbaitek ez zuela bere burua argitara erakutsi nahi. Plazatik oso hurbileko taberna batean bilatu zuen aterbe.

Gero ez zekien zenbat denbora eman zuen han barruan, zenbat zerbeza edan zituen han zeuden Magreb-eko etorkin eta gehiago edo gutxiago ezagutzen zuen hainbat jenderekin. Tabernariak bota zituenean ezagunetako batek etxeko atariraino lagundu zuen.

Giltza sarrailan sartzearekin ezaguna agurtu zuen, lasaitasuna berriz eskuraturik. Atarian sartu eta ezker paretako interruptoreari eragin baino lehen esku indartsu batek ahoa estali zion, besteak gerritik heltzen zion bitartean.

–9–

Margot ez zen halere egunotan gaizki lo egiten zuen bakarra. Akuiluk ere ez zuen gauza handirik lo egiten, eta etengabe erretzen zuen medikuak horretarako debekua jarria bazion ere. Ezin urduriago zebilen, alde batera edo bestera jokatu behar ote zuen erabaki ezinik. Gau hartan ordenadorearen pantailaren aurrean eseri, edozein agiri ireki eta bere gogoetan murgildurik gelditzen zen makinak, hainbeste minutu ondoren, automatikoki agiria itxi eta horren ordez pantaila irudi askotako berezi bat ateratzen zuen arte. Orduan pantaila osatzen zuten izartxo koloreaniztunei, hondo beltzaren gainetik hegan eginez bezala hurbiltzen zirelako ilusioa sortzen zuten izartxo koloreaniztunei so gelditzen zen, eta gogoetan pasatzen zituen ordu laurden luzeak.

Ondoren ordenadore-mahaian barreiaturiko paperak begiratzen zituen: eskuz hartutako oharrak, telefono zein bestelako zenbakiez eta izenez zirriborraturiko paperak, prentsako artiku-

luen fotokopia ugari, arteari buruzkoak eta zenbait pertsonaiari buruzkoak, hegazkin konpainietako ordutegiak... Milango Rizzoli argitaletxearen margolariei buruzko bildumako liburukiak zoru gainean zeutzan. Maileguan utzi zizkioten, eta margolari askoren obra osoaren katalogo zehatzak eskaintzen zituzten. Toulouse-Lautrec-i eskainitako liburukia hartu zuen. Interesatzen zitzaion margoak 226 zenbakia zuen katalogoan. «Natura mortua *Camembert* platerarekin, edalontzia eta labana». Hagitz datu gutxi ematen zuen: 1889 urte inguruan egina –data erabat seguru ez zela adierazten zuen izartxo batekin–. François Gauzi-k aipatzen du bere liburuan. Izenpeturik ote dagoen, ez jakin. Zerez margotuta zegoen, ez jakin. Tamaina, ezezaguna. Non dagoen, inork ez dakiena da. Beste edozein margori buruz ematen zen informazioarekin alderaturik, hutsaren hurrengoa zen, eta informazio falta honek dudarik gabe bildumagileen grinarik sutsuenak piztu behar lituzkeen misteriozko argiuztaia gaineratuko zion margoari. Esate batera, 227 zenbakiduna –*Emakume edalea*– mihise gaineko oleoa zen, 55x46koa, izenpetua, jendaurre-

ko erakusketan zegoena, 1889koa. Margoaren historia ere oso ezaguna: Suzanne Valadon izan zen modeloa, Lautrec-ekin harremanak hautsi eta apur bat lehentxeago, segurutik. Margoa baino lehen marrazki ugari egin zen, eta 1889ko apirilaren 21eko *Courrier français*-en agerturiko ilustrazioa obra honetan inspiratua omen da. M. Masson-en 1911ko ekainaren 22ko enkantean saldu zen, 7.100 franko ordaindu zirelarik, eta egun Cambridge-ko (Massachusetts) Fogg Art Museum-ean dago. Mahai gainean barreiaturiko materialek planteatzen zituzten galderen erantzunak gero eta mataza koherenteagoan harilkatzen ziren. Zenbat eta material horien informazioa gehiago kontrastatu, orduan eta koherenteagoa, sinesgarriagoa gertatzen zen. Harrigarriagoa. Eta beldurgarriagoa. Hala ere klaberen bat zuen falta, eta hala ere klabe hori, edo klabe hori eman lezakeen zer bat egon behar zen. Gau hartan Akuilu beste zigarro bat piztu eta kalera abiatu zen. Margot aurkitu behar zuen kosta ahala kosta.

*Eztarri Sakona*ren lilurapean –sindromepean, hobeki esanda– hezitako kazetari-belaunaldikoa

zen. Maisuak: mundutik zehar gertatzen diren guztietatik jakitea pena merezi duen ororen berri zehatza ematen duten leginetxeak. Lana, zortea eta behar den unean behar den tokian egoteko dohainaren ametsa. Kazetaritza berria. Lehenengo lanak: hamar kilometroko urruneran izateko arrazoirik galtzen zuten informazio laburrak, auzotik kanpo inor ezagutzen ez zuen heroiei eginiko elkarrizketak, kanpandorretik behakoa luzatuz ikuspegia heltzen den artean bihotzak inarrosten zituzten gertaerak. Trebatzen ari haiz, zailtzen ari haiz, hire *Eztarri Sakona* partikularra azaltzen den egunerako. Ergela izan behar zen, ergela izan behar zenez, eskandalu batek sudurpean eztanda egin eta herorrek, bertatik pasatzen ari hintzelako arrazoi bakarraz, sari eta ohore guztiak jasoko dituala sinesteko. Eskandalua gertatu den tokitik pasatzen bahintzen, inork bertara eraman hauelako seinale, kontatu beharrekoak kontatzeko. Eta inork eraman ez bahau eta dena halabehar hutsez gertatu bada, kasu. Kontu handiz ibili, gero, ahoa ireki baino lehen, lumari bidea eman aitzin. Kontua zen Akuiluk arrain handia zeukala kainabera puntako

amuan, eta beldur zela uretatik ateratzeko nahikoa kemen eta bihotzik edukiko ote zuen. Kemenik ez zuela aitortzea edo bere bizitza profesionala porrot erabatekoa zela aitortzea gauza bera zen. Kemena edukitzera... nirekin ez dira ausartuko. Kazetari bat! Nola ausartuko dira, bada. Baina, hartara jarriz gero, Marcelo garbitzea ere ez zen beharrezkoa, eta akabatu egin zuten... Akuiluri mila modu okurritu zitzaizkion arazoari konponbidea bilatzeko inor hil gabe; gertaeren nondik norakoaren nahikoa berri fidel bazuen, uste zuen bezala, hots, zekizkienaren arabera. Orduan, zergatik, zertarako. Arazoak sustrai luzeak izatera, batek zekien... Askoz gehiago egon zitekeen. Pentsatze hutsarekin zorabiatu zen. Bazekien jarraitzen ari zitzaizkiola. Nirekin ez dira ausartuko, baina aita ponteko egokia bi latu behar dut, afera ongi saldu behar da, eta ongi aukeratu nori saldu.

Margot bere atari barruan itxoitearena ez zen ongi egon, hori bazekien. Sekulako sustua hartu zuen gizarajoak. Baina bera zela konturatu arte defenditu zen. Konturatu arte edo konturatu eta pixka bat beranduago arte agian; izan ere, Akui-

luri iruditu zitzaion Margoten belaunak potroen bidea modu atzeraezinean hartua zeukanean konturatu zela. Hori sinestu nahi zuen, bederen. Denbora tarte ez laburregia iragan zen pertsonak bezala mintzatu ahal izan ziren arte.

– Gau osoan izan duzu tipo bat atzean.

– Badakit. Zu al zinen?

– Ez noski. Nire atzean ere ibiltzen dira. Mintzatu beharra daukagu.

Mintzatu ziren. Luze mintzatu ere. Hiru orduren buruan, egunsentia iritsia zelarik, Akuilu seguru zegoen Margotek ez ziola dena kontatu, baina berak ere ez zion neskari bere bihotza erabat ireki. Eta hala ere itun moduko bat izenpetzeko nahikoa informazioa trukatu zuten. Akuiluk irudimenaz bete zituen Margotek isildutakoa eta oraindik ere falta zituen datuak. Oker ez bazebilen, antzekorik gertatzen zen aspaldi irakurritako nobela batean. Norena? Green, noski. *Hirugarren gizona?* Ez... Neska beltzarekin ezkonduta dagoen beste espioi horrena... Izenarekin ez zen gogoratzen. Maite zuen literaturarekin halako antzekotasun eta paralelismoak bilatzeak beldurrak eta nekeak oro atzenduarazten zizkion, ha-

lako moldez non, errenditua izanagatik, etxera itzuli zelarik idazten jarri baitzen:

«*Iulius exclusus e coelis. Ez arraçoi guchirequin, gueçurraren vides, Resumac eta erriac galçera Iaincoaren bidetic apartaturic uztentuena. Unatuic senharrac hilcen eta amac negar batez uztentuena, Reinu Christaben seme prestuen alor aziendak eta ontarzunak ostuzentuena, berzeri Exigit Contumaciam munduco abundantiac bilhatzen berze nequeric artueztuen dongeac, azquen arnasa botacozuen oançetic beretic, azquen uneas ere guezurca bere buruari contumaciam secularen seculotan escatu ezdraucana...* Halako hitz ia kabalistikoak, eta hori bezalako beste asko, biltzen zituen liburu zahar bat besapean, hasi zen Marcelo Fernandez Esparza hilobira eramango zuen bidea korritzen...».

Halako ukitu iradokitzailea eta erromantikoa ematen dio aferari, sarrera misteriotsu, dotorea –esan zion bere buruari–, eta hori ere ongi etorriko da; izan ere ez da sekula ahaztu behar saldu nahi den jeneroa bezain inportantea dela jeneroa nolatan saltzen den...

Eta jeneroa benetan nolakoa den, eta salgai jar daitekeen. Itsutuegi zegoen Akuilu, ordea, une hartan, bere gogoetetan horren urrun joan ahal izateko.

–10–

Ezaren apartamentua hiria mendebaldetik bukatzen zen tokian zegoen, azken etxean; aurretik errepidea, ondoren ezponda altu samarra, suizidentzako ustekabeko amildegi ere bilaka zitekeena, hondoan trenbidea zegoela kontuan hartzen badugu; harantzago, azpila inguratzen eta ixten zuten mendi arre, umel, ilun eta berdeak. Apartamentu txikia etxeko goi aldean zen, eta bertako terrazan hiltzen zen eguzkia ohera baino lehenagoko azken printza, mendebalak ekarritako lehen euri tantoa bertan abailtzen zen legez; terraza hartan, non mendizko harresiaren bestaldeko bedatsaren kantua bezala larrazkeneko nostalgiak senti baitzitezkeen, ematen zituen ahalik eta ordu gehien Ezak, eguterak horretarako baimena ematen bazuen. Eta han zegoen orain, irratia piztuta, zigarroa erretzen eta Havana botila, erdi husturik erdi beterik baino gehiago, eskutik hurbil. Orduantxe husturik. Mahai txiki bat zeukan aurrean, eta mahai gainean ordurarte iritsitako anonimoak. Bost, dene-

tara. Errepasatuak zituen goitik eta behetik, ezkerretik eskubira eta alderantziz, euren arteko harreman ezkutuen xerka, esanahi atzemangaitzen bila, ageriko hitz ukigarrien azpian klabea ezagutuz azalera zitekeen mezu argigarria aurkituko zuelako esperantzan. Finean amore eman zuen: asma zitzakeen mila –eta bat gehiago– ipuinez landa, ez zekien horrek guztiak zer esan nahi zuen, eta are, ez zekien nor zen gisa bitxi hartaz baliatuz laguntza eske ari zitzaiona. Ez baitzuen dudarik laguntza eske ari zitzaionaz, azken anonimoan, betiko testu ulergaitzarekin batera, lehengo harrokeriak eta sasi-mehatxuak alde batera utzita deblauki aitortzen baitzuen: laguntza behar dut.

Irratitik gustokoa zuen programa entzuten ari zen. Erreka garden baten jauziaren antzera zitzaion ohiko hizjario eme sendoari, bestetan ez bezala, han eta hemen ilunguneak gaineratzen zitzaizkiola iruditu zitzaion: nahi gabeko marrantak, ezusteko dardara ia atzemanezinak. Bestetan baino laburrago, idorrago ari zen, musika kriptikoari tarte zabalagoak emanez. Ezak basokada bat Havana bota zuen edalontzira, eta

beste zigarro bat piztu. Hainbakarren basokada zen, hainbakarren zigarroa. Tiro egiten zuelakoa antzezteagatik dolar bat eskatzen zion gerrilari batekin topatu zuen basoa, eta zigarroari zurrupada luzea sakatu zion, Beiruteko zerua aldenik alde zeharkatu zuen misil horietako batek eztanda egin zuenean. Zeru oskarbi eta laino hartan ere misilak usaintzen zituen, misil ikustezinak, egunero erosketak egitera joatean teilatu gaineko tiratzaileak burua irekiko ez dielako pakean bizi direla uste duten horiek sekula ikusten ez dituztenak. Zalantza da egiazko intelektualaren ikurra, munduaren aniztasunarekin bateragarria den bizigiro bakarra, eta zalantzatik baizik ez zaio berorri erantzunik ematen ahal. Jarrera manikeistetatik datozen segurantzia faltsuek fanatismoari irekitzen diote atea, edozein izpiritu kritiko fundamentalismoaren ukazio beltzenean amilduaraziz. Nazkatuta nago filosofoez. Jende klase guztiaz nago nazkatuta, egia esan. Dualidadearen ukazio intelektuala konpromezu gogorregirik ez hartzeko koartada ezin hobea den bezala, tanke errealei bidea irekitzeko modurik onena liteke. Gertuko kasko batean paratutako

haizezko erroten hegalak *marine*-en helikopteroak iruditu zitzaizkion. Irratiko ahotsa Macchiavelliren *Printzea*-ko pasarteak irakurtzen zituen dorpeki. Zer ari zen Juandeaburre Errusian? Arteobrak erosten, bakar bakarrik? Edozer zela, bistan zen Luciano Goñik ez ziola esango. Luciano... txakur puska galanta, Luciano. Bazegoen Errusian zer harrapatua... Plutonioa, heroina, vodka, Leninen kapelua, nik dakita... Manikeismotik iheska ibiliagatik, funtsean bi baino ez ziren desegiten ari den hondar gaztelura hurbiltzeko manerak, eta bistan zen Juandeaburre hura ez zela lagun hurkoaren onez bihotza kraskatuko zuenetakoa. Macchiavelli? Zergatik Macchiavelli? Halabeharra? Munduko haur gose hamikatuek protestazko hitz zatarrik batere gabe botatzen dute azken arnasa, neska hau beldurrez akabatzen dagoela egingo nuke, zergatik, ordea, zergatik Macchiavelli, zergatik egitea itsutasunetik, insidiatik ikurra eta manikeismoa leporatzea gezur biribilaren ziegan bizi nahi ez duenari, manikeotar bihurtuko naiz, zer arraio, erretzen dudan arrazoi berberarengatik, ibaiko izokina naizelako, tori milioi bat dolar, gerrilari herkidea, zure

Kalashnikov-aren kantua isil ez dadin. Ibaiko izokina? Tori zure dolarra, gerrilari ausarta, egizak Kalashnikov-arekin apunte-itxura nire kamararen aurrean, Mendebaldeko egunkariei saldu ahal niezaien, eta topa dezagun berriro, gatazka berbera da, berdintsuak dira Beiruteko Hoteleko terraza eta Virgiliopolis gezurrezko honetako xume hau, egunero egin eta desegiten diren interesen matazaren araberakoa da, denbora kontua baino ez, beraz, dena putakumez beterik dago, milioi luzeko negozioa izan zitekek zerri horrena, hemendik bertatik berdin pentsa zezakeat mundua toki zoragarria dela edo bizitzeak ez duela pena merezi, planetako errege naizela edo artaldeak egotzitako gorotz-pikorrik ezdeusena, baina zergatik zegok horren beldurrez neska hau, kasik ez zaiok aditzen, hari meharra bihurturik du uhaitz naroa ohi dena, zergatik, gora ibaiko izokinok...

Baina irratiko ahotsak eten zituen gogoeta hordituok, beldurrarekin edo gabe, mehar edo naro, baina garbi behintzat esaten baitzuen, eta larri:

– Iulius exclusus e coelis, Soli Deo Gloria, Iulius exclusus...

III kapitulua:
In vino veritas

–1–

Hirukotea elkarri aditzeko behar zena baino fuerteago ari zen solasean, eta haietariko bik –mutilek, hain zuzen–, zeharka eta artega begiratzen zioten ordu laurden bat lehenagotik barra ondoko eserlekua hartua zuen ezezagunari, zeinak, disimulu askorik gabe eta zerbeza bat eskuartean zuela, so egiten baitzien. Mutilek ozen ekiten zioten ohartuak zeudelako, ohartarazi nahi zutelako, eta zenbat eta ohartuagoak orduan eta ozenago mintzatzen ziren. Neskak, ezpaina ezpainaren gainean, mutu alegia, ez zirudien oso nerbiosturik, besteek ez bezala. Musikaegoerari buruzko lerdokeria batzuk esaten zituzten, zer esaten zuten ere gehiegi konturatu gabe. Ezezaguna mintzatu zitzaien, azkenik, eta goraka zihoan tentsioa, azkenik lehertarazi:

– Horiek denak Etsai Publiko Nagusi zirela uste eta hainbat denboraz gero dantzari damutuak baino ez direla aitortzen dizute. Hori nazka.

– Ostia pare bat emango al diot?

– Ez –orduan baino ez zuen neskak hitz egin–. Utz gaitzazue –eta, ezezagunari, orain–. Zureak bai garaiak, e, aitona?

Ostikoka ateratzeko prest zegoenak besteari begiratu zion, askatzen hasi berriko adrenalina-jarioa eteteko gonbidapen hura ulertu gabe. Bigarren mutilak ere ez zuen oso garbi ikusten zergatik bukatzen ziren orduantxe damatxo haren bizkarzaintza-lanak, baina damatxoak berak eskaturik baitziren ezusteko lanbide hartan sarturik, damatxoak berak eskaturik uzteko prest agertu zen. Neskak keinu bat egin zuen buruaz, eta bigarren mutilak egurra partitu nahi zuena barrako beste puntara eraman zuen. Marmarka urrutiratu ziren, ez oso konforme.

– Garai guztiak berdinak dira.

Eza konturatu zen zainetan falta zuela odola. Eta haren ordez isurkin hotz bat korritzen zitzaiola. Gasa, beharbada. Transilvaniako saguzaharra zela sentitu zuen. Ilusioen hiltzailea baizik ez.

– Zergatik? –galdetu zuen.

– Zergatik!? Dirue, *tío*.

Hitzekin batera erori zitzaion asaldura eta ustekabe pittinean zurrupatu ahal zion lehen gaztetasun printza.

– Bai... horrela ere adieraz litekeela uste dut.

Zakur alderraia ematen duk, goseak akabatzen. Ilusioen hiltzailea. Ez huke inor engainatuko, esan zion Kokok bere buruari.

– Jendea gordinik jaten duen horietakoa al zara, Lecter?

– Lecter?

– Ez zara zinera joaten, noski.

– Mundua, argazki-makina eta Guttenberg aski zaizkit.

– Saurio halakoa.

– Egon, egon... Zuk ere asko leitzen duzu.

Zen bezain egoskorra izanik ere, Margotek ezin izan zuen banitateari eginiko lausenguak sorrarazi zuen emozio guztia bere baitan atxiki, eta begiak zerbeza basoaren atzean ezkutatu zituen. Ezak jakin zuen ahaztu egingo zitzaizkiola aurpegi iheskor horren marra segailak, eztizko pote batetik eroririk bezala barreiatzen zen adatsak zedarritzen zituen azpegi aldakorrak, eta ongi ikasteko premia larria sentitu zuen, hantxe

zegoela margoturik bere desioaren mapa jakin izan bailuen.

– Zuk uste?

– Céline, Macchiavelli...

– Orriak azaletik begiratzen ditut, baina ez dut sekula liburu bat osorik irakurtzen. Aipu-liburuak ditut maiteen. Ez zenuen pentsatuko denak nireak zirenik.

– Ez noski –eta tragoak ordaintzen zituenarekin batera–. Gauza bakar batek harritzen nau: zergatik ni?

Margoti trufazko irria erne zitzaion sabeletik, galderak haur bati legokiokeen esklusibitatenahiarekin eduki lezakeen antzarengatik.

– Zu ez zara askoren arteko beste bat baizik.

–2–

Koko Ezak poliki gidatzen zuen, begi bat aurreko errepide bihurrian eta bestea pagadi itzeleko alerik erraldoienek herabe erakusten zituzten kimu berdeetan, hitzetan nekez laburbil zitekeen berde kolorekoak, itxaropenari berari, bere sinboloa izateko, dirdiratsuegi eta xamurregi zen berde batekoak. Zorabiaturik zegoen berde hartaz, berdeegia zen titanlux ez izateko, ez zegoen ohituta. Hosto jaioberriez beteriko adar kulunkariek eta haize zirimolek zorutik, buruan gehiegi egositako grinak bailiren, altxatzen zuten orbelak ez zion eguzkiari apenas printzarik helarazten uzten umeltasunaren erresuma hartara, non uda beteko ekia ere ez zen egun erabatekoa ekartzeko gauza izango. Errepide ertzetako goroldioak kontrapuntu iluna jartzen zion berdeen sinfonia hari, pagoen arteko kareharrietan egon izan bailitzan baso bihotz hartan bertan herri heroiko haren protoarbasoek, orain milaka urte batzuk, lehen *chromlech*-ak, trikuharri, hilarri eta edotariko agerpen funerarioak egin zituztenetik.

Milurteko goroldio eta pago horien artean batek, edozein bihurgunearen atzean, mamu burdinazko katedun eta guztiko gaztelu bat espero zezakeen, edo Palestinara borrokan egitera abiatzen zen kristau saldoa, azkon beltz, ezkutu eta armadurarekin, edo ziza erraldoi batetik ateratzen zen iratxo esnatuberria, edo odol eske abiaturiko banpiroa, agian. Ez zen horrelakorik, ordea, eta basoan barna hogei kilometro luze barneratuz gero, bihurgune itxi baten ostean, muinoko soilunean ikusten zena Aitorgoitiko monastegiaren horma gotikoak ziren, bere borroka epiko, tradizio zikin, eme zoragarrien kantu, adar-kontu –garai bateko adar-kontu trumoitsu horietakoak, odolez baizik garbitzen ez zirenak–, eta denborak atxikitako mila istorioren –gezurrezkoak gehienak baina, baten baino gehiagoren harridurarako, egiazko batzuk ere bai– zama pisuzkoarekin, egun, eta zenbait konkista, lapurreta, emate, lagapen eta zuzenbideak ezarririko beste lege-irudi batzuen ondoren, fraide teatinoek gorderiko komentua, basoeliza, gogoeta leku, eta desbideratuen babes bihurturikoa. Fama zenez, izpirituzko gauzetara konsakratutako tokia iza-

nagatik, ez omen zen batere ez ohikoa beste zeregin askoz ere lurrekoagoetara dedikaturiko jendeak, eta ez deigarriak ez diren edo funtsik gabeak diren zereginetara, alajaina, aukeratzea komentua bere diferentzia likits eta mundutarrak erabakitzeko garaian, beti ere teatinoen laguntza interesik gabekoarekin, hauek printzipalen borondatetik eroritako amoina pitzar batzuekin nahikoa baitzuten euren burua ongi ordaindutzat emateko. Ziza alimaletik ateratzen ahal zen iratxoa egunkarien lehen orriko argazkia izatea suertatzen zela batzuetan, alegia.

Ezak kotxea aparkatu zuen ate aurreko uharrizko patiotxo iturridunaren txoko batean, *Volvo* berri baten ondoan. Ez zen inor inguruan ikusten ateko krisketa itzelari eraginez deitu zuenean. Ezak aitortu behar izan zion bere buruari, tokiari zerion larderia izpiritualak inpresionaturik edo, gertuago zegoela belauniko erori eta aitortza eskatzera zita emana zion fraideaz, Europako XVI. mendeko literaturaz zekienarengatik ospetsua mundu zabalean, galdetzera baino. Krisketa joaldiaren ondoren, ordea, irekitzeko sistema automatikoek sorrarazten duten zurrunbilo-hotsa

ezaguna belarriratu zitzaion, eta mundu ezagunari zegokion soinu arrunt horrek eraman zion baretasun apur bat bere barrualde inarrosiari. Ate erraldoia hasieran pentsa zitekeena baino hagitz aiseago ireki zen. Ongi olioztaturik zen, inondik ere. Ateaz bestaldean ezko usainezko ezkaratz txikia eta iluna zegoen. Albo batean, haatik, flexo baten argi bizia atzematen zen leiho txiki baten atzean, eta irratitik zetozen jaurtiketa bortitz eta jokoz kanpo egonagatik baliogabeturiko golen garrasi urragarriak. Grial Saindua gordetzen zuen hermanoaren zuloa zen, antza. Ezak keinuak egin zituen eskuaz, bularrean «Portland Trail Blazers» iragartzen zuen txandal batez jantzirik zegoen atezainaren arreta bereganatzeko, hermanoak bere taldeko hamaikakoan zeintzuk sartzen ziren jakin zuen arte lortu ez zuena. Ondoren Jaungoikoaren bakea urratzen ausartzen zen bekatariari merezi bezalako harrera egin zion, ezin disimulatuzko keinu desatseginarekin.

– Zita daukat Bartolo Egozkuerekin –esan zuen Ezak.

Atezainak goitik behera begiratu zion, ondoren Ezaren itxuraren xehetasun guztiak inoren aurrean ziren zirenean deskribatzeko azterketa egin beharko bailuen.

– Ez dakit bazkal ondoko lo-kuluska ez ote den egiten ari –esan zion, gorputza telefono-deiak pasatzeko balio behar zuen botoi beltzezko panel baten aurrean makurtuz–. Nor zara?

– Nire zain dago –erantzun zuen Ezak, behar baino azalpen gehiago ematea maite ez zuena.

Hermano atezainak botoi bat zanpatu zuen, zapuzturik, eta etxe barruko telefono-hariak kudeatzeko balio behar zuten belarritakoak jantzi zituen.

– Berehala dator.

Ezak ez zuen Bartolo Egozkue ezagutzen, bere entzutea aspalditik bazuen ere. XVI. mendeko literatura jende arruntaren ohiko interesguneetatik oso urruti zegoen gaia izan arren, Egozkueren iharduera poligrafikoak, urte luzeak zirela, hainbestean behin egunkarietan tarte bat aurkitzen zuen, eta tantokako isuri informatibo horren ondorioz edonorentzat ezaguna gertatzen zen Egozkueren izena. Zertan aritzen den

zehazki jakin gabe, jendeari galdetu eta edozeinek «A, Urlia!» erantzuten duen jeneroaren ordezkaria zen: noranahiko jakintsua noranahiko ibilgailuen garaian. Kulturaren gorabeherak pixka bat segitzen zituztenek bazekiten, baita ere, Euskaltzaindian tokiren bat hutsik gertatzen zen bakoitzean bera zela, beti ere, besaulkia betetzeko hautagairik aipatuena, pixka bat Hollywood-eko zenbait oscargai betierekoei gertatzen zaien antzera, besaulkia beste bati ematen zioten arte. Kultur munduan oso murgilduta zeudenek bazekiten –Egozkueren obra gutxi edo ezer ez ezagutuagatik ere–, besaulkiarekiko *coitus interruptus* horren atzean oso aspaldi Laffitte zenarekin izandako eztabaida dietetiko bortitza –oso bortitza, baina– zegoela.

–3–

Agure ximur bat espero zuen tokian gizon kankailu biziz beterikoa azaldu zen, adinean aurrera joana, kasko gaineko elurrak, besteak beste, argi erakusten zuen bezala, baina sasoi onean oraino. Fraideak bostekoa eman eta arku ojibadunez osaturiko klaustro dotoretik zehar gidatu zuen, aurkezpen gisa hitz hauek esaten zizkiola:

– Gure herriko mirakulurik handienetako baten aurrean zaude –instant batez gelditu eta klaustroa esku alimale ireki batekin bere osoan erakutsiz–. Nork esan zuen munduko kultura zabala ez zela sekula gure mendi maitatuetara iritsi? Gotiko berankorrak ez du klaustro hau, bere txikian, bezalako erakusgarririk ludi osoan.

Ezak ez zuen ezer gotikoaren aurka.

– Halaxe iradoki dit atezainak –esan zuen, zerbait esateagatik.

– Bokazioak murrizten ari dira. Gainera, *Kuko* jartzen ez dutenean ernegatu egiten da –esan zuen Egozkuek, solaskidearen ironia neurtua na-

turaltasun osoz hartuz–. Nire etzangela xumera joango gara, gaizki iruditzen ez bazaizu.

Ezari ez zitzaion gaizki iruditu.

Etzangela xumetzat bataiatutakoa komentuko hirugarren solairuan –azkena, dorreak aparte– zegoen, berrogeita hamar metro karratu harrapatuko zituen azaleran, bi metro t'erdi luze goitik behera, eta logela, komuna eta lantokia biltzen zituen. Paretak zuriak ziren, altzariak klasikoak eta estuak, baina egur noblekoak, eta leihoak –gaztainondo guztien aitona izan zitekeen zuhaitza zuen barruko patio txiki bati begira– zabalak, argia oparo igarotzen uzteko modukoak. Lantokiko ezker paretak obrazko apalategia zuen, goitik behera, eta liburuz beterik zegoen, salbu eta konpaktoak entzuteko tresna sofistikatua eta makina bat konpakto biltzen zituen apal estrategiko bat. Lau bafle txiki zeuden eskegirik lantokiko goiko lau izkinetan, eta zerbait entzuten zen. Horri erreparatu zion Ezak beste ezeri baino lehen. Egozkue entzuten ari zen musikaren bolumena igotzera presatu zen:

– Verdi. Aida. *Rammenta. Non fia che tardi. In armi ora si desta il popolo nostro; tutto è pronto*

già... Vittoria avrem... –kantatu zuen Amonasrorekin batera, eta ez erabat gaizki– *solo a saper mi resta qual sentier il nemico seguirà...* * Gizabanakoaren eta boterearen arteko gatazka. Beste konpositoreek ez bezala, Verdik beti lotzen zituen kantua eta gatazka dramatikoaren garapena. Bai, libretoa Ghislanzoni-rena da, egia da, baina gauza jakina da ez zuela bertso bakar bat ere ukitu Verdik gertaera-segida bati esanahi dramatikoa eman zion arte, eta orduan ere Roncole-ko Nekazariaren zuzendaritzapean. Ez al da gauza ikaragarri ederra opera? Izugarri maite dut.

Ezak ez zirudien oso komentzituta.

– Operari dekadente deritzot.

Apaiza haritzezko mahaiaz bestaldean eseri zen eta mahaiaren ertzapeko botoi bat sakatu. Orduan erle-burrunba bezalako bat entzun eta konpaktoen atzeko igeltsua albo batera mugitu zen, kutxa blindatu txikia ageri zelarik. Ondoren, abadea jaiki eta kolkotik zintzilik zeukan giltzatxo bat hartu zuen eskutan, gorputza kutxaren gainean apalduz. Kutxako atea ireki zenean, denbora guztian mahai gainean egondako afitxe

zahar bat barneratu zuen, ondoren kutxa itxiz eta lehengo tokian eseriz.

– Aitortuko dut nolabaiteko erlikia-biltzailea naizela. Paper bitxiak, nire gustu eta zaletasunen aldetik ikusirik esanahidunak direnak, edo balio apur bat daukatenak. Ikusi duzun kutxatxoan, komentu honetako tokirik seguruenean gordetzen ditut nire erlikiak. Orain gorde dudan kartela *Aida* Europan, Milanen, zehatz esanda, lehen aldiz eman zeneko iragarkia da. 1872ko otsailaren 8a. Zuzendaria, Franco Faccio. Maria Waldmann Amneris-en paperean, Teresina Stolz, Aidarenean. Baina operari *dekadentea* irizten diozula gelditu gara. Ongi da. Zer, orduan? –konpaktoak eskutzarrarekin seinalatuz– Stevie Ray Vaughan? Brassens? Oskorri? Ron Kavana? Led Zeppelin? Faiport Convention? Hertzainak? The Kinks? Siniestrokoak grazioso samarrak dira, baina apur bat ganberro. Evaristok zeozer kantatzen du hainbeste katu marrantaturen erdian, baina inozoegia da, bere mingotsean. Zin egin dut ez dudala berriro Negu Gorriak entzungo taldeko bat irribarre egiten, halabeharrez eta ustekabean bada ere, ikusten ez dudan arte. Hala

ere, gauza bakarra dut ezin jasana: Kaxiano sekula entzun gabe Flaco Jimenez ikustera tropelka joaten diren modderno horiek. Eta rocker bat, egiazkoa baina, entzun nahi baduzu, Wilko Johnson. Dena den, alferrik ari gara; amets erromantikoen goi arnasa harrapatzea helburu duen batentzat, Prokofiev-en *Romeo eta Julieta* bezalakorik ez dago.

– Martxa militarrekin ohitu naute.

– Orduan Luciano Goñik bidali zaitu.

Ezak, gogoz kontra izanik ere, beleak potroak zituela aitortu behar izan zion bere buruari.

– Ez al didazu zerbeza bat eman ahal izango?

– Heineken? Löwenbrau? Spaten?

– Trappistein.

Egozkuek zerbait marmar egin zuen ahopeka. Fraide baten aurrean egon izan ez balitz, Ezak besteak ahopeka «putakume arraioa» esan zuela sinetsiko zukeen. Egozkuek mahai gaineko telefonoa hartu zuen, Ezari begirik kendu gabe.

– Hermano Alberto, bi San Miguel, mesedez.

Ezak, Egozkuek telefonoa ibiltzen zuen bitartean, mahaigaineko ordenadoreari egin zion so. Fraideak telefonoa eskegi zuen, bere aizkolari

eskuekin aferari garrantzia kendu nahi zion keinua eginez:

– Mac bat. Berrehun mega. Ekrana koloreduna. Ez da asko. QuarkXPress-en azken bertsioaren zain nago, ez dakit sartuko zaidan, baina. Ekonomoak izorratu dit Word 6.0a. Ez dit asko inporta, pirateatua zen eta.

– Ez nau Luciano Goñik bidali.

– Ez zinukea hobe, zuhaur etortzia, nihaur igorri gabe komisionea... –erdi abestu zuen, bertsolarien moduan, fraideak, ironia begietan.

Ezak ez zekien, eta ez zuen zertan jakinik, besteak Xalbador zenak grabatu zuen bertso zahar baten pasartea kantatu zionik, baina funtsezkoa, ez ziola sinesten, alegia, ulertu zuen.

– Goñik ez nau inora igortzen. Mozkortu egiten nau. Egin nahi izaten nau.

– Ongi da. Zer jakin nahi du berorrek, zehazki?

* Oroi zaitez. Ez zaitez berandu ibil. Gure herria matxinatzen ari da, armak eskutan; dena prest dago... irabazi egingo dugu... etsaiak zer bide hartuko duen jakitea baizik ez du falta.

–4–

– Zu ez zara askoren arteko beste bat baizik.

Karrika satsuok osatzen zuten amarauna tolesgabeegi zen benetako labirintoa osatzeko baina bihurriegi irtenbidea aldenik alde zabalduri uzteko. Gardenegi inor benetan galtzeko, baina aukeradun galdu nahi zuenarentzat. Gorputz lausoen harat-honatek su beltzezko mihia osatzen zuten, altzairuzko musikak eta argi-printzak txistuka botatzen zituzten ahoetatik antzeko ahoetara higitzen zen petroliozko marea, gaueko itsasbidea oraindik deliberatu ez duen gai magmatikoa, botila kraskatuen hotsez eta gernu usainaz ehundutakoa. Ezak Claptonen beraren egungo irudi ajetua eta berea ez zirela oso ezberdinak uste nahi izatean bilatu zituen gerrilari zalapartatsu haiei aurre egiteko kontsuelo eta adore beharrezkoak. Baina Claptonen semealabek –hil zena ez beste gainerako guztiak han bide zeuden– ez zioten kasu handirik egingo; kezkatuago zeudelako zirri egiteaz, edateaz, pixatzeaz; oihukatzeaz, musua emateaz, dantza-

tzeaz, mintzatzeaz. Ez zioten kasurik egingo baldin eta bera ez bazen beraiekin sartzen, beste mundu bateko izaki arraroaren papera egitearekin konformatzen bazen, alegia, aitona mutu segitzekotan. Gainerakoan oldartu egingo zitzaizkion; are eta gehiago Claptonen antzeko itxura ajetua edukitzeagatik, hain zuzen ere, zeren Claptonen seme-alaba horiek gainerako guztiak bezalakoak ziren, eta aitari gorroto edukitzearen kirol osasungarria praktikatzen baitzuten, gehienek bezala. Margotek zerbeza nahi zuen eta Ezak bi eskatu zituen. Zerbeza eduki izandako metalezko upel hustu banatan eseri ziren, hurbilekoetan maitasun fisikoaren bideak esploratzen hasia zen bikoteari bizkarra emanez, Whitesnake taldeko kantariaren ahots mila bider ozenagotuak norberaren ahotsaren posibilitate guztiak erabiltzera behartzen zituela.

– Ez zara beste bat askoren artean; nire kalkuluen arabera, kontatzeko neukan historia entzun nahiko zuketen guztien atzetik ibili naiz. Elkartasun Guztien Gurasoen elkartera joan nintzen lehen. Damurik, berandu iritsi omen nintzen elkartasun banaketara; niretzat ez zitzaien geldi-

tzen, nonbait. Pasa zait haserrea, haatik. Aitzitik, erruki diet. Gixajoak; norberak bizkarrean eraman dezakeena baino gurutze handiagoa eramatea bezalako kondena latzik ez dago.

Ezak Margoten goardia pretoriarra osatzen zuten bi mutilak ikusi zituen, halabehar hutsez han egokitu zirelako plantan, zulo haren beste puntako zokoan; ozta-ozta entzuten zituen neskaren hitzak, eta aditu nahiak burua apalarazten zuen, eta burua apaltzen zuen bakoitzean suduurra neskaren bi bular erronkarietatik zentimetro gutxitara gelditzen zitzaion. Orduan zirrara estrainio batek atzerarazten zuen buru apaldua, eta neskaren larruzko bota beltz zaharkituei begira gelditzen zen, bota txiroak eranzteko tentazioari eutsiz, bota zarpatsu haien azpian erreginaren oinak susmatzen baitzituen. Buru apalduaren joan-etorri guztiarekin, ordea, Margoten hitzen erdiak galtzen zituen.

– Liburuaz ez nuen ezer ere ulertzen. Gero anonimoak igortzeko baliatu transkripzio txar batzuk egitea ere nahikoa lan. Ikaragarri dakitela aditzera ematen duten hainbat ezagunengana joan, disimuloz, gauza handirik erakutsi edo

esan gabe, eta ez zutela puta ideiarik laster ikusi nuen. Zenbait alderdi politikoren atean ere jo nuen, baina dejeneratu horiek are eta jaramon gutxiago egin zidaten. Aspertu nintzen hemendik hara eta handik honako joan-etorrietan. Bestalde, laster konturatu nintzen nire zelatan zeudela; ez nuen denbora askorik. Kazetariengana joan behar nuen, eta kazetariekin harremanik lortu nahi izanez gero Akuiluren atakatik pasatzea zen biderik zuzenena. Ez nuen batere gogorik, baina etxea miatu zidaten egunean izutu nintzen. Akuilu... Berarekin ditudan harremanak ez dira, nola esango nuke, errazak. Gogo handirik gabe izanik ere, berarekin mintzatu nintzen, eta hasieran antzarak ferratzera bidali ninduen, horrek ere. Zerbait bazekiela zirudien, edo zekielakoa egiten ari zen, ze hori da beste bat, hura betidanik bat izan eta bi uste, besteek baino gehiago dakiela erakustea da horren zaletasunik handiena. Gero elkarrekin egon ginen, berriro ere. Ipuin arraro samar batzuk kontatu zizkidan, eta egia esatera, ez nion jaramon handirik egin. Mintzatzeko duen era bitxi horretara ohitua egonagatik ez nion esaten zuenaren erdia behar beza-

la ulertu, urduri zegoen arras. Juandeaburre Fundazioan zerbait gertatzen ari zela uste zuela ulertu ahal izan nion. Lehen ere esan dizut, gure harremanak ez dira errazak. Oraindik ere amorante ohiaren sindromeak jota dagoela esango nuke. Amorante ohiaren sindromea, zeinaren pean agindutako parabisu guztiak infernu bilakatzen diren. Erotuta gaude, ez duzu uste?

– Akuilu eta zu, erotuta?

– Gizon-emakumeak, bikoteak, arraioa! –erantzun zion, ezer ulertzeko dorpeegia zen bati ari bailitzaion.

Boten gorako bluyin pitzatuek ez zuten laguntzen neskaren bilau antza ezabatzen. Kanpoko edergailuez itsutu ohi den begirale azaleko batek ez zion segundu bat baino gehiago erreparatuko, baina Ezak, bere buru apalduaren aurrera-atzera horietako batean bluyin pitzatuen azpian hanka indartsu, lerden eta zuzenak ezkutatzen zirela ez zuen zalantzan jarri. Lekuak ez zuen berriketarako baldintza gutxienekorik eskaintzen, eta entzun nahi izateak eragiten zizkion gorputz-bihurraldiek, Margoten anatomiaranzko gehiegizko hurbilketak eragin ez ezik, ja-

rrera benetan deserosoetara eramaten zuten, eta horrela, adibidez, bazen denbora puska bat upel metalikoaren ertza ilkatzen zitzaiola ipurkonkorrean. Beste nonbaitera joateko proposamena egitera zihoanean kanpoan idolaz ari zela konturatu eta barrara zuzendu zen, beste bi zerbezaren bila. Pretoriarrek zeharkako soakoak botatzen zituzten noizbehinka, asperturik egonagatik ez zutela zaintze lana alde batera utziko erakusten zuen temarekin. Upela metalikoetako bikote auzoak zirrika segitzen zuen. «Hogei urte barru –pentsatu zuen Ezak– goiz batez altxatuko dira, ametsik gabeko gau baten ondoren, zerua hodeiez beterik dagoela ikusiko dute eta konturatuko dira, hunkiturik, elkarrekin edo beste batekin egonagatik, metalezko upel hauetan pasatu dituztela euren maitasun bizitzaren zatirik ederrenak».

– Zertarako aldatu. Hemen ongi gaude –jakinarazi zuen Margotek, eserleku hartan, malgutasun harrigarri bati esker halako gorputz-jarrera erosoa hartua bide zeukana–. Dena den, Akuiluk esan zidanean Marcelo torturatu eta hil egin zutela, larritu, asaldatu, eskandalizatu nintzen.

Marcelo putakume hutsa zen, baina inork ez du horrelakorik merezi. Hori oso Akuilurena da: «Lasai, morroi hau zuritu dinate tormentuan baina hiri ez zain ezer gertatuko, hago lasai». Txarrena da tormentuarena sinetsi egin niola, eta ez berak esaten zidalako bakarrik, baizik eta Marcelo ikusi nuen azken aldian benetan akojonatuta zegoela konturatu nintzelako. Esan eta guzti egiten zuen zerbait gertatu behar zitzaiola. Irratira etorri zitzaidan, hil baino pare bat egun lehenago, kartoizko kaja batean bildua utzi zidan; hil zutela jakin nuen arte ez nuen barruan begiratu, eta hala ere hasieran ez nintzen konturatu zer zen.

– Eta zer da?

– Arraioa! Liburu bat, horra zer den! Liburu zahar bat! Inprenta bera baino zaharrago! –haserretu zen Margot– Nola nahi duzu nik jakitea zer den? Esan ez dut ba ez dudala tutik ere ulertzen? Zuk ere adarra jo nahi didazu?

– Esan nahi dut nik ere ez dakidala zer den, besterik ez. Gainera zu zara laguntza eske aritu dena.

– Beharko. Ez nekien zer egin. Jakin nuen Juandeaburre Fundazioan tipo berri bat zebilela lanean, zu, alegia. Hasieran Fundazioan lan egiteagatik beragatik ez nuen uste fidatzeko modukoa izango zinenik, baina galdetu han eta hemen eta horrela jakin nuen zure berri: korrespontsal zaildua, makina bat gerratan eta istilutan, Vietnamekoetan ere barne, ibilia. Ez dakit jakingo duzun baino ez duzu omen txarra bazterrotan. Fundazioan ari bazinen, lehen edo beranduago liburuaz eta hango gorabeheraz zerbait jakingo zenuela pentsatu nuen. Hortaz, arrisku hori hartu nuen nire gain; zeri edo nori heldurik ere ez nuen eta. Anonimoen asuntua bururatu zitzaidan; ez da oso bide zuzena eta ohikoa, baina honezkero daukadan eskarmentuarekin modurik onena iruditu zitzaidan. Zer egin behar nuen, bestela? Halako egun batean zure etxean azaldu eta asuntua kontatzen hasi? Txepeltzat hartuko ninduzun, gainerakoek bezala. Une egokian iritsi zara, hori ezin da ukatu. Nola aurkitu nauzu?

– Irratia piztuta lan egiten dut. Eta leku hau oso txikia da. Non dago liburua orain?

Margot altxatu egin zen, zalu, eta Ezak ezinbestean miretsi behar izan zuen katu mugikera hori, aurpegi horrek islatzen zuen erabaki irmoak nola aldarazten zituen begiak, ezpainen zabalera eta, orokorrean, elementu guztien elkarren arteko harremana, espresioa felino bilakarazten zuena. Upeletako amorante beroak ateratzeko prest omen zeuden, eta gazte pretoriarrak ere aterantz jotzen ari ziren, kale kantoi batetik ikusi ahal izateko Margoten atzetik ibiltze horrekin segituz, hurrengo tragoa non jo beharko zuten.

– Esan dizut ez zarela beste bat askoren artean baizik, eta lehenengo gauean dena eskatzen ari zara?

– Ez zara fio? Bada, Bassinger eta Rourke-ren arteko hartan lehen gauean ematen zioten dena elkarri.

– Konfiantza, amildegirik handiena. Irakurri nuen liburu batean ateratzen zen. Non fida, han gal, alegia. Baina nik uste nuen Guttenberg aski zitzaizula.

– Eta nik ez zenuela libururik oso-osorik sekula irakurtzen.

–5–

Egozkuek sotanaren mauka zabartua pasatu zuen aho-ertzetatik zerbeza aparraren azken hondarrak desager zitezen.

– Ez nago oso harriturik, eta, hala ere, harriturik nago. Hau da, ekarri dizkidazun gehienak ikusita neuzkan. Ez denak, ordea. Baina, ulertu behar duzu, ez naiz zurekin fio. Zahartuxe nago. Nire adinean oso kontuz ibili behar da pasio bati bidea eman baino lehen, grinaren txorrota ireki aitzin. Anonimo batzuk baino gehiago behar dut xutaldi intelektual bat probokatzeko, ez dakit garbi mintzatzen ari ote naizen. Alegia, zer joko dabilkizue esku artean?

– Dabilkizue? Zuek? Nor gara zuek? –egin zuen protesta Ezak, eserita zegoen aulkitik altxatuz–. Barkatu kendu dizudan denborarengatik. Banoa.

Egozkueren eskutzarrak airea txalotu zuen lasaitasun eske, berriro esertzeko gonbitea eginez.

– Ongi da, ongi da... Mintza gaitezen. Denbora asko ez dela, hilabete gutxi batzuk edo, Luciano Goñik, ardo upel horrek, bere mutur zikina toki sakratu honetan azaltzeko beste ausardia izan zuen. Nirekin egon nahi zuen. Jesukristo gure jaun zerukoak barka nazala, edozein estakuru tontorekin gure *magnum*-en bat edatera etorriko zela egin zitzaidan susmoa –agian ez duzu jakingo baina meditazione-txoko honek badauka ardo-bilduma labur baina ongi aukeratu bat, ehun kilometroko inguruan interesgarrienetakoa, hau bestek esan beharko luke, baina–, eta gure ardo tantorik ez zuela probatuko nire buruari zin eginda joan nintzaion bila, atarira. Zeharo okertuta nengoen, ordea. Ez zetorren ardoa edateko asmoz, ez. Hortaz, gauza benetan larria izango zela atera nuen kontu; testu bat ekarri baitzidan, azter nezala eta nire iritzia eman berari buruz eskatuz. Testua ordenadorean pikatuta zegoen –Mac bat, Word 6.0 prozesadorearekin, eta Apple laser MJ-407 batean inprimatua, 12ko Desdemonarekin, ene aburuz–, baina oso gutxi bezalakoa zen, oso bitxia. Oso arkaikoa ere bai. Hura esku artean paratu eta alde egin zuen,

denbora hartzeko azterketa behar bezala egiteko eta zerbait nuenean deitzeko aginduarekin. Hogeita bost orri ziren, bakarrik; gainera, ez zuten halako hurrenkera logiko bat, ez ziren elkarren ondokoak; beste unitate handiagoetatik hartutako zatikiak ziren. Horrela pasatu zizkidaten atera nezakeen informazioa mugatzeko, ausaz. Baina, hala ere, orriok eszitatu egin ninduten. Hugonotearen liburua zen. Hau da, neronek izen hori jarri nion, informazioa zatikatua emanagatik horixe berehala ikusten zena baitzen, lerro horiek paratu zituena Hugonotea zela, alegia. Edonork dakienez, Leizarragaren *Itun Berria* alde batera utzirik ez da egundo ezagutu XVI. mendeko euskal liburu Erreformaren aldekorik. Eman zizkidaten orriek, itxura guztien arabera, halako liburu ezezagun baten parte behar zuten. Hortaz, liburu ezezagun, bitxi, preziatu, historiko baten aurrean nengoelako susmoa egin zitzaidan. Lehen esan dizudan bezala, kitzikatu egin nintzen, eta kitzikadura horrek nigan sortu zuen lilura medio, amesten hasi nintzen: euskal kulturaren guztiz liburu aparteko baten aurrean nengoela egin zitzaidan susmoa. Ez, hori baino

gehiago, euskal kulturaren *liburuaren* aurrean nengoela. Aitortuko dizut nik ez nuela frogarik ezer ziurtatu ahal izateko, ezta liburua XVI. mendekoa zela ziurtatzeko ere –izan ere, egilearen izena, inpresio-urtea eta hiria, inprimagilearen izena eta abar eduki behar zituzketen orriak ez zeuden niri eman zizkidatenen artean–, baina erabilitako hizkuntzaren zenbait xehetasun, gehi testu-apur horrek ematen zuen informazio urrian nabari zen beste hainbat gorabehera zirela kausa, halaxe litekeela iruditu zitzaidan.

Bartolo Egozkue matrailak gorriagotzen zizkion benazko pasio baten mende zegoen, eta Ezari begiratu zion, solaskidearen keinuan eta jarreran bilatuz aurrera jarraitzeko bultzatuko zuen oniritzia. Ezak arreta hitzik galdu gabe segitzen ziola baieztatu zuenean aurrera egin zuen.

– Zaila da hitz gutxitan azaldu nahi izatea ni bezalako espezialista batentzat zein harritzekoa den XVI. mendean, bertako hizkuntza gehienek –herriak erabiliagatik *arruntak* deitzen zitzaizkion horiek– latina ordezkatzen dutenean, Errenazimentua bizi dutenean, hain euskal testu

gutxi aurkitzea. Niretzat gogoetagai errepikakor eta obsesiboa izan da, eta nire ikerketa-ahalegi-nak maiz bideratu dira norabide horretan. Eta ikerketa zein gogoeta horien azken muturrean beti azaltzen zen sinesmen bat, niretzat egiazko zertidunbre bihurtu dena: egon behar izan zuela, existitu behar izan zuela egiazko ahalegin kultu-ral bat euskara gainerako Europako hizkuntzen pare jartzeko. Eta ahalegin horren emaitzaz tes-tuak, XVI. mendeko euskal testuak produzituko zirela, erlijiosoak eta profanoak, edotarikoak. Guk ez ditugu ezagutu, ez dugu zorte hori izan, ezagutzen ez ditugun arrazoiak medio gure ga-raietara iritsi ez direlako, baina egon direla nik ez dut, une jakin batetik aurrera, sekula zalan-tzan jarri. Testu horiek, asko edo gutxi, nazio be-zala galdu dugun aukera historikoaren lekukota-suna ekarriko ziguten, benetan izan ginenaren oihartzun zaharra izango ziren, gure kultura eta gure hizkuntza *moderniara* ekarri behar zituen katebegia osatuko zuten. Ez dut uste azaldu behar denik katebegi galdu hartako testu bat be-rreskuratzeak zer garrantzi leukakeen, maila his-torikoan, linguistikoan, literarioan, politikoan, so-

ziologikoan. Are, psikologikoan ere: geure buruaz daukagun irudia ere alda lezake. Bada, Goñik ekarri zizkidan pasarte horiek gure katebegi galdua osatzen zutenetako parte behar zutela amesten hasi nintzen –Bartolo Egozkue isildu zen lipar batez, eta pasioak piztutako grinaldiaren eraginak oro ezabatu zituen bere ahots eta aurpegitik, tonu normalagora jaitsiz–. Azterketa bukatuta txostentxo bat prestatu nuen eta Goñiri hots egin nion, mila galdera berari egiteko nituela, eta horien artean funtsezkoena zena, mihia erretzen zidana: nondik arraio atera duzue harribitxi hau? Telefonoz mintzatu ginen. Uste nuena esan nion. Goñik, alkohol putzu horrek, ederki nabaritu behar zuen nire xutaldi intelektuala –berak eraginda, bestalde–, bero, ilusioz beterik ari bainintzaion. Ahots lehorrez esan zidan gaizki-ulertu bat izan zela eta dena ahazteko. Bertan egon izan balitz akatuko nukeen. Ez nintzen konforme gelditu eta ostera ekin nion galdezka. Perretxikoak bilatzera bidali ninduen. Gaur arte. Edo, hobe esan, orain hamar egun zure anonimoak bidali zenizkidan arte, zeinak, bide batez esanda, gehienak ezagunak baitziren,

lehen esan bezala, baina detailetxoren bat gehiago eman didatenak liburu misteriotsu horri buruz, nire lehengo tesian tinkoagotu nautenak, funtsezko datuak ezagutu gabe segitzen dudan arren.

Arraioa, pentsatu zuen Ezak. *In vino veritas. In vino disertus.* Zerrikume halakoa.

– Esan nahi duzu nire anonimoak, zure ustez, zuk Hugonotearen liburua bataiatu duzun horren parte direla?

Egozkuek hasperen egin zuen eta haritzezko mahai ertzapeko botoia sakatu berriro. Kutxa blindatua irekitzeko imintzio guztiak eginda, Ezaren anonimo sorta bertatik atera zuen, zerrenda gorri batez bildurik.

– Ikusi ahal izan duzunez, gainerako erlikiekin eta komentuko tokirik seguruenean gordetzeko ohorea eskaini diet –paperetako bat zabaldu zuen–. Begira; lehena ezin garbiagoa da. «*Soli Deo Gloria Propheten doctrina elicaren fundament bada ilusionea eta are guezurra elicac iancoaren iugemendu eguitera ausart liroqueenic erratea da scritura sainduaren iudicioa eguiteco bothere duenic*». «Soli Deo Gloria» Kalbindarren

leloa, ezaugarria, goiburua duzu. Teozentrismoa, Jaungoikoaren erabateko loria, erabateko guztiahalduntasuna. Bigarren zatia ilunxeagoa da; itxuraz, bakarrik, zeren esaldia berrantolatu eta gaurkotu egiten badugu, honelako zerbait daukagu: «Profeten doktrina elizaren fundamentua bada, gezurra da esatea eliza jainkoaren judizioa egitera ausar daitekeenik, eskritura sainduen judizioa egiteko botere duenik». Esaldi hau Kalbinoren doktrinaren laburpena da; hau da, kalbinismoaren zutabea eta funtsa da uste izatea elizaren tradizioak ez duela gauza handirik balio Jaungoikoaren hitzaren ondoan... Eskriturak dira nagusi, Eskrituren interpretazioa egiten dutenen gainetik. Elizaren magisterioa hutsala da, hortaz –Egozkue isildu zen une batez, antzezle trebatuaren gisara–. Bon, honenbestez bistan da zure anonimo honetako hauek kalbinista, hugonote baten hitzak direla. Idazkeraz, gaiaz, estiloaz eta abarrez ezaugarriak beretsuak dira. Beraz, Goñik erakutsi zidan testu osatugabe haren beste parte bat izan behar dute. Hortaz, Hugonotearen liburuaren aurrean gaude berriz, ez duzu uste?

– Zer esan dezakezu gainerako anonimoen gainean?

Egozkueren ezpainetan irribarre bihurri batek egin zuen dirdira. Patioko gaiztanondoari buruz zegoen leihoko egurrezko orriak zabaldu zituen, itotzen ari zela erakutsi nahi zuten espantu adierazgarriak eginez.

– Hagitz tarte laburrean xurrupatu nahi duzu apaiz xume honek urte luzeetan eskuratutako jakinduria. Goazen. Hemen ez da giro.

– Goazen? Nora?

– Afaltzera. Nik aukeratuko dut tokia eta zuk ordainduko duzu.

–6–

Pilotari izandako baten erretegiko jantoki egurrezko eta harrizkoan eseri ziren. Igande arratsaldea aldameneko frontoian hatzari eraginez igarotako koadrilatxoren bat eta bikote pare bat baino ez ziren jarririk mahai sendo luzeetan. Egozkue arduratu zen afariaz. Klasikoa, hagitz: bakailao tortila, piperrak, zapo errea eta txuleta, «idi bailitzan saltzen duten zaharrarena, baina ona, ikusiko duzu, hemen ongi gertatzen dute», Egozkuek esan zuenez. Etxeko ardoa eskatu zuen, eta Ezak bat etorri behar izan zuen bestearen aukerarekin, zeren «antzinako moldean, sulfitorik gabe egindako urteko ardoa da, Arabakoa, egiazko mama gozoa, konturatu ere gabe sartzen den horietakoa» baitzen. Egozkuek agindu zion litro bat edanda ere hurrengo egunean ez zuela buruko minik edukiko. Ezaren buruko mina zen, une hartan, poltsikoan zeuzkan hamabi mila pezetekin ordaintzeko adina izango ote zuen, badaezpada Egozkue ikustera baino lehen kutxazainetik pasatzearen erreflejoa eduki izana-

gatik pozten zela. Gaiari ekin orduko lehen pinta dardara batean zegoen.

– Gero *Iulius exclusus*-ena daukagu –Egozkuek bigarren anonimoa atera zuen poltsikotik–. Ulertzeko moduan jarririk, hau da dioena: Diogok ongi flakaturik aurkitu du Livino adiskidea. Nondik zatoz, galde egin dio, penaturik. Montacutusetik. Jakinduriaz beterik hago, beraz. Ez, –erantzun dio besteak–, zorriz betea baizik. Parisen zer berri? Berri sinesgaitzak: «*Beta sapit eta Quercus praedicat».* Beta jakintsua da eta Haritzak predikatzen du. Aitortuko dut hasieran, astebetez edo, noraezean eta galdurik ibili nintzela testuarekin. Behar ez zen tokitik ekin nion. Kosta egin zitzaidala zer zen asmatzea, alegia. Zer zen konturatu nintzenean, ordea, ez nion barkatu nire buruari arazo hain erraz batekin hainbeste denbora galdu izana. Iulius Julio II aita saindua baizik ezin daitekeela izan ziur nintzen hasieratik, eta horretan asmatu dudala uste dut. Testua, dena den, Erasmoren *Colloquiae* bat da. Hau da, Rotterdam-eko Erasmoren *Colloquiae* baten zati baten itzulpena, zehatz esanda –Egozkuek, zela deskubrimenduaren unea oroitzeaga-

tik zela ardoagatik, sugar txiki bat zuen begietan–. Konturatzen zara? Erasmo! Nor eta Erasmo! Humanisten aitzindaria!

Ezarentzat deskubrimendua ez zen hain kilikagarria.

– Zer da *Beta* eta *Quercus*-en asuntu hura?

Egozkuek ahoan zeukan arrain puska irentsi zuen, pazientzia eskatuz aitzurra zirudien eskuarekin.

– Aferaren grazia ulertzeko testuingurua ezagutu behar da pixka bat. *Colloquiae* horiek libelo satirikoak ziren, Erasmok idatzi zituenak bere garaiko eliza katolikoaren hierarkia zirikatzeko eta astintzeko. Txantxa gutxi, ordea. Inkisizioak debekatu zituen. Ez dizut gogorarazi behar garai haietan gutxiagorengatik uzten zutela tipo bat zapo hau bezain errea. Beno, hau bezain errea ez; erreago, kixkorratuta, txokarratuta. Hau puntu-puntuan dago eta. Ulertu behar da garai haietan, oraingo fedegabe ikonoklasta hauetan ez bezala, erlijio eztabaida Europako intelektualen kezka handienetakoa zela. Esan beharrik ez dago Erasmoren *Colloquiae* horiek, debeku eta guzti, edo debekuarengatik, batez ere, berebizi-

ko arrakasta eduki zutela. Edizio piratak egin omen ziren eta eskuz esku zebiltzan Europako kultur-zentru garrantzizkoenetan. Izan ere, pasarte hau Pariseko Unibertsitateari dagokio betebetean. Oker ez banago, 1520-25 urteen artean argitaratu zen lehen aldiz. Montacutus hango ikastetxe famatuetako bat zen. Ez dizut orain zehazki azalduko Pariseko XVI. mendeko unibertsitatea nola zegoen eratuta. Hiriaren alde bat harrapatzen zuten ikastetxe pribatuak bazeuden, eta ikastetxe horietako bakoitza erakunde autonomoa zen, bere ikasle eta irakasleekin. Azken finean, ez zen orain gutxi arte ezagutu ditugun unibertsitateekin alderatuz oso diferente; hiri unibertsitarioa, fakultate batzuk, tabernazuloetan emagalduekin zebiltzan ikasle hordizaleak, Inkisizioaren suteak, zirela liburuak erretzeko, zirela herexeak kiskaltzeko, sute hauek eragiten zituzten matxinadak, matxinaden errepresioa... Munduan aldaketak uste ohi dugun baino itxurazkoagoak dira. Konparazione, horiek penizilinarik eta kondoirik ez andraminik sendatu edo prebenitzeko, higiene pixka bat gutxiago, baina HIESik ere ez... *c'est tout*. Zure anonimoan aipa-

tzen den Beta hau Montacutus ikastetxeko zuzendaria zen, tradizio katolikoaren euskarririk irmoenetako bat. Tirabirak eta eztabaida gogorrak eduki izandakoa Erasmorekin. *Beta* gaitzizena da, noski. Bere egiazko izena Nöel Beda zen. Bestalde, *Beta*, latinez, ezertarako balio ez duen –ez jateko, ez belar-urik prestatzeko, ez ezer sendatzeko... – landare baten izena ere bada. *Sapit,* latinez, zaporea, ahogozoa da, bai, baina baita ere zuhurtzia, adimena. Hortik Erasmoren hitzjoko iraingarria: Montacu tus-etik bahator, jakinduriaz beterik etorriko haiz. Eta besteak, orduan, zera, zorriz ongi beterik. Eta Parisen zer? Parisen gauza ikaragarriak, ezinak, ahal ez direnak: *Beta sapit*. Beta zuhurra da, adimentsua, jakintsua, zukutsua.

– Eta *Quercus*?

– *Quercus praedicat*.

Ezari txuleta zatia trabeska gelditu zitzaion eztarrian. Apaiz arraioa. Eskubian zuen labana altxatu zuen okela puska bat ebakitzeko beharrezkoa zena baino dexente altuago, eta bestearen aitzi zuzendu. Egozkuek aldarte onera hartu zuen, barrez, baina mintzatzen segitu zuen:

– Hago, hago... Quercus izengoiti bat da, inkisidore odolzale eta anker bati zegokiona, Guillaume du Chesnes-i, zehatz esanda. Hau predikari intolerantea zen, Jodocus Clichtovaeus, *Herexeen Mailua* izengoitiaz ezagunagoa zenaren oso laguna. Dakikezunez, hainbat herexe erre zituzten urte horietan: Daillon, De la Tour... Azken honen morroiari mihia moztu zioten nagusia sutan kiskaltzen ari zen bitartean, exekuzioa ikustera joandako jende guztiaren aurrean... Beraz, nire hipotesia da XVI. mende hasierako kultura edo beharbada Pariseko Unibertsitatea ongi ezagutzen zuen hugonote edo, gutxienez, kalbinozale batek –euskalduna, bistan denez– itzulpenez zein bere uztako testuez moldatutako liburu baten aurrean gaudela; klerigoa, segurutik, baina orduko eliza katoliko intolerante, usteldu eta lotsa galduaren hipotesi ofizialekin lerratzetik oso urrun, erreformadoreen alde postura hartutakoa. Polemika eta ironiazalea, anonimoan argi aski ikus daitekeenez; izan ere, Erasmoren *Colloquiae* ironikoenen eta zauri eragingarrienetako bat aukeratu baitzuen euskaraz isuririk bere liburuan paratzeko. Edonola delarik ere,

erabateko ondoriorik ateratzeko, liburua non eta noiz inprimatu zen jakitea guztiz beharrezkoa litzateke. Eta gero, jakina, inportanteena dago. Egilea nor den jakitea.

– Eta nor da egilea, zure ustez?

Egozkuek ordurarteko tonu lagunkor eta amenoa alde batera laga zuen, eta altzairuzko hitzez galdetu:

– Non dago liburua?

– Ez dakit non dagoen.

– Nik ez dakit nor den egilea.

– Baina susmorik badaukazu.

– Zuk liburua non dagoen edo nork daukan susmatzen duzun bezala.

– Zer dago hirugarren anonimoari buruz?

– Ordaindu ezazu afaria.

– Hamabi mila pezeta baino ez daukat. Bostehun eta hogeita zazpi falta ditut.

– Hori ez da problema. Nik jarriko ditut bostehun eta piko horiek eta zuk eramango nauzu bueltan komentura. Taxia ordaindu dudala egingo dut kontu.

– Eta hirugarren anonimoa?

Egozkuek erlojuari egin zion so, ezaxolati.

– Bihar erremonte partidu polita dago. Galerak zure, irabaziak erdi bana. Posturak neuk egingo ditut.

–7–

– Hemen, edo hau bezalako batean, laburbiltzen da gure sena, munduari eman ahal izan diogun oparirik berezkoena eta jatorrizkoena, hizkuntza alde batera utziz. Besterik esaten duenak gezurra dio. Ez da egia bertsolaritik ez duen euskalduna gizagaixo bat dela, beste txoro horrek esaten duen bezala: pilotaritik ez duena da gizagaixoa –esaten zuen Bartolo Egozkuek, hiru pareta berdek zedarritutako espazioa eskua zabalzabal eginik erakutsiz, non giharraren kulturako lau gizon izerditsu lehiatzen ziren, saski uniformeki kurbatu bat eskuan, tximista zirudien esfera baten atzean–. Nerau ibilita nauzu, gazte denboran, eskuz, baina.

Hiru paretek espazioa atzeman, itxi nahi zuten, baina, laugarren paretarik ezean, ez zuten helburu hori betetzerik sekula lortzen, frontoia kaskezurrean umore txarrak alde egiteko ziloa edukiko zuen buru bat bailitzan. Ez zen zaila, ez horixe, Egozkue antzeko beste batean irudikatzea, hogeita hamar urte gutxiagorekin

eta esku zantar horiekin zartakoak ezker-eskuin banatuz.

– Zein gustatzen zaizu?

Eza hondoratuta zegoen eserlekuan, bizkarra egurrezko aulkitxoaren bizkarrarekin berdindurik, belaunek aurreko lerrokoaren aurka jotzen zutela. Gorriak aurretik zeuden hiru kintzetako aldeaz, baina partidua luzea izango zen oraingoz. Apustu kantari zeudenen zaunkek ez zioten solaskidearen mintzoa ongiegi entzuten uzten. Burdin-sarez bestaldeko artekariak begiratu zituen, puruen ke artean, eta ez zitzaion zail gertatu lazareto absurdu batean zegoela imajinatzea. Keinu batez adierazi zuen ez zuela lehentasunik, berdin zitzaiola.

– Mila bederatziri, mila bederatziri... baita zera ere –marmarikatzen zuen Egozkuek, artekari bati so, keinuak eginez: lehen, eskuetako zortzi hatz erakusten zizkion, eta gero, ezkerraz eskuineko besaurrea kolpatzen zuen. Artekariak ezina adierazten zuen, bi besoak gorputzaren alde banatan luzatuz, beste soako bat egiten zuen Egozkue zegoen tokitik urrutira, eta bat-batean azkar jiratzen zen Egozkueren begirada be-

rriro topatu arte, oniritzia hatza altxatuz erakutsiz. Handik segundu gutxitara teniseko pilota ebaki batek airea zeharkatzen zuen, barruan papertxo bat zeramala. Ezak pilotaren trajektoria eskuaz mozteko nahikoa erreflejo eduki zuen. Apustua adierazten zuen papertxoaren ondoan beste papertxo bat paratu zuen. Hirugarren anonimoaren testua idatzirik zeukana.

– Zer iruditzen zaizkizu esfera hustutzearen teoriak? –galdetu zuen Egozkuek, bi paperak tropikoaren aldetik mozturiko bururik gabeko mundu txiki hartatik atereaz. Gero soako aitakorra zuzendu zion–. Hau berriro? Hau oso erraza da, adiskide. «*Resumac eta erriac galcera Iancoaren bidetic apartatuic uztentuena*». Hau da, «Erresumak eta herriak, Jainkoaren bidetik apartaturik, galtzera uzten dituena». «*Unatuic senharrac ilcen eta amac negar batez uztentuena, Reinu Christaben seme prestuen alor aziendak eta ontarzunak ostuzentuena*». Alegia, «Senarrak hiltzen eta amak negar batean, unaturik, uzten dituena, Erreinu Kristauen seme prestuen alor, aziendak eta ontarzunak ohosten dituena». Hori idatzi zuena haserre zegoen, haserre bizian.

Zerbait lapurtu edo kendu izan baliote bezala edo.

Partidua aurrera ahala, teniseko pilotaren eragiketa beste hiruzpalau aldiz gehiago errepikatu zen, Egozkue saiatzen zela, beti ere, artekariek kantatzen zituzten zenbakiak bere alde beheratzen. Halako batean gorriek handiagotu zuten partidu osoan zehar eutsitako aldea. Eza interes pixka bat hartzen hasi zen.

– Esaidazu behingoz noren alde ari garen.

– Azulen alde –besteak, hasperen batez–. Hau da, gorriek irabaziz gero lau mila bat duro galduko dituzu. Eta azulek irabaziko balute –ez dirudi oso erraza, baina–, aldiz, bost mila duro inguru irabaziko ditugu.

Markagailuaren arabera, hamar tantoko aldea zegoen gorrien alde, eta dozenerdi bat tanto baino ez zituzten falta partidua bukatzeko. Ezak gogoratu zuen galerak bere kontu zirela, eta asaldatu zen, hankak bilduz eta bizkarra zutituz, apaizari begiz azalpenen bat, erreakzioren bat, zerbait eskatzen ziola. Egozkuek ez zuen lasaitasuna galtzen:

– Zenbat diru daukazu?

– Ez asko. Eraman ohi dudana baina pixka bat gehiago.

Egozkuek horrek zenbat egingo zuen kalkulatu zion begi kolpe batez, eta artekarien arreta bereganatzen hasi zen, azalpen hau ematen zuelarik:

– Aurrelari urdina oso ona da jokoz ongi dabilenean, gaur ez da bere eguna, baina. Gaztea da, badakizu –artekari batek begiratu ziola aprobetxatuz, hiru hatz atera zituen, eta ondoren, artekariaren hitzik gabeko galdera bati erantzunez edo, bi eskuetako hatz guztiak ageri zituen–. Bagoaz. Itsasontziak erre dizkiagu.

– Norekin zegoen haserre lerro horiek idatzi zituena?

– Julio II.arekin, bistan da. Julio II zerutik at, *exclusus e coelis*, gogora ezazu. «...*Berzeri Exigit Contumaciam munduco abundantiac ostucen berze nequeric artuezuen dongeac... azquen uneas ere guezurca bere buruari contumaciam norberaren contu secularen seculotan escatu ezdraucana...*». Hau da, besteren «kontumazia» dela eta kontu eske, norberaren «kontumazia» –setakeria, itsukeria, zitalkeria, beharbada– ba-

tere aintzat hartu gabe. Hori idatzi zuena, nornahi dela, haserre zegoen Julio II.ak eginiko zerbaitengatik... eta ez dut uste Michelangelo-ri *Kapera Sixtina* enkargatuagatik izango zenik... baizik eta, beharbada, *Exigit Contumaciam* horren ondorioz jazotako gertaeraren batengatik. Hipotesi bat baino ez da, dena den. *Exigit* Julio II.aren bula bat zen, bere garai historikoan nahikoa garrantzizkoa gertatu zena Europako mapa politikoari halako ukitu batzuk eman ahal izateko, hemendik ez oso urruti, gainera. Nazioarteko egoera hain gertutik ezagutu duen batek, zuk bezala, uler dezake honek guztiak zer esan nahi duen, ezta?

Artekaria sukartua bezala zebilen ezker eskuin, hiru milari oihukatuz eta txarteltxoak beteaz. Pilotak hegan hasi ziren, Egozkueren magaleko norabidea hartuz. Eragiketa bukatu ondoren Egozkue baretu egin zen.

– Deskalabrua geldiarazi dugu. Gorriek partidua aurrera ateraz gero mila eta bostehun pezeta dauzkagu irabazteko, eta urdinek irabaziko balute bost mila duro baizik ez zenituzke galduko. Baina lasai, urdinek irabaztea ezinezkoa da.

Hortaz, dirudien bezala, gorriek irabazten badute, zer edo zer aterako dugu oraindik. Lehen baino hobeto gaude, behintzat.

Hori esaten zuelarik, gorriek bi tanto falta zituzten partidua bukatzeko, eta azulak zortzi tanto azpitik zeuden. Bada, une horixe aukeratu bide zuen aurrelari urdin gazteak nor bazela erakusteko. Pilota guztiak bere saskian barneratzen ziren, segundu hamarren gutxiren buruan abiaduraz biderkatuta ateratzeko, errebotearen bila. Gorriak ezinean zebiltzan pilota-jasa hura onera ekartzeko.

– Arrazoia zenuen –zioen Ezak, ironiaz–. Aurrelari urdina sasoian dago.

– Gaur egungo pilota hauekin edonork bidaltzen du pilota errebotera –arrenkuratu zen Jaungoikoaren ministroa–. Baita mukizu horrek ere. Nahiko nuke nik ikusi Abregoren garaiko pilotekin, ia zenbat bidaltzen zituen errebotera orduan. Pilota errebotera bidaltzeko kadera hautsi, orduan.

Halako batean, ordea, aurrelari urdinak, eskumutur-kolpe doi batez pilota txokoan indarge utzi zuen. Txalo zaparrada ikaragarria izan zen.

– Koteto, Koteto... Hori ere bai, hori ere bai? –esaten zuen Egozkuek. *Horrelaxe* esan behar izan zion Julio Cesarrek Brutus-i: *Tu quoque*...

Urdinek hogeita hemeretzina berdintzea lortu zutenean, frontoi osoa artekarien zaunkek gidatutako orro bat zen. Egozkuek, beste hainbatek bezala, oihuak eta beso keinuak egiten zituen azken posturak egiteko, beste ezeri erreparatu gabe. Aurrelari urdinak aholku onak ematen zizkion erreboteari begira, burumakur, pilota punpatuz ari zen atzelariari. Aurrelari gorriak tartea aprobetxatzen zuen saskiaren lokarriak tinkoagotzeko, bere lagunak, bizkarra erreboteren kontra emanda, izerdia xukatzen zuen bitartean. Eza bere diruaren etorkizunaz kezkatu zen, baina Egozkue ez zen ganorazko ezer esateko gauza.

– Hau loteria duk, motel, hau loteria duk –errepikatzen zuen.

Ezak etsi egin zuen, eta noren alde zer jokatzen zuen jakin gabe begiratu behar izan zuen azken tantoa, ikusleen garrasiek gorturik eta dena emanda ari ziren lau pilotarietatik nork eman ote ziezaiokeen diru pizar bat eta nork

kendu jakin gabe. Finean aurrelari urdinak erdi hutsik egindako pilota bat zabaleko burdin-sarean hil zen, ikusleei azken oihu erabatekoa jaulkiaraziz. Pilota zabaleko marratik hain hurbil etorri baitzen, Ezak ez zekien ona edo falta izana zen, eta hortaz, ez zekien nor zen irabazlea, azkenik. Egozkuek bizkar gainean jotzen zizkion txaloak, irribarrea ezpainetan, aurpegia gorri.

– Poztu zaitez, adixkide. Hiru mila pezeta baino ez dituzu galdu.

Ezak pentsatu zuen hiru mila pezeta galtzea noraino izan zitekeen alegrantziarako arrazoi, eta betarteko eszeptizismoak nahiko nabaria behar zuen, Egozkuek zerbait gehiago esatera behartuta ikusi baitzuen bere burua:

– Zer dira seiehun duro jakintsuago izateko aukerarekin alderaturik?

– Jakintsuagoa? Beharbada. Funtsezkoena dut falta, ordea.

– Tira, tira... Nerauk ere agian zuk uste baino dexente zalantza eta hutsune handiagoak dauzkat, liburua ikusi arte, osorik baina, ezabatuko ez direnak... Ekarridazu liburua eta ziur naiz zure galdera guztiak erantzun ahalko ditudala. Libu-

rua ekartzen ez didazunez, zer hobekiago biziaz patxada osoz gozatzea baino, duro ziztrin gora-beherengatik axolatu gabe? Bestalde, badira diruz ezin ordain daitezkeen gauzak, adixkide onekin igarotako tarte goxoak adibidez...

–8–

– Ikusi duzu inoiz metal-ur kata bat baino zerik erridikuluagorik?

Luciano Goñik baso bat ur zeukan eskuan, eta herraz begiratu zion huraxe eskuetatik kendu eta beste bat paratu zion zerbitzariari, zirudiela basoz beteriko azpila lurrera botatzeko ere gertu zegoela. Bi katadorek dastatzen zuten mahai gaineko hainbat botila berdinetako ura, txandaka, eta bere ezaugarriak idazten zituzten; ondoren, morroi batek hoteleko aretoko megafoniatik irakurtzen zituen, zerbitzariek parte hartzaileei banatzen zien bitartean.

– Engainatu egin nauk, Luciano –zioen Ezak.

– Et et et etetet... Ez duk egia. Nik ez diat gezurrik esan.

Megafoniak dastatzen ari ziren uraren ezaugarriak denon jakingarri jartzen zituen: kaltziogatzen presentzia nabarmena zen, adibidez, baina ez gainerako osagarrien gozoa estali eta ahoa betetzeko bezain nabarmena, ez; adibidez, magnesioaren punttua guztiz identifikagarria

zen, eta gainera, lehen kolpeko laztasuna itxurazkoa suertatzen zen, zeren laster mikroorganismoen presentzia ezin ezkutatzeko modukoa gertatzen baitzen, ahoa bigunduz eta trago ondoren ere aho-sabaian irauten zuen sentsazioa utziz. Esan beharrik ez zen mikroorganismo hauek, goroldio-espezie oso bitxi batek gainera-tzen zituenak, kaltegarriak ez izateaz aparte, are mesedegarriak gertatzen zirela urdaileko flora bakterianoarentzat. Honek ematen zien katadoreei bidea esan ahal izateko ur hori, bistan zenez, Asturiasko parke natural bateko iturrikoak zirela, justu parkeko mugan botilan sartu eta marka ematen zion planta baina pixka bat goragokoak, hain zuzen ere. Katadoreen erakustaldiaren ondoren notari batek botila ondoko gutunazal zenbakidun txiki lakratua ireki zuen, eta barruko papera irakurri. Ba, bai horixe, Asturiasko parke horretakoa zen, justu katadoreek esandako tokikoa. Seigarrenez edo, bertan bildutako talde oso hautatuak txalo zaparrada batez agurtu zuen katadoreen demostrazio bikaina, euren urdaileko flora bakterianoa aberasteko prestatzen ziren bitartean.

– Gainera seguru nengoen goiz edo berandu jakin egingo zenuela.

– Ez hiri esker, noski.

Goñik basoaren hondoari so egin zion, ezin disimulatuzko arrenkuraz, urdailean isurtzen zen ura ezpain-xokotik behera tira egingo zion beruna bailitzan. Ekintza ergel hartara joan izana ez zen bera bezalako kultur gizon batek noizbait ohi dituen konpromezu logikoen ondorioa baizik, eta ez inola ere berak aukeratutako gauza.

– Antolatzaileek Florencio bera etorriko zela uste zuten, babo arraioak. Florenciok ez dauka honelako gauza txoroetan galtzeko denborarik.

– Non dago orain?

– Ez dakit ziur, niri ez dit ezer esan. Alabaina, uste diat Ameriketan dagoela. Batzuetan joaten da: enkanteak, galerien bisitak direla... –Goñik herraz begiratu zion basoko urari, ideia kontsolagarri baten bila hasten zelarik naufrago bat oholaren bezala–. Ameriketan ez ohi du denbora galtzen. Kaliforniatik behin Château Petrus kutxa batzuk eraiki zizkien Château d'Yquem-i edo Romaneé-Conti-ri eskasa irizten dieten magnate mokoguriei. Bat oparitu egin zidan.

– Ardoaz ari zara, ezta?

– Bai motel, bai. Oparia eskertzen diot, noski, baina, nahi gabe izanik ere, alukeria ederra egin zidan. Nik ez dut balio ardoa gordetzeko. Ardoa edateko da.

– Eta noiztik da hori arazoa?

– Botila bakoitzak ehun mila pezeta balio duen unetik, horra noiztik. Nahikoa kontu txoroa bada: Romaneé-Conti batek halako bi balio du, milioi askodun amerikarren ospe eta botere ikur bihurtu delako, bakar bakarrik. Hortaz, niretzat Petrus kutxa inbertsio bilakatu da, ardorik ez eta banketxean gordetako jabetza-titulu hautsez beterikoak bailitzan. Gorde ere Errioxako soto batean gordetzen dut. Hala ere aitortu behar dut kutxak hamaika botila dituela bakarrik. Bat edan egin nuelako, hain zuzen. Uste al duzu inongo une garrantzizkorik aukeratu edo inongo zeremoniarik egin nuela botila osoa edateko? Ez horixe. Arratsalde batez ireki eta edan nuen, etxeko sukaldean, emaztea eta haurrak kanpoan zeudela, sardina-lata baten laguntzaz.

– Eta zer ahogozo du?

– Pse –bekainak goratu zituen, eta definiziorik emateko ezintasuna garbi gelditu zen–. Egileek diote Ingalaterrako altzari noble baten urrina bezalako ahogozoa duela. Egia esan, Oliver Cromwell-en Parlamentuko eserlekua edaten ariko bazina bezalakoa da. Edo antzeko zeozer.

Goñik hainbakarrenez begiratu zuen bere ur basoa, nazka definigaitzaz.

– Gaur egungo politika hidrografikoaren aurka nago –aldarrikatu zuen–. Heraklitok esan zuen inor ezin dela bi aldiz ibai berera jaitsi, eta hori, txanpon bereko bi aldeak bezalakoak diren bi arrazoirengatik: lehena, bigarren aldiz jaitsi nahi denerako ibaia, beherantz etengabe doalarik, aldatu egiten delako, aldatu ubidea higaduraren eraginez, aldatu ibaia bizi duten arrainak eta izakiak, ertzetako landareak; eta bigarrena, bat bedera ere ez delako lehengoa. Geu ere ibaia gara. Denboraren etengabeko isuri kupidagabearen metafora ezin hobe eta unibertsal honek bultzatuta, nonbait, erabaki omen dute urtegi asko egitea eta botilaratutako metal-ura barra-barra kontsumitzea, denboraren joana geraraztea galarazten duen bi faktoreetako bat

gainditu dutelakoan: Heraklitok ez zuen esan, eta ezin esan zezakeen, inor ezin dela bi aldiz urtegi berera jaitsi, edo inork ezin duela botila beretik bi aldiz edan.

– Heraklito zerbait bazen metaforak asmatzen.

– Heraklitoren garaian ura ez zen botiletaratzen –unetik unera Goñiren aurpegia zurbiltzen ari zen, mintxuria egingo zitzaiola zirudielarik–. Hala ere, aferaren lehen zatia garbitu dutelarik, ea arazoaren bigarren parteari irtenbidea bilatzeko zer asmatzen duten, horixe da kezkatzen nauena. Goazen hemendik. Gonbida nazak botila bat ardo edatera eta mintzatuko gaituk. Ur gehiegi edateak zorabiatu egiten nau eta.

–9–

– Apaiz kontakatilu harekin egon haizenetik banekien horrelako txepelkeriaren batekin etorriko zinena. Zer eskatu duzu?... Cartaplata!? Cartaplata!!?? Ez da izango! Arren!!... Marqués de Griñón? Aaa... Tira, tira, hori hobeki dago. *Bonum vinum laetificat cor hominis* *. Bon, aitortuko dut deblauki: egia da, Fundazioaren liburutegia antolatzen hasi ginenean liburu bitxi bat azaldu zitzaigun, Egozkue bazter-nahasle horrek Hugonotearen Liburua deitzen duena... Bota ezazu ardo xorta bat, istorioa oso osorik eta den bezal-bezala ezagutu nahi baduzu...

Ezak bi baso zapal erdiraino bete zituen.

– Liburua nahikoa ongi kontserbaturik zegoen, nahiz eta zenbait orri, pipiak, bakteriek eta hezeak sorrarazitako markak zirela ere, irakurgaitz gertatu. Gutxi batzuk falta zituen, bestalde. Aurretik gaztigatzen diat: egilearen izena, noiz eta non inprimatu zen eta gorabehera horiek eduki beharko lituzkeen orria da horietako bat, beraz ezin emango diat horri buruzko xehetasu-

nik. Hala ere, eta leheneratze-lan behinenak egin eta gero, konturatu ginen itxura guztien arabera XVI. mendeko liburua zela, kalbinista batek idatzia, antzaren arabera, eta euskaraz idatzia. Hortaz, gaur arte ezagutzen ez zen liburua zela erabaki genuen. Gauzak bere garrantzia bazuenez, afera lasai antzean hartzea erabaki genuen; hau da, ezer esaten hasi baino lehen, benetan zer zen eskuartean geneukana garbitzeari ekin genion, are eta zuhurtzia handiagoaz horretarako berariz Madrildik ekarritako aditu batek liburua faltsua izan zitekeela esan zigunetik... Hortaz, zalantza hori piztu zenez, horixe izan zen gure lehenengo ardura: liburua faltsua zen edo ez argitzea.

– Faltsua? Nork hartuko zuen, ordea, horrelako lan bat, XVI. mendeko liburua faltsifikatzeko nekea? –galdetu zuen Ezak, sinesgogor–. Eta, zergatik?

– Dirua, tortolo halakoa, dirua –irria baino gehiago marranta zen zer bat isuri zitzaion–. Artegai faltsuen merkatua uste baino zabalduago dago. Egia da gehienetan margoak edo eskulturak direla faltsutugai, liburuak ez duela hainbes-

teko grina pizten bazterrotan... Baina bildumazaleak badaude, baita ere. Ezaguna da *Berrogeita bi lerrotako Bi blia*-ren kasua. Izen horrekin ezagutzen den Biblia Guttenberg-ek berak inprimatua da. Orain bi urte ale bat saldu zen Londresen, isilpeko eskualdatze baten bitartez, iritzi publikoaren oharkabean. Alemaniar batek lau milioi marko pagatu zituen, eta handik urte t'erdira jakin ahal izan zen faltsifikazio bat zela. Alceo Dossenak garai guztietakoak dira: faltsifikatzaileen mundua egon badagoela, alegia.

– Ez da erraza izango, ordea.

– Ez, baina egin daiteke: ez dago pentsatzerik XX. mendean ez dagoenik errepikatzerik XVI. mendeko teknikak. Adibidea zilegi bada, medikuntzan bezala da: egun inork ez du izainik erabiltzen ezer sendatzeko. Horrek ez du esan nahi, ordea, erabil ezin izan daitekeenik.

– Eta errentagarria izan al daiteke? –galdetu zuen Ezak, erantzuna ezezkoa zela uste zuela salatzen zuen tonuan.

– Zergatik ez? Faltsifikazioa ona bada, adituak engainatzeko bezain ona, alegia, eta autentiko itxuran saldu nahi denak pena merezi badu,

dirutza handia harrapa dezake. Kasu honetan bestelako arrazoiak ere egon litezkeela aintzat hartu gabe –gaineratu zuen, erdi zital, erdi maltzur.

Ezak ez zirudien, guztiarekin ere, oso komentziturik, eta hazka ari zen buruan. Goñik hizketan segitu zuen.

– Halako liburu bat faltsifikatzearen arazo teknikoa –esan zuen Goñik, apur bat distraiturik–, hiru mailatan erabakitzen da: alde batetik, papera. Bigarrenik, inprenta-markak: tipoak, filigranak... Hirugarrenik, hizkuntza sinesgarria lortzea –halako batean Goñi bere baitako amildegietatik, non une batez galdurik eman baitzuen, atera zen, errealitatera itzuliz–. Hi, atera ezak zeozer pikatzeko, ezta? Erratzuko gasna pixka bat, adibidez. Eta beste botila bat.

– Emaidazu horretarako arrazoi on bat.

– Ongi da: *Fecundi calices quem non fecere disertum*? **

* Ardo onak gizonaren bihotza alaitzen du.

** Nor ez dute kopa ugariek berritsu egin?

–10–

Kanpoan itzala zen. Euri zaparradaren ondoren ausartu ziren, aitzindari, Eza eta Margot, atzetik, hamar bat metrotara, upeletako amoranteak zituztela. Pretoriarrak atari ilun batean zeuden, kukutuak. Ur eroriak eraman zuen ureazko usaina, airean bi ekaitzen arteko giro geldoa eta esanahi atzemangaitzez beterikoa utzirik. Ezak aire horrekin bete zuen bularra, artega, eta arnas hartze horrek birikak erre zizkion, bi bonbardaketaren arteko goma errezko airea bailitzan. Bi bonbardaketaren arteko giroa beti dago beldurrez eta heriotzaz zamatua, goma errearen usaina nagusitzen da ia beti, baita haragi errearen usainaren gainetik ere, eta batek, poliki ibiliagatik ere, airea falta duela sentitzen du, bihotza jauzika dauka eta arnas-estu batzuk baino ez ditu egiten, sekulako lasterketa jotzen ariko bailitzan. Zemaia eta beldurraren ezaugarriak dira, eta hain dira itogarriak non batek, azkenik, desio baitu hurrengo bonbardaketa laster has dadin, orduan apurtuko baita antsia eta hasiko egone-

za definigaitz horri zentzu pixka bat emango dion giharren dantza, aterperanzko korrikaldia, eroririko haur bat pasadan laguntzea, ahal bada bederen, ordurarteko hurrenez hurreneko zurrunbilo areagotzearen leherketa, ekintza, azken finean. Doi aurreko instantearen atalasean bizirik irauteko deiari baino ez zaio aditzen, eta norberaren kezka bakarra da gorputzean behar adina indar biltzea eginbehar horri aurre egiteko, eta zalantza bakarra nork horretatik nahikoa biltzeko gaitasuna izango ote duen.

Kalearte estuan sartu eta berehala aurrez aurre ikusi dituzte, aterabidea itxiz. Hiru dira, haietariko bi, handiak, aurrerago eta hirugarrena, txikerragoa, atzean. Ezarengan erantzun-seinalea berehala piztu da, eta kasik esan daiteke poztu dela atezu egoera jasanezin horretatik libratuko duen bonbardaketa dela, jakin gabe ere espero duena, konturatu delako. Margoti begiratu dio eta bestea ere bizkarra ematen ari zaiela etorritako bidetik ospa egiteko ikusi du. Elkarri begiratu diote, eta Margotek ulertu du Ezaren keinua.

– Kantoira iristean lasterka atera, nor bere aldetik.

Baina kantoira baino lehen upeleko bikotea zeukaten zain, nahiz eta bestelako jarreran, lehengokoa ez bezalakoa. Ez hain maitekorra, hain zuzen.

– Horra, usapalak. Putakumeak. Erromantizismoak galdu egin nau, beti bezala.

– Zer?

– Deus ez, nire buruarekin ari nintzen.

Ez zuten elkarrekin mintzatu behar izan borrokan egin behar zutela adosteko, ez eta, borrokan egitekotan, bikoteari buruz oldartuko zirela erabakitzeko ere. Ezak ezkutatu zuen neska bere gorputzaren atzean eta upel hustuetako amorante publikoengana jo zuen, poliki, besoak zabalduz eta zerbait esanez, azalpen eske edo, pasioan dabilen inozoaren plantan. Gertuagotik ikusita, upelako amoranteak gehiago zirudien tximu-saldoan nagusigoari eusteko prest dagoen ar menperatzailea ostiral gaueko gazte maitemindua baino. Hankak zoruan ongi prantatuta zeuzkan, angulua eginez, eta eskuin eskuan burdinazko kate bat astintzen zuen. Hiruzpalau

urrats azkarretan tximuaren gainera erortzen ahal zela kalkulatu zuenean, Ezak utzi zituen inozokeriak alde batera eta bizkarburua branka moduan erabiliz oldartu zitzaion gorilari. Arina baitzen pisuz, jakin bazekien kolpea ez zela Pisako dorrea lur jota uzteko modukoa izango, baina abiadaz eta ustekabeaz fio zen: primatea lurreratzea lortuz gero ihes egiteko aukerak askoz handiagoak izango ziren. Ziminoa orangutana bezain solidoa gertatu zen, ordea, halako oihu lehor batez Ezaren oldarra jaso eta hiruzpalau mozkor-urrats atzera eman bai, baina hankabiko iraun baitzuen. Kontraerasoa ere prestatu zuen, eta oreka erabat berreskuraturik ez edukitzeagatik, eskuin besoa atzeratu zuen gero buru gainetik ateratzeko berriro ere, katea eta guzti. Eza konkortuta zegoen kolpea jaso zuenean, eta bigarren oldarrari ekin berria, burua bestearen sabelera zuzendurik; azkar ibili izanari esker burdinak bizkar-ipurdian baizik ez zuen jo, eta gehiegizko indarrik gabe, bere mugimendu propio gehi Ezaren burukadaren ondorioz, tximua azkenik zorura joan zen bitartean, kateak galduz. Behin lurrean, biak besarkatu ziren eta itzulipur-

di batzuk eman zituzten, baina horrek ezin zuen luze iraun, distantzia laburreko talka hartan ziminoaren gorpuzkera potoloak menperatu behar baitzuen Ezaren hezurreria hauskorra. Zorutik Margoti egin zion oihu, alde egiteko, baina honek zalantza une bat eduki zuen eta finean lurrera eroririko kateak hartu nahi izan zituen, eta orduantxe heldu zion gerritik zimino emeak. Gorilak menpe hartu zuen Eza, belaun berunezko bat petxu gainean paratuz eta ukabilkada bat emanez aurpegi erdian. Kalearen beste aldetik hasieran azaldutako hiru itzalak korrika eta garrasika hurbiltzen ziren, Margotek erasotzailearen besoetatik libratzeko ahaleginak egiten zituen bitartean laguntza oihu egiteari utzi gabe.

Ezak sentitu zuen indarrak falta zituela eta sudurretatik odola zeriola. Bigarren ukabilkada jasotzeko prestatu zen, baina halako batean petxu gaineko presio itogarria gutxiagotzen joan zen eta bi beso pare salbatzaile galtzarbeetatik heltzen ziotela gorilari ikusi zuen, instantean neskaren goardia pretoriarrak zirela konprenituz. Gau hasieratik ostikoka aritzeko gogo bizian azaldu zen pretoriarrak bazuen, azkenik, adrena-

lina askatzeko aitzakia, eta horixe egiten ari zen, alafede, ziminoaren sabelaldeko errai bigunak mota guztietako kolpez beratuz. Gorila gainetik kendu ziotenean, Margoti lagun egitera abiatu zen, baina ordurako, bigarren pretoriarrari esker, aske zen. Orduan ikusi ahal izan zuen, errealitaterik gabeko irudi itzaltsu eta nahasi haien artean, denetan izugarriena: kalearen bestaldetik etorritako hiruetako bat, mendi bat bezain handia iruditu zitzaion morroi bat, soin barreiatu bat luzoker gorri batez koroaturikoa, nola oldartzen zen gorputz tropoil hartara sekulako zartadak emanez ezker-eskuin, nahiz eta munstroarekin zihoazen beste biek itzultzeko oihuak egiten zizkioten. Ezak berak jasan zuen lehen eskukada, kotxe baten kristalaren aurkako kolpe bortitza eta, kristala apurtzearen ondoren, ebakia eragin ziona; gero pretoriarrak hasi zen egurtzen, halako moldez non hartzen zuen bakoitzetik hiru banatzen baitzituen, eta beste zirkunstantzia berri bat gertatu izan ez balitz, tanke haren agerpenak zeharo aldatuko zuen borroka haren bukaera, esandako zirkunstantzia hori izan zelarik han eratu zen eskandaluarekin beste gazte batzuk

hasi zirela agertzen, pretoriarren lagunak, gehienak, ostia entsalada hartan zeozer esateko bazeukatela erakusteko gogoz.

Odoletan eta mindurik bazen ere, ikusi ahal izan zuen Margot zurrunbilo horren erdian; beso batetik heldu zion eta tira eginez aterarazi zuen. Lasterrari eman zioten, indarrak ahitu zitzaizkien arte eman ere, ongi argitutako kale zabal eta zibilizatu baten kantoi jenderik gabean gelditu ziren arte, bihotzak ahotik eskapatzeko mehatxua egiten ziela. Margotek ez zuen zauririk; urratu batzuk eta erasoak eragindako asalda eta izua, besterik ez. Ezari odola zerion sudurretatik eta bizkarreko ebakitik, eta begia more jartzen ari zitzaion.

– Putakume halakoak! –Margot zen, arnasa lehenago berreskuraturik–. Kabroi zerrrriak! Akatu egingo dizkiat!

– Etxera. Eraman nazazu. Etxera.

Hori besterik ezin izan zuen esan.

IV kapitulua:
In vino disertus

–1–

– Post *vinum verba, post imbrem nascitur herba* * –jakinarazi zuen Goñik, trago luzea egin ondoren–. Esan bezala, liburu bat faltsifikatzeko lehen arazoa paperarena dugu. Bada, papera faltsifika daiteke. Alegia, faltsifikatu ez, ez dakit noraino den egokia hitza, XVI. mendean egiten zen moduan egin baizik: aurretik, lihozko eta kotoizko trapuak xehe-xehe egin eta uretan busti, behar den proportzioan nahastu lekeda organiko eta dekoloranteekin –garai haietan usatzen zen gisan–, upa baten barruan, metalezko galbahe bezalako bat duen moldean sartu, orea lehortzen utzi, prozedura horretaz orriak banan-banan egiten joan... Ihardun nekosoa eta deserosoa, dudarik gabe, baina burura eraman daitekeena. «Faltsifikatu» hitza ez dela egokia esan dut; izan ere, zergatik, zer dela eta esan daiteke, horrela egindako papera «faltsua» dela? Ez al da egiazkoa, akaso? Iruzur egiteko asmoz eginik balitz, orduan baino ez dirudi «faltsu» hitza egoki litzaiokeela. Kontsidera ezazu, hortaz, iruzur egi-

teko asmoa dela faltsukeriaren ezaugarria, beste ezer baino gehiago. Eta nik galdetzen diot nire buruari: noraino da zuzena horrela pentsa dezagun?

– Paper horrek ez zuen urteen joanak ohi duen zahar-zolda eta itxura izango, ordea –bainakatu zion Ezak, bestearen galdera sasifilosofikoa erantzuten nekatu gabe.

– Hiru egunez ehun graduko tenperaturan edukitako paper orri batek hogeita bost urtez tenperatura normalean edukitako paper-orri batek dituen zahar-marka berdintsuak dituela gauza jakina da. Hau da, laborategi on batek ematen ahal dio paperari zahar-itxura. Gainera, papera *ex novo* egitea behar beharrezkoa izango zelakoa hipotesi bat baino ez da, hipotesi bat beste hainbat hipotesiren artean: nahikoa litzateke garai haietako beste liburuetan erabilitakoa tratatu eta berriro erabiltzea, edo eta hainbat liburu zaharretako hasiera eta bukaerako orri zuriez –*guardak,* alegia– baliatzea. Faltsifikazioa beste mende batean egina izatea ere litekeena dela ahaztu gabe, edo eta zatikakoa, hots, partziala, jatorrizko liburuak orriren bat falta zuen

tokian osatua, alegia. Kasuistika luzea litzateke, ikusten duzunez. Baina, edozein kasutan, gertagarria dela garbi azaldu dudala uste dut.

– Eman dezagun paperaren arazoa gainditu dugula –etsi zuen Ezak–. Zer diozu inpresio-arazoei buruz?

– Bon, honi buruz zenbaitek esaten zuen filigrana faltsifikatzea berez zaila, oso zaila dela. Ezagunak diren prozedura batzuk nahikoa, hitza zilegi bazait, txapuzeroak dira; batzuk papera hezetu eta ongi berotutako zigilu batez faltsifikatzen dute. Zigilua jasaten duen paper puskaren jokaera termiko diferenteak engainua mikroskopioaren begibistan jartzen du, eta mikroak atzematen ez badu zenbait erreakzio kimikok –papera sosa kaustikoz tratatu eta abar– agerian uzten du. Azido sulfuriko edo nitrikodun soluzioen bitartez egiten diren amarruak kimikaren bidez azkar asko atzematen dira. Glizerina, parafina edo baselinazko emultsioez prestaturikoak dira onenak, eta hala ere, gehienetan, lehen edo beranduago atzematen da iruzurra. Antzeratsu gertatzen da letra-tipoekin. Hauek egitea ere zaila litzateke. Onena garai hartako bezalako tipo hi-

gikorrak erabiltzea litzateke, baina egun, horrelakorik egiterik, sekulako prozesu luzea eta antiekonomikoa litzateke. Haatik, egia da, baita ere, hirugarren mundua izen eufemistikoarekin ezagutzen dugun zenbait herritan, oraindik ere, oso inprimategi zaharkituak erabiltzen dituztela, XVI. mendekoak bezalakoak, ia. Kuban, esate batera. Beharbada, halako inprenta bat birmoldatuz... –isildu egin zen. Ageri zen ordurarte sekula burutik pasa ez zitzaion ideia berri bat zela, une batez kontsideratzen hasi baina halako buru kolpe batez uxatu zuena, lehengo hizpide ezagunari lotzeko–. Gorabehera horiek guztiak ibili genituen gure eztabaidetan. Egia esan, kontua ez da hain zaila. Esate batera, berunezko tipo higikorrak ez ziren beharrezkoak izango; nahikoa litzateke teknika fotomekanikoez baliatzea. Ez zen erraza izango, hori egia da, baina pazientzia eta katalogo batzuk edukita, ofizioa ongi ezagutzen duen artisau trebe batek egin lezake. Ez edozer artisauk, artisau trebe batek, horixe esan dut, baina ez derrigorrez jenio bat.

– Beraz, arkaiko antza leukakeen hizkuntza itxuratzea litzateke gelditzen zaigun arazo bakarra.

– Bai –ardo bonbila astindu zuen–. Tori poxi bat. Hemen sartzen da Egozkue. Berari pasatu genizkion orri batzuk, jakingo duzunez, hizkuntzari buruzko iritzia eman zezan. Egozkue kilikatu zen aferarekin. Esan zigun ez zuela zalantzarik egiten euskara egiazkoa zela, edo zitekeela; euskararen aldetik ez zegoela zalantzarik egiterik, alegia. «Zoragarria» zela, gehiago, «gaur egungo hainbat eztabaida linguistiko argitzeko funtsezkoa», eta are, «sekulako lehergailua». Horixe esan zigun. Nabari zen Euskaltzaindiaren gramatikari errepasoa egiteko beste arrazoibide aurkitzen zuela bertan, eta arauen erdia hankaz gora bota ahalko zukeela pentsatzeak berebiziko poza ematen ziola. Haatik, ez genion kasu gehiegirik egin intrigante hari. Zergatik? Euskara itxurazko bat lortzea ez delako oso zaila. Orduko euskara sinesgarri bat gertutzea zein erraza, erlatiboki, litzatekeen jakin dezazun, ezagutzen dudan nire lagun editore bati gertatutakoa kon-

tatuko dizut. Ardo gehiago ez ezik beste plater bat gazta ateratzen baduzu, baina.

– Ona dago, e?

– Bai –berretsi zuen Goñik, entusiasmo handirik gabe, hamar faisai dastatu eta zein den hil baino lehenagoko gauez ezker aldearen gainean lo egin duena berehala eta sekula erratu gabe asmatzen duenaren plantaz–. Baina ziria sakatu digute. Gazta hau ez da Erratzukoa.

– Nongoa da, orduan?

– Azpilkuetakoa.

* Ardoaren ondoren hitzak jaiotzen dira, euriaren ondoren belarra.

–2–

– Vinum *et musica laetificant cor: et super utraque dilectio sapientiae* * –aldarrikatu zuen Luciano Goñik, solemnitate horddituarekin–. Argitaletxe txiki baten kargu egiten duen nire lagun batek egitasmo majo samar bat zeukan esku artean: munduko literaturan idatzi izan diren ipuin laburrenetariko batzuen antologia prestatzekoa, hain zuzen. Kontu honek nahikoa luze joko du, haatik, eta hobe izango duk aurretik godaleta mukuru betetzea, zer gerta ere –Ezak, hainbakarrenez, basoa betetzen denean ateratzen duen zarata entzun zuen–. Esaten ari nintzenez, aurretik ipuinok itzuli behar ziren, jakina. Badakik, lerro bat, bi, gehienez sei lerro hartzen zituzten ipuinak. Eskaintza interesgarria zen ez bakarrik kalitatea segurtatua zegoelako, baizik eta, baita ere, ipuinen luzerak garai estresatu hauetan testu luzeagoek lortzen ez duten arrakasta eta oihartzuna iragartzen zuelako. Hortaz, errealitate kulturalari zehatz egokitutako proposamena zela iritzirik, gauza lehenbailehen aurrera era-

mateko asmoz, berak eskatuta halako ipuin-aukera bat egin nuen, eta afera nola izan zitekeen frogatzeko, Monterrosoren *El dinosaurio* hartu eta konfiantzazko itzultzaile bati pasa, zopilo xamarra berau, baina langilea, zintzoa. To, esan nion, euskara ezak hau. Izenburua: *El dinosaurio.* Testua: «Cuando despertó, el dinosaurio todavía estaba allí». Pfff, erantzun zidan, hau arront zaila duk, eta ongi egin beharra zegok, laguntza behar diat. Ezta Joyceren *Ulises* itzultzeko eskatu izan banio ere. Ederki, esan nion, egin zure erara, lasai, hartu beharrezkoa duzun denbora guztia, eginda daukazunean ekarri eta mintzatuko gara. Handik lau hilabetetara, artean ni nahikoa berantetsirik nengoelarik, deitu eta bilera bat egiteko esan zidan. Nik uste nuen esku ahurrean idatzirik ekarriko zuela, edo autobus-txarteltxo batekin etorriko zitzaidala, folio batekin, gehienera jota. Bai zera. Ez al zuen, bada, karpeta handi-lodi bat ekarri, lehertzeko zorian zirudiena, Proust-en obra guztiak beste folio zituena? Zer da hori, galdetu nion. Besteak, zer izango da, bada, zuk eskatutako lana. Gogor lan egin dugu, «dugu» diot, zeren, ulertuko duzunez, ez

dut neuk bakarrik burutzerik izan, beste seiri eskatu diet laguntza eta aholkua. Gauza uste baino korapilatsuagoa da: begi ra, hasteko, eman dezagun «despertar» aditza «iratzarri» itzul tzen dugula. Denborazko «cuando» hori emateko «-nean», «-larik», «-la», «-n unean» –beste batzuk ere bai, baina ez da komeni arazoa gehiegi nahasterik– izango genituzke (iratzarri zenean, zelarik... eta abar). Beraz, lau aukera ditugu «iratzarri» aditzarekin. Orain, «dinosaurio» sei era diferentez eman dezakegula kontuan hartuz, lau bider sei, hogeita lau aukera ditugula konturatuko zara, bider bi –«todavía» horrek beste bi aukera ematen digunez–, berrogeita zortzi. Ez da komeni dialektologia ahaztutzea, are eta gutxiago giroa nola dagoen kontuan hartuz, eta horregatik, erabaki genuen «estaba» aditz nagusia Bonaparteren sailkapenaren araberako hogeita bost tokian-tokiko hizkeren arabera ematea. Eragiketa erraz bat eginez, lehengo 48 aukerak bider 25 hizkera horiek, 1.200, hau da, orain arte, «iratzarri» aditzarekin baditugu 1.200 itzulpen zuzen. Baina, ez da ahaztu behar «despertar» aditza beste zortzi forma gehiagotan ere

eman daitekeela. Beraz, egitan daukagun itzulpen zuzenen zenbakia hauxe litzateke, 9 bider 1.200, hau da, 10.800. Eta, jarriz gero gauzak ongi egin behar direlakoan, egoki iritzi diogu Arantzazuko arau ortografikoak baino lehenagoko idazkera ere aintzat hartzea, inori minik ez emateko. Orduan, aise konturatuko zara ditugun itzulpen posibleak berriro bider bi aniztu behar direla, eta, gisa honetan, 21.600 itzulpenetan jartzen gara. Baina kontua ez da hemen bukatzen, hau da, nolabait esan, hau hurbilpen bat besterik ez da, zeren ez baititugu oraindik sintaxiaren arazoari buruzko kuestioak analisatu. Hau da, orpoz orpo segitu behar al genuen Sebero Altuberen ikasbidea, edo, aitzitik, libreago jokatzea zilegi ote zitzaigun? Eztabaida luzeak izan genituen kuestio interesgarri honi buruz, eta horien fruitu dira 400 orrialdeko txosten batean bildu dizkizudan zazpi itzultzaileok egindako ohar jakingarri eta eruditoak. Gauzak honela, batzuek «dinosaurioa esnatu zenean» tipoko itzulpenak egin dituzte, beste batzuek «esnatu egin zenean dinosaurioa...» tipokoak, beste batzuek «esnatu zenean» bakarrik, beste batzuek nahia-

go izan dute ondoren aipatzen dizudan itzulika, «Han zegoen oraindik...» tipokoetatik hastea, euskaldunagoa zelakoan. Beraz, sintaxiari ekin eta gero konturatu gara lehengo 21.600 itzulpenak 21.600 bider 8 zirela benetan –izanez ere gehiago baziren, Jakintza Bhaitakoen iritziak eta grafiak kontuan hartuz gero eta abar, baina sinplifikatzera jo nahi izan dugu–, hau da, 172.800. Honekin uste dut lortu dugula ipuinaren esanahia zeharo harrapatzea, eta euskaraz ongi paratzea. 172.800 bider hiru, lau, bost, hamar edo gehiago egitea ere bazegoen, «estaba» hori hitanoko adizkietan jarriz gero, baina, berriz diot, ez dugu itzulpen lana gehiegi zamatzerik nahi izan. Lan bikaina egin dugula deritzot. Orain, material hori guztia nola argitaratu, zure lagunak ikusiko du; nire kalkuluen arabera, itzulpen bakoitza lerro batean sartzeko moduko letra-tipo txikiak erabiliz, 500 orritako 12 liburuki atera zitezkeen, edo 1.000 orritako sei, halako bilduma gisa planteatuta joan litekeena, «Monterrosoren Dinosaurioaren itzulpenak» izenburuarekin. Liburukiak hobeki ulertzeko, beti ere, eraskin bat argitaratzea komeniko litzateke, prozesuaren

berri eta ohar jakingarriak bilduko zituena. Zer iruditzen zaizu? Horixe esan zidan. Eta nik kontu hau berretsi badizut ez da izan zu nekarazteko edo aspertzeko, baina kontura zaitezen Monterrosoren lerro batek halako letra-itsaso bat sortzen badu, ez dela erraza izango beste edozein letra-itsasoren baliagarritasuna ukatzea, endemas orain laurehun eta piko urte idatzita bezala aurkezten badigute, eta hortaz, faltsifikazio lana ahalezkoa dela, dozenerdi koska funtsezkori erreparatuz gero, lau arau begiratuz eta zainduz. Eta horregatik kontatu dizut hau guztia. Horregatik eta beste Marqués de Griñón bat atera dezazun eskatu nahi dizudalako.

* Ardoak eta musikak bihotza alaitzen dute, baina bi gauza hauen gainean jakinduriarekiko maitasuna dago.

–3–

– Vina *bibant homines, animantia cetera fontes* * –adierazi zuen Goñik, boxeolari ukitu batena legez tonua, erabakera eta trenpua basoz baso galtzen ari zen ahots totelarekin–. Liburua faltsua delako frogagarri, besterik gabe, nahikoa litzateke, bestalde, sekula bere berri eduki ez dugula ohartzea. Lehorrik al hago? To, beste baso bat ardo, on egingo dizu eta. Adibidez, azaltzen da Paulo IV.ak 1559 urtean argitaratu zuen *Index librorum prohibitorum*-ean? Ez. Benedikto XIV.ak 1758 urtean berritutako indizean? Ez. Ez da inon bere aipua aditu, inork ez du, historian zehar, horrelakorik egon zitekeelako albisterik eman. Aitzitik, Leizarragak, bere Testamentu Berriaren aitzin-solasean hala deklaratzen du euskara: «...ezin holako gauzak, lengoaia oraino usatu gabe batean...» Konturatzen? Usatu gabea. Hortaz, orain, mirakuluz, agertzen zaigunik ez da sinesgarria. Baina, beti ere, badira oraindik ere froga objektiboagoak. Lehen ere esan dizudanez –eta ez badizut esan oraintxe esango dizut– za-

lantzak zeudela eta, liburua Madrila bidali zen, Kultur Ministeriora. Han ere hasieran ez omen zuten afera oso garbi ikusten, zeren azkenik erabaki zuten Alemaniako Ministerioarekin harremanetan sartzea, han baitauzkate Europako aditurik garrantzizkoenak, baita horrelako peritazio lanak egiteko tresneriarik eta teknologiarik sofistikatuena ere. Eta handik morroi bat bidali zuten, Hoffman izeneko morroi bat; horrek lagin batzuk hartu zituen eta bere frogak egin, hiru hilabete baino gehiago ibili zen frogen asuntuarekin. Liburua Madrilen zela nahikoa denbora pasatua zenez, erreklamatu egin genuen, azken finean, egiazko edo faltsua, gurea zen, ezta?, eta itzuli egin ziguten. Gero Hoffman honek liburuari buruzko bere txostena utzi eta martxa egin zuen, Alemaniara, horixe. Hoffmanen txostenak argi eta garbi esaten du: liburua, Hugonotearen liburua, hain zuzen, faltsifikazio bat da. Meritu handiko faltsifikazioa, baina faltsifikazioa, azken batez. Hori da dena. Ez dago misteriorik, ez afera berezirik, ez aparteko libururik, ez historia aldaraziko lukeen lekukotasun harrigarririk, dena apaiz arraio horren asmazioak dira.

– Baina gero lapurtu egin zizueten.

– Eta zuk badakizu orain non dagoen? –esan zuen Goñik, benetan batere interesatuko ez bailitzaion.

– Uste nuen liburu faltsu garrantzi gabea zela, arreta merezi ez duena.

– Tira, Koko, tira... Hala izanagatik gurea ere bada. Gainera kuriositate interesgarria litzateke Fundazioarentzat.

– Ez dakit non dagoen. Zer arraio jakingo dut ba nik, zuk zeuk ezer ez jakiteko moduan eduki izan nauzu eta. Ulertzen ez dudana da zergatik lapurtu zizueten, ez bazuen ezer balio.

– Lapurtu, lapurtu... Hobe da baso bat edan dezazun –mama beltza basoetara isuri zuen–. Sakel-lapurtxo batek eraman zuen beste ezer harrapatzeko astirik eduki ez zuelako. Bai, lapur txiki bat sartu zen Fundazioan, denbora luzeegi ez dela, baina zaindariek harrapatuko zuten beldur ez zuen gauza handirik eraman ahal izan. Barruan egon zen denbora labur horretan liburuaren ondoan egokituko zen, halabeharrez, halabehar hutsez, eta ezer gabe atera baino eramatea nahiago bide zukeen. Ez dago besterik.

Badakit apaizarekin luze ibili zarela, ikusi egin zaituzte. Etzaiozu kasurik egin, ez da fidatzekoa. Frontoian ere ez al zizkizun diru pizarrak kendu?

– Eta gero sakel-lapurra hilik agertu zen.

– Pintxatu egiten zen. Hiri onetan hilean hiruzpalau kasu dauzkagu, zoritxarrez. Lasaitu zaitez, Koko. Ez da ezer gertatzen. Zure laguna naiz. Lana eman dizut. Nahikoa ongi ordainduta, gainera. Eta lan hau ez da Fundazioak egin behar duen erakusketarekin bukatuko. Espektatibak onak dira. Florencio itzuli bezain pronto Fundazioaren lanak areagotu egingo dira. Zer gehiago nahi duzu?

Nola enteratu haizen frontoian galdu nuela jakin, horra zer gehiago nahi dudan, pentsatu zuen Ezak, baina ez zuen ezer esan; ez zuen eta, Goñiren aurrean, inozo hutsa bezala agertu nahi. Kokok bildu zituen, arreta handiz, gorputzean zehar barreiaturik gelditzen zitzaizkion argi apurrak, eta planta duina osatu nahi izan zuen Goñiri zuzenean begi-hondora begiratzen ziolarik. Zer gehiago nahi dudan? Bistan zen aldarrikapen garrantzizkoa egin behar zuela:

– Gaseosa. Gaseosa nahi diat. Gaseosa, arren.

* Ardoa gizonentzat, iturriko ura animalientzat.

–4–

Aitorgoitiara joan zen bigarren aldian, Ezari ez zitzaion jada harrigarri iruditu legarrezko patioan, lehengo Volvo hartaz gain, bi Saab eta Lancia bat ikustea. Aurrekoan «Portland Trail Blazers»en txandalarekin jantzita ikusi zuen atezain bera zegoen ate ondoko zuloan, Eza ikusi bezain laster aldizkari bat presaka karpeta batean bildu eta zentralitako botoien gaineko apalategi txikian arrapaladan sartu zuena, premiarekin hainbat paper eta liburu amilduaraziz. Presarekin aldizkariaren azaleko txokoa utzi zuen agerian, eta izenburuko lehen letrak ikusten ahal izan ziren: «Pent». Ezak, erreparatuagatik, ez zion jaramon handirik egin atezainaren aztoramenduari eta apalategi txikiari so egin zion kuriosidade apur batez. Karpeta zaharrak, kirol zein gurutzegrama-aldizkariak, far-west-eko nobelatxo eskurik esku luze ibiliak eta eliza liburu gutxi batzuk nahaspilatzen ziren bertan, apalategiak, txikia izanik ere mundu oso bat osatzen zuela garbi adierazten zuen ordena faltaz. Atezainak azkar asko

aurkitu zuen Egozkue, eta sarrerakoak ahalik eta arinen egin beharrez, mutu gelditu zen, enbarazuz edo. Segi, segi zure otoitzekin, esan zion Ezak, libertiturik, klaustro gotikoari buruz irekitzen zen atea zeharkatuz.

Egozkuek bere lan-gelan hartu zuen. Berehala atzeman zuen Ezak apaizaren buruan zerbait bazebilela, ohiko ateraldiek eta hizjarioak lekua utzia baitzioten halako isiltasun pentsakorrari. Luciano Goñik liburuari buruz esan zizkion guztiak errepikatu zizkionean, mutiri entzun zion, beste nonbaiten bailebilen, eta bere denbora hartu zuen hizketan hasi aitzin, nahiz motorra berotu ahala esaten zuenari bere baitako su ezin saihestua gaineratu, emeki-emeki:

– Ezagutzen ditut Goñiren arrazoiak. Bakar bat iruditzen zait pisuzkoa. Gainerakoak dialektikoak baino ez dira, eta bere izaerari dagokionez, dialektikaren bidez errefusa daitezkeenak. Liburuaren berri ez dugula sekula eduki? Eta zer? Uste al du hankadun upel horrek ezagutzen ditugula munduan argitaratu diren liburu guztiak? Hori benetan sinesteko bezain lerdoa al da? Paulo IV.aren *Index*-ean ez datorrela? Eta nork

esan du Inkisizioak debekatu zuela? Inkisizioak ez zuen, iraun zuen denbora guztian, nahi zituen liburu guztiak debekatzeko ahalmena beti eduki, ez debekatzen zituen guztiak erretzeko ahalmena, ez eta argitaratzen ziren liburu guztien berri edukitzeko ahalmena ere; are, askotan zerrendetan berariz sarturik ez zeuden liburuak ere erretzen zituen, ezustean inon aurkitu, edukia gaitzetsi, eta hala. Nork daki, bestalde, liburu jakin horren historia zehatza nolakoa zitekeen? Nork daki hainbat eta hainbat libururen historia zehatza nolakoa izan den? Inork azaldu al du inoiz zergatik ez den Etxepareren liburuaren bigarren argitalpeneko –dakigunez, Rouen-en Adrian Morront-ek eginda– alerik gure garaietara iritsi? Inork ba al daki Elsoren obraren liburukirik zergatik ez den sekula ageri? Liburuen historiak pertsonenak bezain bitxiak izan daitezke, eta gehiago ere. Gure kasu honetan, autoreak, behin inprimatuz gero, adibidez, mota askotakoak izan litezkeen arrazoiak medio –beldurra, une jakin bateko interesa, mehatxua, komenientzia...– ez zabaltzeko agindua eman izan balu? Edo eta Inkisizioak, argia ikusi baino lehen, inprimategitik

atera gabe erre izan balu? Ez dugula sekula bere berri eduki. Hori baino arrazoi ahulagorik! Zenbat udaletako artxibo desagertu da, dela zabarkeriaz, dela espazio faltaz, dela aurriritzi sozial edo politikoaz? Zenbat putre hurbildu da eruditoz mozorroturik, hainbat bilduma pribatutara, gizabanakoen momentuko zoritxarrak profitatu eta liburuak gerra-harrapakina bailiren etxeratzeko? Zenbat artxibo publiko, beren klase-interesak, edo interes politikoak, edo ekonomikoak defenditzeko, suntsitu dituzte putre horiek beroriek? Zenbat gerra izan da lur hits honetan azken bi mendeetan? Zenbat su egin aipatu gerra horietan? Zenbat liburu erre suotan? Ez, laguna –suaren aipuak suturik, Bartolo Egozkue–, hori ez da argudioa. Hori infamia bat da. Sinesberago nauzu, aurrekoan esan nizun bezala, antzinako urrezko aro oso baten adierazgarria litzatekeen liburu-sail oso bat desagertu dela edo desagerrarazi dutela ideiaren aurrean. Eta ez dezala Leizarraga aipa, otoi, horixe bailiteke liburua autentikoa dela sinesteko lehen urratsa. Egia da, Leizarragak hala dio aitzin-solasean: «Batbederak daki Euskal Herrian ia etxe batetik bertzera ere

mintzatzeko maneran zer diferentzia eta dibertsitatea den... ezin holako gauzak, lengoaia oraino usatu gabe batean, ezin behingoz halako perfektionean jar daitezkeela...». Alegia, orduko hizkuntzaren egoera zehatzak traba batzuen aurrean jartzen zuela. Gero, kritiko guztiek traba horiek ezin hobeki gainditu zituela aitortzen dute, miretsirik, harriturik aitortu ere, gehienetan. Horrela, Villasantek dio euskal literaturaren hasierako lan bat izateko, harrigarria dela noraino ematen duen bere hizkuntza normalizatua eta finkatua. Mitxelena urrutirago doa, eta esaten du bere testua irakurtzean inork sinetsiko lukeela «urte luzeetako jardun literarioak normaldu eta findutako hizkuntzan idazten zuela»; kritiko guztiek bere harridura erakusten dute, sinestezina iruditzen zaie, *Erraldoi Bakartia* eta horrelako ezizen bost durokoak paratzen dizkiote, baina azkenik denek men egiten dute Schuchardt-en iritziaren aurrean: «Leizarraga bera izan zen idaztean erabili zuen hizkuntza finkatu zuena». Zergatik, ordea? Hain zaila, hain harrigarria balitz pertsona bakar batek –eta dozenerdi laguntzaile xumek– traba horiek guztiak hain

ederki gainditzea, zergatik ez da zilegi, eta are, arrazoizkoa, aurrekorik eduki zuela pentsatzea? Hori ez da burugabekeria, ezin daiteke txorakeria bailitzan albora utzi. Bestalde, *Itun Berria,* 1571koa izaki, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* baino aise berandukoagoa da. Hortaz, Leizarragak ezagutuko zuen, ezbairik gabe, eta hala ere bere aitzin-solasean «lengoaia oraino usatu gabea» dio. Orduan, nola usatu gabea, aurretik gutxienez Etxeparek usatu bazuen? Esaldia, nire iritziz, ez zen oso hertsian hartzeko modukoa, eta, beharbada, «Jainkoaren hitza isurtzeko lengoaia oraino usatu gabea» ulertzea zilegi izango litzateke, hau da, testu erlijiosoen lehen itzulpena, *lehena bere klasean.* Goñiren argudio horiek ez dute ezer balio, ez nireek baino gehiago, behintzat. Liburua aztertu ondoren baizik egiaztatu ezin daitezkeen hipotesiak, horixe dira.

– Hoffman, alemaniar horren txostenarena dago, ordea.

– Horregatik esan dut auzi honetan arrazoi pisuzko bakarra dagoela: aditu baten peritazio

behar bezalakoa. Goñik dio Hoffmanek dioela... Zuk ikusi duzu Hoffman-en txostena?

– Bistan da ezetz.

Egozkueri arnas-kolpe bat isuri zitzaion sudur zuloetatik, matrailak eskutzarretan bermatzen zituelarik. Bere aurpegiak Tomas Deuna berarenak bezain isla beatifikoa barreiatzen zuen.

– Nik ere ez, ene haurra, nik ere ez.

–5–

Hemerotekara joan zen eta aste batzuk lehenagoko egunkariak begiztatu zituen, kausitu zuen arte. Prentsa ohar laburraren izenburuak ez zuen gaizki-ulerturako zirrikiturik uzten; «Gazte bat hilik gaindosia hartuta». Oharra laburra zen, ofiziozkoa: «M.F.E., hogeita hamar urteko gazte bat hil zen joan zen asteartean, droga gaindosiak sorraraziriko bihotz eta arnas aparatuko geldiketaren ondorioz. Gaueko hamabiak aldera Espainiako Poliziaren kideek anbulantzia bat eskatu zuten, Descalzos kaleko eraikuntza batera joan zedin. Bide laguntzako anbulantzia iritsi zenean, ostera, medikuek ezin izan zuten ezer egin gazteak bizirik iraun zezan, ordurako bihotz eta arnas aparatuko geldiketaren ondorioak jasaten ari zelako. Gordailu anatomiko forentsean, nora eraman baitzen gaztearen hilotza, autopsia egin eta honen ondorioz, heriotzaren arrazoia droga gaindosia izan zela erabaki zen. Poliziaren arabera gaztearen etxebizitzan heroina oso puruaz beteriko poltsa bat zegoen. Heroina hori liteke

azken egun hauetako heriotzak eragin dituena. Bestalde, Poliziak atzemandako zenbait aztarnaren arabera, M.F.E. hilik aurkitutako gaztea liteke, baita ere, Juandeaburre Fundazioan egin lapurretaren erantzule». Ondoren izenpea: Akuilu.

Akuilu delako hark margolari baten erakusketaren artikulua egin behar zuela esan zion, eta, nahi izanez gero, hantxe mintzatuko zirela. Ezak oharra egileari erakutsi zionean, honek ez zuen sarkasmoa ezkutatu.

– Lan bikaina, e?

– Nork ez du inoiz horrelakorik egin? –Ezak, elkartasuna erakustea ezinbestekoa zela iritzirik. Besteak errukitzat hartu zuen, ordea.

– Denak ez gara Vietnamen egon, jakina –Akuiluk erdeinutik gertu azaldu nahian, baina asmo horren kontra, bere burua bekaitz egotetik gertuago salatuz.

– Ni iritsi orduko ez zen inor gelditzen. Eta ezertaz jabetzen ez nintzen mukizua baizik ez nintzen –Eza benetan ari zen, baina besteak apaltasun faltsua iritzi zion, eta mesprezuzko bafada batez hurrengo koadroa ikustera abiatu zen, non oihal zuri itzel baten erdian kolore-man-

txa batzuk ageri ziren, zeinen erditik burdin-sareko hariak ateratzen baitziren, margoaren planoarekin elkartzut–. Jazoerak ez ezik artea ere egiten duzu, hortaz –saiatu zen, berriro–.

– Kontuz burdin-hariekin, alkandora urratuko dizute eta –gaztigatu zuen Akuiluk–. Artea, jazoerak, kirolak, kultura, erreportaiak, nekrologikoak, prentsaurreak... eta beste batzuk.

– Eta nola moldatzen zara?

– Lehen hola, orain hala, gero ez dakit nola. Artea eta kultura, orokorrean, erraza da. Garrantzizkoena arropa egokia ekartzea izaten da, urratuak eta zikinak saihesteko. Egun edozein zerrikeria botatzen dizute burutik behera. Ikusi nahi duzu erakusketa honen artikulua? –paper bat atera zuen poltsiko batetik, eta irakurtzeari ekin zion, afektazioaz:– «...mistizismozko eta bortxakeria sentsualezko nahasketa dotore eta fin hori, hain berea, hain propioa; gairik apalena eraldatzeko gaitasuna; ohar kaligrafiko barnekoi hori, zeinu-sinbolo horiek, aztarna dantzari, txertaketa, zipriztin hegalari horiek, bihotza ikara batean paratzen dizuten nahasketa alkimikoak...». Badauzkat pitokeriaz beteriko bi folio. Batzuk auke-

ratu egiten ditut, eta aire. Erakusketara joateko lana hartzen dudanean gauza hobetzen da era nabarmenean, hala ere: adibidez, gaurkoari oso ongi datorkio hau: «...burdin-hari arantzadun bat kiribilduz sortzen den keinu oldarkor azkarra, zeinaren ondoren *noli me tangere* delikatu hori baitatorren...». Badauzkat beste bi folio kritika txarra egin nahi dudanerako. Badauzkat honelako folioak kirolerako, nekrologikoetarako, antzerkirako... Futbolean elkarrizketak ere egiten ahal ditut inor elkarrizketatu gabe: «Hutsunea ikusi eta jaurti egin nuen». «Ni oso ongi nago, baina *misterra* da nor zelairatuko den erabaki behar duena». «Profesionalen bizitza laburra da». Eta horrela –ofizioaren azalezko azalpen honen ondoren, ordea, lehengoari ekin zion, bestela bezala–. Uste duzu Nixon-en gainbehera Vietnamekoarekin segitu nahi zuten militarrek eragindakoa izan zela?

– Bai... Baliteke... Edo ez... Ez dakit, begira, ni, Saigon erori zenean, ez nintzen...

– Egia al da *marine*-ek berek euren ofizialak zientoka akabatzen zituztela, tiroka?

Ezak hasperen egin zuen. Kasu sendagaitz baten aurrean zegoen, zalantzarik gabe. Bestearen mitomania edo adarra jotzeko gogoa, edo biak, asetzera deliberatu zen, hainbestetan hainbeste lankideri ikusitako piurak eta poseak bere gisara berrinterpretatuz. Hagitz bere gisara. Eta gogoz kontra.

– Jakina. Eta ez tiroka, bakarrik. Handiagoak ikusita nago. Ikusi diat nik konpainia oso bat bere tenienteari apuntea eginez, oihanera joateko ala tiro egingo ziotela zemaika, jakinik aurreko oihaneko manglarretan *cong*-ak zeudela, eta hauek gordinik jango zutela, soberakinak zerrien janari utzirik.

– Et et et... Adarrik ez jo niri.

– Zer ba?

– Vietnamen ez dago zerririk.

– Nire orduko folioetan halaxe zegoen idatzirik, bada. Guk estilo-liburua esaten genion, ordea.

– Kazetaritza uste baino gehiago aurreratu da, beraz –esan zuen Akuiluk, lata ireki batzuen aho ebakitzaileak ikuslearengana zuzendurik zeuzkan koadroak izan zezakeen arriskuari

erronka eginez muturra bertara hurbilduz–. Beharrak aldatu dira, noski. Orain eskuhartze profilaktikoetarako giroa prestatzea da inportanteena. Erakuts diezaiogun mundu zibilizatuari, ez zer nolako ankerkeriak egiten diren, baizik eta nolakoak diren beroriek egiten dituzten basatiak. «Sorrarazi zidan lehen inpresioa ona izan zela aitortu behar dut» dio basatia epaitzera bidalitako mendebaldeko kronistak, bere burua filosofo, pentsalaria, idazlea edo eta hori bezalako titulu eder eta ez susmagarriarekin hornituko duena. Besterik irudi lezakeen arren, basatiarenak egin du. Ez dago hitz ederrez hasten dena baino kondena kupidagabeagorik. «Luzera herkuleoa. Esku han di-lodiak. Aurpegi pittin bat abere-antza eta ilea gomaztua». Mendebaldeko kronista erabat justua bidea prestatzen ari da. Deskribapen fisikoa *crescendo* leun bat da oraino, abere-antza ez oso zehaztu horrekin bukatzeko: horrek gaitasun falta, ergeltasunaren ideia iradoki lezake, arrazoizkotasunaren falta, agian. Zakartasuna, bizioa edo senaren menpeko ohitura desordenatuen ideiak ere okurritzen zaizkio bati. Zergatik sorrarazi dio inpresio ona, hala

ere, mendebaldeko orojakitunari, halako gizon zakatz batek? Hau da, bere muga nabarmenen aurkako lehian hanka ematen ikasten saiatzen den txakur bat gure begikoa egiten den arrazoi berberagatik. Astakilo samarra, baina sinpatikoa: «Ileen urdindua nabarmentzen duen jantzi urdina. Irribarre leial eta zabala. Txerazko moduak». Berezko izaera basa gainditzeko ahaleginak egiten ditu, oraindik ez da itxaropen guztia galdu. Ondoren inflexio-puntua dator: tele fonodei bat, solaskide baten komentario dorpea baina asmo gaiztorik gabea, piztiak adierazitako iritzi baten aurka inor, errespetoz, azaltzea... Inflexio-punturako aitzakia edozein izan daiteke, eta ondorengo efektua berehalakoa, erabatekoa. Mozorroa erori egin da: «Niri harrigarriena iruditu zitzaidana minutu gutxiren buruan pertsonaiaren aurpegikera orokorrean gertatu itxuraldaketa izan zen». Maskara eroririk, bukatu dira lilurak oro. Munstroaren erokeria eta erokeriaren munstroa bat eta bera dira. «Begirada tinkoa, apur bat zoro. Guregan ilkatzen dena une batean berehala bere baitaren baitan ezkutatzeko. Egia dena da ez dagoela hemen, gurekin.

Beste nonbait dago, oso urruti, solaskide honengandik eta bere gonbidatuengandik guztiz at». Eta hortik aurrera, desideratum-a: «Zerbitu berri zuten haragi errea. Itzela da, egosiegi dago, gogorra eta zainez beterik, gainera, berau jatea oraindik zailago egiten duena. Guk, gizabidez, jaten ari garelako planta eginagatik azkar etsi dugu. Berak sardes ka-labana hartu eta, isiltasunean, begiak zuri-zuri eginda baina sekulako trebetasunez haragia xehetzen hasten da, dantzarazten du sardeskaren inguruan, platerean paratzen du oraindik ere, bueltak ematen dizkio... bizitzan besterik egin ez duenaren keinu zehatzarekin: zainetatik behera jaitsi, zurdak saihestu, xerrak ebaki, sekzionatu, zurda ondoan pasa, gune zehatzean ebaki, txikitu, zatirik onenak islatu eta pusketa txikietan xehetu. Kolpe lehor bat ezkerrean, intzisio bat eskuinean, zain bat bakartu, kartilago bat bereiztu eta mokadua prest dago». Nekez erabaki daiteke hasierako astazakil sinpatikoak zirujautik edo harakinetik ote duen gehiago, baina garbi dago torturatzaile odolgosea dela. Eta, testuinguru honetan, azken epaia aizkorakada bezala erori da: «Ezerk nahiz

inork ez du haragi zati hau zehatz eta zorrotz ebakitzetik geldiaraziko». Handik aurrera gure gizarteak, jatorduetako molde onaz hain kezkaturik dagoena non arrain-labana bezalako tramankulu zentzugabea asmatzeko gai izan baita, aise justifikatuko ditu milaka tona bonba batzuk: bistan da horren zakar jaten duen tipo bat zigortu egin behar dela.

Koko Eza inpresionatzeko egin bazuen ariketa periodistikoa, kale egin zuen, hau ez zegoelako oso inpresionaturik.

– Nik gauza bakar bat galdetu nahi nizun: zergatik idatzi zenuen zure oharrean Poliziak uste zuela M.F.E., Marcelo, alegia, zela, edo zitekeela, Fundazioko lapurreta egin zuenetako bat?

– Ez al dizut oraindik esan? Ikerketa-kazetaritza da nire berezitasunik maitatuena.

Begietan dirdira bitxia zuela esan zuen hori Akuiluk, eta Ezari iruditu zitzaion sarkasmoaz harantzago, txintxetazko distira hartan laburbiltzen zela bestearen egia, desio beharbada, bakarra.

–6–

– Gaur gauean eskegi omen da. Etxerik lortu arte ez dela jaitsiko esan omen du. Kakazaharra, ez dakit honetarako foliorik ote dudan. Intsumituenak egoki dakizkioke, beharbada. Edonola ere, okerrenean jartzea onena beti: beharbada berria idatzi egin beharko dut.

Jendetza ugari zegoen elizako dorre handiaren pean, ikuskizunari so. Paretan eskegiriko desetxeratuak lo-zaku baten barnetik luzatzen zien soakoa, hogei metro goragotik. Pankarta bat zabaldurik zuen: «Izarrak teilatu bakarra / hau da nire agurra: / hauxe beharraren beharra / bankua lapurra». Nik uste «rappel»a gain gaineko Sanmiguel iruditik montatu duela –azaltzen zion Akuiluk beranduago etorritako hainbat kolegari–. Bertatik pankarta zintzilikatu eta pareta erdira iritsi delarik, iltze pare bat sartu eta hantxe aseguratu du zakua, beste kordino batez. Lastima, iltzeak: triskantza delitua leporatuko diote.

– To, bada. Horrela astinduko duzu buru-barrukoa apur bat. Ez al zenuen ikerketa-kazetari-

tza maite? –ustekabean aditzen hasi ziren sirena-hotsek ia estali egin zituzten Ezaren hitzak. Edonola ere, Akuiluk ez zuen kasu handirik egiten.

– Su-itzaltzaileak. Su-itzaltzaileak dira. Beharrik.

Hauen bi kamioneta, zegokien dotazioarekin, dorre azpian gelditu ziren. Su-itzaltzaileetan buru egiten zuena aurretik bertan zeuden udaltzainekin mintzatzen hasi zen. Udaltzainak ikusleak atzera erretiratzen hasi ziren, eta su-itzaltzaileak metalezko eskailera baten moduloak zerurantz hasi ziren abiarazten. Haurrek begiak biribil-biribil eginik begiratzen zieten martziar itxurazko uniformean bilduriko suteen heroiei. Zaharragoak ikuskizunaz gozatzen ziren, marmar eta irrien artean: «Etxea nahi duela. Baita nik ere, alajaina!». Zorutik hamar bat metro gora luzatuta zegoelarik, zerbait urratu zen eskaileraren errai mekanikoetan. Trabatu egin zela, alegia. Jendea txistuka. Gauza luzatzen zenez, Akuilu mihia dantzatzen hasi zen:

– Nik dakidala, Marcelo hil zen gauean hainbat auzokok poliziari egin zion dei, hildakoaren

etxean zegoen istiluarekin beldurturik. Auzokoek diote polizia nahikoa berandu bertaratu zela, auzokoak hots egiteaz etsirik zeudenean. Gero poliziak anbulantzia eskatu zuen, egia da, baina, hori bai harrigarria, anbulantzia iritsi baino lehen iritziz aldatu, nonbait, eta polizia arduratu zen lapurraz. Bide laguntzako anbulantziakoekin mintzatu nintzen, eta esan zidaten poliziak azaldu ziela morroia ia hilik zegoela, bizirik iraungo bazuen aukera bakarra zela beraiek zerbait egitea, anbulantziari itxoinez gero hantxe geldituko zitzaiela. Altruismo hutsa, ikusten? Gero, ospitalera bidean, zerraldo gelditu zitzaien, eta forentsearenera eraman zuten zuzenean. Anbulantziakoek zioten oso jokamolde ez ohikoa iruditzen zitzaiela.

– Ez da hori zure oharrak dioena.

– Nire oharra poliziak eman zuen bertsio ofiziala da.Ia-ia. Kazetariok men egin genuen, eta hitzez hitz argitaratu.

– Eta epailea? Izango zen hilotza jasoko zuen epailerik, ezta?

– Bai. Inguruotan oso ezaguna den bat... Egun hartan ere mozkorrik ibiliko zen, gehiene-

tan bezala –ondoren ohiko sarkasmoari ekin zion–. Pentsatu duzu inoiz zergatik hiltzen garen egun jakin batean, astearte batean, demagun, eta ez asteazkenean? Zergatik hilaren lehen hamabostaldian eta ez bigarrenean, adibidez? Patua, jakina... Patua hainbat aldaera kontrolaezinek osatzen dute, hainbat inguruabarren elkar etortze bat baizik ez da: tenperatura, hezetasunmaila, torloju bat ustekabe askatzea, kondizio txarretan zegoen jakia, langile baten une bateko baldarkeria iragankorra, gibel, giltzurrin, bihotz akitu bat... halako makina bat kontu... auzitegietako lan-txandak ere patuaren beste aldaera bat izan litezke, batek daki...

Su-itzaltzaileen eskailerak gora egin zuen apurtxo bat, jendearen txalo trufariak sorraraziz. Haietarik sei elkarren artean mintzatzen ziren, eta noiz behinka gora begiratzen zuten, zein joango zen erabakitzen ariko bailiren. Eskegita zegoenarekin ere mintzatzen saiatzen ziren, sobera ongi aditzen ez ziren oihuen bidez. Jaisteko esango zioten, noski. Eskegirik zegoenak eskuin besoa tolesten zuen ezker eskuarekin beso erdian kolpea emanez. Finean su-itzaltzaileetako

bat eskaileratik gora hasi zen, nagi, presarik gabe.

– Baina zure oharraren bukaeran, Poliziak atzemandako zenbait aztarnaren arabera, hildakoa Juandeaburre Fundazioan egin lapurretaren erantzule litekeela idatzi zenuen. Gainerako kazetariek ez zuten horrelakorik idatzi. Hori bertsio ofizialetik kanpokoa zen.

Akuiluk era definigaitzean begiratu zion.

– Badakit Margotekin zabiltzala, edo ibili zarela, bederen. Erantzun iezadazu galdera bat: egin nahi duzu larrutan berarekin?

Sirena berriak entzun ziren. Poliziarenak, noski.

– Baina zer arraio... Burutik egin al zaie?

Inork mundua akabatzear zegoela esan izan balie bezala, bi kamioneta ziztu bizian zetozen elizarantz, espaloi gainetik, argi urdinak jiraka. Udaltzain eta su-itzaltzaile batzuk beren buruak albo batera bota beharrean egokitu ziren, kamioneten erasoa saihesteko. Su-itzaltzaileen kamionetaren parera iristean frenoei eragin zieten, zakarki; kamionetetako bat gelditu egin zen, seko. Besteak, aitzitik, frenoak horren puntuan ez

izaki, nonbait, metro batzuk gehiago egin zuen aurrera, su-itzaltzaileen kamioneta atzetik joz. Eskailera gaineko su-itzaltzailearentzat topaketa lurrikara gertatu zen: artean ongi finkatutako oinek airea baizik ez zuten azpitik aurkitu, bat-batean; une batez, oraindik, heldu ahal izan zion eskailerari, eskuz, banderatxo bat zirudiela gel-dituz, baina eskaileraren bibrazioak berak airetik igorri zuen ondoko zuhaitz baten adarrera. Jende artean buila zen nagusi. Batzuk protestaka, oihu-ka eta irainka hasi ziren. Poliziak, orduan, ongi hornitutako kamioneta-atzealdeetara abiatu ziren, presaka.

– Hasi gara –jakinarazi zuen Akuiluk, lasterka egiteko prestatzen zela–. Non eta nahita izan ez bada... Su-itzaltzaileetan azken hauteskunde sindikalak nork irabazi dituen ikusirik... Jakin nahi duzu zergatik idatzi nuen Fundazioarena? Erraza da, motel. Balentria zen, balentria hutsa! Bi bateko eduki eta hordago paretara!

Poliziak lehen ke-poteak botatzeko imintzio-ak egiten zituen.

– *On y va!*

Akuilu ez zen makala hankei eraginez, baina Eza ez zen atzean gelditzen.

– Uste nuen azken indarrak Vietnamen erreko zenituela!

– Euki al zuten hordagoa?

– Horixe! Bi egun beranduago etxea hankaz gora jarri zidaten!

Handik aurrera bietako inork ez zuen izan gehiago arnasarik ezer esateko. Ezta aukerarik ere, elkarrengandik bereiztu baitziren beso eta hanka premiatuen baso zaratatsu baten erdian.

–7–

Poliziaren erasotik ihes egin eta gero, zenbait egunez, Akuiluren berri izatea guztiz ezinezkoa gertatu zitzaion Ezari. Lantokira deitzen zionean, ahots bat kanpora joana zela esatetik hasi, eta azkenean, ahotsak, gero eta haserreago zirudiena, lanera joan ez zen egun horietan zenbat lan gelditu zen egin gabe kantatzen bukatu zuen: moda-desfilea, igandeko gehigarrirako erreportaia eta kalez kaleko argaz ki-elkarrizketa egin gabe omen zeuden. Ahotsak deiak gero eta gehiago aprobetxatzen zituela bere frustrazioa askatzeko ulerturik, Ezak, etsiturik, berriro ez deitzea erabaki zuenean, Akuilu izan zen telefonoz hots egin ziona. Lau egun edo joan zirela lasterka atera zirenetik kalkulatu zuen.

– Hortik zehar ibili naiz. Egun batzuk behar nituen, zenbait datu baieztatzeko.

– Arrain-labanaren historioari buruzko datuak, edo, agian? –saiatu zen Eza.

Akuiluk kolok labur bezalako bat egin zuen.

– Horrelakoetan ez dugu sekula jakiten Mendebaldeko korrespontsalak zer gisaz jaten duen, konturatu zara?

– Zuk nahi duzuna esango duzu, baina Ekialde Urruneko elkarrizketagai basatia putakume osoa ohi da.

– Bai ba. Horixe –erantzun zuen kazetariak, horretan sekula zalantzarik izan ez zuela salatzen zuen tonuaz–. Niri ordea korrespontsalak nola jaten duen jakitea interesatzen zait. Eta korrespontsalak ez ezik, korrespontsala bidali duenak, eta basatiaren kontrario politikoak –beti izaten baita horrelako alternatiba bat, munduko ekialderik ekialdeenean ere:– ardorik edaten duten edo ez, bazkal ondoan korrok egiten duten, zapiari korapiloa jartzen dioten...

– Ez al da gehiegi izango?

– Litekeena, oso.

Zita jarri zion parke jakin bateko iturrian. Azaldu zelarik, Ezari iruditu zitzaion urduri zegoela; ez zuen ohiko sarkasmoaren arma erabili, alde guztietara begiratzen zuen, hariari lotu zitzaion segituan. Orduan inoiz baino garbiago ikusten ahal zen sarkasmoa eta planta mokoka-

riak oro bere burua babesteko pelikula defentsiboa baino ez zela, are, noraino zegokeen horren beharrean. Iturri inguruetako zuhaitzak berdetzen hasiagatik, pasa berriko neguko orbela, haize firrindariak bultzaturik, zirimolaka eraikitzen zen zerurantz, elkarren buruen inguruan jiraka, Ezari, zergatik ez zekiela, zemaikor iruditzen zitzaizkion irudiak osatuz, hosto mortuak imajinazioaren saguzaharrak bailiran.

– Eza, laguntza behar dut.

– Zertaz ari zaren jakin arte ezin esan laguntzerik ote dudan.

– Ea, bada. Marcelo kartzelatik pasatakoa zen, bizpahiru aldiz, gutxienik, lehena lapurretarengatik, ia haur bat baino ez zela, abusu desonestuak zirela-eta bigarrena, eta labankazoka hil zen tipo baten heriotza zela eta hirugarrenean. Lehen delituaren ondorioz, erreformatoriora eraman zuten. Bigarrenean kondena bete zuen, kondena txikia baina, eta hirugarrenean prebentzioan egon zen. Azkenik ezin izan zuten ezer frogatu eta libre atera zen. Orduz geroz ez zuen kolpe zorririk jotzen. Han eta hemengo mafia txikientzat egiten zuen lan, beti ere eskrupulu han-

dirik eskatzen ez zuten lanak. Duela bi urte auzo batean kotxe batek egin zuen eztanda eta auzoko bat garbitu zuen; ibiltari bat, handik paseoan zebilena. *Off the record* entzun izan dena da Marcelok zerikusia izan zukeela horretan, batzuek lehergailua berari paratu ziotela dioten arren, beste hainbatek berak paratu zuela lehergailua baitiote. Edonola ere, mutil fina. Garai batez emakume ez oso gazte baten kontura bizi izandakoa zen, harik eta haren semeek, Jesukristoren zalapartarekin, etxetik bota zuten arte. Kontu sonatua izan zen. Aiztoaren ahoan bizi diren gehienen kasuan bezala, poliziarekin bazituen tratuak, ezinbestez. Denborarekin hobetzen ari zen: eskandalu gutxiagotan sartu eta negozio diru emangarriagoetan ere bai. Eskola handirik gabea bai, baina ergela ez zen, ez horixe. Aitzitik, bixia, azkarra. Mozkorra eta porreroa ere bai, baina ez heroinazalea, ezta eroa ere. Nik dakidala, tabako kontrabandistentzat ari zen lanean, azken bolada honetan. Jakingo duzu hauena nolakoa den, ezta? Giroa ezagutzen baduzu, kontaktoak edukita, alegia, trailer bete Winston eskatzen duzu, esate batera. Zita egin, zuk dirua

eman eta trailerreko giltzak uzten dizkizute, kamioia jeneroarekin non dagoen esanez. Handik aurrera berrogeita zortzi ordu dauzkazu jeneroa nonbait gorde eta trailerra itzultzeko. Hortik aurrerakoa, banaketa eta abar, norberaren kontu. Azken bolada honetan trailer bat edo beste egina omen zuen. Dirutza da, ez pentsa. Orain harira ez datozen gorabehera batzuk direla eta, Juandeaburre Fundazioko lapurreta berak egin zuela susmatzen hasi nintzen –egia esan, susmo edo uste hutsa baino gehiago ere bada–. Tipo hau ez zen eroa. Hau da, ez zitzaion sekula burutik pasatuko Fundazioan sartzea inork iradoki, proposatu edo agindu izan ez balio. Eta inor hori ez zen edozein izango, zeren, adierazten saiatu natzaizun bezala, gero eta zuhurrago jokatzen baitzuen eta ez baitzen herenegun jaio. Hortaz, poliziak berak enkargatuko zion lana, Fundazioko inoren laguntzarekin, edo alderantziz: Fundazioko inork poliziaren laguntzarekin. Azken finean, gauza bera da. Gure aparejuak, mehatxuak zirela edo promesak zirela, edo biak, onartu eta lana egingo zuen. Kolpea ongi prestatu eta ongi egin zen: lapurreta huts egindako itxu-

ran, Marcelok Juandeaburretarren jauregitik bilatzen zuena hartu eta ospa egin zuen. Ondoren etorri ziren arazoak. Marcelok ez zuen tratuaren bigarren partea bete, eta enkargua egin zionari iruzur egin nahi izan zion. Enkargu egileak ez zion barkatu eta Josafateko zelaira bidali zuen. Hil zuten eguneko guztia, kokaina ere barne, montajea zen.

Mutilaren segurtasuna harrigarria zen.

– Zure azalpena oso ona iruditu zait, oso interesgarria, oso logikoa, oso ongi lotua. Logikoegia eta lotuegia omenka ari omen den batentzat, ez duzu uste? Hau da, nork kontatu dizkizu gero zuk niri kontatuak? Nola josi duzu narrazioa?

Akuiluk hasperen egin zuen, eta begiak zirrikitu bihurtu zitzaizkion. Etsita zirudien alde batera, eta axeri bestera. Zigarro bat piztu eta mutu iraun zuen. Ezari pazientzia ahitzen ari zitzaion.

– Zergatik hil zuten Marcelo? Liburu triste bat eramateagatik? Zer da liburua, edo zer dauka? Zergatik torturatu zuten? Zer jakin nahi zuten?

– Ez dakit. Badakit baina ez dakit, zehatzago esanda. Jakitera irits ninteke. Hala bada, neuk

emango dut historia bat eta zuk lagunduko didazu argitaratzen.

Ezari gelditzen zitzaion pazientzia apurra ahitu egin zitzaion.

– Adi, *txo*. Oraindik ez dakit arrain-labanaren historiaz edo munduko putakume guztien otorduetako ohituraz ari zaren. Horrela ez goaz inora.

Akuiluk erpuru eta erakuslearekin pintza eginez zigarro muturra urruti jaurti zuen. Errepresentazioaren goren puntua behar zuen horrek, untxia txisteratik ateratzeko unea.

– Lehen galdetu didazu nola nekien hain ongi lapurretaren asuntua. Jakin nahi duzu oraindik nork kontatu zidan?

– Nork? Esan, bada, esatekoa, arraioa! Nork!?

– Marcelok berak –esan zuen irriño bihurri batez.

– E?

– Bai horixe. Niri ere hil baino egun bat lehenago etxera etorri zitzaidan bisita egitera.

–8–

– Ezbaian ibili naiz, baina orain ez naiz batere damu golfean aritzera etorri izanagatik; azkenik ez du euririk ekarri eta giro polita gelditu da.

Jakinarazi zuen Gobernadoreak egur bi bat eskuan zuela. Pagotxa eta belarrezko moketa orbangabearen gainean makurtu zen belar hosto arin batzuk hartzeko, eta esku ahurrean gorde zituen, mugimendu geldoez. Gero eskua buruaren parera igo zuen eta zabaldu. Brisara fin batek eraman zituen belar hostoak *green*-eko norabiderantz.

– Aja! –Gobernadoreak, bere susmoak berretsirik ikusiz.

Egurra astindu zuen pilotaren inguruetan; gero atzera eraman zuen, ahal zuen bezain gora, eta besoak ez ezik gerria ere mugituz, pilota jo zuen, gorputzarekin arku exajeratua osatuz. Pilotak hegan egin zuen, haize alde, ia bistatik galdu arte. Gobernadorearen kapelu bitxi samar, oinetako iltzedun eta koadrozko praken ondoan Petronioren ohiko dotorezia No-Do-ren garaikoa

gertatzen zen, eta Goñiren irudiak ez zuen, inguru hartan, makarra *top-model* baten begian baino zentzu handiagorik. Hirukotea oinez abiatu zen pilotaren bila, golf zelaiko enplegatu bat, Gobernadorearekin partidua jokatzeaz gain makilak ere eramaten zizkiona, metro batzuk atzerago jarraitzen zitzaiela.

– Mintza gaitezke –agindu zuen Gobernadoreak.

Petroniok eskuak gurutzatu zituen bizkarrean, bere urratsak Gobernadorearen ibilera geldoari egokituz. Eztarriko marranta argitu zuen ekin baino lehen, eta egoeraren laburpen zehatza egiten saiatu zen:

– Oraindik ez daukagu liburua. Ez gara beso besoaren gainean egon, ordea, eta, esan bezala, liburua oraingoz gure eskuetan ez egonagatik, badakigu, gutxi gorabehera, nork edukiko duen.

– Gutxi gorabehera?

– Alegia, hiruetako bat baino ezin dela izan: hasteko neska daukagu, irrati pirata hartan dabilen putaxka hori. Filiazioa badaukagu, garbi gera bedi. Izan ere irratia itxi ez itxi ibili ginen azkenean fitxa ireki genien hango subertsibo guztiei.

Barkatu, Gobernadore, berriz, bide batez, beste hainbestetan bezala, gauza bera esaten badizut, baina irratia itxi behar zenuela uste dut...

– Harira –Gobernadorea gelditu egin zen eta golf-makilarekin egin zion apuntea sudurrera, ez zegoela prest bere iradokizunak entzutera garbi adierazten zuen keinuaz–. Zer dago neska horri buruz?

– Jakin ahal izan dugu konfidenteak bisitaldia egin ziola hil baino lehen. Hortaz, berak jakin dezake zerbait liburuari buruz; are, liburua berak gordeta edukitzea ere litekeena da –jarraitu zuen Petroniok, Gobernadoreak hartutako tonua zela eta ez sobera kontent–. Baina badakigu, baita ere, bera ez dela nire gizonak hil baino lehen bisitatu zuen bakarra. Badago beste bat, hirugarren mailako kazetari bat.

– Fitxatuta dago? Zer da, komunista? Terroristazalea, agian?

– Ez, ez dut uste ideologikoki markatuegia denik. Nik esango nuke buruan txori asko duen harroxko ergela baino ez dela. Ez da inor, baina arazoak sor liezazkiguke, hala ere.

Gobernadoreak bizkarrak uzkurtu zituen, keinu batez isiltasuna eskatzen zuen bitartean. Hirukotea geldirik zegoen pilotaren ondoan, *green*-etik nahikoa hurbil, eta edonork ikusten ahal zuen hurrengo kolpea erabakigarria izango zela, Gobernadoreak zulo hartako marka berdinduko bazuen. Gobernadoreak enplegatua galdatu zuen, eta hau ondoratu zitzaionean, beste makila bat aukeratu. Belaunak elkartu eta tolestu zituen apurtxo bat kolpea ematerakoan, oraingoan, baina pilotak ez zuen bilatutako efektua hartu, eta *green*-etik ezkerralderanzko malda ez sobera piku batetik behera labaindu zen.

– Kakazaharra! –arrenkuratu zen Gobernadorea.

– Bai neskaren eta bai Akuiluren etxeak miatu ditugu, baina ez dugu ezer aurkitu. Ez da harritzekoa, egia esan; ez zuten liburua edonoren begibistan utziko –Gobernadorea pilotarantz abiatu zen, Petronio eta Goñi atzetik jarraitzen zitzaizkiola–. Segurua da bietako batek jakin behar duela liburua non dagoen. Hortaz, beraie-

kin mintzatu beharra dago. Horixe da, ba, eskatzen dizudana: beraiekin mintzatzeko baimena.

– Ongi da. Baina ez ezazu eskandalu gehiagorik sor –erantzun zion Gobernadoreak, *green*-era nolatan iritsi kalkulatzeko atzera-aurrera mugitzen zela–. Kasu kazetariarekin.

– Ezin daiteke tortilarik egin arraultza puskatu gabe.

Gobernadoreak eskukada batez uxatu zuen makila-poltsarekin hurbiltzen zen enplegatua, lehengo makila berarekin ekingo ziola adieraziz.

– Zer dago lehen aipatu duzun hirugarren pertsonaz?

Petroniok Goñiri begiratu zion zeharka.

– Hirugarrena Koko Eza izeneko bat da. Goñi jaunak kontratatu zuen Juandeaburre Fundazioan lan egiteko. Azken bolada honetan neska eta kazetariarekin ikusi ahal izan zaio, baita beste hainbat jende, nola esan, ez oso komenigarrirekin ere. Ez dut uste liburua berak izango duenik, baina usnaka ari da, bazterrak nahasten ari da, eta horrek arriskutsu bihur lezake. Alabaina, hobe izango da ni isil nadin Fundaziorako kontratatu zuen pertsona gurekin egonik.

– Goñi, zer dago horretaz?

Goñik belardi orbanik gabea inguratzen zuten haritz, pago eta gaztainondoak begiratu zituen, deseroso.

– Eeee... Eza ez da mutil gaiztoa. Idealista samarra, beharbada, ipurterrea, agian, hau da, geldirik egoten ez dakiena... Ez dut uste kalte egin nahi digunik, baina... baina, bai, aitortuko dut neuk ere uste dudala zerbait susmatzen hasia dela...

– Eza hori anarkista arriskutsua da –sartu zen Petronio–, eta liburua bilatzen ari da bera ere. Ziria sakatu nahi digu.

– Edonola ere ez zuen kalearen erdian egurtzeak merezi –aurpegiratu zion Goñik Petroniori.

– Hori ere egurtu duzu? –esan zuen Gobernadoreak, eta gero, Petroniok erantzun behar zuela ikusirik:– bai, badakit, istripu bat izan da. Orain isil zaitezte apur bat.

Makila-kolpea ez zen txarra izan, eta pilota, azkenik, *green*-ean sartu zen. Eureka!, esan zuen Gobernadoreak. Gero Petroniori buruz itzuli zen.

– Konforme. Egin egin beharrekoa. Baina azkar eta eskandalu handiegirik gabe. Niretzat ere gauzak okertzen ari dira. *Mintzatu* zaitez neska, kazetari eta Ezarekin.

– Ezarekin ere bai? Guztiz beharrezkoa da?

– Luciano, laguna –Gobernadorea eskuaz eskatzen ari zitzaion makila-eramaileari hurbiltzeko, eta keinu hau bukaturik Goñiren sorbalda gainean jarri zuen–, esaidazu argi eta garbi: Eza hori fidagarria da, bai edo ez?

Goñik duda-muda, zalantza eta ziurtasunik eza adierazten zuten hitzak jaulkitzen zituen, laguna lehoietara botatzeko azken indarrak ezin aurkituz. Gobernadoreak *putt*-a hartu zuen eskuan, eta pilota kolpatu zuen, poliki, arretaz. Pilotak ibilbide bihurritsua egin zuen, *green*-eko diti bezalako gorabeheren artean, eta finean zuloan sartu zen, mantso. Enplegatuak miresmeneko txistu bat egin zuen. Hasperen ase batez Gobernadorea makurtu zen, eta pilota zorutik atera.

– Luciano, Luciano... Ea, bada, zer egingo dugu Ezarekin? Gurekin dago? Fidatzekoa da?

– Egia guztia aitortzera, lehen itsu-itsuan fio nintzen berarekin, gaur egun, aldiz, ez nago erabat ziur. Lagun zaharra da, eta ona, baina jendea aldatu egiten da, eta batek azkenean ez daki bakoitzak zer daukan kasko barruan... Gainera, mundutik zehar ibiltzetik itzuliz gero ez du burua lehengo lepotik... Arazoak ditu.

– Arazoak?

Goñik hasperen egin zuen, eta gero marranta agonikoa, oso arrazoi larria zela tarteko baizik deklaratuko ez zuen sekretu bat aitortzera gertu:

– Edan egiten du.

–9–

Une batez Kiltartan Cross-ko abiadore bezala sentitu zen: ez diet erasotzen ditudanei gorroto, ez ditut defendatzen ditudanak maite. Baina, zera, hori ere ez zen egia. Oraindik ez zen Yeats-en abiadorea. Gorrotozko erreka goriak oso aspalditik jario izan zitzaizkion kraterren ahotik. Goriak eta handiak, handiegiak orain sentimendu horretatik purifikatuta zegoela esateko, nahiz eta sumendi zaharren erraietako mugimenduak gero eta gutxiago gertatu, gero eta txikiagoak izan, eta krater ahotik ateratzen zena –gero eta maiztasun gutxiagorekin, oso noizean behin, egia esatera–, lehengo suzko errekak ez eta behazun nabar eta urdinezko isuri nagiak izan. Defendatzen ditudanak maite? Maitasuna, edozein klasetakoa, norberaren maitasunaren isla zurbila. Maitasun friboloak, lizunak, sabelpekoak, larruzkoak. Poemarik topikoena bezain topikoak diren maitasunak, maitasun alimaleak eta animaliak, suzkoak, kizkorraturikoak, lurrikara bezain hondatzaileak, bareak, genitalak, erreak eta

errealak, herabeak, eraikitzaileak, tematiak, odolak gorri izateko duen temarekin, obsesiboak, beti inperfektoak, beti erridikuluak, zor-eragileak, menpekotasunezkoak, pasioa eta errukiaren artean kulunkatzen direnak, traidoreak, zaurigarriak, hilkorrak, liluragarriak, metaforarik ederrenak bezain erabiliak, tigrearen samurtasunaz blaiturikoak, samurtasunaz blaiturikoak, blaiturikoak, ezinbestekoak, ezinbestekoak, ezinbestezkotasunez blaiturikoak, ezinbestez... Gauza asko ezagutu ohi dute gizon batek eta bere itzal luzeak, zenbat eta luzeagoa itzala orduan eta gehiago, eta denak gogoratu nahi ez izateko beste porrota jaso duenak ongi daki zaharregi dela denbora alferrikako solasetan galtzeko, itxaropen seinale baten aiduru dagoen bitartean, itxaropenik gelditzen bada, behintzat, Kiltartan Cross-eko abiadoreak zioen lez, etortzear zeuden urteak, joandakoak bezala ez baziren arnas hutsala izango. Itxaropenik gelditzen bada. Defendatzen ditudanak maite? Mundu oso bat osatzen dute ilusioen hiltzaile batek eta bere itzal luzeak. Nahiago maite ditudanak defendatu. Ezinbestez, horixe baita azken itxaropena,

hartarako itxaropenik ote dagoen ez jakinik ere. Ezinbestez.

– Aaaai!

– Egon, egon egon... Listo!

Margotek itxi du Ezaren bizkarreko zauria presio pixka bat eginez, estali baino lehen garbitu eta desinfektatu ondoren. Gero, Havana botila aurkitu duelarik, bi basokada zerbitzatu ditu, eta une batez, edan bitartean, isilik egon dira. Margot trago txikietan ari da, Ezak kolpe bakarrean hustu du.

– Makina bat pelikula kurtsitan ikusi dut eszena hau.

– Nik ez –omeneko kurtsikeria da ukatu nahi duena, egiatan, erreflejuak ahitu zaizkio, ordea.

– Zinera joaten hasi beharko duk.

– Hau gonbitoa botatzea bezalakoa dun.

– Goseak nagok.

– Ni ere bai.

Barre nekatuetan erabaki da elkarrizketa absurdua, jakinik bi itzal jipoitu baino ez direla, baina atezuaz askaturik, jasandako kolpeak, mingarriak izanagatik, askatzaileak ere gertatu direlako.

– Banoan zerbait prestatzera.

Eza sukaldean sartu da. Garbitu gabeko mila ontzi habia bilakatu dira basafauna eta landareria oso aukerako batentzat. Traste guztiak zoko batean laga ditu, eta bere intendentziari buruzko teorien garapen praktikoari ekin dio. Lehenbizi, espezie mikologiko eta botaniko hazienak dituzten aleak bota; lehen printzipio honen arabera, azenario berdetu batzuk eta dozenerdi bat piper berde zuriska zakarrontzira joan dira. Baratxuria, tipula erdi bat eta azenario ximur bat, atso ehunurtekoa bezain, libratu dira. Bigarren, aukeratutako aleak egosi, zer gerta ere. Gero arrozarekin berriro egosiko direla? Berdin da. Badaezpada. Azkenik gutxi gorabehera garbi zegoen kazuela bakarrean tipula, baratxuria eta azenarioa bota ditu, zati handitan ebaki eta gero, gaineratu du arroza eta ura bota du. Eta, hirugarrenik, ukitu artistikoa, gehiegikeriarik gabe, ordea, animaliengandik bereizteko lain: limoi tanto batzuk eta hor nonbaitetik mirakuluz bezala ageri diren belar aromatiko lehorrak, xe hexehe egindakoak, plastikozko poltsa txiki batean bilduak. Erramua, edo.

– Kazuelatik bertatik jango dugu.

Ura eta Havana edanez jan dute, gogoz, baxutik mintzatuz, hain baxu non batzuetan ez dioten elkarri aditzen eta esaldiak errepikatu beharrean aurkitzen diren, batzuetan halako barre ergel eta akituak ateratzen zaizkien arte.

– Ona, e?

– Putamadrekoa. Zeozer bota diozu.

– E?

– Zer bota diozu?

– Espezieak.

– Zer egin behar dugu?

– Orain lo. Bihar ikusiko.

– Porro bat egingo dut.

– E?

– Porro bat.

– Nik ez dut porrurik.

– Ixo –isilunea–. Kakazaharra.

Margot bere poltsikoetan miazka hasi da, aurkitzen ez duen zerbaiten bila.

– Uste dut sukaldean utzi dudala.

Baina sukaldean ere ez du ezer aurkitu, eta, etsiturik, sofan eseri da, plastikozko poltsatxo batean ongi xehetuta zeukan marihuana non

arraio utzi duen jakin ez eta lo baino lehenagoko porroa ez duela erre ahal izango ulerturik. Eza bere ondoan eseri da, eta ustekabean bezala, esku hezurtsu bat jarri da beste bero baten gainean, edo alderantziz; zerbait esan dio, zerbait esan diote elkarri, baina ez bata ez bestea dira esandakoaz ongi jabetu, loak, berak ere erretiratzeko gogo handia bailuen, presaz bildu baititu bere magalean.

–10–

– Judizio sumarisimoa.

– Nori?

– Kazetariari.

Petroniok eskuak jaisten zituen, ahurrak solaskideari irekirik, beronika gogogabe bat eman beharko balu bezala, disgustozko beronika geldo bat marraztu beharko bailuen. *Lagartijo*ri, behin, Malagan toreatu eta gero, hainbat zalek aurpegiratu zion zezen zail bat gainetik azkar eta begiramen handirik gabe kendu izana. *Lagartijo*k besteen kexuak entzun eta gero, zera erantzun omen zien, lasai asko: nahi duzuena esatea daukazue. Labur aritu nintzela... Hainbat hobe. Jakin ezazue zezen-hiltzaile eta lapurrei *judizio sumarisimoa* aplikatzen diedala. Bien arteko mintzairan hitz horiek esanahi zehatza daukate.

– Guti, Guti, baina zertan ari gara, Guti?

Gutierrezek zalantza dauka margotua betartean. Komisarioa ezagutzen du eta badaki egoskorra dela, ez zaio gustatzen hartzen ari den planta demaria.

– Laster Sanisidroak, hi. Gorde dizkiat bi sarrera hiretzat, Vitorinorenak ikusteko. Bi barrera.

Petroniok esku kolpe azkarraz eskobatu du mahai gaineko guztia, mauka zikintzeaz ezertarako ere arduratu gabe; paperak, zintak, tabakoa eta hautsontzia bera ere zorura erori dira. Komisarioa ezagutzeagatik ere ez zuen espero horren erantzun indartsua, biolentoa, Gutierrezek.

– Baita kaka mokordo handi bat ere, Guti! Baita kaka mokordo handi bat ere! Ni ere zerbait banauk, gero!

– Zezena kortara bizirik itzultzerik nahi? Edo nahi al duk beste batek toreatzea hire partez?

– Niri ez zidak inork zezen bat hiltzen! –egin zuen garrasi Petroniok–. Eta oraindik ez zaidak sekula zezena bizirik kortara joan!

– Lasaitu hadi.

Hitzek bere eragina sortu dutelako izan, edo leherketak bere efektua izan duela uste duelako izan, Petronio komisarioa baretu ez ezik eseri ere egin da, hanka hankaren gainean jarriz, poliki, prakari zimurdurak ez ateratzeko artaz, bere onera itzuli delarik, itxura guztien arabera.

– Honela ezin zitekek lan txukunik egin, Guti. Zuek eskaerak erraz egiten dituzue, baina gero besteok zikintzen ditiagu eskuak. Ezer galdetu gabe. Ezer jakin gabe. Ni ez nauk kontakatilua, Guti, xehetasunak ez zaizkidak ardura. Eta ez nauk erraz ikaratzen. Baina nire irizpideak baditiat, eta hala ere horrekin nahikoa ez denean nire senari egiten zioat jaramon. Irizpideak zerbait ukigarriri aplikatu behar zaizkiok, haatik. Senak berak oinarririk behar dik azpian ezer izateko. Gobernadoreak liburua eskatzen zidak, hango jauntxoek ere bai, zuek ere bai. A zer nolako irakurzaletasuna piztu zaion halako batean kristo guztiari. Liburua kontrolatua zeukaat, hori ez duk arazoa. Eta hik eskatzen badidak liburua, bada, liburua hiretzat. Hori hala duk. Eta esaten badidak kazetaria desagertu behar dela, kazetaria desagertu egingo duk. Baina posizio txarrean gelditzen dena nire nagusiaren aurrean eta hango jauntxoekin neu nauk, Guti, ez hi, eta ni han negok, eta hi ez. Aterabide bat bilatu behar diat, Guti, bestela izorratu egingo naitek. Orduan, esaten badidak gauzak zertan dauden, pixka bat, bederen, nik jakingo diat diskrezioz jo-

katzen, eta moldatu ahalko ditiat gauzak, beharbada, zuek nahi duzuena izan dezazuen eta nik guztiekin ongi etortzeko moduan. Horixe esan nahi diat, Guti, ziur nauk ulertzen duala, ziur nauk ez zaiala zaila izango hire larrua kide zahar honen baitan ematea.

Gutik ez zuen ezer esan baina onartu egin zuen bestearen jarrera. Are, uste zuen Petronio komisarioak oraintxe egindako erreibindikazioa iritsi bezain urrutira iritsi baino lehen egingo zukeela.

– Itxoin. Telefonoz hots egin behar diat.

Gutierrez atera egin zen, eta ordu erdi bat beranduago arte ez zen berriro itzuli; tarte horretan Petroniok zigarro bat bestearen ondoren piztu eta erre zuen, bestea itzuli zenean bosgarrena muturreratua zuelarik.

– Barne Ministroaren idazkariarekin mintzatu naiz. Labur azalduko dut kontua. Esan didate nik dakidan beste jakiteko eskubidea daukazula; hortaz, horrenbeste jakingo duzu. Ia. Azken orduko nobedadeak egon dira, gainera. Bon, gauzak, gutxi gorabehera, honela daude: Juandeaburrek aspalditik ditu oso harreman estuak gure

ministerioarekin. Negozioak egin izan ditu. Batzuk legalak, eta beste batzuk, diogun, hitz leun bat erabiltzearren, alegalak, legearen aurkakoak garbi ez esateagatik. Dirua irabazi eta irabaziarazi du. Armonia ederrean ginen, baina une jakin batean giro ona hautsi zen. Haserreak izan ziren. Alukeria batzuk egin genizkion, egia esatera; eraso gogorra egin genien bere zenbait interes ekonomikori. Guregandik urruntzen hasi zenean, pribilejiozko posizioari eutsi nahian edo, Kultura Ministerioarekiko harremana lantzen hasi zen. Zerorrek ikusi duzunez, bijilatuta eduki ditugu. Horrela segitu ahal izan ditugu bere asuntuek zer norabide hartzen zuten. Arte alorrean aritu zen, diru asko irabaziz, beti bezala, truke eta salerosketa badaezpadakoetan, baina ez naiz detailetan sartuko. Juandeaburre Fundazioa eratu zuen, atzerriko merkatuetan aritzeko estalki ezin hobea zitzaiola iritzirik. Luze gabe, haatik, Juandeaburrek arazoak izan zituen, lehen gurekin bezala, Kultur Ministroarekin. Komisio eta portzentzaietan ez omen zetozen bat. Izan ere, Juandeaburre hau egoskorra da, eta eskuzabaltasuna ez da bere bertuterik nabarmenena. Kultur Minis-

troarekikoak hondatzen ari ziren garai berean, halabeharrez, nonbait, Fundazioan liburu bitxi hura azaldu zen, eta lehengo arazoei beste klase bateko arazoak gaineratu zitzaizkien. Faltsua edo autentikoa ote zen aritu ziren. Autentikoa da, dirudienez, nahiz eta hori, gure ikuspegitik, bigarren mailako kontua den. Oso liburu berezia omen da. Dakigunez, Kultur Ministroak gorde nahi izan zuen arrazoi politikoak medio, baina Fundaziora itzuli beharrean izan zen. Orduan Kultura Ministerioko aholkulariek –beti izan ditu oso aholkulari txarrak aldamenean, zergatik ukatu– liburua lapurtzea gomendatu zioten Ministroari. Gobernadoreari –zure jefeari, hain zuzen–, agindu zioten afera presta zezan, nahiz ez omen zioten eman asuntuari buruzko informazio handirik. Gainerakoan, lapurretaren gorabehera zeuk ezagutzen duzu nik baino askoz hobeki, orduan sartu baitzinen historia honetan. Hasieran, garbi gera bedi, Kultur Ministerioak zeukan arrazoi eta interes bakarra politikoa zen: ez zuten nahi liburua agertzerik, uste zutelako eragin kaltegarriak eduki zitzakeela. Eragin litzakeen ondorioak nola neutralizatu asmatu nahi

zuten iritzi publikoaren aurrean ezagutzera eman baino lehen. Kultur Ministroak, babo ergel horrek, oso gaizki eraman du asuntua. Ez zen inoren gainean fio, gauzak nahastu ditu eta guztientzat sorrarazi ditu kalteak. Pentsatzekoa da zure jauntxoek ere interes politiko hori bera edukiko zutela. Orain, bestelako interesak ere bazeuden, eta beste horietaz Kultura Ministeriokoak noraino dauden jabeturik ez dakiguna da. Zerbait jakingo dute. Dakigun punturaino, operazioa martxan jarri zen arestian esandako gorabehera politikoak medio. Baina hemen geu sartzen gara; erraz konturatuko zarenez, Juandeaburre horrek ezkutuko datu asko zekien Barne Ministerioari buruz, Estatuaren segurtasunerako konprometigarriak ziren datuak. Guk, gure aldetik, aurrera segitzen genuen Juandeaburreren aurkako erasoan, ez genuelako uste, hala ere, oldartuko zitzaigunik; putakumea haserretu egin zitzaigun, ordea. Desagertu zen eta mehatxuka hasi zitzaigun, datuak filtratuko zituela eta abar. Bere bila ibili gara eta gabiltza, baina ez dakigu non arraio sartu den. Dituen kontaktuak edukita, eta diru arazorik gabe, mundu zabaleko edozein to-

kitan egon daiteke. Dena den, bere aztarrenen atzean geundela, gauza bat jakin ahal izan genuen: prestaturik zuela datu horien filtrazioa. Susmatu genuen, baita ere, esku loturik eta ezkutuan egonik, Fundazioaz baliatuko zela filtrazio-saioa arrakastaz burutu ahal izateko. Baita jakin ere, azkenik, nola egin behar zuen; liburu baten bidez. Alegia, klabe jakin batzuk liburu jakin baten gainean aplikatuz informazio guztia lortzen zen: izenak, bankuak, kontu-korronte zenbakiak, erreziboak, txekeak, hegazkin txartel eta hotelen erreziboak, fetxak, baita informazio guzti horren frogagiriak non zeuden gordeta eta nola eskura zitezkeen ere. Juandeaburrek kontaktu bat baliatu behar zuen hori guztia jasotzeko. Ez dakigu, ordea, kontaktua nor zen: izan ere, esan berri dizkizudan guztiak jakin orduko, klabea zen liburua desagerturik zen. Ordu gutxiko kontua izan zen; ordu gutxirengatik ezin genuen Kulturak prestaturiko operazioa geldiarazi. Ulertzen? Zuk lapurtu liburua zen liburu-gakoa. Ondoren zurekin egin genuen kontaktua.

– Eta horregatik garbituarazi zenidaten konfidentea?

– Seguruagotzat jo zuten goikoek. Zer gerta ere. Nik agindua jaso eta zuri eman nizun. Guretzat, orduan, funtsezkoena liburua berreskuratzea zen. Puntu honetara iritsirik, aitortuko dizut nik ere ez dakidala liburuaren informazioak nor ukitzen zuen. Gure ministroa bederen, bai, bistan denez. Bestalde, susmorik baino ez daukat, inork ez dit esan kaka-zipriztinak noraino iristen diren. Susmoak edukitzea librea izaki, ordea, eta gauzak nola dauden ikusirik, ez dut uste ministroaren izen onak hilotz bat balio duenik. Baina, tira, zure konfidente hura putakume galanta zen, bazterrotan inoren negarrik eragingo ez zuena, eta hortaz, inor ez zen gehiegi asaldatu. Orain, aldiz, kazetaria garbitzea agindu didate, eta orduan gauzak apur bat gehiago nahasten dira. Inork horrenbeste neke hartzen badu, gure ministroaren goragoko inor zipriztinduta dagoela sinesteko gertu nago.

– Lehendakaria?

Gutierrezek beheko ezpaina hortzakatzen zuen, aire kalkulatzailea hartuz.

– Zuk uste horregatik ere, egun, inork hartuko zuenik eskuak zikintzeko nekea?

– Orduan!? –Petroniori betartearen adierazpidea larriagotu zitzaion, hamar urte zaharrago emateraino. Gutierrezi urrutiegi joan ote zen susmoa egin zitzaion, eta hazka egin zuen kokotean, amiñi bat nerbiosturik.

– Zerorrek erantzun dezakezu galdera hori, nik neuk erantzun dezakedan bezain ongi.

– Jooode –Petronio harrituta zegoen.

Gutierrezek eskua astindu zuen, azken hitzen arrastorik txikiena ezabatu nahiko bailuen.

– Beste gauza bat. Gerora susmatu dugu litekeena dela zure konfidentea eta Juandeaburreren kontaktua bera izatea. Horrek esan nahiko luke badabilela hortik zehar zure berri ongi dakien kabroiren bat.

– Ez daiteke! –Petroniok irain pertsonal bezala hartzeko gertu irudi zuen, une batez.

– Beharbada. Baina orduan horrek esan nahiko luke liburuak, berez, bazuela informazioa ondo agerian ematen zuen beste zeozer. Hori ere pentsatu izan dugu. Liburuarekin batera zegoen disketeren bat, kartaren bat, konfidentearen jakinmina piztuko zuen horrelako zerbait... Kontua da konfidentea hil eta gero ere Madrilgo

gure nominan dauden zenbait kazetari halako kontu susmagarriekin etorri zaizkigula... Alegia, Juandeaburreren informazio horren filtraziotik baizik ezin etor litezkeen zenbait daturekin. Gure kazetariei kazetari horrek, Akuilu edo dena delako horrek pasatu zien informazioa... historia honetan nekez enkajatzen den laugarren mailako kazetari ergel bat. Jakina, guretarrek hitz onak esanez kendu zuten gainetik, ezer argitaratu gabe, eta kontuarekin etorri zitzaizkigun. Horrek esan nahi du, antz guztien arabera, zure konfidenteak Akuilu horri pasatu ziola informazioa. Hortaz, orain bi premia dauzkagu; lehena, Akuilurekin profilaxi-operazio bat egitea, eta bestea...

– Bestea?

– Esaidazu gauza bat. Benetan dakizu nork daukan liburua?

– Bai.

– Orduan, agian komeni liteke soka pixka bat ematea delako horri. Juandeaburrek huts egin du filtrazio-saioan, eta uste izatekoa da berriro saiatuko dela; liburuak datu asko eduki behar zituen: beharrezkoa izango du, berriro ere. Beraz, libu-

ruaren arrastoa segituz gero, Juandeaburre ere aurkituko dugu. Harrapatu egin nahi dugu zerri hori. Gehiago dena, ez dakizu zer nolako gogoa daukagun esku bat lepo gainean jartzeko. Dena den, zeuk baloratu beharko duzu une jakin batean soka ematea edo liburua harrapatzea hobea den.

– Demagun liburua eskuratzen dudala. Orduan zer?

– Orduan guri pasa. Astebetean aterako diogu behar den zuku guztia. Gero nahi duzuna egin dezakezu.

– Guti, Guti, ikusten? –komisarioaren irudia baretasunarena berarena zen– Hitz eginez gero jendeak elkar ulertzen du. Zer dago Vitorinoak ikustera joateko barrera horietaz?

– Juandeaburre harrapatzen laguntzen bagaituzu, Feria osorako daukazu barrerako abonoa.

V kapitulua:
Sobria ebrietas

–1–

– Dena Florencio Juandeaburrek Kultur Ministroari kotxe bat oparitu zion egunean hasi zen, noiz eta ministerio hori Errusiarako bidaia ofizial bat prestatzen ari zenean. Bi herrien arteko kultur lokarriak sendoagotzeko bidaia zen; hau da, lau agerpen folklorikoren aitzakian han zer egin zitekeen pentsatzen hasteko modua, bidea egiten joateko era. Errusiak bankarrota jo du, baina munduko herrialderik aberatsenetakoa da, ez ahaztu; bertako banku-kontu batekin eta harreman egokiekin atzerritar batek gauza benetan interesgarriak egin ditzake. Juandeaburre, bere aldetik, negozio gizon dirugosea, eskrupulurik gutxikoa da. Horra hor egoera: giltza eta sarraila, hatza eta eraztuna. Ministroak onartu egin zuen Juandeaburreren oparia, Juandeaburre bera ere bai, eta Errusiara joango ziren ordezkarien artean tokia utzi zion. Juandeaburrek gogotik landuko zuen ministroa, eta, pixkanaka pixkanaka, hagitz negozio onaren oinarriak paratu zituen. Dirutza handiak irabazteko modukoa. Aka-

tsa bazuen, ordea: itxurak gordetzen saiatuagatik ere ilegala zela. Ilegala Errusian, inon zergarik ordaintzen ez zuena, hemengo Ogasunaren ezkutuan egiten zena, nazioarteko zuzenbidearen zenbait arau hausten zituena... Juandeaburre zen afera asmatu zuena eta ministroa, arrastaka bere atzean eramanez, sarrarazi zuen; ministroa ez ezik, dirua non garbitu ez zekien zenbait gizon prestu ere bai. Juandeaburrek Fundazioa negozio zalantzakor hauek aurrera eramateko baliatzen zuen, estalkitzat –Akuiluk zigarro bat pizten zuen aurrekoaren txingarrarekin, eta azkar, oso azkar mintzatzen zen, ordurarte Ezak ezagutzen ez zion larritasun bat zuelarik begietan, bat-batean hamar urte zahartu izan bailitzan–. Eza, hau lehergailu bat da, bazterrak txiki-txiki eginda utziko dituena; ministroa hondoratzeko beste informazioa dut. Lagundu behar didazu.

– Esaidazu zer daukazun, eta ondoren ikusiko dugu zer egin daitekeen –Ezak eszeptikoki baloratu zuen historiak, interesgarria izanik ere, ateratzeko eduki litzakeen ahalbide errealak, baina ez zitzaion egoki iruditu une hartan horretaz jarduterik.

– Errusiako lehen bidaia hartan, Juandeaburrek oso kontaktu garrantzizkoak egin zituen; hango gobernuko goi mailako funtzionariak, merkatariak, negozio gizonak, artistak. Ustekabe handia harrapatuko zuen, nonbait, halako batean kamioia bete errublo eskaini ziotenean. Ez duzula ulertzen? Bada, esaten dudana, kamioia bete errublo, horixe... dolarrez trukatzeko. Ez truke ofizialeko balorean, merkatu beltzean trukatzen den balorean baizik: hamabost bat aldiz merkeago dolarra eskutan doanarentzat. Errubloak zertarako? Errusia erosteko. Errusia erosteko negozioa errublotan egiten da, gehiena. Orduan, inor Errusiara badoa, dolarra eskutan, funtzionari ustel bat eta mafioso bat nahikoa ditu negozioa egiten hasteko; hamar bat milioi dolar jartzen ditu Suitzako banketxe batean Errusiako kontaktuarentzat eta kontaktuak ehun eta berrogei bat milioi errublo jartzen dizkizu Napoleonen ostea heroikoki derrotatu zuen aberri handiaren edozein herriko banku-sukurtsalean. Hortik aurrera negozioak egiten has zaitezke. Egia da hamar milioi dolar biltzea ez dela hain erraza. Juandeaburre arduratzen zen inbertsoreak atze-

mateaz. Gutxienez –gutxienez, e?– urtean %50eko errentabilitatea segurtatzen zuen. Bera zen lehen inbertsorea. Baina ondoren makina bat inbertsore gehiago dago. Zerrenda, ministroa buru duena, ikaragarria da. Ia ehun izen daude, eta a zer nolako izenak: politikariak, bankariak, kirolariak, artistak... Ehun kilo edo gehiago jartzen dituenetik bere aurrezkitxoak –hamar kilo, demagun– jartzen dituen ministroaren amorantearengana.

– Eta zer inbertsio-klase egiten zituzten?

– Horretara nindoan. Entzun dituzu inoiz Krebs edo Koenigs izenak?

Koko Ezak ezagutzen zituen, bai, bi izen horiek.

– Krebs-en eta Koenigs-en bildumez ari zara?

– Bingo –esan zuen Akuiluk, zigarroen ke zirimolen artean, sukarti eta onetatik aterata egonagatik beti bere ahozko adierazpen bitxiaren tik eta kerien morroi–. Ez hori bakarrik. Armada Gorriak II Mundu Gerratean harrapatutako arteobra guztiez ari naiz.

Ezak entzuna zuen zeozer gaiari buruz, eta zekiena errepasatu zuen bere baitan: gauza jaki-

na zen Armada Gorriak milaka margo, eskultura eta edotariko arte-lan errekisatu zizkiela naziei gerra garaian. Franz Koenigs holandar bat zen, 1940 urtean bere arte-bilduma saldu ziena naziei hauek Linz-en egiten ari ziren Hitler museoa horni zezaten. Krebs-en bildumak, bere aldetik, adituen arabera, ez zuen parerik inpresionisten margoetan. Eta beste batzuk ere baziren, Otto Gerstenberg-en bilduma, esate batera, Van Gogh, Renoir edo Cezanne-ren obrak biltzen zituena. Hiru bilduma horiek, bakar bakarrik, Corot, Coubert, Daumier, Delacroix, Fantin-Latour, Manet, Matisse, Monet, Pisarro, Toulouse-Lautrec, Gauguin eta Degas-en obrak bilduko zituzten, besteak beste... Gerraz geroztik ikusi gabeko ehundaka margo, zeren, Armada Gorriak haietariko asko Ekialdeko Alemaniari itzuli bazizkion ere, parterik handiena gordetegi ezkutuetan gorde baitzuen, haietariko garrantzizkoena Ermitage Museokoa omen zelarik. Juandeaburre Argaraiko jauretxean ikusiriko Lautrec-en *Camembert* puskaz gogoratu zen. Hori bakarrik margolaritzan, zeren, pentsatzen hasiz gero zer edukiko ote zuten papiro zaharretan, ekialdeko

arte antzinakoan, eskulturetan, liburu arraro eta zaharretan, zorabiatzeko modukoa zen.

– Har dezagun, adibidez –zioen Akuiluk–, Van Gogh-en *Jeune homme á la casquette.* Prentsa berezituaren bidez jakin ahal izan da Kalifornian saldu zela enkantean, orain denbora gehiegi ez dela, eta ia hamar milioi dolar pagatu zituela erosleak. Kasualitatea izan edo ez, arte garaiki-de-bildumagile garrantzizkoenak kaliforniarrak dira. Artea sekulako inbertsioa da aberatsentzat, eta halakorik Kalifornian ugari dago; ez du zergarik ordaintzen, diru beltza garbitzeko modurik ezin hobea da. Bon, Juandeaburrek horixe egiten zuen: Errusiako funtzionari ustel horien influentziaz baliatu arte-bilduma onenetara sarrera eduki ahal izateko; koadroak eskaintzen zizkioten, prezio bat adosten zuten, badaezpada eragiketaren agiri faltsuak prestatzen zituzten... merke ateratzen zitzaien, eta merkatu beltzean lorturiko errubloetan. Operazio batzuk legezkoak ziren, jakina, itxura errespetagarriari eutsi ahal izateko. Fundazioaren aitzakian eta influentzien bidez bertatik eta Europako zein Ameriketako muga guztietatik pasa aduanari konturik eman

gabe, eta Christie’s, Sotheby’s edo antzerako Kaliforniako beste enkante-aretoetan saldu, horixe zen negozioa. Zenbat atera zezaketen horietako jokaldi bakoitzean? Bi milioi dolar? Hiru? Dirua garbitzeko modurik ezin hobea, eta inon zergarik aitor tu behar izan gabe, gainera. Negozioa ez da txarra, ezta? Nahi duk ikusi azken urtean modu horretan Fundazioaren bidez Errusiatik Kaliforniara jauzi egindako koadroen zerrenda?–Akuiluk paper bat luzatu zion Ezari. Honek, ikusi bezain pronto, txistu egin zuen, harriduraren harriduraz.

– Toulouse-Lautrec-en gazta puska ere bai, e?

– Lautrec-en gazta puska? Hor gazta-denda aukerakoa paratzeko beste gazta dago!

– Frogak edukiko dituzu, noski.

– Hortxe dator onena. Esan nizun Marcelo etorri zitzaidala hil bezperatan. Berak eman zidan informazio guztia: txekeen zenbakiak, banketxeen izenak, kontu-korronteen zenbakiak, kontu-korronteen jabeen izenak, Kaliforniarako hegazkin-txartelen erreserben egunak eta noren izenean zeuden, inbertsoreen izenak eta zenbat

diruz hartzen zuten parte negozioan... Ikaragarria da, Eza, benetan ikaragarria... Neuk, nire aldetik, emanikako datu horiek egiaztatu ditut, egiaztatu ahal izan ditudanak, jakina, eta dendenak egiazkoak dira. Konfidenteak informazio hori nola lortu zuen? Entzun arretaz, benetan bitxia da eta; Marcelok esan zidan liburua eskuratu eta berehala telefono-dei misteriotsu bat jaso zuela. Deitzen zuenak ez zuen nor zen esan nahi izan, baina klabe batzuk eman zizkion liburuari buruz. Harriturik ikusi zuen klabe horiek liburuari aplikatuz informazio benetan ikaragarriak lortzen zituela. Informazioak neroni pasa zizkidan, egiazta nitzan eta, nolabait, horrela jartzen zuela bere burua salbu sinetsiz. Gixajoak ez zuen nora jo, bestela ez zen niregana etorriko, bistan da: baina bizitza oso bat prentsatik iheska eman ondoren, Pulitzer sariak eta zuzendariak ez zeuden bere helbide-liburuan ageri. Nork pasako zion informazioa gure txorizoari? Hori ez dakit, baina, nire ustez, Juandeaburre bera ez bazen, bere inguruko bat izan behar zuela uste dut. Jakingo duk Juandeaburre desagertu dela aspaldi: nire hipotesia da filtrazio bat prestatu zuela liburua-

ren bidez. Ongi pentsatuta edukiko zuen informazioa noren eskuetara iristarazi eta gainerako xehetasunak, baina lapurreta gertatu zen. Orduan liburuak, zeukan informazio potentzial guztiarekin, bere kontrolpetik ihes egin zuen. Zer egin? Beste filtra zio-saio bat prestatu, noski. Baina, uste den bezala, Juandeaburre ezkutuan eta tokitan badago, horrek ere bere denbora hartuko zuen, eta bitartean, agian pentsatuko zuten dena ez zegoela galduta; hau da, zergatik ez saiatu lehengo bidetik ekiten? Oraindik aukeraren bat egon zitekeen. Horregatik pasatu zioten informazioa Marcelori. Hau, hori guztia jaso zuelarik, erotu egin zen; iruditu zitzaion mundu guztia potroetatik heldua zuela, eta diru eske hasi zen, niri informazioa emanda. Garbitu egin zuten, aizu, garbitu egin zuten. Ni han eta hemen mugitu naiz, hainbat jenderekin mintzatu naiz, baina inork ez dit erabateko erantzunik ematen, afera luzatzen ari da, inor ez da nirekin fio eta honezkero ni ere ez naiz inorekin fio... Laguntza behar dut, Eza, lagundu iezadazu. Informazio hau argitaratzen eta liburua aurkitzen.

– Beldur zaude?

Akuilu asaldatu zen.

– Beldur? Kaka eginda nago, Eza, kaka eginda... Liburua lortu ezean, galdurik nago. Liburua da daukagun salbokondukto bakarra.

–2–

Goiz hartan Ezak eskatu zion Margoti, bat-batean, alferrikako kortesiarik gabe, deblauki, ia inolako diosalik egin baino lehen eta zakarkeriarik gabe, haatik, liburua zegoen tokira eraman zezan. Bizkarrean sentitzen zuen oinazeak eta begi hanpatua morez tindatzen zuen ubeldurak gauzak hainbesteko berezkotasunez egiteko baimena ematen ziotela iruditu zitzaion. Konturatzen zen zazpi orduz seko, ohol bat bezala baina, lo igaro arren oraindik akiturik zegoela, eta egarri; haren aldamenean neska fresko zegoela ikusten zuen, ezer gertatu ez bailitzaion, edo, harrigarriagoa zena, gertatutakoarekin gozatzen ari bailitzan. Margoten erantzuna ura pitzerretik beretik edaten ari zelarik iritsi zitzaion, eta ia edozer entzuteko gertu egonagatik arrapostua pittin bat ezustekoa gertatu zitzaion, ur tanto pare bat, besterik ez, kontrako eztarritik joateko modukoa; bainujantzirik ote zuen galdetuz erantzun baitzion.

– Bainujantzirik?

Oraindik ez zen hasia hondartzara joateko sasoia. Edonola ere, bainujantzirik ote zuen galdetu zion bere buruari; bazituen hiru praka, bi alkandora –horietako bana behar bezala lisatuak, aukerak hala eskatzen zuenean erabiltzekoak–, bizpahiru kamiseta, dozenerdi bat galtzontzilo, bi jertse eta txamarra bat. Bi pare zapata, bi argazki-makina, pelikula ugari, fotometroa, tripodea, argazkiak errebelatzeko laboratorioko gauzak, dozena pare bat liburu, bi koaderno, hiru arkatz eta boligrafo bat; bazituen, halaber, bizarra egiteko apar-potea, zortzi bat bizarra egitekoak, erabili eta botatzekoak, *after shave-a,* jaboi pastila, hiru toaila, argazkiz beteriko lau karpeta, periodiko zahar batzuk, Havana botila, plater zikin batzuk, hiru lapiko, lixiba egiteko produktu kimiko batzuk, irrati eta telebista zahar bana, altzariak, brikolajekoak batzuk eta pitzatuak bestetzuk, landare handi bat, pakete bat zerbeza eta ertzak herdoildutako mortadela-xerrak hozkailuan. Eta telefonoa, noski. Ez zuen bainujantzirik, hortaz, eta halaxe jakinarazi zion:

– Ez.

Margotek tinko egin zion so buruz inbentarioa osatzen ari zen bitartean, eta larru lehorreko zimurrez harantza txikitan izan zen ume bihurriaren karantza susmatu ahal izanagatik, aguretu ondorengo hazpegiak nolakoak litezkeen erraz irudikatzen ahal zena zela otu zitzaion. Horrek samurtasuna deitzen den gai urri horrekin zerikusirik izan ote zezakeen pentsatzetik eman zion, eta irri alaia bota zuen.

– Goazen. Bainujantzia erosiko diagu. Jakingo duk igerian, ezta?

– Weismuller bezain ona naiz, ia.

– Weismuller?

– Tarzan.

– Edgar Rice Burroughs, hortaz.

– Ez gaitezen has.

Kotxean abiatu ziren dendara. Margotek bainujantzi loredun bat aukeratu zion, munduko parte honetan bide zeuden itsusi eta deigarrienekin lehia aise egiten ahalko zuena, Ezaren aburuz, eta erosketak iraun denbora guztian neskak igeri egitearen bentajak kantatu zizkion. Margotek berak astean behin edo bitan, batzuetan, egiten zuen kirola zen. Bizkarrezurrerako

ona, oso ona, halaber hezurreriarako, odol-zirkulaziorako zer esanik ez, estresaren aurka aparta eta giharretako tonua mantentzeko ikaragarria. Ditiak belaunetara eror ez zitezen ere oso ariketa komenigarria omen zen, nahiz horrek Ezarentzat garrantzi apartekorik ez eduki. Edo ez berarentzat zuen maila bereko garrantzia, bederen. Kotxean sartu ziren berriro ere.

– Eta orain nora goaz?

– Piszinara, jakina. Baina ez zuzenean, badaezpada.

Margotek adierazten zion Ezari nondik gidatu kotxea, eta ordu erdiko itzuli luze bat eginda, inor ez zeukatela atzetik erabaki zutenean, udal piszinarantz hartu zuten. Itzulia ez zitzaion aspergarri gertatu Ezari, Margotek, denbora guztian, kirol instalazioen berri zehatza eman baitzion, publikotasunaren alde agertuz klub pribatuen kirol-politikarekiko alternatiba gisa, ia egiazko udal-egitaraua osatzeraino. Neskak ez zuen ironia ezkutatzen. Eza hurrengo hauteskundeetan alkaterako aurkez zedin proposatzeko puntuan zegoenean, piszinara iritsi ziren. Laster ikusi ahal izan zuen Ezak egia behar zuela as-

tean bizpahiru aldiz joaten zenekoak, denek, atezainarengandik hasita ontzi ondoan, emakume adindun saldo batekin zegoen monitorearenganaino, aldagelazainarengandik pasatuz, amultsu agurtu baitzuten. Margotek adierazi zion non jantzi behar zuen erosi berriko praka motxa.

– Arropa eta gauzak takilan sartu. Baduzu ehun pezetakorik? Bai? Bada, zirrikituan sartzearekin giltza askatzen da. Gero giltza eskumuturrean lotu.

Ezak halaxe egin zuen, eta laster zegoen estalkipeko piszinaren ertzean. Txano eta igeriko antiojudun gazte bizkarzabal batzuek hartuak zituzten bi kale, uretan aparra eta turbulentziak sorraraziz euren mugimendu azkar, indartsu eta gihartsuekin. Monitorearekin ariketetan ari zen emakume adindun saldoak kuriositatez begiratzen zion. Bainujantzia munduko oihanik koloretsuenean loroen arreta deitu eta sexu-grinak pizteko bezain fosforeszentea zen, eta hori gutxi balitz, gorputz-enborrez Eza halako bi zen gizon batentzat ehunduta. Emakumeetako bat, denetan lodiena behar zuena, uretatik atera eta bere inguruan ibili zen, sekula ez bezala inoren sorik

bereganatuko ez zuelako sentipen lasaia bizi oso batean behin gozatu ahal izateko eskubidea zuela iritzirik. Halako batean Margot azaldu zen, urrezko domina irabazteko prest dagoen horietako baten bainujantzi meharra enbor atalen inguru-inguru eginda. Gorputz olinpikoa zen hura, txapeldun izateko gehiegizko bularrarekin ordea. Margotek igeriko antiojuak paratu zituen eta keinu bat egin zion Ezari, igeri egiteko gonbitea. Ezaren eramanak azken estazioa jo zuen:

– Baina zer arraio! Zer igeri eta zer piszina eta zer kristo! Nahikoa dun!

Eta Margot besotik heltzera egin zuen, honek halako barretxoak eginez ihes egin zuelarik, jauzian uretan murgildu eta estilo onez igerian hasiz. Ezari burroak eta biraoak borborka etorri zitzaizkion, baina, emakume adinduak jakinmin antropologikoarekin inguratzen ari zitzaizkiola ikusirik, salto egin zuen uretara, berak ere, gutxienez piszinaren beste muturrera iritsi ahal izateko. Gero uretatik atera eta aulkian eseri zen. Bizkarreko zauriak erredura zirudien eta kloroak eragindako hazkura bakoitzak ordurarte atzemangabeko zauri txiki bat non zegoen iragartzen

zuen. Kalkulatu zuen Margotek seiehun bat metro eginda izango zituela bere ondoan eseri zeneko. Adatsa lehortzen hasi zen, lamia baten antzera.

– Esaidak: hik non gordeko huke liburu bat? Aireportuko kontsigna, tren geltokia edo halako jendearen joan-etorri askorik dagoen tokirik ez zitzaidan komeni. Han beti zaindari ugari dago, erraz kontrolatzen den tokia da, are hau bezalako hiri txiker batean. Lagunen bati eman gordetzeko? Nire lagun guztiak kontrolpean egongo direla ez dut zalantzarik. Ahaideak berdin. Beraz?

– Beraz?

Margotek takilako giltza askatu zuen eskumuturretik, eta bestearen sudur aurretik dilindan jarri.

– Hemen denak oso atseginak dira nirekin. Ez zidaten oztoporik jarri.

– Goazeman hemendik. Arineketan.

Etxerako bidean mutu joan ziren. Ez zirudien inor atzetik zeukatenik. Ezak zeharkako soakoak baizik ez zizkien bota kartoizko kutxa puskatu baten zuloetatik ageri ziren liburu azalei. Apartamentura iritsi ziren.

Hiru praka, bi alkandora –lisatuak eta lisatu gabeak–, bizpahiru kamiseta, dozenerdi bat galtzontzilo, bi jertse eta txamarra bat. Denak zoruan barreiatuta. Bi pare zapata, bi argazki-makina, pelikula ugari, fotometroa, argazkiak errebelatzeko laboratorioko gauzak, dozena pare bat liburu, bi koaderno, hiru arkatz eta boligrafo bat. Puskatuta eta zikinduta, tokirik ezustekoenetan. Bizarra egiteko apar-poteko aparra mirailaren gainean, hiru toailak urratuta, argazkiz beteriko lau karpetak erreta, ia erabat; Havana botila, hustuta, plater eta lapikoak lehen bezain zikin, lixiba egiteko produktu kimikoak eserlekuetan, irrati eta telebista falta, altzariak, brikolajekoak eta besteak zein landare handia, txiki-txiki eginda. Ertzak herdoildutako mortadela-zerrendak hozkailuan, lehen bezala. Horrelaxe zegoen apartamentua, iritsi zirenean.

– Tabako usaina nabari da oraindik. Oraintxe joan ditun. Inguruan ibiliko ditun, agian.

Eta telefonoa, noski. Une hartan inoiz baino larriagoki hots egiten zuen telefono berbera.

– Goazeman. Aitorgoitiara eramango zaituztet, bai zu eta bai liburua.

Telefonoa ez zen isiltzen, eta neskak hartu zion aurrea hartzeko garaian.

Margotek ez zuen larrituegi eman ordurarte; bai ordea hizketaldi labur baten ondoren, aurpegia mudatua, telefonoa eskegi zuenean.

– Goazeman, azkar.

– Ez.

– Ezetz? Gauza ez dago bromarako, gero!

– Segi Aitorgoitiara liburuarekin.

– Zergatik?

– Akuilu huen. Nire beharrean zegok. Ezin diat orain bakarrik utzi. Aitorgoitian elkartuko gaituk.

Hitzak bukatu baino lehen Ezak atera lehen iristeko egin du, baina Margot hurbilago dago eta aingiren moduan labain egin zaio esku artean.

–3–

Margotek eskaileretatik behera egin zuen. Ezak okupatzen zuen etxeak ez zuen atezainik, baina emakume batek egiten zuen astean behin portal garbiketa, eta une hartantxe, halabeharrez, igogailuarekin ari zen. Bestela ez zion ihes egingo. Igogailua hartu nahian emandako minutua, oihuka eta ostikoka, erabakigarria gertatu zen.

Arrenkuraturik eta atezuan egonik ere, une hartan zentzuz egin zezakeen gauza bakarra berandu baino lehen egin behar zuela deliberatu zuen, hau da, liburua toki seguruan laga. Hortaz, kotxea hartu eta hirugarrenez jo zuen Aitorgoitiara, horixe baitzen liburua gordean uzteko ezagutzen zuen toki bakarra, hori egin eta gero Margotez eta Akuiluz arduratuko zela erabakirik.

Galtzeko denborarik ez zegoelako ziztada lauso eta ezeroso batek bultzatua, azkar gidatu zuen pagaditik zehar, eta iritsi zelarik, ez zion jada jaramonik egin komentuko ate ondoan egunetik egunera hazten zihoan parke automobilis-

tikoari, bera heldu zen unean Portland-eko atezaina Audi baten bolante aurrean esertzen zen emakume beltzaran dotore bat agurtzen ari zen arren; atezainak, bera ikusirik, despedida nahi zuena baino azkarrago bukatu zuela iruditu zitzaion; Ezarekin ez zuen ezer jakin nahi, nonbait, txakur xaxatu bat bezala urrutiratu baitzen. Ezak ere ez zuen hermano atezainarekin gehiegi hitz egiteko gogorik, eta, liburua gorderik zeukan pardeltxoa eskuetan, ateari buruz abiatu zen urrats luzeez eta ibilera artegaz. Atea irekirik zegoen eta, erabat zeharkatu baino lehen, Egozkuerekin –dudarik gabe Ezaren etorrerako eszena guztia, hermano atezainaren despedida ere barne, ikusi zuena– egin zuen tupust. Ohiko irribarre salomonikoarekin, Eza gero eta gehiago onetatik ateratzen zuen berberarekin, hain zuzen, egin zion harrera, azalpenen bat eman beharrean zegoela deliberaturik.

– Gizona beti gizon, komentuan sartuta egonik ere.

– Fraideen sexu-bizitzak ez nau interesatzen.

Egozkueren aurpegiko ironia eta trufa begi bistakoak ziren, ez baitzen ezertarako ere ezku-

tatzen arduratu, eta ez zen ezkutatzeaz arduratu berehala atzeman baitzuen Ezaren izpiritu asaldatuak ez zuela, une hartan, inongo susmo txarrik hartzeko gauza. Honek umore ezin hobean paratu zuen apaiza, egoera kontrolatzea ez zitzaiola larregi gaitz izango konturatu zelako. Bere gelara eraman zuen, ohi baino urrats laburragoetan, bestearen etsipenarekin libertiturik, pittin bat bihotz beraturik, agian, humanoak, zenbat eta euren grinen presoago, orduan eta izaki graziosoago eta errukigarriago iruditzen baitzitzaizkion. Egozkueren gelan Verdiren *Aida* entzuten zen. Egozkuek kantatu zuen, bere ahots sakonaz, eta bestearen erabateko desesperazioa piztuaraziz:

– *Inni leviamo ad Iside*
Che il sacro suol difende!
Preghiam che i fati arridano
Fausti alla patria ognor.

Ezak hatz bat altxatu zuen bere buruaren gainetik, zemaikor:

– Egozkue, ez nago txotxolokerietarako. Aditu, e, aditu?

– Lasai, gizona, lasai –esan zion abadeak, arima-ar tzainek baizik ezin dezaketen tonu balsamikoan, pilota punperat etorririk zela ikusirik–. Zerk atsekabetzen zaitu?

– Margot arrisku bizian dago. Kazetaria ere bai.

– Margot?

Ezak hitz azkarretan azaldu zion azken orduetan gertatutakoa: kaleko erasoa, etxeko miaketa, Akuiluren deia... eta liburua bere eskuetan zegoela. Baita berak ere laguntza behar zuela aitortu ere, azkenik. Abadeak liburua eskutik erauzi egingo ziola uste izan zuen. Honek oso bestelako jokabidea hartu zuen, ordea: zegoen tokian, gihar bakar bat ere mugitu gabe gelditu zen, eta inoiz baino polikiago mintzatu zen, sabaiari buruz emanez begiak.

– Jendeak, operazaleak ere barne, edo operazaleak direla esaten dutenak ere barne, oso arreta ttikia jartzen die maite dituen opera-obrek kontatzen dituzten istorioei. Eta gaizki egiten dute, batzuetan musika bezain interesgarriak gertatzen direlako, interesgarriagoak ez badira, obran zehar garatzen diren konflikto dramatiko-

ak. Adiago egongo balira anitz gauza ikasiko lituzkete. Verdiren opera gehienak, esate batera, oso politikoak dira. Ezagutzen duzu *Aida*-ren argumentua? Ez? Bi herriren arteko gerra bat dago, emakume batek eta gizon batek, bakoitza borrokan dauden herri banatakoak, elkar maite dute. Beren amodioa, bistan denez, ezinezkoa da. Bi gizabanako baino ez dira, indargeak, miserableak ia, elkarren amodioa salbatzeko aurre egin behar dioten botereen, talde-interes multzoen aitzinean; hauek, ugari ez ezik, kamaleonikoak dira, ezkutatu egiten dira, batzuetan, denik eta agerpen erabatekoenak egiten dituzte, bestetzuetan. Gogoan arestian kantatzen ari nintzena? *Inni leviamo ad Iside...* Hau da, gutxi gorabehera: *Eresiak kanta diezazkiogun Isis-i, lur sakratuaren defendatzailea! Otoitz egin dezagun baldintzak gure aberriaren aldekoak izan daitezen.* Ramfis, goreneko sazerdotea, da horrela kantatzen duena. Ulertzen? Otoitza, lur sakratua, aberria... Hitz potoloak, ezta? Bitxia da Ramfis hau; *Aida* guztian ez da gehiegi azaltzen, Aida edo Radames bere maitalea baino gutxiago, noski, Errege bera baino gutxiago. Baina Ramfis da,

inolako zalantzarik gabe, obraren motor dramatikoetako bat, boterearen haragiztatzea delako, hain justu, itxurazkoa ez eta *egiazko* boterearen haragiztatzea, beti *atzean*, beti *mozorrotua* dagoena, gutxitan agertu arren agerraldi bakoitzean beti hitz potolo, kontestagaitz, larderiatsu, erabatekoen bidez adierazten dena.

«Isilik egon hadi, ostia!!» oihukatzekotan egon zen Eza, une batez, baina gelditzen zitzaion zuhurtzia apurrak belea ez zebilela txantxetan erakutsi zion, eta mutu iraun zuen, hala iraun ahal izateko ahaleginaz aurpegia gorrigorri eginda gelditu bazitzaion ere.

– Ikusten? Zure gorritasun horrek berak adierazten du zure indibiduotasunaren ezina. Badakizu nola bukatzen den *Aida*? Bada, oso erraza da: amoranteek heriotza gertu eta inpitoiable baten magalean, agonian baizik ezin izango dituzte euren bizitzak denbora tarte labur batez elkartu: norberaren nahiak ez dezake interes orokorra gaindi heriotzaren prezioa ordaindu ezean. Berdintsu drama guztietan. Leunxeagoetan deserria eskaini ohi da heriotzaren ordez.

– Tira, Egozkue, ez nabil filosofiakerietarako. Ni ez naiz gizabanako ezindu bakarra. Zer arraio esan nahi duzu?

– Agian zuk uste baino gehiago laguntzen ahal dizudala ulertarazi nahi dut, besterik gabe. Baina utzi behar didazu liburua.

– Asmo horrekin etorri naiz, bada.

Egozkuek muturra okertu zuen apur bat.

– Adarra jo nahi didazu edo ez zara nik uste nuen bezain azkarra? Liburua utzi esaten dudanean hemendik aurrera liburua nirea balitz bezala jokatuko dugula esan nahi dut. Garbi dago?

Ezak ez zuen beste irtenbiderik.

– Neskari eta kazetariari ez zaiela ezer pasako bermatzen ahal duzu?

– Akuilu... Akuilu ez dakit. Urrutiegi joan da, nonbait. Besteari dagokionez, horixe da prezioa. Neskari ezer gertatuz gero, ez dugu jokatuko liburua nirea balitz bezala.

– Baina berma dezakezu, bai ala ez?

– Ene haurra, ezer ezin izaten da erabat ziurtatu.

Eza jauzi batez altxatu zen eta presaka atera, ezer esan gabe, aulkia, eta horrekin batera libu-

rua, erortzen utziz. Egozkuek poliki segitu zion, eta komentuko atera heldu zelarik, Ezaren kotxeak errepideko lehen bihurgunea hartzen zuen burrunba handian. Hoa, hoa, pentsatu zuen Egozkuek. Zer gerta ere. Eta egin ezak otoitz beranduegi ez dadin izan. Hermano atezaina isilka hurreratu zitzaion.

– Eta?

– Presta zaitez. Laster hasiko da funtzioa.

–4–

Aitorgoitia besarkatzen zuen pagaditik atera eta soro berdeek inguratzen zuten errepide grisetik zehar abiatu zelarik, kontrola izan zen aurkitu zuen lehen gauza. Konturatu gabe frenoa sakatu zuen eta poliki inguratu igarotokia ia erabat ixten zuten bi jeep berderantz. Bistan zen kontrol batek toki eta ordu hartan esanahi eta zentzu bakarra eduki zezakeela, eta azken orduetan ongi ateratzen zitzaion gauza bakarretakoa zela oharturik, poztu zen. Beranduegi zabiltzate, mutilak, beranduegi. Identifikazioek luze jo zuten. Halako batean kotxetik jaitsiarazi zuten. Eguraldi ederra zegoen, eta Eza bere baitako ekaitza menderatzen saiatu eta gauza lasai aldera hartzea komeni zitzaiola erabaki zuen.

– Esertzen ahal naiz?

Hori behintzat ez zioten debekatu, eta eseri egin zen, bide bazterreko harri handi samar bat jarleku harturik, ondoan bi numero gelditzen zitzaizkiola. Zigarro bat piztu zuen, eta gisa hartan ikusi ahal izan zuen dozenerdi bat numerok ko-

txea desegiteari ekiten zioten modua. Horretaraako berariz entrenatuta daudenen trebeziaz jokatzen zuten, ez ziren aldameneko herriko postukoak, alegia. Miaketa sistematikoa izaten ari zen: portamaletasa, salpikaderoa, motorra... baina kotxeko azpiak ere bai. Ezak kalkulatu zuen ordu erdi bat pasea zela kontrolean gelditu zutenetik eta denbora horretan guztian beste kotxerik ez zela igaro toki hartatik, eta gogoeta hori zebilkiola buruan kotxe azpiak miatzetik ateratzen zen numero baten mutur zikin belztua ageri zen. Ahal izan zuen moduan ito zuen eztarritik gora, indartsu, sobornaezina, igotzen zitzaion algara. Errabiatuta zeuden, sabel amorruak hezurrak hauts eginda. Eserleku azpiak ere miatu zituzten, gomazko alfonbratxoak astindu. Alfonbratxo baten azpitik agerturiko zerbait pasatu zion numero batek tenienteari, eta biek itzuli zuten soakoa Eza zegoen tokira. Honek, kostata, baina, ikusi ahal izan zuen zer zen; kondoi bat. Ezak bizkar-uzkurtze arina egin zuen, nik ez dakit deus zer arriskutsu horretaz, agente jauna, kotxea ez da nirea, utzi egin didate, esan nahiko bailuen. Tenientea aparra zeriola zegoen.

Ate barrualdeko eskaizko estalkiak erauzi zituzten, txapa barrualdetik ere ikusteko moduan utziz. Arraioa, pentsatu zuen Ezak, inoiz baino libertituagorik, eserlekuak ere bai? Ba, bai, antza. Numeroek eserleku barruak miatzen zituzten, euren tripa zuriak non-nahi barreiatuz, baina alferrik; han ere ez zegoen ezer.

Muino berde baten gainean ikusten zen baserri batean, lanak alde batera utzi eta eszenari so zeuden bi giza irudi ikusten ziren. Kotxea ia erabat deseginda egonik ere, Eza garaipen hartaz gozatzen ari zen eta noizbehinka bere begi burlatiek tenientearenekin egiten zuten topo. Honenek txinpartak jaurtitzen zituzten. Ea orain zer egiten duan, kakajale horrek. Ezak gutxietsi zuen tenientea, eta luze gabe damutuko zen:

– Gurpilak!!! –egin zuen orru tenienteak.

Eza malguki batek bultzatuta bezala altxatu zen, garrasika. Bi numerok heldu zioten, ordea, eta ezintasunetik ikusi zuen labanak kautxoan, banan-banan, nola sartzen ziren, eta gurpilek, banan-banan, airerik gabe gelditu arauz, bere gisako zisne kantua nola abesten zuten.

– Putakumeak!

Numero batek kulatakada ematekoa egin zuen. Tenienteak galarazi, ordea. «Preziso ez izatera, ez ukitzeko agindu zigutek» gogorarazi zion. Jeepetan sartzeko agindua eman zuen, eta gero, Ezari buruz itzuliz, bere mendekua osatu:

– Nahi duzunean segi dezakezu aurrera.

Motor hots handitan alde egin zuten. Kotxea, edo kotxetik osorik gelditzen zena, hobe esan, begiratu zuen; ikusgarria ezaguna egin zitzaion: halako makina bat zeukan ikusita Basorako autopistan. Haiek garretan, baina, gehienak. Orduan baserrirantz itzuli zuen soakoa.

Lehengo bi giza irudiak hantxe zeuden. Harantz bideratu zituen Ezak bere urratsak, baita minutu gutxiren buruan muino gaina harrapatu ere. Bi irudiak, arrastelu bana okozpean, aita-semeak ziren, musu gorri eta bular zabal.

– Herrira joan nahiko nuke.

– Herrire? Segi horko bidea –aita zen erantzun ziona.

– Ezin nauzue kotxez eraman, arren?

– Kotxez? Nik eztut holako gauzik –esan zion zaharrak, eta jiratu egin zen. Semea oraindik begira zitzaion.

– Neuk eramango zaitut. Moto gainean, baina.

– Bai, emantzak, emantzak moto gañin –aita berriz, burua jiratu gabe eta marmarrean aldentzen zelarik–, gabe geldittukoaiz baina, oek aserraaziik.

– Ez zaiozu kasurik egin. Zahartu egin da eta.

Handik gutxira Eza noranahiko motor handi eta potente baten atzealdean zihoan, baserritar gazteari gerritik helduz, abiada bizian eta sustua hazpegietan errotua. Gaztea hiriraino eramateko prest agertu zen, ordea, eta hiru ordu laurdenetan hantxe ziren. Ezak gustora gonbidatuko zuela zerbeza bat hartzera baina galtzeko denborarik ez zuela azaldu, eta ordaindu egin nahi izan zion, baina mutilak dirurik hartu nahi ez. Despeditu egin ziren, eta Ezak Akuiluren etxeko bidea hartu zuen, saltoka, arnas-estuka, bihotzak ahotik gora egingo ziola zirudiela.

Ez zuen Akuiluren atariraino iristerik izan, ordea, poliziak alderdi hura guztia itxi eta ez baitzion inori pasatzen uzten. Jende oste handia zegoen bildua poliziak kateatuta zeuzkan inguruetan. Galderak eta denetariko esamesak entzuten

ziren. Auzoko baten komentarioa bereiztu zuen Ezak, oraino arnas-estuka egonik ere, entzuten zuen hitz-entsaladaren erdian:

– Tiro-hotsak entzun dira.

Anbulantzia bat bertaratu zen. Nahikoa ikusi zuen.

– Putakumeak.

Akuilu gixajoa, ergela. Inozoa. Graham Greenen azken aurreko irakurzalea, *ni egon nintzen* guztien azken presoa, bizi ez zuen, bizi ezin zezakeen irudimenezko eta paperezko patria batengatik herriminak jotako azken nostalgikoa. Azken babalorea. Akuilu zorigaiztokoa, gixajoa. Basatikeria guztien biktimak bezain errukarria eta errugabeena bezain errugabea. Anbulantziakoek gorputz bat barneratzen zuten ibilgailuaren atzeko aldean, erabat estalirik, harri bat baino gehiago mugitzen ez zen estaliriko gorputza. Ezak zimiko bat sentitu zuen bihotzean, heriotza horren mingotsari Margot hiltzaile haien eskuetan zegoelako ziurtasuna gaineratzen zitzaiolarik. Jende tropelaren arteko ahots batek laburbildu zuen, anbulantziakoek ateratzen zuten gor-

putz estalia zela eta, guztiengan orokortzen ari zen inpresioa.

– Hori Beritxitoserako zegok.

– Hirugarrenekoa zela uste dut. Kazetaria omen.

Akuilu, zopilo halakoa, Vietnamen milaka kazetari ibili zen eta ez ziren berrogeita hamarretik gora izan hil egin zirenak, andraminak eta sukarrek akabatu zituztenak ere barne, ez al zara konturatzen? Bizia nolakoa den pulpitu edotarikoetatik iragartzen duten berberak dira, Ekialde Urrutiko basatiak nola jaten duen bidalitako Mendebaldeko korrespontsalak, hori herrira erretiratu ez direnean Pakean bizitzeko, bere katuekin, gehienez ere eskubonba pare bat eta *marine* baten kaskoa gordetzen dituztelarik, *oso akituta* daude, ez daude borrokatxoetarako, Akuilu, ez zebiltzan heriotza ezezagun eta satsu baten bila, beti apartatzen ziren trenbidetik nahikoa denboraz makinaren zilueta hodeiertzaren kontra ebakitzen zenean, horixe zen, eta da, lehen araua, ez al duzu ulertu, ez al zenuen ulertu?

–5–

Oraingo honetan taxiaz egin behar izan du Ezak Aitorgoitiarako bidea, eta bidea egin egin du ia desesperatua dagoelako, batetik, eta Egozkueren deia jaso duelako, bestetik. Labur mintzatu zaio, baina larderiaz: etor zaitez. Minuturik galdu gabe, baina. Ikusgarri ederra ikusiko duzu; eta gainera hitz egin behar dugu. Mundu zabaleko taxi-gidari guztiak berritsuak dira, lagunkoiak eta langile senekoak ez gutxi; honek ordea noblea dirudi, markes edo, pentsatu du Ezak, sartu delarik besteak zorritsu bat hartu bailuen begiratu diola konturaturik; ezin polikiago doaz, bestalde, txoferrak behi gorotzak ez zapaltzeko ahaleginetan gidatzen baitu, taxi berri ederra zikinduko zaiolako beldur. Eza barrutik erreta doa, taxi gidariari kankateko bat emateko gogoei eutsiz, bestearen solas saio topiko baldarrei sekula lotu gabe, mutu eta haserre. Taxiak hartu du –azkenik!–. Aitorgoitia baino lehenagoko errebuelta, eta komentua aurrean azaldu delarik taxi gidariak txistu egin du:

– Arraioa!

Dozena bat jeep, gutxienez, metatzen dira sarrera ondoko patio iturridunean, argi azulak biraka, eta kolore guztietako poliziak azkar mugitzen dira harat-honat sukartietan. Taxi gidariari ordaindu dio, jakinminezko galderei erantzuteko lanik hartu gabe.

– Manifestazioa, hemen ere!? Banoa kotxea pilotakada batez zulatu baino lehen!

Ezak ikusi ahal izan du Egozkue komentuko ate ondoan, kaleko janzkera arruntaz jantziriko bi gizonekin hizketan. Poliziak izango direla ez du egin duda handirik. Inork ez du begiz jo iritsi delarik, eta solasean ari diren hiru gizonengandik nahikoa urruti eta diskreto itxoin du poliziak, Egozkue alde batera lagata, komentuan sartu diren arte. Egozkue serio dago, baina ez dirudi kezkatuegi.

– Hermano ekonomoa atxilotu dute. Beti bezala. Ez da komentuan sartzen diren lehen aldia, eta sartzeko aitzakia beti hermano ekonomoa izaten da. Zer egin edo egiten duen? Orain hamabost urte kartzelan egon zen, horra. Nire Word-a suntsitzeagatik harrapatu izan balute, si-

kiera. Superioreari esan nion aspaldi ez ote zen hobe hemendik beste nonbaitera eramatea, baina, ondoren, hobeki pentsatu eta iruditu zitzaigun hobe zela bertan geldi zedin; guretzat erosoagoa da. Bestela beste zerbait asmatuko zuen poliziak, eta beste zerbait horretan nor izorratuko zuten ikusteko zegoen. Hermano ekonomoari esan genion mintzatutakoa eta ongi iruditu zitzaion. Astebetean, hamar egunetan, gehienez, gurekin dago berriz. Alde horretatik ez dago arazorik, beti igoaltsu izaten da.

– Kazetaria hankaz aurrera eraman dute. Tiroz.

– Akuilu? Jainkoarren, tipo hauek burutik daude –to nua zela eta, bazirudien zorabioa heriotza baino harrigarriagoa iruditzen zitzaiola–. Komentua hankaz gora jartzen ari dira. Zulo bat bilatzen ari direla diote. Lotsagalduak! Jakingo ez bagenu bezala zeren bila ari diren.

– Ongi ezkutaturik al dago?

Egozkuek barre lehor eta motza egin zuen.

– Komentu honetan dagoen tokirik seguruenean.

– Eta zure gelara sartzen badira?

– Liburutegia, ardotegia, sukaldea, jangela, eliza, klaustro gotikoa, komunak, ikuztegia, dena begiratzen ari dira. Baina gure gelatxoetan ez dira sartuko. Ez dira ausartuko.

– Kezkatuta nago, Egozkue. Zainak jauzika ari zaizkit.

– Neska dela eta?

– Zerrikume hauek lortu nahi dutena lortzeko daude, zirt edo zart.

Egozkuek buru-keinu arina egin zuen jeep-ez harantzago, bi pagoen artean erdi ezkutuan zegoen kotxe beltz bati erreparararazteko.

– Ikusten kotxe hura? Hor dago iskanbila hau antolatu duena. Polizi komisarioa da, Petronio esaten diote. Ongi ezagutzen dut. Berak uste baino hobeki. Burua egingo nuke bere bateko urrea jokatzen ari dela.

– Eta horrek zer esan nahi du?

– Orain arte egiten utzi diote. Baina ez du ezer lortu, eta alto paratuko diote libururik gabe itzultzen denean. Orduan guk instantzia altuagoetara joko dugu.

– Ez diot horri lasaigarritik ezer ikusten.

– Akuilurena sentitzen dut, bihotzez. Hil ondoko mezak kantatuko ditugu bere arimaren alde. Hil da gero, salda bero, baina. Orain neska da garrantzizkoena. Uste dut ez dugula gehiegi kezkatu behar; neska bahitua edukitzeak bizkarra babesten dio komisarioari. Esku hutsik itzuliz gero kromoren bat beharko du trukean aritzeko. Liburua eskuratzen ez duen bitartean, neska salbu dago.

– Eta liburua aurkitzen badu? –Eza edozer zegoen, lasai izan ezik.

– Orduan...

Baina Egozkue isildu egin zen, Petronio komisarioa kotxetik atera eta haiengana hurreratzen zela ikusirik. Lo gutxi egindakoaren itxura zeukan, eta Estatu Lehendakari bati duin lekizkiokeen betondo moreen tamainaren arabera, benetan haserre eta sumindua zegoela ikusten zen. Egozkuek burua makurtu zuen amiñi bat agur gisa. Petronio ez zen adarretatik ibili. Begirada azkar batez neurtu zituen Ezaren kanpobarneak eta lehor mintzatu zen. Ezak ezagutu ere ez zuen egin eraso zieten gauean kalearen bestaldean itzal txiki bat baizik ez zen gizona.

– Zure gelara goaz, azkar.

Agindua emana zuen, nonbait, Egozkueren gelara iritsi orduko hainbat fraidek pasabidean itxoiten baitzuten, pazientzia bertutearen ariketa ez nolanahikoa egiten ari denaren traza guztiarekin, ajente hodei batek edredoiak eta brebiarioak astintzen zituen bitartean, halako moldez non santu guztien izpirituak dantzan ari zirela pasabidean zehar ematen baitzuen, eta are, gaueko isuri lizun gehienbat borondategabe aspaldikoen urrina barreiatzen baitzen. Egozkuek poliki ireki zuen bere gelako atea, intimitate hauste hori bezalako bilaukeria erabateko duintasunez baizik ezin eramana dela aspaldi dakien plantarekin. Ate ondo-ondoan gelditu zen zutik, Petronioren bi ajente sartu eta dena iraultzeari ekiten ziotela. Eza ate ondoan gelditu zen, kanpoaldetik baina, eta Petronio poliki-poliki paseatzen zen gelatik zehar, aspaldiko kuriositatea asetzen ariko bailitzan.

Dena ongi joango zen baldin eta kasualitateak poliziekin bat egin izan ez balu, izan baitzen kasua, ezen, gelako zoko-moko guztiak miatu eta gero, etsirik zeudelarik, kanpora abian ari zi-

renean, ajenteetako batek estrapozo egin zuela, eta ez erortzeko azken ahaleginean, eskua Egozkueren lan mahairantz luzatu zuela, halako moldez non, guztiz nahigabe, mahai ertzaren azpiko botoia zanpatu baitzuen, Egozkueren gelako sekreturik gordeena Petronioren ikusmiran utziz; izan ere, diskagailuaren atzeko igeltsu faltsua ireki zen, kutxa blindatua ageri zelarik bere haragi birjinalak lehen aldiz erakusten zituen neskatxa balitz bezala. Egozkuek instintuz makurtu zuen kopeta eta esku irekiaren kontra eman; keinuak segundu bat baino ez zuen iraun, baina nahikoa izan zen Petronio konturatzeko. Honek mihia pasatu zuen ezpainetatik, katu txorigose baten antzera, eta trumoi ahotsez agindu:

– Ireki!!!

– Ez! –Egozkuek irmo erantzun. Komisarioak kalibre luzeko pistola bat atera zuen galtzarbetik. Halako esku txiki ezkozkoetan, kainoia zirudien.

– Irekitzeko edo neronek irekiko diat tiroz!!!

Zergatik ez zekiela, Ezari iruditu zitzaion apaizak, ezpata eta paretaren artean egoteagatik zerbait asmatuko zuela, eta horregatik arna-

sarik eta erantzuteko gaitasunik gabe gelditu zen ikusi zuenean apaiza, burumakur, lepotik zintzilik zeukan giltzatxo bat eskuan hartu eta kutxa blindatua irekitzen hasi zela. Lana bukatuta, Eza zegoen tokirantz jiratu zen, eskutzarrak irekirik ezintasun azalpen bat izan nahi zuen keinua osatuz; eskutzarrekin eginiko keinua, haatik, ez baitzen Ezari zuzenean begietara begiratzeko gauza izan. To, gizabanakoaren ezintasuna gizaerakunde eta antolamenduaren aurrean, to Verdi, to *Aida*, noiz eta orain, *Sooo* esan behar zuenean, begitandu zitzaion Ezari, apaiza esku propioez itotzeko gogoa handiagotzen zitzaion bitartean.

Baina ordurako komisarioa oldartzen zen altxorraren kobazulora, egarriz hiltzen ariko litzatekeena iturrira bezain gogotsu.

–6–

– Zer da hau!!??

– 1936ko uztailak 19ko Euskaleko erremonte-egitaraua. Bitxikeria historikoa da. Zalea naizen aldetik, altxor txiki bat. Partidua suspenditu egin zen, bistan da. Kaliko la-zelai hartan ez zegoen erremonterako giro.

Egozkueren erantzunetan ez zegoen ageriko trufarik. Anfitrioi ongi hezitako baten modu txukun eta amultsuan mintzatzen zen, honek Petronio komisarioaren porrotaren koloreak biziagotzen zituelarik.

– Eta hau!? –gomatxo batez bildutako gutunazalak ziren.

– Nire aurrezki-kontuaren urteko eragiketak. Ikus saldoa: 54.098 pezeta.

– Eta hau?

– Nire otoitz liburua.

Petroniok begiratzen zion hatz nikotinak horituen artean oraindik zerabilen kalibre luzeko pistolari. Azken minutuan garatutako ahalegin alimale bati esker, kanpoko itxuran lasai agertzen

zen, hain lasai ezen astakeriaren bat egitera gertu legokeela sinets baitzitekeen. Kutxa blindatuan bildutako paperak huskeria baino ez ziren; une batez pistola altxatu zuen bularraren parera, indarrik gabe, bestela bezala, tiro egiteko prest balego legez eta berdin bailitzaion bala nora joan zitekeen, inoren buruaz beste egitearen zozketa makabroa egiten ariko bailitzan, bere burua ere zozketa barne zegoela, jakina. Are polikiago igo zuen pistola belarrien altuera-raino, adar hauskor batetik eskegitako aran makabro baten antzera. Kainoiak printza azul-moreak distiratu zituen Petroniok, ero-begiez, hiltzeko tresna horren sistemaren bat martxan jarriko zuela nabarmen gelditu zen unean. Petroniok zerbait sakatu, klikada bat entzun eta kargadorea bere ezker eskuaren ahurrean erori zen. Kargadorea poltsikoratu zuen, ondoren.

– Goazen.

Polizia klase anitzeko haien gibeleratzea derrotaturik anabasan doan edozein gudarosteren antzekoa zen: azkarra, diziplina barik eta atzean uzten zituzten hilotzei erreparatu gabea. Jeepetara igotzen ziren presaka, atzean zer uzten

zuten gehiegi zaindu gabe; eta hala, izan zen kasua ezen numero batek bere kapelua ahantzi zuela barreiaturiko edotariko objektuen artean, eta erdi harriturik erdi libertiturik, bere miserien artean trofeoa aurkitutako fraile batek erakutsi egiten ziela triskantzak konpontzen afanatzen ziren dozena fraileri: Hispano-Olivetti bat!

– Gaur bi aldiz egon zara bizitza galtzeko arriskuan –zioen Ezak–. Bigarrena, komisarioa pistola-joko horiek egiten hasi denean.

– Eta lehena?

– Nik neronek estrangulatu nahi izan zaitudanean, kutxako giltza eman diozunean –Egozkue barrez zegoen Ezak esaldia bukatu baino lehen.

– Non arraio paratu duzu?

– Esan dut lehenago: komentuko tokirik seguruenean.

– Irakurri duzu?

– Bai.

– Eta?

Egozkueren aurpegia, emozio bortitz baten ondorioz edo, eraldatu egin zen, eta serio jarri, Ezak ordurarte sekula ikusi baino serioago, lurrez gaindiko zerbaiten berri emateko tenore zai-

lean zegoela zirudiela. Hasperen luzea egin zuen.

– Hirurogeita zazpi urte ditut. Ez dut mundu honetan luze iraungo. Ez ditut halako inpresio lauso batzuk baizik gorde nire haurtzaroaz. Inoiz maite izandako jendearen aurpegiak nahasi egiten zaizkit, aita eta ama zirenak, osabak, izebak, anai-arrebak, lagunak, ikaskideak... gehienak joan egin dira; askotan ez ditut aurpegiak gogoratzen, eta haien oroimena umore, jario, ibai bihurtu zait barrenetan, arimaren txoko ezkuturen batean. Neuzkan ilusio gehienak erdizka bete ditut, eta beste erdiak frustrazioak dira; bizitzak ekarri nau komentu honetara, eta, Jaungoikoak lagun, hemen emango dut azken hatsa. Fedeak lagunduko dit azken txanpari ekiteko unean, lagunduko dit, lagundu beharko dit. Gaixotasunaren aurrean. Zaharreriaren sufrikarioaren aurrean. *Lagundu beharko* dit. Fedea noski da bizitzaren justifikaziorik erabatekoena, kristau batentzat; baina gizona beti gizon, saskipetik ere: ahula, mendrea, ezgauza... Santuenak ere bere ahulaldiak ditu, bere alde ilunak, bere amildegi hondogabeak... Eta une horietan, san-

tuenarenean ere, zalantzak bazterrak harrapatzen ditu, etsipenaren koloreek ez diote berdeari tokirik lagatzen, eta mila galdera ernetzen dira, fede ahul horrek ezin izaten dituelarik horiek denak erantzun... Eta, guztien gainetik, azken galdera sortzen da: pena merezi izan du, benetan? Bada, nik, aurreko egunetik aurrera, *liburu hori* zure eskutik jaso eta irakurri nuen egunetik, ozenki erantzun dezaket: bai, pena merezi izan du... Prosa leun eta dotorez gizon gazte batek idatziriko liburu sintzeroa da, nortasun sutsu eta bizkor baten erakusgarri, herkide kementsu eta gutxi bezalako baten ideia ematen duena. Susmatu bezala, euskal hugonote bat da, kalbinista, herexe bat, katolikoek lapurtua, oinperatua, engainatua, laidotua sentitzen dena. Jaungoikoaren maitasunaz, kleroaren orduko ustelkeria Gauza Guztien Kreatzailearen aurkako iraintzat hartzen duena. Ikasi egin duen gizon kultua da, munduaren berri badakiena, letraren eta kulturaren bidez lagundu nahi diena armaz ari diren bere sendikoei, bereganatu ahal izan duen kultura luzeak eta pribilejiatuak haiei ere onuraren bat ekarri behar dielakoan. Eta, horren

kariaz, sekulako karga, erlijiosoa ez ezik politikoa, duen liburua idatzi zizun. Liburu antologikoa, euskal *moderniaren* oinarria osatzera deitua behar zukeena, ezbairik gabe. Gure kultura, gure historia, gure herriaren katebegi galdua. Liburu historikoa, euskal literaturak sekula santan ekoiztu duen libururik garrantzizkoena, guk geuk geure buruaz daukagun iritzia errotik aldatzera deiturikoa. Euskal Herriak ere munduaren ikuspegi modernoari irekitzen zioten garai haietako haizeak edan nahi izan zituela behin-be tiko demostratzen duena. Euskaldunez egin, idatzi eta barreiatu diren topiko txar guztiak –letrarik gabeak, basatiak, zakarrak– kolpe batez ezabatzen dituena. Mapa politikoan ordurarte zeukan tokia galdu ondoren herri hau deserri bihurtu zela zailtasun askorik gabe itsuenari erakusten diona. Baina hau ez da harrigarriena, zeren, batak bestearekin, askok pentsatu baitugu lehen edo beranduago horrelakoren batek azaldu behar zuela bazterrotan. Harrigarriagoa da ordea, nork idatzirik den jakin ahal izatea. Harrigarriagoa eta, era berean, poliki pentsatzen denean guztiz logikoa. Bai, poliki pentsatzen denean liburu horrek,

garai horretan, egile bakarra baino ezin zuelako izan errekako ura bezain gardena da; bost mendetako propaganda txarrak itsutu ditu zoli genituen begiak. Eta agerikoa behar zuena harrigarri bilakatu gure adimen maskalduarentzat. Adiskide, hau ikasgai izugarria izan da niretzat. *Aditua, jakintsua* nintzelakoan, eta ez naiz haur sano batek erraz ikusiko lukeena ikusteko gauza izan. Aitortu beharra daukat: ez naiz inor, ez naiz ezer.

Hizketan egin bitartean, komentuko ateraino iritsiak ziren, azken jeep-a errepideko lehen bihurgunetik nola desagertzen zen ikusteko unean. Egozkuek Eza hermano atezainaren zulora bideratu zuen, esku-gonbidapen batez.

– Nork idatzi zuen, bada?

– Jainkoarena ez izan arren, begiramen handiegia diot nik izen horri ahotan nolanahi hartzeko. Asmakizun baten bidez adieraziko dizut, zerorrek asma dezazun... Baina non arraio sartu da hermanoa? –artean atezainaren zuloan zeuden– Benetan beharrezkoa denean ez da sekula azaltzen.

– Nork idatzi zuen?

– Poliki, adiskide, poliki. Gauzak banan-banan... Ez al duzu esan lehen non ezkutatu dudan jakin nahi zenuela? Tira, bada...

Hermano atezainaren zuloko apalategi txikia nahasia zegoen, inoiz baino gehiago, beharbada. Aldizkari entsalada bat bazegoen, non *Marca, El Mundo Deportivo, Quiz, Penthouse, Playboy* eta *El Jueves* aldizkarietako ale ugari ikusten baitziren. Egozkuek eskua sartu eta lehen aldizkarigeruza hori zeharkatu zuen. Azpikoa intelektualagoa zen, Estefaniaren nobela mila eskutatik pasatuak eta *Gorila*-ren tebeoak erruz baitzeuden. Argitalpen kaos horren azpi-azpitik Egozkuek azalak gorrixkak zituen liburu txiki eta zahar bat atera zuen, garailearen irribarreaz.

– Esan dut, bada. Komentuko tokirik segurueena –eta Ezak liburua harrapatu nahi zuela ikusirik, berau erretiratuz eta esku bat altxatuaz–. Eta orain asmakizuna –liburuxka eskuinaren ahurrean zeukan, eta ezkerra gainean pausatzen zuen, fereka egiten ariko bailitzaion–. Oraintxetik aurrera katebegia dela adierazten dizudan liburu honek aitzin-solasa dauka, zeinean kontatzen baita nolakoak izan ziren argitara eman

ahal izateko gorabeherak. Eta kontatzen da, adibidez, Parisen inprimatua dela, 1530 urtean, eta Francisco I Frantziako Erregearen etxeko inprimatzaile nagusia zen Geoffrey Tory-ren etxean imprimatua dela, eta zalantza zein beldur handiak izan zirela argitara eman baino lehen, bere edukia zela kausa, are, Francisco I Erregeak ez zukeela inprimatzeko baimena emango bere arreba Margaritak, aipatu behar ez dizudan beste Erresuma bateko Erregina berau, bere buruari egindako mesede bailitzan eskatu ez balio, egilea baitzen bere menekoa eta Erresumako senitarte nobleenetako baten semea...

Ezak ahoa idortua, lerderik gabe zeukan.

– Azpilkueta?

– Ez noski. Azpilkuetakoa Erromara emana zegoen. Gure egilea baino zaharragoa izaki, gainera.

– Orduan?

– Esango diat orduko familien berri. Inportanteenak, baina. Edozeinek ezin izango zuen semea Parisa ikastera bidali, garai haietan. Bakarren batzuk bai. Nortzuk? Errepasatu ezazu

nomina: Azpilkuetarrak, Belzunegitarrak, Garrotarrak, Ollokitarrak, Jasotarrak...

– Jasotarrak!!??

– Bada Jasotar bat, Parisen ikas...

Ezak ez zion esaldia bukatzen utzi. Zorabioak jota zegoen.

– Ez! Ez liteke! Esaidazu harpa joka ari zarela!

– Benetan ari naiz

– *Horrena!?* –bazirudien Eza bera ere ez zela izena ahotan hartzen ausartzen–. Baina, ongi ulertu badut, bederen, baina, ondoren gertatu zen guztiarekin, *egin* zuen guztiarekin –protesta modukoa zen Ezarena–. Nork eta *horrek!* Ez liteke! Okerren bat egon behar du...

– Ez dago okerrik. Eza, adiskide, ulertzen dut zure ezin sinetsia, baina beharbada ez da hain harrigarria, alderantziz, xehetasun guztiak bere tokian txertatzen dira... Zer diote protestanteek bere misio-lanari buruz? Axalekoa izan zela, XIX. mendeko misiolariek Japon eta Txinan misio suntsituak baizik ez zituztela aurkitu, bere misiolanak ez zuela sekula eduki eskrituren oinarria, abenturazalea zela santu baino areago... fedeki-

de despetxatu bat baizik mintza ezin daitekeen moduan mintzatzen dira. Bestalde, nork uka dezake Ekialde Urrunera joateko arrazoi nahikoa izan zuela? Izan ere, nork irakur dezake humanoen arimaren hondoan, azken motibazioak, azken nahi ezkutuenen berri jakin ahal izateko? Amonasro, etiopiarren errege bera da Aida, bere alaba, txantajeatu nahi duena Radamés bere maitalea traiziona dezan, bere klasekoen interesen alde; esan nahi dut: zer ez zuen egingo seme prestu batek bere familiak, gerra bat galdu berria, ohorea, lurrak, ondasunak eta omen ona berreskura zitzan? Ez al zen lehen hartutako bideak, bestek okertutzat jotzerakoan, gogo gehiagoz edo gutxiagoz, zuzentzeko gertu, prezio horretan bere sendia lehengo egoerara itzultzea lortzen bazuen? Zer gelldituko zen, orduan, Europa osoan berea bezalako izpiritu zohardi eta suharra erakarriko zuenik? Zer gelldituko, ustelkeria intelektualaren aurkako borroka galdu duen batentzat, erdeinua eta iraina besterik? Ez al zuen duinago kausituko fede eta helburu berriak besarkatzea bazterrotan bil litzakeen trufak eta laidoak jasatea baino? Eta, bestalde –finitu

zuen Egozkuek, naturaltasun osoz–, gauza jakina da behin erretzeari utziz gero, erretzaile ohiak, damutuak, direla tabakoaren aurkako gurutzada bortitzenak eta intransijenteenak bultzatzen dituztenak...

Ezaren irria apal jaio zen ezpainen ertzean, *in crescendo* joan, eta minutu batera karkailak Aitorgoitiaren inguruko pagadi guztian entzuten ziren.

–7–

Itxoitea, besterik ez zegoen, eta Ezak begira egotearen gozo-mikatzak dastatzen zituen, ego-era hori bedeinkapena edo madarikazioa ote zen oraindik erabaki gabe, bigarrena sinesteko ger-tuago, hala ere, bere buruarekiko bakarrizketan murgildurik eta Havana Club 7 urtekoa erosi be-rriari atxikia. Maiz ez dakigu bizi garela amesten dugun edo amesten dugula ustean bizi garen. Hitzak ditugu leungarri. Ideiak osatzen dituzten hitzak. Ideia okerrak eta zuzenak, okerretik be-zainbeste zuzenetik ere badauzkatenak, gehie-nak. Hitzak ditugu traidore, parabisu berriak ire-kitzekoak bezala ohol salbagarriak hondoratze-koak. Egiaren izenean mintzo gara gezur baten magalean hiltzeko. Gezurrak, alimaleenak ere, ez du inoiz aldeko lekukorik falta. Hain du itxura ederra. *Et voilà justement comme on écrit l'his-toire.* Sarraskiaren historia, zer besterik. Voltai-rerena, omen, baina ez dut uste lehena izango zenik, ezta azkena izango ere. Gizon batek erraz egin dezake borroka gezur osoa den gezur baten

aurka, baina ez da erraza egiatik puxka bat, handiagoa edo txikiagoa, duen gezur baten kontra borroka egitea. Ekialde Urruneko ebanjelizatzailerik garrantzizkoena, bakarrik hamaika urtetan 700.000 arima fede egiazkora itzuli zituena, kalbinista porrokatua izan zela lehenago? Bere pasio egiazkoek ez eta bestelako interes sasikoek, besteren presioek, lerratu zutela beste aldera? *Flutti di sangue scorrono sulle cittá dei vinti... Vedi? Dai negri vortici si levano gli estinti... ti additan essi e gridano: per te la patria muor!* * Arraioa! Kutsakorra duk, gero, *Aida*ren istorio hau, hala jarraitzera arrazoia eman beharko zioat apaiz kontraesankor eta demiurgo horri! Eta horrek ezer aldatzen al du? Horregatik uzten dio Ekialde Urruneko ebanjelizatzailerik garrantzizkoena izateari? Ez, bistan da. Baina *gertaera guztia* ezagutzeak hankaz gora irauliko luke bost mendetan zehar barreiatutako doktrina ideologiko intsidiosoa, gertaeren parte bat lotsagabeki ezkutatzean oinarritu dena, doktrina ideologiko infamea, ukatzailea, herra-ekarlea, gorrotagarria eta gorro to-pizgarria. Gezurrik pozointsuena egia guztia ez esatea baita, eta Ekialde Urrune-

ko ebanjelizatzailerik handiena ez zen jatorrian katolikoa izan, kalbinista baizik.

Azken esaldia gustagarria gertatu zitzaion, eta errepikatu egin zuen bere baitan, halako batean ozenki errepikatzeko tentazioari eutsi ezin izan zion arte. Kalbinista, aizue. Zuen santurik handiena kalbinista bat da. Akuiluk zioen Ekialde Urruneko harakina barazkijalea zen. Tenorio homosexuala, Shakespeare analfabetoa, Gandhi hiltzaile ankerra, Malcom X zuria, Hipokrates albaitaria... Eta bi basokada ron-ek areagotu zioten sabeleko gune zehaztugabe baino sakon batetik gora zetorkion algarazko arnasa. Areagotu ez ezik tinkoagotu, sendoagotu, abesbatza baten algara polifonikoa zirudiela jaulkiarazi arte. Faltsukeriaren eta manipulazioaren agerpenek oro efektu berdintsua eragiten zioten. Algara eta politika hidrografikoaren urtegi guztiek ezin aplaka zezaketen egarria. Baina bahitua zeukaten Margoten irudiak seko bat-batean eten zizkion barre egiteko gogoak. Ezker eskuaz heltzen baitzion ron botilari, bakarrizketa alde batera laga zuen ezker esku tabernari horrekin mintzatzeko, eta ekatzak, hi, ekatzak, esan zion,

bota zak xorta bat, egarri naiz eta, zergatik autosuizidatu edari iparramerikar edo europarrekin, mozkor giten Havana-rekin, hordiaren lasaia gozatu ahal izateko duintasuna galdu gabe, *sobria ebrietas*, jakina, aspaldiko amets zahar eskuraezin hori. Eta behin basokada ron eskuin eskuan zuela, altxa eta solemneki aldarrikatu zuen:

– Nire besoa hire alde jarri ezin izan dudanez, Fidel, gibela eskaini nahi diat une honetantxetik populuaren eta iraultzaren alde.

Ondorengo segunduetan kalkulatu nahi izan zuen zenbat hektometro kubiko ron izango ziren beharrezko hainbeste mendetako infamiak ito ahal izateko, eta kontuak ez zitzaizkion ateratzen, itsaso oso bat bai bederen, Karibeko herrialde guztien artean ehundaka urtetan produzi zezaketena baina askoz gehiago, noski, kontuan hartu gabe infamiek, halako batean igerian ikas lezaketela, honezkero igerian ez bazekiten, behintzat, zeina oso dudatzekoa baitzen; eta inguruan begiratzea nahikoa baitzen dudak edukitzeko. Inguruan begiratzea eta ikustea zenbat litro edari alkoholdun bidaltzen zituzten eztarri-

tik behera gizagaixo haiek, zenbat edate-saio eginak ziren infamia-dosi izugarri horiek eta guzti bizirik iraun ahal izateko, eta hala ere alferrik zen, marka bat bezala baitzeukaten ariman, gero aurpegira maiz igotzen zena, argiro erakusten zuena infamiak igerian ikasiak edo ia guztiz ikasiak zirela erakusten zuena. Nola ez zuten bada, edukiko, bilaukorta honetan, gezur ikuilu okaztagarri halakoa, bilaukorta, bilaugorte, *Doilorland*, denek ogi puska platerean sartzeko prest dauden honetan, Iskariotearen musua amarena bezalakoa irudi lekizukeen honetan. Ezak beste basokada bat igorri zuen tripetara, eta berriro altxatu zen:

– Fidel, hire ahalegin ekonomiko izugarriak ez dezala ahantz azken neurri hau, erabakigarria izan daitekeena: saia hadi herri honetako gibel guztiak, alkohola metabolizatzeko ezagutzen diren makinarik perfektoenak, edo ahalik eta gehien, bederen, hire kausaren alde altxarazten.

Komunitatearentzako erreferentzi punturik garrantzizkoena, to, to, eta euskalduna zelakoa ahantzi, erresuma atormentatu eta hondatu batean bizi izan zena, to, tormentu fisikoaren bela-

rri belztuak edozein egunetan dardarrean jartzen gaituenean, to, eta ez nauk omenka ari, ez horixe, nihaurk ikusita baizik, ez pentsa, eta non arraio edukiko dute Margot, zer alukeria egiteko gauza izain diren, aita eta anaiak borrokan eta ama, Maria, egunero negar batean, Maria deskontsolatua ezizenez ezaguna izateraino, berarentzat inportantea dena guretzat ere bai: esango al duzue hemendik aurrera beste hainbeste? Gure nortasunaren adierazgarririk funtsezkoena! To, to perla erretolikoa, polita, gero, ahoa bete hortz esateko modukoa. Zer nortasun, baina? Zein sartzen da gure horretan, baina? Kiskalitako herexeak ere bai? Zer nortasun lezake errauts baino ez denak? Ekatzak beste pote bat Havana, handia baina, parrez lehertu edo parrez erditik ireki eta hustuteko gertu naukazubie, gezur eihera halakoak, aiko maiko ederki egosia, emaidazue Havana, emaidazue Havana ausarki, edantzak Havana Club, herri tutulikatua, zuek, zuek, gibela oraindio ezertarako daukazuen horiek, handia, galanta, borobila, hutsa, hiruko urrea hiltzeko bateko urrea ez duzubie sekula edukiko ta, horra hor dena, horra, irudi u-ni-ber-

tsa-le-na, unibertso konetakoa, bestekoa bebai, galaxia guziyak be barne, handiena, handiena, horixen, han-di-e-na, Finis Terrera erromes gateko bezin andiya, ustelduezina, narkotiza nazazu, poxi bat geyo, zerbitzari leial zatzaizkidan ezker esku horrek, horrekin, korrekin, zazpi urtekoakin, alako ugari bear zetiat neonek kau bezalako ale puska disolbatzeko, hemen gezurra esan egin dutelako, ulertzen? erran egiten den zerbait da guzurra, ahoz erran, egiaren bat ere bai tarteka, baina beti erran, kala, abuarekilan, inoiz ez idatzi, izkiriatu, sekula ez orain oso gutxi artio biñipin, sekula ez Ekialde Urruneko ebanjelizatzailearen arrain-labana erabiltzeko saiakera deskubritu den arte, beintzet, eta orrexengatikan guzurrak anka, buztan, zain llaburrak, motxak dizkizu, guzur borobil horietakoak errateko bezik ezpaikara orain gutxirarte gauza izan, esateko, gainera, ez bear lez izkiriatuteko, bertzek bezala, ta olaxen gusurra mingaiñean edukitzen den zerbait jok, mingaiñetik hortzera, ahoko zulo betean urten, jario ezpain alderdi bietatik, ezpainetan erabili, arnasa adina eduki, baita ere, zer naizuesatea, zertako geio, nik Havana geyo biyat,

bestela ezindiat, gaña harrapatzen nau bestela, oinbertze putakumia dabilela ikuste hutsak kolikak ataatzeko punduban ezartzen bainau. Egiaren kolorean gezurra esan beharrak, horrexek sortzen baititu munduko gerrak, eta esan zuena, erran bazuken, erran ziken, to, emaiok bira mundubari eta jantziagoak bai aurkitu, akaso, biño ez berdaderoagoak, to, eta non eukiko juek Margot biyotzekúa, non eta nola, eta horrek be, horrek batezbe erretzen zizkidak erraiak, bertze trago bat inbijuat, *sobria ebrietas*, jakiñe, oaindik etxuat duintasuna galdu, ez guzti guztia bederik...

Eta mozkorraldiak eragindako degradazio bidea erdi korritua zeukan une hartan, botilari laurden bat baizik gelditzen ez zitzaion une hartan, hain zuzen, txirrin zorrotz bat aditu zen. Inork hots egiten zuela telefonoz, alegia.

* Odol itsasoak erortzen dira bentzutuen hirien gainean... Ikusten? Zurrunbilo beltzetatik hildakoak altxatzen dira... Seinalatu egiten zaituzte, oihu egiten dizute: aberria zuregatik hiltzen da!

–8–

– Ezagutu duzu ahotsa?

Ezaren lepoa hondoratu zen bizkarren artean, galderaren erantzuna ezezkoa baino ezin zitekeela izan adierazi nahiean.

– Nolakoa zen? Pitzatua, zemaikorra? Zigarro pila bat erre ondoren ozpin trago bat edan izan balu bezalakoa?

– Bai, horrelakoxea –esan zuen Ezak, jerez ozpina edo sagar ozpina ote zen galdetuko ez ziolako esperantzan–. Komisarioa dela esan dit, behintzat.

– Orduan bera da, Petronio.

– Neskarekin hitz egin ahal izan dut; bon, hitz egin baino, ahotsa entzun diot –Ezaren betarteak, nekatua eta ajeak jotakoak egonagatik, aspaldi ez bezalako atsedena islatzen zuen, hori asko ez bazen ere, eta Margoten ahotsa entzun ahal izana ez bide zen atseden horren arrazoirik txikiena.

– Ongi al da?

– Putakumeka ari zitzaien.

– Ez da oso jarrera zuhurra.

– Badakizu nolakoak diren oraingo gazteak.

– Zein da tratua?

– Neska liburuaren truke.

Egozkuek konpaktoaren bolumena igo zuen. Aitorgoitiara heldurik, hermano atezainak zuzenean bidali zuen Eza Egozkueren gelara, eta han, iritsi zelarik, *Aida* katxarro horrek ematen zuen ahalbide ia erabatekoan entzuten ari zela ikusi zuen, ero itxuran, eraldaturik zirudiela, bere Tabor mendi partikularrean bailegoen. Ahots betean ari zen, ezin ezkutatuzko sentimenduaz:

– *Una larva orribile fra l'ombre a noi s'affacia... Trema! le scarne braccia sul capo tuo levó... Tua madre ell'è... ravvisala... ti maledice...* *

Une batez esan behar ziona entzuteko beste buru-gaitasunik izango ote zuen zalantza izan zuen, baina bere beldurra funtsik gabea suertatu zen; Egozkuek, Eza ikusi bezain pronto, bolumena jaitsi eta arestiko elkarrizketa azkarra eduki zuten. Berau bukatu bezain pronto, bolu-

mena berriz igo eta lehengo piura eraldatua, lurretik kanpokoa hartu zuen:

– *Non sei mia figlia! Dei Faraoooooniiii tu sei la schiava!* **

Ezak ordu luzeetan metatutako tentsioa askatu zuen, nerbioen kontrola galduta, eta apaizari sotanaren paparretik heldu zion:

– Egozkue! Jainkoarren, Egozkue!!! Uztak opera puta hori behingoz!!!

Egozkuek kristauen bertuteei buruz egiten zuen bere gisako interpretazioan ez zen sartzen beste matraila askotan jartzea, ez eta edonork astindua izatea. Beste edozein egoeratan ez zuen Ezak eskuak gainean paratzea onartuko; baina hain zen egiazkoa, berezkoa, erakusten zuen zorabioa ezen Ezaren keinu bortitzak ustekabean harrapatu baitzuen, haserretzeko betarik eta asmorik gabe. Zegoen hodeitik errealitate ukigarriagoetara jaitsi zen, bederen.

– Lasai, gizona, lasai. Zer dugu, bada?

– Petronio komisarioak, edo dena delako horrek, neska liburuaren truke esan du, eta horixe egin behar dugu minuturik galdu gabe, trukea prestatu, aditu!?

– Et, et et et... Polikiago, gizona –Egozkue erreakzionatzen ari zen, eta bazirudien orduantxe hasten zela hartzen bestearen aire erronkaria ordurarte, esan gabe bazen ere, elkarren artean finkatutako hierarkiaren mailak irauli nahi izatea legez–. Liburua ez da komentu honetatik aterako, kosta ahala kosta.

Eza bere baitan bildu zen, oldarra prestatzen duen zezena bezala, eta zer pisuzkorik edo ebakitzailerik bilatu zuen inguruan, komentzitzeko argudio gisa. Egozkuek pistola bat atera izan balio horrek ez zukeen bere oldarra geraraziko. Mihira etorri zitzaion mehatxurik bortitzena jaulkitzeko keinua egin zuen. Egozkuek, aldiz, kasu handirik egin gabe esku bat paratu zion lepo gainean, egoera bortitzegi bihurtu baino lehen.

– Esan dut liburua ez dela komentu honetatik aterako. Ez dut esan neska libratuko ez dugunik. Ez gaude horren etsituta.

– Zu ez beharbada, ni bai, ordea!!

– Errekurtsoak badauzkagu. Fio zaitez. Behar bezala erabiliko ditugu.

– Egozkue, ezin dugu denborarik alferrik galdu.

– Ez. Zuretzat, ordea, hamar segundu galtzea zerua zure buru gainean amiltzea bezalakoa da, une honetan. Ni buru-hotzagoa nauzu, eta badakit oraindik erraz gal genezakeela pare bat egun. Neska libratuko dugu, eta liburua ez da hemendik aterako. Ikusiko duzu.

– Bai!? –Ezak lehen aldiz pentsatu zuen seriotasun guztiz apaiza zentzumena galdurik zebilela, eta beldur zen–. Nola, bada?

– Petronio komisarioa ez da, afera guzti honetan, hirugarren mailako makarra besterik, pisu askorik gabeko petral bat baino ez, lan zikina egiten duen morroia. Mina, min fisikoa, alegia, eragin dezake, baina besteren aginduz, beti ere. Besteren aginduz edo bestek ez ikusiarena egiten dutenean. Guk gorago joko dugu. Petroniok negoziatu nahi duela? Ongi da. Baina ez dugu berarekin bakarrik negoziatuko. Kasik esateko nago negoziazioa berak bere mutur zikina batere azaltzen ez duela egin litekeela... Baina, bai, neska bere eskuetan dago, etor dadila Petronio ere. Margot libratzeko eta liburua ez galtzeko, ordea, negoziazio, nola esan, osoagoa egin beharko dugu; etorri beharko dute, adibidez, Go-

bernadorea, Barne Ministroa, Kultur Ministroa, bertako oposizioko ordezkariren bat...

– Bai, eta EEBBetako lehendakaria, eta...

– Ez duk sinesten apaiz xume honek horrelakorik lor dezakeenik, ezta?

– Jakin nahiko nola, bederen.

– Badira moduak. Nork bere aldetik puska jartzea, horixe baino ez da. Zuk ere bai, noski.

– Nik!?

– Zuk neska libre ateratzea nahi duzu, ongi dago hori, zure goren mailako jendetasuna eta altruismoaren erakusgarria da, noski... Baliteke, ordea, bestelako interesik ere edukitzea, hain zuzen ere, hain altruismo orokorrekoak ez direnak, ni eta nire kondiziokoak goza ezin gaitezkeen plazer klase guztiz mundutar batekin loturikoak, emearen xarma eta tirazoarekin zerikusirik dutenak, zabarkeria barkatzen badidazu emearen usainarekin zerikusia duketenak...

– Buka dezagun, Egozkue. Zer nahi duzu?

– Neska zuretzat eta liburua niretzat.

– Neska libre utzi liburuaren truke, esan nahi duzu, noski. Ongi. Baina otso hori harrapatzea ez da erraza izango.

– Badira metodoak, esan dut lehen.

– Bai, jakina.

– Bilera bat egingo dugu hemen bertan, Aitorgoitian. Barne eta Kultur Ministroak etorriko dira, komisarioa eta bera bezalako konpartsa batzuk ere bai.

– Noski.

– Ezetz? Pertsona oso berezi bat etorriko dela esaten diegunean ezin izango diote gure proposamenari ukorik egin. Pertsona hori nor den? Florencio Juandeaburre, jakina.

– Dakidanaren arabera, mundu erdia bilatzen ari da Juandeaburre, eta Interpolek berak ez omen daki non dabilen.

– Bi egun –apaizaren begiek dirdir egiten zuten–. Bi egun eta hemen izango dira guztiak, Juandeburrerengandik hasita.

* Espektro izugarri bat ageri da itzalen artean... Dardar egizu! Haragirik gabeko besoak altxatu ditu zure buru gainean... Zure ama da... ikusi... madarikatu egiten zaitu!

** Ez zara nire alaba! Faraoien esklabua zara!

–9–

Bi egun lehenagotik poliziak moztu zuen Aitorgoitiara zihoan bide-adarra, inondik ere ikusten ez ziren obra batzuen aitzakian. Denbora amatatu beharrez bertatik paseoan ibilitako inor izan balitz, harriturik ikusiko zukeen denbora tarte txikiaz bereiztutako dozenerdi bat kotxe ofizial beltzen agindura hesiak nola irekitzen ziren ustez itxitako bide hori agintaritzaren ordezkariek zeharka zezaten. Aitorgoitiako ibilgailu-parkeak, usu ongi hornitua, ale berriak bazituen, eta ez nolanahikoak.

Eza, aurretik Egozkuerekin hitz egindakoaren arabera, argazki-makina eta guzti joan zen bilera hartara. Poliziak bidea itxi baino ordu batzuk lehenago hartu zuen Aitorgoitiarako bidea, eta hantxe gelditu zen zain, fraile batek amultsuki utzi zion zeldatxo batean, Egozkueren agindua jaso zuen arte. Berau ez zen iritsi batzarkide guztiak liburutegia egiten zuen gelako haritzezko mahai inguruan bildurik izan ziren arte. Hori horrela izan zenean, ustekabean sartu eta bertan

zeuden guztien argazkiak hartu zituen, lehenengo protestak –protesta biziak– entzun zirenerako karrete osoa egina zuelarik: eta hala, betondo itzeleko gizaseme baten lehen plano bat hartu ahal izan zuen, begirada infinitoan galdua liburutegia presiditzen zuen Jesukristo gurutzatuaren irudi lazgarria lagun zuela, argazki hondoan; edo eta muki-poilak egiten denbora pasatzen zuen beste beton do-zabal batena; gainerakoen ezaxolati, eskua trajearen maukatik pasatzen zuenarena; metal-ur bonbilatxoa etsipenez eskuan hartzen zuenarena; lo egin berriko orratzak urduritasunezko kolpeez ezabatzen zuenarena, eta beste halako batzuk: bilduma ederra benetan. Orokorrean esateko, han zeuden bildurik ikus daitezkeen jantzi gris inpekableenetako batzuk, baina ezustean harrapaturik, eta, hortaz, argazkia prestatu egiten denean berorietan agertzen den larderia definigaitz hori galdurik. Han zeuden, bizkarzainak eta zerbitzuko pertsonaiatxoak alde batera utzita, Barne Ministroa, Kultur Ministroa, Gobernadorea, Petronio komisarioa, Luciano Goñi eta oposizioko faktotun aurpegi hieratikoa. Askoz beranduago, Ezak argazkiak errebe-

latu zituenean, ezin izan zuen uxatu, halako jantzi dotore eramanagatik ere, denak galtzontzilo hutsetan erretratatuak zirelako inpresio deserosoa. Bizkarzainak, asaldaturik, argazki-makina apurtzeko xede garbiaz altxatu zirenean Egozkuek alto jarri zien:

– Barkatu, jaunak. Argazkilaria ez da prentsarako ari. Etxeko argazkiburua da. Gure bilduma partikularrerako ari da.

Batzartuek ezina adierazten zuen marmar mingotsaz etsi zuten. Ezak bereganatua zuen zeremonia-maisuaren papera, ezin hobeki betetzen zuena, hainbeste distiraz non han bildutako guztiek bere akolito mendreak baizik ez baitzuten ematen, bere plazagizon dimentsioari hori baino gutxiagoko erronka txiki geldituko zitzaiolako ezin argiago utziz. Ikaragarri gozatzen ari zen.

– Gure deliberoek egun pare bat, are, hiru egun har litzatekeela aintzat hartuz, Teatinoen Gorengoak baimena eman dit zeuek denak komentu xume honetan ostatu kausi dezazuen, berauek irauten duten denbora guztian. Hortaz, gure zelda probeetan etzan eta gure janari ez-

deusa dastatuko duzue bilera honek iraun bitartean; zeuen goren graduari egoki zaion erosotasun mundutiarrik ez duzue hemen aurkituko, baina zeuen izpiritu zohardiak aise kausituko du solaserako pizgarri eta bake iturririk behin-behineko plazer gabetze honetan, are kontsideratzen baduzue hauxe dela komunitate honetako fraideek urtean hirurehun eta hirurogeita bost egunez eta egunean hogeita lau orduz gordetzen duten bizimodu apala eta bere baitan bildua. Teatinoen Kongregazioak ez du beretzat ohorerik edo eta jendaurreko ezagutzarik gizarteari egiten dion zerbitzu xume hau dela kausa; alabaina, gure komunitateak, arraso apala eta baliabidez urri baita, eskertu egingo du, gure Jaun miserikordiaz beterikoaren izenean eta bere bihotzean bat eginik, zeuen borondatetik eror litezkeen eskerroneko agerkundeak, nola bailirateke amoinak edo eta edotariko sari asmo onekoak. Ihardunaldi hauek bukaturik hitz egin ahalko duzue –hala espero– hermano ekonomoarekin, atxilotu berri izanagatik inongo herra gaiztorik ez dizuena, zeinak ez baitu etsiko

zeuen borondate ukaezinari bideak eroso eta leun paratu ahal izan arte.

Entzuleen artean katarroaren adierazgarri izan ez eta beste zerbait adierazi nahi zuten marrantak entzun ziren. Egozkuek bere aldera itzularazi zituen pazientzia ezaren adierazgarri hauek, kupidarik gabe.

– Aurretik gaztigatu behar dut baldintza bakarra dagoela konferentzia hau egin ahal izateko: une honetan bertan agindu dezazuen komentu honetako ekonomoa egiten duen gure hermano Alberto Amutxastegi aske utzi dezatela; baita irratitik ahots sakon eta gozoaz eta kultura luzeaz mintzatzen den neska errugabe eta inuzent hura ere. Eta, azkenik, etxe honetako argazkilariari ohostu eta apurtu zenizkioten argazkigintza-materialak ere itzul ditzazuen.

Entzuleriaren artean begirada esanguratsuak trukatu ziren. Alegia, Barne Ministroak koleraz gorritua begiratu zion Gobernadoreari, eta honek, bere aldetik, infernuko garrak zurbiltzeko bezalako begiradaz egin zion so Petronio komisarioari. Eztarriko marrantak areagotu ziren, Gayarre edo Arriaga antzokietan burgesia gaizki lo

egindako batek Mozart-en sinfonia baten bi mugimenduren artekoa aprobetxatuko bailuen arnas aparatuarekiko zor historikoak berdintzeko. Gobernadorea, oraindik aztoraturik, arduratu zen gaiaz:

– Atseginez esan ahal dizut bai bata eta bai bestea aske uzteko agindua eman dugula gaur goizean bertan, hona abiatu baino lehen, eta biak honantz datozela, euren presentziak hemen gaudenen arteko edozein susmo txarrik uxa dezan.

Ezak, argazkien gorabehera eta gero denen oharkabean gelako izkina ilun batean eseri zena, komentu osoan entzun bide zen lasaitasunezko bafada bota zuen, horrelako eskandalurik sortzeko borondaterik eduki ez bazuen ere. Lipar txiki batez soako guztiek bere irudia izan zuten zentru. Barne Ministroa, hala ere, omen zen konforme ez zegoen bakarra. Denbora alferrik galtzen ari zelako susmoa egin zitzaion. Batere gustokoa ez duen saltsa batean sarturik dagoenari dagokion tonu erdeinuzkoan mintzatu zen.

– Bon... Ez naiz adarretatik ibiliko. Esan zaigu Florencio Juandeaburre agertuko zela bilera ho-

netara; izan ere, hori dela eta gaude hemen gauden gehienok. Gure anfitrioiaren dohainak gutxietsi nahi gabe, azaldu behar dut nire protesta, Florencio Juandeaburre gure laguna ez delako inondik ere, oraingoz bederen, ageri...

Egozkuek, burua pittin bat amilduz eta ezer esan gabe ate ondoko txirrin bat sakatu zuen. Txirrinaren joaldiari prestu erantzunez, atea ireki zen eta hermano atezaina agertu zen, *Kuko* hamaikakoan sartzen ez zuteneko ernegatu itxuraz, bere sekularen sekulako Portland Trail Blazers-en txandal eta guzti, berezko baldarkeria areagoturik hainbeste ttattar aukeraturen erdian. Ai ai ai, pentsatu zuen Ezak, mozoloa ikusirik, ingurubuelta gehiegirekin ari da gure Egozkue, ezer onerako, zertara zetorrek arlote hori eszenaratzea orain, Juandeaburreren zain dagoenean kristo guztia. Baina aiaiai guztiak irentsi zituen atezainak bi pauso aurrera egin eta Barne Ministroaren aurpegian lehengo aldiz piztu zenean, benetan piztu baina, interesaren argia. Ministroak eskuak besaulkiko besoetan bermatu eta gorputza altxatu egin baitzuen apur bat,

emozioa ateratzen ez utzi beharrez dardara arraro batez esaten zuelarik, ahots meharrarekin:

– Florencio... Joño, Florencio... Ez nizkizun grina aszetiko hauek ezagutzen...

Epilogoa

–1–

Aitorgoitiako elkarrizketetan lortu ziren itunek, ehundu ziren akordioek –bi edo hiru alde nola han bildutako alde guztiak ukitzen zituztenak ere– laster eduki zituzten beren ondorioak. Deliberazioneak gogorrak gertatu ziren, orokorrean, eta eztabaidak, sutsuak. Akordio guztiak gehiengo soilaz hartu ziren, han onartutakoa gero bete egingo zela konpromezuarekin, nahiz eta, horrelakoetan ohi denez, zenbait erabaki denon gustoko ez gertatu.

Erabaki horietako bat zitzaion desatsegina, bereziki, Kultur Ministroari: bere dimisioa eskatzen zuena, hain zuzen ere. Hain desatsegin, non, lehenengo une batean, bete ez bete ibili baitzen zalantzan berekiko; badaezpada ere, kargua utzi baino lehen asuntua ahalik eta gehien luzatzera gertu zegoen. Inor berantetsi omen zen, ordea, Aitorgoitiako bilera bukatu eta astebetera bere aurkako kanpaina hasi baitzen egunkaririk garrantzitsuenetan, salatzen zuena enpresari batek –Juandeaburreren izenik ez zen

inon aipatzen, baina– Volvo berria erregalatu ziola ministroarengandik jasotako mesedeen ordainez.

Oposizioko taldeek parlamentuan ager zedin eskatu zuten, kazetariek egurra eman zioten, baina ministroak erabaki zuen aurre egiten ahal ziola kanpaina horri, eta, beraz, ez zuela oraingoz presarik bere burua zaldien hanken azpira botatzeko; are, bere izen onaren aurkako kanpaina hain iruditu zitzaion zital eta zikoitza, gezurtia, funtsgabe eta mixerablea ezen borrokarako gogoa piztu baitzitzaion, eta, lehen aldiz, hasi baitzen pentsatzen agian, defentsa ongi prestatuz gero, ezin izango zutela kargua uztera behartu.

Alabaina, bilera ondoko hamargarren egunean, espero ez zuen bisita bat eduki zuen, Barne Saileko Gutie rrez-ena, hain zuzen. Berriketa askorik gabe bideo-zinta batzuk utzi zizkion mahai gainean, bere erabakia hartzen lagunduko ziotelakoan. Kultur Ministroak bakardadean ikusi zituen bideoak. Ondoren kemenak oro ahitu zitzaizkion. Negar ere egin zuen. Batean Elsarekin zegoen, ohean. Bestean Amandarekin. Esze-

na pare batean kondoiak komunetik botatzeko eragiketa delikatua egiten ari zela ageri zen, piura ezin barregarriagoan. Hiru egunetan ez zen etxetik ateratzeko gauza izan, baina hala ere ezin saihestu zuen Gutierrezen telefono-deia: «Gehiago ere badaukagu» esan eta telefonoa eskegi egin zuen.

Hamalaugarren egunean dimisioa izenpeturik utzi zuen lehendakariaren mahai gainean. Ondoren bere bulegora joan zen bere gauzak biltzeko asmoz. Elsa zeukan zain. Agur esatera etorri naiz –jakinarazi zion–, ez dut ezer zure aurka baina, badakizu, pertsonak aldatu egiten gara, ulertzen? Ikusmiratik desagertzen zelarik inoiz baino ederrago zegoela iruditu zitzaion.

Handik bi egunetara berripaperetan irakurri zuen izendapen berriaren albistea: Jorge, ordurarte bere idazkaria izandakoa zen handik aurrera bere bulegoan eseriko zena.

–2–

Zaletasuna Murcian piztu zitzaion, baina han ez zen apenas aritu. Golflari zen aldetik hura zen bere zelaia, hura bere etxea. Baita sekula ez bazuen erdietsi zelaiko *handicap*-a –70 kolpe– berdintzea ere. Huraxe zitekeen azken aukera Murciako administrazio publikora –non Piperraren Sustapenerako Batzordearen Lehendakaria baitzen– itzuli aitzin. Zulotik sei bat metrora baino ez zegoen. Hortaz, behera begira jarririk, hankak batu eta eskuak gerripean elkartu zituen, pega-pega eginda eduki arte, otoitzean ari balitz bezala, edo, hobe, txiza egiten ariko bailitzan eta *putt*-aren giderra gabe bere kider propioari eusten ari bailitzaion, eta eman behar zuen kolpe erabakigarrian kontzentratu zen, ez baitzen gauza bera, behin Murcian, halako komentario zehaztugabeak esaten ibiltzea edo «han aise berdintzen nuen zelaiko handicap-a» bezalakoak hitzetik hortzera bota ahal izatea.

Kolpea eman zuen, baina pilota ez zen sartu. Dezepzio txiki bat izan zen baieztatzea Goberna-

dore kargutik zesatuko zutela behin ere ditxosozko 70 kolpeen marka lortu gabe. Baina ez zen oso larria; horregatik berdin esan lezake zelaiko marka berdintzen zuela, eta are, dozenerdi kolpe markapetik egiten zituela ere. Murcia urruti zegoen.

Makila-emaileari hurbildu zitzaion, eta ohi zuenez, gerrian barrutik sartuta zeukan alkondara zuria kanporatu zuen, gero agerian gelditzen zen alkondara-muturrarekin betaurrekoen kristalak garbitu ahal izateko. Ondoren txalo batzuk eman zizkion mutilari sorbalda gainean.

– Murcian egongo naizenean zure falta nabarituko dut, Javier.

–3–

Belmontek sasikoa, gezurrezkoa modan jarri zuen arte mototsa moztea guztiz ohikoa zen zezenketari uzten zioten toreroen artean, mototsa bera egiazkoa, ilezkoa zelako, hain zuzen, trentzatua, zaindua. Guztiz ekintza solemnea omen zen, familia giroan egiten omen zena; senitartekoen poza eta toreroaren tristura zuria beltzaren gainean bezalakoak omen ziren. *Frascuelo*-ri 1890eko urriaren 20 batean moztu zioten: bere emazteak mototsa bost zatitan banatu zuen; seme-alabek, banan-banan, moztu zituzten zati horietako bakoitza, emazteak urrea bailiran bildu omen zituenak. Guraizeen eragin bakoitzean *Frascuelo*-ri arima zati bat erortzen zitzaion.

– Mototsa moztu didazue.

– Pozik egon zaitezke beste zer bat moztu ez badi zugu.

Petronio komisarioa mintxuria egin bailitzaion zegoen, begiak zuri, bi ilargi bete bezain

zuri. Gutierrezek egindako akatsen zerrenda gogorarazten zion.

– Lekualdaketa ongi etorriko zaizu.

– Hil egin nauzue.

Lanpostu berria, non jubilatu artean gelditzen zitzaizkion egunak –ez askorik, bestalde– pasatzera kondenatua baitzen, mapetan ere ageri ez zen tokian bete behar zuen, zeregin burokratiko munta txikikoak egiten ihardunez.

Ez zen San Isidrorako barrerarik izan. Zezenak telebistatik ikusten konformatu beharko zuen, nork eta barreratik zein ederki ikusten ziren hain ongi zekien komisarioak.

–4–

– Uste dut ezagutuko duzula seme galduaren parabola; baina, zer ari naiz, komentu batean hainbeste denbora eman eta gero, hori ez ezik eskritura sainduen interpretazio oso bat egiteko gai izango zarela ez dut zalantzarik egiten. Beharrik ez zaituzten apaiztu! Bada, demagun zu zarela etxera itzuli den seme galdua eta ni, zure itzulera ospatzearren, etxeko arkumerik ederrena sakrifikatzeko prest dagoen aita. Bozkario eguna da gaurkoa, jai handi eguna, musikariek jo eta dantzariek dantza egin dezaten, poztu gaitezen elkarrekin eta topa dezagun berriro elkartzen garela ospatzeko. Nahikoa denbora izango dugu gogoeta egiteko, aurrerantzean gure aitasemearen arteko harremanek nola behar duten lehengo errakuntzak ez errepikatzeko moduan atzemateko. Alabaina, aitari aita izatea dagokio, eta semeari, seme. Askatasun handiko semea izango zara, hortik zehar negozio onak egiten segitzen ahalko duzuna aitaren bedeinkapenarekin, inongo oztoporik gabe; baina, zu bezalako

seme prestu bat ezin da bere kontzientziarekin bakean bizi aitaren etxea handiagotu eta haz dadin beharrezkoak diren lanak egin gabe, edo egiten lagundu barik. Aitak ikusi du, ez harridurarik gabe, ez pentsa, bere semearen berezko dohainak nola sendotu diren etxetik kanpo egon den bitartean, seme bixkorra gizon azkar nola bilakatu den, eta orain semearen trebeziak bere mesederako ere izango direla jakinik bozkarioz da. Errusiako sarea interesgarri zait, oso. Ez dugu, noski, arterik erosiko, bestelako produktuak baizik. Aitak esango dio semeari zer eta non erosi, eta semeak bete egingo ditu aitaren nahiak. Portzentaietan ez da arazorik izango; izan ere, seme prestu batek badaki bere aitaren zoriona berea ere badela, aitaren etxalderako on dela berarentzat ere on dena, kalte dena berarentzat ere kalte den bezala... seme prestuarentzat, aitaren interesak eta bereak bat eta bakarra baitira. Berriki zeureganatu duzun heziketa erlijiosoari egoki zaion moduan mintzatzen ari naiz, ezta?

–5–

– Guretzat azken balantzea positiboa baizik ezin daiteke izan: ezin esan dezakegu ministroaren erortzean oso lehen mailako papera jokatu dugunik, baina hala gobernadorearen dimisioak –hein handi batean gure proposamenei esker aurrera eramana–, nola Fundazioko zuzendaritzan ordezkari bat sartzeak gure posizioak tinkoagotu egin dituzte; ez dugu ahaztu behar, bestalde, bileran parte hartu ahal izana bera ere arrakastatzat har dezakegula, asuntu honetan noiz, nola sartu garen eta jokatzeko geneuzkan baza ahulak aintzat hartzera.

Aurpegiko muskulurik sekula mugitzen ez zuen politikaria exekutibarako txostenaren irakurketa bukatzen ari zen gainerako kideen aurrean, zeinek, orokorrean, ikara guztien galeria batetik ateratako esperpentoak baitziruditen. Disimulu-klase guztien maisuak, ziri-sakatzaile apartak, gezurrontzi ez nolanahikoak ziren, gauza bat esan eta beste bat egiten ohituak, *Megarica*-ko biztanleak bezala. Giroa asetasunez-

koa zen, umore onean zeuden. Adinez aurrera joandako gizon batek, hauteskunde kanpainetan parte hartzetik apartatu zutena jendaurreko ekintzetan haur guztiek, bera ikusirik, negarrari ekiten ziotelako, hitza hartu zuen:

– Badago alderdi kezkagarri bat, txostenean gehiegi ukitu ez duzuna: zer dago liburuaz?

Hieratikoak zalu eta bizkor eman zuen arrapostua; izan ere, galdera ezinbestekoa zen.

– Nire iritzi eta aholkua da giroa prestatu behar dela liburuak iritzi publikoan eragin lezakeen ondorio negatiboei aurre egiteko. Izango da hor nonbait buru on pare bat horretaz arduratu dena.

– Ongi da. Baina Madrila joaten bazara gaia pixka bat lantzera ez da gaizki etorriko.

– Eta zer egingo dut nik Erroman –galdetu zuen besteak ustekabeko umorezko ateraldi batez–, gezurrik esaten ez dakit eta?

Juvenalen esaldia entzunda, algaraka ekin zioten, esaldia Juvenalena zela batere ez jakin arren. Gauza miresgarria baita Erromako azti errai-irakurle batek beste azti batekin topo egin eta barre egiteko gogoari eusten ahal diezaion.

–6–

Luciano Goñik jarrera ironiko eta erronkaria hartu zuen, munduko sirena kantuak maiz aditu, eta aditu ez ezik gainditu dituelarik, horrelako gauzen gainetik, oso gainetik dagoenaren antza.

– Gezurra poeten lizentzia da.

Koko Ezaren begirada Goñiren ziluetaren atzetik lerro-lerro eta etzanik hedatzen zen ardo bonbila basoan galdu zen; duda egin zuen Judasen musuaren errepresentazio ugarien errolda bat –Giotto, Durero, Van Dyck, Rembrandt, Altdorfer– errezitatzea edo botila bakoitzeko latinezko zita bat eskatzearen artean, San Martin eta deabruaren arteko kondaira horren antzera. Baina ez zuen ez bata eta ez bestea egin.

Biak eseririk ziren aulki banatan, soto haren ardo-urrin hezeaz inguraturik, eta bien artean, zutik ezarririko upel txiki bat koroatuz, Chàteau Petrus kutxa zegoen, bere hamaika botilekin. Ezer esatea alferrik zela iritzirik botila bat atera zuen kutxatik, eta kolpe azkar batez botila-ahoa upelaren ertzaren kontra kraskatu zuen. Sagar-

doa zerbitzatzeko bezala ezarri zuen botila, baina azpian ez zegoen basorik, eta ardo guztia zoruko ur-zulotik desagertu zen.

– Oliver Cromwell-en Parlamentuko eserlekua.

Goñik burua lehengo lepotik segitzen zuen.

– Oso ongi, oso ongi! –txalo egin zuen–. Gizon handia zara, ezta?

Beste bi bonbilek lehengoak pairatutako patu berbera pairatu zuten. Goñi kezkatu egin zen lehen aldiz.

– Koko, hi, Koko, ez duk...

Laugarren botila oso-osorik birrindu zen zoruaren aurka, eta kristal apurtuaren zaratak amatatu zuen Goñiren esaldiaren bukaera.

– Shakespearek *Macbeth* idazteko erabili zuen silioia.

– E, Koko, Koko... Nahikoa da, ezta? Konforme, haserre hago, ulertzen diat bizpahiru bonbila apurtu izana, baina handik aurrerakoa erokeria...

– Ana Bolenaren garbi-azpila! –aldarrikatu zuen Ezak bosgarren botila, zorura bota baino

lehen, hatz erakusleaz seinalatuz. Kraskada mingarria entzun zen.

– Ez! Itxoin!

Oihuak geldiarazi zuen Eza, seigarren botila eskuan.

– Ez, Koko, ez!! –Goñi arrenka ari zen, negarrez ia–. Erotu al haiz!!?? Oraindik sei gelditzen dituk!! Ez hadi ero izan!! Erdibanatu egingo dizkiagu!! Norentzat duk probetxu botilak horrela alferrikaltzea!!??

Ezak ahotik heldu zion botila bati, eta inguruan begiratu zuen. Ontziak garbitzeko balio behar zuen harria, bere txorrota eta guzti, bi urratsetara baino ez zen. Botilaren hondoa hantxe kraskatu zuen. Nonbait metodo berria gustatu eta beste hiru xehetu zituen, bata bestearen ondoan.

– Utzidak bat, sikiraaagghh!

Goñik, zeharo onetatik aterata eta aparra zeriola besotik heltzen zion, txikizioari alto paratu nahian. Bere ahalegina, haatik, alferrikakoa gertatu zen, eta azken bi botilek aurreko laurek izandako fin berbera eduki zuten. Punperat etorri nahi zuten bi pilota zuri ziren Goñiren begiak.

Desastrea itzulbiderik gabea zela ulertu nahi gabe, edo ulertu ezinik, zoruan belaunikatu eta esku ahurrez bildu nahi izan zituen ur-zuloak ñapurki xurgatzen zuen isurki beltzaren azken tantoak, bafada konprenigaitz eta oihu artikulatugabeen artean.

Ezak irteerako bidea hartu zuen. Une batez ez zuela ezer esango irudi zuen, baina azken hitza eduki zuen Luciano Goñirentzat:

– Ikasi beste hau hire errepertoriorako: *Amicitia inter pocula contracta, plerumque est vitrea* *

–7–

– Argitaratuko duzu laster batean, ezta?

Egozkueren keinuak ez zuela ulertzen islatzen zuen.

– Argitaratu? Berehala? Nork hitz egin du argitaratzeaz? Nor mintzatu da premiaz, presaz? Argitaratu? Ez horixe.

Orain Eza zen ulertzen ez zuena.

– Ez?

– Ez. Zertarako? Argitaratuz gero, zer aterako luke komentuak? Neronek esango dut: ezer ere ez. Jendeak mitoak nahi ditu, ez egiak, are gutxiago jarlekutik eroritako mito birrinduak. Mito bat haustea ez da hain zaila, egin daitekeena da; baina kontuz, mito hori desegitearekin batera ez baduzu beste mito parekagarri bat sortzen, jokaldia zure aurka bihurtzeko arriskuan zaude: jende mitozaleak, hau da, gehiengoak, nahiago izango du mitoaren sinesmen tinkoan irautea zuri bizkarra emanda. Hortaz, beste mito bat sinesten hasiko da, eta zuretzat gorrotoa baino ez du gordeko. Gorrotoa, bai, egoeraren oreka hau-

tsi, bere bizimodu lasaia nahastu, baretasuna izorratu diozulako. Jendeak ohikotasunak eman segurantza eta egonkortasuna ditu maite: etxera iritsi eta ohiko zarata domestikoak entzun, bere geografia osatzen duten elementu guztiak, okinarekin eguneroko hitzaspertua bezalakoak ere barne, beti bere tokian eta aldagaitz egon daitezen du laket. Berrikuntzak desasoseguan eta ziurtasun faltan bertakotzen du, eta betirako direlako sentipena gezurrezkoa dela sentiarazten. Jendea engainatua bizi da engainatua bizi nahi duelako: erosoagoa da, lasaigarriagoa. Lapurtzen ez duen politikari zintzoak eta egia beste ezeren gainean ezagutu eta ezagutarazi nahi duen mito-apurtzaileak, horra hor jendea gorrotoraino beldurtzen duten bi espezieak. Esaiezu haien patroia kalbinista zela, eta erre egingo zaituzte plazan, batere kupidarik gabe, gorrotoz eta beldurrez. Bai, jendea halakoxea da. Eta, nire iritzia interesatzen bazaizu, jakintsuak direla uste dut: egia ez baita gezurraren beste aldea besterik, eguna gauarena den bezalaxe eta argia ilunarena. Biak dira elkarren osagarri, biak beharrezko. Fotosintesian bezala da:

egun argiz egiten den zatiak ez luke balioko ilunean egiten denarengatik ez balitz, eta alderantziz. Eta, esan gabe doa, fotosintesirik gabe ez legoke bizirik planeta honetan...

Herioa biziaren beste aldea den bezala, otu zitzaion Ezari. Erraza zen, azken finean. Aizak Akuilu, etzakela kezka. Biziaren bestaldean hago, besterik ez.

– Orduan, zergatik hainbeste enpeino liburua zureganatzeko?

– Hemen ongi gorderik dago. Eskurik onenetan. Oraintxe argitaratuz gero lortu nahiko genukeena ez eta aurkako efektua lortuko genuke, azaltzen saiatu naizen bezala. Gorderik edukiz gero... etorriko dira garai berriak, interesgarriagoak. Hau tutean bezala da. Badakizu tutean? Karta bakoitzak balio bat dauka, eta jokatu behar unean jokatu behar da, ez lehenago, ez beranduago. Tenore egokia noiz, eta orduantxe. Tenore hobeak etorriko dira. Partida honetan, eskuratu dugun karta hau ez da txarra, ez horixe, baina badira beste batzuk boteretsuagoak. Mezubideek, kulturaren mundua, hitza eta ezpata kontrolatzen dituzte, espezialista onak dauz-

kate, edotarikoak, azeriak, jantziak. Bilatuko lukete modua zuria beltza balitz bezala aurkezteko, maisuak dira horretan, eta jendearen asaldurak ere, baretu nahiak ere, haien alde egingo luke. Zertarako gure karta hau orain erre? Jokatuko dugu komeni zaigunean. Eta partidakideek ere badakite karta hori gure eskuetan dagoela edozein unetan joka genezakeela, eta aldagai berri hau hartu beharko dute aintzat edozein urrats eman baino lehen; horra hor gure indar berria, lehen ez genuena. Fisika terminoetan ere esplika daiteke: energia zinetikoa da abiadurarena, baina energiaren agerpen zinetiko hori egon dadin aurrez energia potentziala behar da izan. Liburua, une honetan energia potentziala da, indarberritu egin gaitu.

– Eta jendeak? Ez al du jakiteko eskubiderik?

– Bai.

– Orduan?

– Jende guztiak?

– Jende guztiak.

– Orain, ez. Bere garaian, bai. Informazioa gutxi batzuentzat da. Jende guztiarentzat mitoak daude.

Eguraldi tristeak kotoi zikinezko hodeiez zamatzen zuen pagadia; halaxe Ezaren barnea. Egozkue ez zuela sekula gehiago ikusiko otu zitzaion.

– Historia honetan zehar denetarik ezagutu dut: *à la page* egotearren ama salduko luketen morroiak, sekula eduki ez duten omenezko ohorearengatik matxinatuko liratekeen barregarri arriskutsuak, haiek ez dutela sekula lerrokada batean itxoin beharrik inora sartzeko demostratzearren aita salduko luketen makarrak, dirugose patologikoak, hiltzaile ankerrak, antologia batean gaizki emango ez luketen zinikoak... lehen edo beranduago denen mozorroa erori da, eta benetako sena ageri. Hala zurea: Bartolo Egozkue, zu ere inkisidorea zara.

– Eta zu gizondu nahi ez eta sekula helduko ez den pailazo zorigaiztokoa, gizateriaren erdia beste erdiaren aurkako borrokan behar duena ispiluak egunero aurrez aurre jartzen dion gaztetasunaren joana atzendu ahal izateko. Agur, Eza.

Apaizak bizkarra eman zion eta poliki urrutiratu zen komentuko aterantz, euria iragartzen

zuen haize batek sotana azpiak eraikitzen ziz-
kion bitartean.

–8–

Balizko oilar batek izara azpian kausituko zituzkeen goiz hartan. Balizko oilar horrek kantuari lotu baino dezente beranduago esnatu ziren, ordea, gauak hainbat laino gaizto eraman eta, horren ordez, pena eta ihintzaz arrosatutako kimu bana utzirik.

– Berrogeita bost urte ditut. Ez naiz aberatsa. Ez nago Gizarte Segurantzan alta emanda. Ez dut jubilazio planik ordaintzen. Nire ezpainetan betiko maiteko zaitut batek egiantza handiagoa dauka zureetan baino.

– Betirako maitasunaren izenean egiten den promesa da, hautsiz gero, barkamena merezi duen bakarra.

– Ilusio hiltzaile hau beldur da ilusioa hilko dioten.

– Bizi osorako agintzen den maitasuna egun bakarrean, aste betean, urtean, hainbestean zimurtzen da. Horrelakoa da bizitza eta ez da sekula bestelakoa izango.

Arropa tropoiluan zetzan aulki gainean, eta denaren buruan hainbat bidai ajentziaren iragarkiak eta paperak ikusten ahal ziren. Hilabete batzuen buruan desagertzeko aholkua eman zieten, aholku bat baino gehiago ere bazela argi aski erakusten zuen moduan. Gastuak Fundazioaren kontura ziren.

– Nora joango gara?

– Ez dakit. Nire zorra ordaintzen ahal dudan toki batera. Gibel bat zor diot Fideli.

– Kubara, orduan?

– Kuba, Kuba... Kuba ez da Havana Club edaten ahal den toki bakarra, eta iraultzak nire gibela behar du; ez nire besoa, burua, edo mihia, ezta nire argazki-makina ere. Gibela, besterik ez –besoak gurutzatu zituen buruaren atzean, eta pentsakor gelditu, sabaiari begira–. Edonola ere, ardorik ez dagoen toki batera.

–9–

Bad-Marinberg herrixka ezaguna da Alemania osoan bere ur beroen bainuengatik, eta giltzurrinarentzat bereziki onak diren metal-urengatik; laborariak eta abeltzainak badira, baina, garapen industrial handiko herrialdeetan gertatu ohi den gisara, lehen sektoreko lan hauek hain daude mekanizatuta eta antolatuta non guztiz usain eta kolorerik gabeak baitira, eta herrixkak gehiago dirudi hurbil Frank furt-eko funtzionarioentzako etzantokia –hori ere bada–, laborari herria baino, hain da apaina eta txukuna, zelai zabal berde ilun eta muino arinen arteko teilatu gorridun familiabakarreko etxebizitzekin. Bakea eta baretasuna alderdi orotik arnasten dira. Jantzi enpresa batek ere han dauka bere egoitza eta ekoizpen-planta garrantzitsuenetakoa, non enpresaren ekoizpenaren erdia bukatzen den hamar mila metro karratuko fabrikatxo ederrean. Ekoizpen handikoa –bere sailean hirugarrena edo laugarrena Europan– izanik ere, hamabost langile nahikoa da hango lanari aurre egite-

ko –hogeita bi administrazioa ere kontuan hartzen badugu–, errobotak eta edotariko tresneria benetan sofistikatua baita. Konparazione, enpresaren beste bi fabriketan –bata Asian, nonbait hor dagoena, eta bestea Polonian–, berrehun baino gehiago pertsonak lan egiten dute beste produkzioaren erdia egiteko. Bietako edozeinek, Asiakoak batez ere, han egotera, apurtuko zuen inguru hartako bakea, bere zarata eta usainekin. Baina Bad-Ma rinbergekoa perfektoa da, eta ez dio ezertan ere kalte egiten enpresak ohoretzat erakusten, saltzen duen familia itxurari.

Urberoaga denez, badira, nola ez, lau edo bost hotel, antzinakoak baina ez zaharkituak, diskretoak baina ez erosotasunik gabeak, urki eta izeien artean erdi ezkutuan ezagutzen ez dituenaren begiarentzat, lorategi handidunak eta guztiz konfiantzazkoa den zerbitzua daukatenak. Bada, horietako hotel bat da Hans Klaus Hoffman-ek, Alemaniako Kultur Ministerioko goi funtzionaria, urtero emaztearekin astebetea pasatzeko aukeratzen duena. Hoffman bosgarren eguneko goizean aurkitu dugu, bere emaztearekin gosaltzen, aurrez aurre. Hogeita zortzi urte

dira ezkondu zirenetik, seme eta alaba badituzte, biak lanean eta ezkondurik, eta bosturteko batzuk ezkero ez diote nobedade askorik elkarri kontatzeko. Aste hartan, dena mila bider burura eramandako erritual baten arabera garatu da, bosgarren eguneko gosarirako solaserako posibilidadeak aise agortu dituen betiko erritualaren arabera, gehienera jota oso laugarren edo bosgarren mailako gauzez aritzeko zirrikitua uzten duena. Gosaria benetan ugari eta bariatua denez, Hoffmandarrek, bereziki xuhurrak ez izanik ere, nahiago izaten dute sabela ongi bete golosina haiekin guztiekin, gosariak afaldu arte ezer jan gabe aise iraunaraziko baitie. Usu bosgarren eguneko gosarian ez diote ezer esaten elkarri. Egun hartan ere ez, harik eta Hoffman andreari, ogi errearen artean xingar puska bat jartzen zuelarik, gogoeta bitxi samar bat otu zitzaion arte, logure ahotsaz galdetu ziola senarrari:

– Hans, zer gertatu zen azkenik Espainiako bidaia hartan?

Hoffmanek begi zeharkaz egiaztatzen zuen kafea beroegi zegoela oraindik, eta laranja

zukua bukatzea nahiago izan zuen, emazteari arrapostu baino lehen.

– Badakizu ez naizela topikozalea, Anke. Eta, hala ere, espainiarrekin topiko guztiak egia suertatzen dira: desordenatuak dira, puntualitaterik gabeak, nagiak, seriotasunik gabeak, bazter-nahasleak...

– Eta liburua?

Hoffman pentsakor gelditu zen une batez, zer liburuz ari ote zen jakingo ez balu bezala.

– A, liburua! Ez naiz gehiegi gogoratzen... A, bai, liburu hura... Benetan estrainoa, liburua. Alde batera autentikoa zirudien, baina beste aldera, hain zen estrainoa... Eskutik kendu zidaten ezer egin ahal baino lehen, eta gero desagertu zen, galdu egin zitzaien, edo halako zerbait, esan dizudan bezala hain ziren desordenatuak eta bitxiak espainiar haiek. Liburua, liburua... ez nuke jakingo zer esan liburuaz; izan ere, hain zen, nola adieraziko nizuke, arraroa, bitxia... Eta garai hauetan hainbeste iruzur egiten denez...

Eta berehala isildu zen, beste zeregin garrantzi handiagoko batek deitua; izan ere, kafea hozten ari zitzaion.